# PROSA KOMUNIKAGARRIAGO EGITEN

## ZENBAIT PROPOSAMEN (I)

Mitxel **Kaltzakorta Mentxaka**

Udako **Euskal Unibertsitatea**

# Prosa komunikagarriago egiten.

## Zenbait proposamen (I)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2007

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

ISBN: 978-84-8438-109-9
Lege-gordailua: BI-3829-07

Inprimategia: CUATROAS, Bilbo
Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

*Gurasoei (Zesareo eta Angela)*

# Aurkibidea

**SARRERA** . . . . . **7**

**UNITATEAK (Teoria-ariketak)** . . . . . **13**

SARRERA . . . . . 15

1. UNITATEA (*-T(z)eko* osagarria izen atzera) . . . . . 17

2. UNITATEA (P. konpletiboa aditz atzera) . . . . . 29

3. UNITATEA (Erdarazko partikula kausal batzuk) . . . . . 45

4. UNITATEA (Gerundio mota bat) . . . . . 61

5. UNITATEA (*-Ko* atzizkia sintagma batzuetan) . . . . . 75

6. UNITATEA (*-Ko* atzizkia postposizio batzuetan) . . . . . 89

7. UNITATEA (Erlatibo mota bat izen atzera) . . . . . 103

8. UNITATEA (Erlatiboa zehar-galdera bihurtu) . . . . . 121

9. UNITATEA (Erlatiboa erakusle atzera) . . . . . 131

10. UNITATEA (Erlatiboa izen propio atzera) . . . . . 149

11. UNITATEA (Aposizio mota bat atzera) . . . . . 177

12. UNITATEA (Galdegaia aditz ostera ere) . . . . . 199

13. UNITATEA (Ariketak nahasian) . . . . . 253

**SOLUZIOAK** . . . . . **265**

SARRERA . . . . . 267

1. UNITATEA (*-T(z)eko* osagarria izen atzera) . . . . . 268

2. UNITATEA (P. konpletiboa aditz atzera) . . . . . 273

3. UNITATEA (Erdarazko partikula kausal batzuk) . . . . . 277

4. UNITATEA (Gerundio mota bat) . . . . . 281

5. UNITATEA (*-Ko* atzizkia sintagma batzuetan) . . . . . 293

6. UNITATEA (-*Ko* atzizkia postposizio batzuetan). . . . . 299
7. UNITATEA (Erlatibo mota bat izen atzera) . . . . . 305
8. UNITATEA (Erlatiboa zehar-galdera bihurtu) . . . . . 313
9. UNITATEA (Erlatiboa erakusle atzera) . . . . . 317
10. UNITATEA (Erlatiboa izen propio atzera) . . . . . 333
11. UNITATEA (Aposizio mota bat atzera) . . . . . 349
12. UNITATEA (Galdegaia aditz ostera ere) . . . . . 367
13. UNITATEA (Ariketak nahasian). . . . . 373

**1. ERANSKINA . . . . . 401**

**2. ERANSKINA . . . . . 417**


**BIBLIOGRAFIA . . . . . 419**

# Sarrera

## *1. HELBURUAK*


Zehaztu dezagun zer helburu dugun nagusiki liburu honetan, lehenengoa sail batean: euskara erraztu gura dugu, arindu, komunikagarriago egin; zeren ezin zamatuago baitarabilgu alperrik, askotan nekez irakurtzeraino albo-erdaren aldean (gaztelania, frantsesa, ingelesa). Baina alperreko karga horren azterketa mugatu gura dugu perpaus hutsetara; zehatzago esateko, aldizkari-egunkarietan, artikuluetako hasiera-perpausetara, lehenengo perpausetara, titular baten ostean emanak, alegia, testuinguru jakinean.

Esan dugu alperreko kargaz darabilgula euskara; edo, bestela esateko, atzerakargaz. Hona hemen zer ulertzen dugun alperreko karga edo atzerakargatzat perpaus barruan: desegoki sekuentziatzea osagai bi, zehatzago esateko, informazio-osagarri bat alperrik erabiltzea informazio-gunearen aurrean, oztopo egiten duela ondo eta erraz irakurtzeko (beraz, arazo informatiboa). Esanikoa irudiz adierazirik, ondoko sekuentzia motek eragiten dute atzerakarga:




Lehenengo paragrafoan esan dugu hasiera-perpaus hutsak ditugula aztergai. Horrek esan gura du atzerakarga aztertuko dugula perpaus barruan, eta berton osagaiak, oro har esateko, mota bitakoak daude: osagai-guneak (aditza eta izena dira gehienetan) eta elementu edo osagai osagarriak (hauek osatzen dute guneen informazioa).

Beraz, eta kontuan hartuta osagai-gune bi daudela nagusiki perpausean, atzerakarga mota bi jorratuko ditugu. Batean gunea aditza da eta bestean izena:





Baina nor edo nork galde lezake zer daukan txarrik osagaien ordena horrek. Informazioaren banaketa horrexek eragiten du nekezago prozesatzea informazioa, betiere beharrizan barik badago atzera(tuta) osagarria, testuinguruak eskatu barik. Hona hemen adibide batzuk, non lehenengoa lehen atzerakarga motakoa den eta

besteak bigarrenekoak (beltzez adierazita daude informazio-guneak; letra etzanez eta kortxete artean informazio osagarriak):

– Neure burua ondo jagon ezik, [*gehienez hiru urteko bizia daukadala*] **esan dit** medikuak
– Atzo [*Arranondoko alkatea den eta Alderdi Komunistako burua den*] **Jon Mena** zauritu egin zen auto-istripu batean
– [*Paris ez eze Londres ere bisitatzeko*] itzelezko **gogoa** daukat
– Atlhetic-ek [*orain dela hogei urteko*] **liga** irabazi zuen
– Atzo [*Bilboko*] **Euskaldunan** izan nintzen

Liburu honetan proposatu gura dugu atzerakargaren eskema (osagarria + GUNEA) atzekoz aurrera ematea (GUNEA + osagarria). Honela:




Hona hemen gure PROPOSAMENA berbaz adierazirik:

> Informazio-gune batek (izena edo aditza) osagarri bat badauka aurrean alperrik kokatuta, testuinguruak eskatu barik, eta hori dela-eta, behar baino nekezago irakurtzen bada perpausa, zergatik ez erabili osagarri hori gune atzean, eta horrela irakurketa egin errazagoa, arinagoa?

Agerian dagoenez, problema hau ez da gramatikala, ez dauka zerikusirik gramatikarekin, marapilo informatiboa da. Beraz, arazo informatibo jakin bat daukagu helburu nagusitzat aztergai liburu honetan. Bestalde, ez ditugu arazo informatiboak bakarrik konponduko; badugu arazo gramatikal bat edo beste helburu sekundariotzat.

Argitu gura genuke liburu honen beste ezaugarri bat. Gorago adibide batzuk eman ditugu desegokiak (eta hobetu beharrezkoak). Liburuon, ariketa batzuk artezten edo zuzentzen ditugu modu bakarrean (gehiagotan ezin daitezkeelako, guk uste), baina gehien-gehienak modu batean baino gehiagotan.

Ariketa batzuetan, atzerakargak arintzeko, alperreko osagarriak pasatzeko gunearen ezkerretik eskumara, erabiltzen ditugu baliabide bat baino gehiago: hasi ahozkoetatik (batez ere *eta* juntagailua) eta baliabide jantzietarainokoak (*zein…bait-/-(e)n*, *non…bait-/-(e)n*, *ezen…-(e)la*...), irakurleari erakusteko hainbat eta hainbat egitura zurrun eta kargante artez daitezkeela hainbeste modutara.

Beste ariketa batzuetan, inportantzia handia ematen diogu berba-hurrenkerari, hitz-segidari; eta oraingo prosan sintagma asko alperrik daudenez josita *-ko* atzizkiarekin, erakutsi gura dugu sintagma franko ebaki daitezkeela, moztu, eta sintagma bakarretik atera bi edo hiru.

Laburbiltzeko, esan dezakegu helburu bi ditugula:

1. Informatiboa (helburu nagusia)
2. Gramatikala (helburu sekundarioa)

Lehenengoan proposatzen dugu hasiera-perpausetan informazio osagarria erabiltzea informazio-gunearen atzean (beharrizan barik dago-eta aurrean) errazago prozesatzeko informazioa, eraginkorragoa egiteko komunikazioa. Bigarrenean proposatzen dugu arazo gramatikal batzuk zuzentzea.

## *2. ZELAN DAGOEN ERATURIK LIBURUA*

Liburuak, ohiko sarrera eta bibliografiaz gain, apartadu bi dauzka garrantzitsuak:

– UNITATEAK (Teoria-ariketak)
– SOLUZIOAK

Apartadu bata zein bestea 15 unitatez dago osatuta, eta eurotan (azter)gai bana lantzen da. Hona hemen unitateok eta bakoitzaren tituluak:

1. *-T(z)eko* osagarria izen atzera
2. Perpaus konpletiboa aditz atzera
3. Erdarazko partikula kausal batzuk
4. Gerundio mota bat
5. *-Ko* atzizkia sintagma batzuetan
6. *-Ko* atzizkia postposizio batzuetan
7. Erlatibo mota bat izen atzera
8. Erlatiboa zehar-galdera bihurtu
9. Erlatiboa erakusle atzera
10. Erlatiboa izen propio atzera
11. Aposizio mota bat atzera
12. Galdegaia aditz ostera ere
13. Ariketak nahasian

Unitateotan, azkena berezia da, ebaluazioa da-eta. Berton ez da gai berezirik jorratzen, baina berrikuste ona ematen zaie aurreko unitateetan landuriko aztergaiei, ariketak eta ariketak proposatuta nahasian aztergaien ezagutza ebaluatzeko.

UNITATEAK apartadu guztietan hiruna atal daude:

– 1. TEORIA
– 2. ADIBIDEAK
– 3. ARIKETAK

Lehenengo atalean, oro har, aurkezpen teorikoa egiten dugu zer problema edo aztergai jorratuko dugun eta zer soluzio daukan. Bestalde, adibide bat edo beste hartuta, erakusten dugu zertzuk urrats egin behar diren konpontzeko eta zeintzuk baliabide ditugun.

Bigarren atalean, 2. ADIBIDEAK izenekoa, adibide batzuk ematen dira, unitateko problematika bera dutenak. Kazetari-estiloan daude idatzita, ustez (hala uste dugu). Ahalegintzen gara etsenpluok konpondu edo ebazten ahalik errazen eta xeheen kazetari-estiloan edo bestelakoren batean (betiere erraz irakurriko badira), horretarako dakizkigun baliabide guztiak erabilita, ahozkoak zein idatzizkoak.

Bigarren atal hau, nahiz eta lehenengoaren ostean egon eskeman, proposatzen dugu hirugarren atalaren ondoren lantzea, hau da, ARIKETAKen ostean. Izan ere, ADIBIDEAK atal honetako adibideetan, nahiz eta, esandako moduan, unitatean unitateko marapiloa askatu behar, badira beste problema batzuk ere, adibidetik adibidera ezberdinak eta landu bakoak unitateetan, eta horrexegatik, beharbada, penazak batzuentzat.

Hirugarrenean, 3. ARIKETAK izena duenean, lehenengo eta bat adibide bat aurkezten da, eta (1. TEORIAn egindako moduan, eta haren indargarri) erakus-ten da zelan arteztu edo zuzendu, zer metodologia erabili, zertzuk pauso eman eta zeintzuk baliabide dauden (urratsok egiten ditugu adibide konplexuetan bakarrik). Hori guztiori egiten da irakurleari laguntzeko konpontzen ondoren datozen ariketak. Hamahiru unitateetatik hamabitan 15na ariketa aurkezten dira, eta beste unitatean, 13an, 60 ariketa. Denetara 240 ariketa, gai bakoitzeko 20.

Unitate gehienek aitaturiko hiru atalok dituzte, baina 12. eta 13. unitateek ez, horiek beste egitura bat daukate.

SOLUZIOAK apartaduari dagokionez, berton konponduta edo ebatzita daude ariketa guztiak (240 guztira), eta ariketa gehienetan ematen dira hainbat irtenbide (sakonago bertako sarreran).

Beti-edo sortu ohi da ustebakoren bat, eta guri ere halaxe gertatu zaigu: apartadu berezi bat sortu dugu, ERANSKINA izenekoa. Berton aposizio kontuak ageri dira; izan ere, hiru-lau unitatetan hainbat aztergai edo problema konpontzera-koan, aposizio bidez konpondu behar izan ditugu. Baina aposizio mota bi dagoenez (aposizio komunztaduraduna eta aposizio komunztadura bakoa), bataren alde egin dugu, bestea albo batera utzita[1].

1. Honaino irakurriz gero, nor edo nork itaun lezake zergatik hautatu ditugun unitateetako aztergaiok eta ez beste batzuk? Edo zergatik 13 unitate eta ez gehiago (edo gutxiago)? Zergatik hasiera-perpausak soilik, eta ez testu osoak? Zergatik ematen dira adibide bi soilik konponduta unitate batzuetan (2. ADIBIDEAK apartaduan), eta lau edo sei beste batzuetan? Liburu hau ez dago argitaratuta hasieran pentsatutako moduan, eraz dago aldatuta, formaz. Lehendabiziko liburu honetan

Batek baino gehiagok pentsatuko du liburu hau norentzat ote dagoen eginda, zelako irakurleentzat. Eskaintzen badugu bidea zelan arindu euskara, argi dago, guk uste, jakingarria gerta dakiokeela edonori, egiten badu irakatsi (eskola- eta euskaltegi-irakasleak), idatzi edo itzuli.

Liburu hau dela-eta, esker asko daukat nori eman. Batez ere, Izarra Gonzalezi eta Laura Mintegiri, zeintzuk asko ere asko inplikatu baitira liburuon, gogoz eta adorez inplikatu ere. Ez dauzkat saltzeko Luis Mari Larringan eta Josune Herrarte ere, zeintzuek ohar estimagarriak egin baitizkidate. Jakina, liburu honek akatsik badu, errua ez dute aitaturiko pertsonok, ezpabere egileak.

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka
Lekeition, 2007an, irailaren 19an

lehenengotan pentsatu genuen erakustea irakurleari zelako kargantea den, nekez irakurtzekoa, gaur eguneko prosa, eta horretarako, iritzira hartu genuen *Berria*tik ehunen bat hasiera-perpaus, eta ez testu zatiak edo osoak (gerorako utzita), eta ahalegindu ginen konpontzen normal-normal irakurtzeko (auzo-hizkuntzetan besteko erraz). Horra hor zer proposamen geneukan hasieran, eta hezurmamitu ere egin genituen 100 adibideok. Geroago, hari-honi galdetuta, pentsatu genuen komeniko litzatekeela beste ehunen bat hasiera-perpaus ematea ariketatzat, bakoitzari sarrera bat eginda marapiloa askatzen laguntzeko. Baina usteak ustel atera ohi dira askotan, eta beste arrazoi batzuk direla bide, liburuari eman genion une honetan daukan formatoa, baina ondo aprobetxatu genituen ebatzita geneuzkan 100 hasiera-perpausak: mehaztu on bat egin genuen eta hautatuak 11 aztergai banatan bildu, beste hainbat unitatetan lantzeko. Hasiera-hasieratik pentsatuta geneukan eranskintzat ematea 3 artikulu —argitaratuak— galdegaiaren gainean, eta horiek gerora osatu zuten 12. unitatea (ariketa eta guzti). 13. unitatea (errepasoa) harrezkero etorri zen.

# Unitateak

(Teoria-ariketak)

# Sarrera

Badakigu 13 unitate landu behar ditugula. Gomuta dezagun zeintzuk:

1. -*T*(*z*)*eko* osagarria izen atzera
2. Perpaus konpletiboa aditz atzera
3. Erdarazko partikula kausal batzuk
4. Gerundio mota bat
5. -*Ko* atzizkia sintagma batzuetan
6. -*Ko* atzizkia postposizio batzuetan
7. Erlatibo mota bat izen atzera
8. Erlatiboa zehar-galdera bihurtu
9. Erlatiboa erakusle atzera
10. Erlatiboa izen propio atzera
11. Aposizio mota bat atzera
12. Galdegaia aditz ostera ere
13. Ariketak nahasian

Unitate guztiek hiruna atal dituzte:

1. TEORIA
2. ADIBIDEAK
3. ARIKETAK

Teorian bertan sartu aurretik, unitate guztietan, aurrerengo orrialdeetan, aurkezpentxo bat egiten da, lehenengo, adierazteko zelako problema konpondu behar den eta zelako soluzioa duen; bigarren, termino-zerrenda bat ematen da pertinenteenak unitatean. Ondoren, 1. TEORIAn bertan sartuta, lehenik, ematen dugu gutxieneko teoria aztergaiaren inguruan, zer problema konpondu behar den; bigarrenik, eskaintzen dira zeintzuk konponbide edo irtenbide dauden; eta, azkenik, etsenplu bat-edo hartuta, erakusten da zelan konpondu (urratsok adibide gaitzetan egiten dira bakarrik).

Bigarren atalean (ADIBIDEAK), adibideak eskaintzen dira, *Berria*tik hartuak, egun bitakoak (2003-12-31 / 2004-7-20), eta modu errazean ebazten dira edo konpondu. Adibideok marapilo nagusitzat dute unitateko aztergaia, baina ager daitezke beste marapilo batzuk ere, eta agertzen dira. Horiek ere askatu egiten ditugu,

nahiz eta unitateko gaiarekin ez izan zerikusirik. Bigarren atal hau uste dugu ez dela gurataez irakurri behar unitateko aztergaia ondo jorratu eta ikasteko, baina argi dago berton ikas daitekeela zelan ebatzi edo konpondu beste problema batzuk.

Hirugarren atalean (ARIKETAK), unitate gehienetan-edo, ariketak eurak egin aurretik berriro ematen diogu beste jorra bat zelan ebatzi problema, aztergaia. Hartzen dugu adibide bat-edo, eta ahalegintzen gara problema konpontzen edo ebazten ahalik eta errazen (1. TEORIAn legez), eta horretarako, prozedura bat ematen da, gero irakurleak erabil dezan ondoren datozen ariketekin.

Liburuan, hamahiru unitateetan, bik ez dituzte goiko hiru atalok: 12ak eta 13ak. Eurotan, hasieretan azalduko dugu zelan dauden eratuta.

# 1. unitatea

## (*-T(Z)EKO* OSAGARRIA IZEN ATZERA)

**HELBURUA:** Ahalik eta errazen irakurri testua, alperreko zama saihestuta.

**PROBLEMA:** Honelako egiturak erabiltzen dira gaur egun nagusiki:

*– [Itzelezko mozkorra harrapaTZEKO] gogoa daukat*

Izenak (gogoa) alperrik dauka ezkerretara *-t(z)eko* osagarria (kortxete artean), eta horrek nekezago egiten du irakurketa.

**SOLUZIOA:** Eroan dezagun osagarria aditz ostera:

*– Gogoa daukat [itzelezko mozkorra harrapaTZEKO]*

***Termino jakin beharrezkoak***

- **Mendeko perpausak** (ilargira joaTEKO, nagusiago naizeNEAN…)
- **Osagarriak** (*-t(z)eko* osagarria…)
- **Osagaiak** (sekuentzia bateko elementu edo konponenteak. Izan daitezke, osagarriak, izenak, aditzak, sintagmak, izenlagunak, determinatzaileak…)
- **Hurrenkera** (ordena, segida)
- **Juntagailuak** (*eta…*)
- **Menderagailuak** (*-t(z)eko, bait-, -(e)n...)*
- **Semaforoak** (*-t(z)eko.../*menderagailuak, juntagailuak, atzizkiak…)
- **Atzizkiak** (*-t(z)eko, -(r)ekin...*)
- **Zeinismoa** (*zein…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak. Ikus 2. eranskina)
- **Egiturak** (*zein…bait-/-(e)n...*)
- **Aurkezpen-testuingurua** (aurkezpen-egoera, informazioa berria denekoa)

### *1.1. TEORIA*

Gaur egun normal-normal ikusten dira han-hemen honelako perpausak:

– [Erroma eta inguruak ezagutzeko] gogoa daukat
– Semea [bere kasa bizitzeko] sasoian dago
– Liga honetan Athleticek [inoiz baino hobeto jokatzeko] aukera dauka

Perpausotan informazio edo osagai mota bi daude: batetik, izenak; bestetik, *-t(z)eko* osagarriak, kortxete artean:

**Izenak**
gogoa / sasoian / aukera

***-T(z)eko* osagarriak**
Erroma eta inguruak ezagutzeko / bere kasa bizitzeko / inoiz baino hobeto jokatzeko

Goiko perpausak, euretan osagaiak dauden ordenan egonda, nekagarritxo irakurtzen dira, eta gaur egun, joera gogorra dago segida horretan ("*-t(z)eko* osagarria + izena") emateko informazioa, gaztelaniaz kontrako hurrenkeran. Ikus dezagun zelako arriskugarriak izan daitezkeen perpausak komunikagarritasunaren aldetik ordena horretan emanda. Horretarako, perpaus bat hartuta oinarri, *Gogoa daukat*, gainera diezazkiogun *-t(z)eko* osagarri bat eta mendeko beste perpaus batzuk banan-banan, kortxete artean sartuta:

– Gogoa daukat
– [Ilargira joateko] gogoa daukat
– [Nagusiago naizenean ilargira joateko] gogoa daukat
– [Nagusiago naizenean eta diruz josita nagoenean ilargira joateko] gogoa daukat
– [Nagusiago naizenean, diruz josita nagoenean eta nire herriko neskarik politenarekin ezkontzen naizenean ilargira joateko] gogoa daukat

Ikusten dugunez, oinarrizko perpausari gehitu diogu, lehenengo, *Ilargira joateko*, bigarren, *Nagusiago naizenean*; hirugarren, *diruz josita nagoenean* eta, laugarren, *nire herriko neskarik politenarekin ezkontzen naizenean*. Mendeko perpausok direla-eta, adibidetik adibidera, nekez irakurtzetik nekezago irakurtzera igarotzen gara, infernua bihurtzeraino irakurketa azken adibidean. Argi dago horrela idatzita, komunikatu ez beste edozer egiten dela. Goiko perpausetan informazioaren marapiloa askatzeko, badago bide bat ezin errazagoa: eroan ditzagun mendeko perpausak izen atzera, eskumatara:

– Gogoa daukat [ilargira joateko]
– Gogoa daukat [nagusiago naizenean ilargira joateko]
– Gogoa daukat [nagusiago naizenean eta diruz josita nagoenean ilargira joateko]
– Gogoa daukat [nagusiago naizenean, diruz josita nagoenean eta nire herriko neskarik politenarekin ezkontzen naizenean ilargira joateko]

Horrela, askoz errazago irakurtzen dira perpausok. Edozein modutan, errazago irakur daitezke, kortxete barruan mendeko perpausak paratuz gero *-t(z)eko* osagarri ostean:

– Gogoa daukat [ilargira joateko]
– Gogoa daukat [ilargira joateko NAGUSIAGO NAIZENEAN]
– Gogoa daukat [ilargira joateko *nagusiago naizenean* eta DIRUZ JOSITA NAGOENEAN]
– Gogoa daukat [ilargira joateko *nagusiago naizenean, diruz josita nagoenean* eta NIRE HERRIKO NESKARIK POLITENAREKIN EZKONTZEN NAIZENEAN]

Jakiteko zergatik gaur egun erabiltzen den nagusi-nagusi "*-t(z)eko* osagarria + izena" ordena (eta ez "izena + *-t(z)eko* osagarria"), badirudi askok erabiltzen dutela ordena hori erdarazko egiturak eraginda:

– Tengo ganas [DE ir a la luna]
– [Ilargira joaTEKO] gogoa daukat

Ustea da, baina ustela, *de* bidezko osagarriak erdaraz, eman behar direla euskaraz izen aurrean, eta ekandu oker hori zabal-zabal dabil euskaraz. Adibide horiek bezalakoak ehundaka daude euskaraz. Berbarako, ikus dezagun beste adibide bat *de* bidezkoa, baina beste balio bat duena:

– He comprado una bicicleta [DE 100.000 euros]
– [100.000 euroKO] bizikleta bat erosi dut

Perpaus hori ([100.000 euroKO] bizikleta bat erosi dut) eta horrelakoak beti entzun diegu (eta irakurri besterik ez daude hor-hemen dauden ahozko testuak eta Auspoa saileko liburuak) gure zaharrei honela erabiltzen (aurkezpen-testuinguru batean badaude emanda):

– Bizikleta bat erosi dut [100.000 euroKOa]

*Ilargira joateko* eta *100.000 eurokoa* informazioak ez dauzkagu zertan erabili izenaren ezkerretara; are gehiago, baldin eta luzeak edo konplexuak badira. Edozein modutan, *-t(z)eko* osagarriek, txikerrak badira, ez daukate hainbesteko garrantzirik ezker edo eskuma erabilita:

Jateko gogoa daukat = Gogoa daukat jateko
Bazkaltzeko ordua da = Ordua da bazkaltzeko
Ez dauka idazteko ohiturarik = Ez dauka ohiturarik idazteko
Hor jausteko arriskua dago = Hor arriskua dago jausteko

Bestalde, badira *-t(z)eko* osagarri batzuk, izen aurrean ipini behar-beharrezkoak. Hona hemen adibide batzuk:

– Urliak [bizarra kenTZEKO makina bat] erosi du
– Sandiak [idazTEKO makina bat] erosi du
– Berendiak [belarra mozteko makina] erregalatu digu

Bestera esateko, kortxete barruko problematika ez da sintaktikoa, lexikala baino. Kortxete barrukoaren ordez berba bat jarriko bagenu moduan:

– Urliak [bizikleta bat] erosi du
– Sandiak [auto bat] erosi du

Edozein modutan, azkenaurreko multzoan perpaus biak erabil daitezke honela, gure euskaran behintzat:

– Urliak [makina bat] erosi du [bizarra kentzeko**A**]
– Sandiak [makina bat] erosi du [idazteko**A**]

Guk unitate honetan, hurrengo apartadu bietan (2. ADIBIDEAK eta 3. ARIKETAK), esan dugunez, ez ditugu horrelako egiturak (azkenekoak) landuko; ezpabere, gorago esan dugunez, honelakoak soilik:

– [Ilargira joateko] gogoa daukat

Eta horrelakoetan ezin daiteke, gure berbetan behintzat, erabili *-t(z)eko* barik *-t(z)ekoA*:

?? Gogoa daukat [ilargira joateko**A**]

*-T(z)ekoA* ez dugu euskaldun guztiok erabiltzen. Hartuta euskal idazle batzuk, hona hemen zeintzuek ez duten erabiltzen *-t(z)ekoA*, behintzat parentesi barruko liburuetan:

– Mogel J. A. (*Peru Abarka*)
– Axular (*Gero*)
– Tartas (*Sugearen errautsa*)
– Agirre J. B. (*Arpoi baten eran*)
– Erauskin J. R. (*Aien garaiak*)
– Salaberri S. (*Sagardotegiak*)
– Barandiaran B. (*Tratabideak*)

Beste idazle hauek *-t(z)ekoA* erabiltzen dute, behinik behin parentesia barruko liburuetan:

– Beovide Crispin (*Asisco loria*)
– Iztueta J. I. (*Ez direlako aketsak*)

Bestalde, joera lar gogorra dago gaur egun *-t(z)eko* osagarrietan azken lekuan erabiltzeko aditza eta semaforoa (*-t(z)eko* atzizkia). Esaterako:

– Urliak ohitura dauka [astero 100 euroren okela eta 200 euroren arraina JATEKO]

Horrelakoak, ahoz zein idatziz (euskara batutik kanpo), honela-edo erabili ohi dira (*aditz-menderagailua* blokea kokatuta lehenengo edo bigarren lekuan):

– Urliak ohitura dauka [astero JATEKO 100 euroren okela eta 200 euroren arraina]

Hurrengo batean frogatuko dugu datu bidez, horrelako adibideak arruntak direla ahoz eta idatziz. Baina aurreragarri, hona hemen J. A. Mogelen adibide batzuk *Peru Abarka*tik jasoak (ahaleginak egin ditugu adibideok euskara batuan ipintzen):

– Ez daukat etxe bat baino. Bizkaiko foruak ematen dit eskubidea [hautu**TZEKO**(hautatzeko) zuen arten gura dudana neure oinordekotzat]. (Dialogo III, 69. or.)
– (…) neskatila honek atzeratu zuen gorputza, baina bai prestatu bere besoa [ema**TEKO** belarrondo hain sendo eta zolia], zeinda ikaraz eta uste bagako(bako) esku ezartzea, jausi zen behera; (Dialogo III, 68. or.)
– Bildurrik ez baluke galduko duela etxaguntza, burukomin eta atsekabe asko eman diezaiekete gurasoei; baina hauek daukatenean eskubidea eta aukera [ema**TEKO** gura duenari seme-alaben artean, ekarri eragingo diete lotsa, eta gordeko dira dongaro bizi izatetik. (Dialogo III, 69.-70. or.)
– Ez dugu etxetik irteten ezeren bila; usoak hazten ditugu hemen, ez geuk jateko, ezpada [eroa**TEKO** hartu-emana daukagun handiko edo abadeen etxera]. (66. or.)

Horrelako adibideak, mordoa darabil Mogelek *Peru Abarka*n. Beste idazle batzuetan ere topa daitezke, eta zer esanik ez, ahozko testuetan.

Mogelek berak osterantzeko adibideak ere ematen ditu: batetik, osagarri laburrak menderagailua (*-t(z)eko*) dutenak amaieran; bestetik, osagarri laburrak menderagailua dutenak ez hasieran ez amaieran, tartean:

– … eta zabaldu zituen besoak [laztanen bat egi**TEKO**]
– Lau behi; bi uztartzekoak (…); beste biak [umeak haz**TEKO** nekatu baga(barik)]

– Jakin izan balu Marija nire emazteak [etor**TZEKO**] zinela zu…
– Gizonezkoek hazten zuten ileak [lepotik behera ezar**TZEKO**]

Argi dago *-t(z)eko* osagarria luzea bada, Mogelek hasieran jartzen duela menderagailua (eta aditza), eta laburra bada, atzera daroala. Gauza bera egiten dute beste idazle batzuek ere, baita hiztunok ere.

Bada beste puntu bat ere azterkizun. Testuinguru jakin batzuetan ezin daiteke "*-t(z)eko* + izena" sintagma erabil

*[Sexua euskaraz gozatzeko gogoa]
*[Sexuaz gozatzeko gogoa]
*[Gozatzeko gogoa]

Derrigor-derrigor erabili behar da iruntzitara, "izena + *-t(z)eko*" sekuentzia, sintagma bitan:

Gogoa (…) [sexua euskaraz gozatzeko]
Gogoa (…) [sexuaz gozatzeko]
Gogoa (…) [gozatzeko]

Hurrengo batean oratuko diogu berriro gai honi.

Laburbil dezagun zer dugun helburutzat unitate honetan: *-t(z)eko* osagarriak alperrik daude emanda izenaren ezkerretara (goian adieraziriko salbuespenak kenduta), eta proposatzen dugu izenaren eskumatara paratzea, komunikagarriago egiteko perpausa, errazago irakurtzeko.

Inork gura badu informazio gehiago gai honen gainean, *Hizpide* aldizkarian dauka, 59. zenbakian, "Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi" (41.-42. or.) artikulu jakingarrian, Bittor Hidalgok idatzia. Xabier Alberdik ere informazio polita ematen du *Euskal estilo libururantz* liburu interesgarrian (98.-101. or.).

### *1.2. ADIBIDEAK*

Hurrengo adibideetan *-t(z)eko* osagarriak agertzen dira den-denetan, eskumatara dutela izenen bat. Baina adibideotan beste egituraren batzuk ere ageri dira, adibidean-adibidean ezberdinak. Gu ahaleginduko gara problema guztiak ebazten edo konpontzen. Has gaitezen adibideak banan-banan garantzen, aletzen.

1.2.1.

**Urtezahar**

Urduri dabil bi mila eta hirugarrena, ez baitzaio geratzen urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko astirik. (B, 2003-12-31, 7. or.)

Hor, perpaus kausal azalpenezkoa:

– (…), ez baitzaio geratzen urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko astirik

luzeegia da, eta nekagarria egiten du perpausaren irakurketa; izan ere, izena (*astirik*) du aurretik eta *-t(z)eko* osagarri luzea atzetik. Zergatik ez eroan aurrera *astirik*; edo, bestela esateko, atzera *-t(z)eko* osagarria?

– (…), ez baitzaio geratzen [astirik] [urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko]

Txerta dezagun perpaus kausal azalpenezko hori perpaus osoan:

– Urduri dabil bi mila eta hirugarrena, ez baitzaio geratzen [astirik] [urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko].
– Urduri dabil bi mila eta hirugarrena, ez baitzaio [astirik] geratzen [urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko].

Aldaera horiek askoz errazago irakurtzen dira jatorrizko perpausa baino. Ontzat eman daitezke, baina nahi izanez gero, arin daitezke, errazago eman. Horretarako, ahozko estrategia bat erabiliko dugu, *-t(z)eko* osagarrian aurrera eroanda aditza (*saldu*) eta semaforoa (*-t(z)eko* atzizkia), biak: *saltzeko*. Honela:

– Urduri dabil bi mila eta hirugarrena, ez baitzaio geratzen astirik [*saltzeko* urtebetez pilatutako ondasun urriak].

Badakigu aditza eta semaforoa, biak batera (*saltzeko*) aurreratzea ez dela gehienen gustukoa, baina arrunta da ahoz zein idatziz (idazle klasikoetan, Cardaveraz aurrekoetan batez ere). Gainera, ikusi ditugu Mogelen adibideak 1. TEORIA apartaduan, eta ez litzateke egon behar aitzakiarik aurreratzeko. Horrela, arindu egingo genuke alperreko karga euskaran, eta itzelezko mesedea egin irakurleari.

1.2.2.

**Herrialde katalanak:**

Hizkuntzaren Aldeko Elkarteen Koordinakundeak (CAL) katalana hizkuntza ofizial bakartzat izendatzeko dei egin zuen. (B, 2003-12-27, 20. or.)

Perpaus hori ez da nekez irakurtzen, baina normal-normal egin nahi bada, nahiko da atzera eroatea *-t(z)eko* osagarria (*katalana hizkuntza ofizial bakartzat izendatzeko*). Ipin dezagun aditzaren atzean, azkeneko lekuan:

– Hizkuntzaren Aldeko Elkarteen Koordinakundeak (CAL) [dei] egin zuen [katalana hizkuntza ofizial bakartzat izendatzeko].

Ondo dago, baina gura izanez gero, bada beste aukera bat, aurrera eroanda, ezkerretara, azkeneko kortxetean aditza (*izendatu*) eta semaforoa (*-t(z)eko* atzizkia), biak batera (*izendatzeko*)

– Hizkuntzaren Aldeko Elkarteen Koordinakundeak (CAL) [dei] egin zuen [katalana *izendatzeko* hizkuntza ofizial bakartzat].

1.2.3.

**Tolosaldeak harrapatuko zaitu**

Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko gidaliburu bat argitaratu berri dute, familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin (B, 2004-7-20, astialdia, 03. or.).

Hor, informazio luzenga (eta itxuraz osagarri bakar) batek eragozten du, besteak beste, normal-normal irakurtzea:

– Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko gidaliburu bat

Baina hori erraz konpontzen da koma bat jarrita *-t(z)eko* osagarriaren ostean:

– [Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko], gidaliburu bat

Komaren kontu hori perpaus osora eroanda, hau honetara geratzen da:

– Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, gidaliburu bat argitaratu berri dute, familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin.

Hor azken partea (*familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin*) errazago para daiteke zati bi eginda:

– Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, gidaliburu bat argitaratu berri dute, 39 ibilbiderekin familia osoak egiteko modukoAK.

Testu horretan aditz nagusiaz gainera (*argitaratu berri dute*), bi informazio mota daude:

1. Informazio gunea: gidaliburu bat
2. Bestelako informazioak, osagarriak
   2a. *Zertarako*: eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko
   2b. *Zelakoa:* familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin

Pentsa daiteke, informazio motok (Gunea-osagarriak (zertarako-zelakoa)) ezin badira errazago eman, orduan perpausa ondo dagoela, zuzenketak eginda daudela. Gehienik ere trukaketa bat egin daiteke informazio moton artean. Konparaziorako:

– Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, ETA [familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin].

– Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, ETA [*39 ibilbiderekin* familia osoak egiteko modukoAK]

Aldaera horiek (*eta* juntagailua txertatu dugu), guk uste, jatorrizkoa baino errazago irakurtzen dira. Beste leku-trukaketa bat ere egin daiteke:

– Gidaliburu bat argitaratu berri dute, [familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin], eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko.
– Gidaliburu bat argitaratu berri dute, [*39 ibilbiderekin* familia osoak egiteko modukoAK]**,** eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko.

Azken aldaerok, *eta* juntagailu bakook, guk uste, aiseago irakurtzen dira jatorrizko perpausa baino. Badago beste bide bat ere, jantziagoa, zeinismoa deitua (*zein…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak):

– Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, ZEINAK 39 ibilbide BAITitu familia osoak egiteko modukoak.
– Gidaliburu bat argitaratu berri dute, ZEINAK 39 ibilbide ditueN familia osoak egiteko modukoak**,** eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko.

Zeinismoaren ordez erabil daiteke, gura izanez gero, *bait-* menderagailu hutsa. Amaitzeko, hona hemen beste bide bi, batzuentzat beharbada gustukoagoak (*-(r)ekin* atzizkia kenduta eta ordainetan *ditu(eNA)* paratuta):

– Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, ETA 39 ibilbide *ditu* familia osoak egiteko modukoak.
– Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, 39 ibilbide *ditueNA* familia osoak egiteko modukoak.

### *1.3. ARIKETAK*

Orain arte, aurreko apartaduan, 2. ADIBIDEAKen, agertu zaizkigu *-t(z)eko* osagarriak ez eze baita bestelako egiturak ere, eta denak ebatzi ditugu. Orain puntu honetan, 3. ARIKETAKen, perpausetan *-t(z)eko* osagarriak agertuko zaizkigu bakarrik, eta ariketok sailkatuta daude errazetik gaitzagora.

Gomutan izan, irakurlea, zelako egitura dagoen zuzenkizun hurrengo ariketetan:

[*-t(z)eko* osagarria] + [izena] —— [izena] + [*-t(z)eko* osagarria]

Hurrengo ariketak multzo bitan banatu ditugu zailtasun aldetik, kontuan hartuta zelan dagoen osatuta informazioa *-t(z)eko* osagarrian:

*-t(z)eko* osagarrian osagai bakarra dago
*-t(z)eko* osagarrian osagai bat baino gehiago dago

Ariketa bakoitzaren azpian eskema bat ematen da jakiteko zelan konpondu edo ebatzi ariketa. Eskema horretan kortxete barruan agertzen da egitura aztergaiko izena eta *-t(z)eko* osagarria. Eskemok ematen ditugu lehenengo ariketetan eta azkenaurrekoan. Has gaitezen lehenengo multzoko ariketak egiten, eta eurotan *-t(z)eko* osagarria dago osagai bakarrez osatuta.

1.3.1.

**Animalia exotikoek jendearen jakin-mina piztu zuten**

Morgako azokan, llamak, kanguru zuriak edota mapatxeak ikusteko aukera egon zen

Morgako azokan [aukera] egon zen [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.2.

**Informazioaren erabilera dela eta**

Egun hauetan zenbait argazki ikaragarri ikusteko aukera izan dugu.

Egun hauetan [aukera] izan dugu [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.3.

**Zenbakitan**

Lan kontuek eraginda edo, errealitatea zifretan ikusteko joera izaten dut batzuetan.

(…), batzuetan [joera] izaten dut [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.4.

**ROBERTO BAGGIO.** Futbol jokalari italiarrak zelaietara bueltatzeko eskaintza berezi bat jaso berri du.

Futbol jokalari italiarrak [eskaintza bereizi bat] jaso berri du [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.5.

**Aurrezteko gaitasuna galdu dute euskal familiek**

INEren datuen arabera, 2003. urtean Hego Euskal Herriko sendiek galdu egin dute beren irabazien zati bat aurrezteko gaitasuna.

(…) Hego Euskal Herriko sendiek galdu egin dute [gaitasuna] [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.6.

**‘Obaba’ Oscarren bidean**

Montxo Armendarizen azken filma aukeratu du Espainiako akademiak Oscar sarietarako hautagai.

Espainiako akademiak Montxo Armendarizen azken filma aukeratu du [hautagai] [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.7.

**2010. urtean zabaldu nahi dute Araban ziklo konbinatuko zentrala**

Araban ziklo konbinatuko zentral termikoa egiteko tramiteak oso aurreratuta daude.

Araban oso aurreratuta daude [tramiteak] [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.8.

**Irudia, historiaren lekuko**

Gizakiok betidanik izan dugu gure esperientziak eta baita gure bizitzaren pasadizoak ere ondorengoei transmititzeko edo igortzeko beharra eta joera.

Gizakiok betidanik izan dugu [beharra eta joera] [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.9.

**Zalantza ugari**

Oso zaila egiten zait lerro hauek idaztea, atzoko sarraskiaren irudiak irensteko astirik ez dudalako izan.

(…), [astirik] izan ez dudalako [-T(Z)EKO osagarria] “edo”

(…), ez dudalako [astirik] izan [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.10.

**Erretzeko eskubidea defendatzen da**

Enpresariek erretzaileei etenaldiak egiteko aukera utzi beharko diete eta portaera hori hartzen duten langileen kontra ezin izango dute buruzagiek neurririk hartu.

Enpresariek [aukera] utzi beharko diete erretzaileei [-T(Z)EKO osagarria] eta (...)

1.3.11.

**Atxaga proposatu dute**

Hiru euskaltzainek Bernardo Atxaga proposatuko dute Juan Mari Lekuonak utzitako lekua hartzeko hautagai.

1.3.12.

**Garikoitz Altunak bederatzigarren partida irabaz dezake jarraian**

Garikoitz Altuna emaitza bolada gozoa igarotzen ari da, eta gaur bederatzigarren partida jarraian irabazteko aukera izango du Galarretan.

Orain bigarren multzoko ariketak egingo ditugu, zeintzuetan *-t(z)eko* osagarria osatuta baitago osagai bat baino gehiagoz.

1.3.13.

**Oroimenaren tuneletik**

Baiona Tipira gerturatzen direnek bihotzean zimiko bizia sentitzeko parada izanen dute.

1.3.14.

**EA, ERC eta CHA Europako koalizioa ixtekotan dira**

Eusko Alkartasuna (EA), Esquerra Republicana de Catalunya (ERC) eta Chunta Aragonesista (CHA) Europako hauteskundeetara elkarrekin joateko hitzarmena ixtekotan dira.

EA, ERC eta CHA [hitzarmena] ixtekotan dira [-T(Z)EKO osagarria]

1.3.15.

**Bilboren identitatea, lehen eta orain**

Roberto Zarrabeitia argazkilari-kazetariak Bilbon barrena osteratxo fotografiko bat egiteko aukera ematen digu, BBKren kultur gelan zabaldu duen *Bilbao* erakusketarekin.

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*Gara,* 2006-5-1, 5. or.) 2-(*Berria,* 2004-5-1, 6. or.) 3-(B, 2005-10-12, 7. or.) 4-(B, 2004-2-29, 37. or.) 5-(B, 2004-3-21, 21. or.) 6-(B, 2005-9-30, 1. or.) 7-(B, 2006-5-6, 25. or.) 8-(B, 2003-7-1, 6. or.) 9-(B, 2004-3-12, 24. or.) 10-(*elNervión,* 2006-5-3, 5. or.) 11-(B, 2006-1-22, 1. or.) 12-(B, 2006-5-4, 30. or.) 13-(B, 2004-2-28, 56. or.) 14-(B, 2004-4-15, 9. or.) 15-(*Zabalik,* 225. zk., 25. or.)

# 2. unitatea

## (P. KONPLETIBOA ADITZ ATZERA)

**HELBURUA:** Ahalik eta errazen irakurri testua, alperreko zama saihesturik.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausean

*– [Kirola egin behar dudaLA] esan dit medikuak*

perpaus konpletiboa (kortxete artean) alperrik dago aditzaren ezkerretara, penazago egiten du-eta irakurketa

**SOLUZIOA:** Eroan dezagun perpaus konpletiboa aditzaren ostera:

*– Medikuak esan dit [kirola egin behar dudaLA]*

***Termino jakin beharrezkoak***

- **Perpaus erlatiboak** (*-(e)n* menderagailudun perpausak)
- **Perpaus konpletibo edo osagarriak** (*-(e)la* menderagailudun perpausak)
- **Hurrenkera** (ordena, segida)
- **Menderagailuak** (*-(e)la, -(e)n, bait-*…)
- **Semaforoak** (*ondoren, ostean, -ta, ezen*…*-(e)la, -(e)n, bait-*…)
- **Atzizkiak** (*-ta, -ko, -(r)ik*…)
- **Osagaiak** (elementuak, konponenteak)
- **Izenlagunak** (JosuREN etxea, mendiKO etxea…)
- **Zeinismoa** (*zein…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak)
- **Egiturak** (*ezen…-(e)la*, *zein…bait-*, *zein…-(e)n*...)
- **Aurkezpen testuingurua** (aurkezpen bateko egoera, kontestu honetan informazioa berria da).
- **Osagarriak** (*noiz*, *zer*… osagarri edo konplementuak)

## 2.*1. TEORIA*

Unitate honetan perpaus konpletibo edo osagarriak aztertuko ditugu. Ulertzeko zelakoak diren, bada liburu bat izena duena

– (1) Medikuak esan dit [minbizia dudala]

Kortxete artean zelako perpausa dagoen, horrelakoxeak dira perpaus konpletibo edo osagarriak (Erantzuten diote *zer* itaunari). Perpaus osoa, "perpaus nagusia + perpaus konpletiboa", hurrenkera horretan erabili izan da nagusi-nagusi XIX. mendera arte idatziz. Gaur egun ordena horretan idatzi beharrean, joera gogorra dago, batzuetan amorragarria, osterantzeko ordenan emateko:

– (2) [Minbizia dudala] esan dit medikuak

Jakina, perpaus txikietan ez dago alde handirik ordena bata ala bestea erabili, baina zergatik ez idatzi (1) ordenan eta ez (2) hurrenkeran, horrela errazago irakurtzen bada, eta jakinda horrelaxe egiten dela berba ere? Ikus dezagun batera edo bestera idatzita zelako alde onak dituen hurrenkera batak, eta zelako txarrak besteak. Puztu ditzagun (1) eta (2) perpausak, beste perpaus osagarri bat gaineratuta, *ospitaleratu egingo nautela*:

– (1a) Medikuak esan dit [minbizia dudala eta OSPITALERATU EGINGO NAUTELA]
– (2a) [Minbizia dudala eta OSPITALERATU EGINGO NAUTELA] esan dit medikuak

Segitzen dugu lehenengo perpausa (1a) erraz irakurtzen, erraz ere erraz; bigarrena (2a), ostera, lehen nekez irakurtzen zen, eta orain nekezago. Gainera diezaiegun gure perpaus biei, (1) eta (2), beste perpaus konpletibo bat, *astebetegarreneko operatu (egingo nautela) teknika berri-berria erabilita*:

– (1b) Medikuak esan dit [minbizia dudala, *ospitaleratu egingo nautela* eta ASTEBETEGARRENEKO OPERATU (EGINGO NAUTELA) TEKNIKA BERRI-BERRIA ERABILITA]
– (2b) [Minbizia dudala, *ospitaleratu egingo nautela* eta ASTEBETEGARRENEKO TEKNIKA BERRIA ERABILITA OPERATU (EGINGO NAUTELA)] esan dit medikuak

Segitzen dugu lehenengo perpausa (1b) erraz-erraz-erraz irakurtzen; bigarrena (2b), ostera, nekez ere nekez. Guk uste, argi geratu da perpaus konpletiboek, erabiliz gero aditz nagusiaren ezkerretara, problemak sortzen dituztela komunikazioan; testuek koxo edo herren egiten dutela komunikagarritasun aldetik (errazago edo nekezago irakurri). Ostera, perpaus osagarriak paratuz gero perpaus nagusiaren ostean, erraz ere erraz irakurtzen dira.

*-(e)la* menderagailu konpletiboak beste aldaera bat dauka, oraindino eragin-korragoa, baina ez hain erabilia gaur egun: *ezen…-(e)la* egitura. Hona hemen zelan erabiltzen den:

– (3) Medikuak esan dit [EZEN minbizia dudaLA, *ospitaleratu egingo nauteLA* eta astebetegarreneko operatu (egingo nauteLA) teknika berri-berri bat erabilita]

Bestalde, hona hemen adibide batzuk jakiteko zer lekutan (aditzaren ezker edo eskuma) erabiltzen duen perpaus osagarria gure idazle klasikoetan klasikoenak, Axularrek. Axularren liburua, *Gero*, 60 kapitulu edo kontakizunez dago osatuta. Liburuan, kontakizun bat lehenengo-lehenengotatik hasten da aditz nagusiz, subjektua bera ere aditz ostean dagoela, eta ondoren perpaus osagarria:

> **Erraiten du** San Tomasek, eta frogatzen den gauza da, gure Jaungoikoak ereina eta landatua daukaLA gure baitan barrena, jakin behar diren gauzen jakiteko, eta egin behar direnen egiteko hazia eta landarea. (471. or.)

*Gero* liburua, esan dugunez, kapitulutan dago bananduta, eta kapituluak paragrafotan. Jarraian hainbat adibide emango ditugu paragrafo hasieretakoak, zeinetan aditz nagusia paratzen den aurrerengo (beltzez) eta perpaus konpletiboa ostean. Adibideak adizka sailkatuta emango ditugu, lagin bat eman ere (Ahaleginak egin ditugu euskara batuan-edo ipintzen):

*KONTATU*

– **Kontatzen du** Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, haietaz, zare, saski eta otarre egiten aritzen zeLA. (21)

*ERRAN*

– **Erraiten du** Aristotelek, on deLA, alferkeriaren herritik kentzeko era desterratzeko. (23)
– **Erranen duzu**, beti deLA on esperantza, beti behar dela eduki fidantza. (161)
– **Erran dugu** barkatu behar dioguLA geure etsaiari eta amorio eduki, zeren hala manatzen baitu Jainkoak. (369)
– **Erran behar da**, gauza gaixtoa eta okasionotsua deLA dantza, hartaz dioenean San Agustinek. (465)
– **Erranen duzu**, badueLA bertuteak, Jainkoaren zerbitzeak, zenbait pena eta trabailu. (585)
– **Erran behar da** handia deLA infernuan daudenek duten miseria. (669)

*JAKIN*

– **Jakin dezagun**, ez dioLA pobreari liskarrik edo erantzuterik egin behar, eta ez gaizkirik erran. (251)

*ENTZUN*

– **Entzun zuenean** Publio Nasikak, egotzi zuteLA Erromakoek herritik Anibal bere etsai handi hura, Kartago ere hartu zutela. (29)
– **Entzuten duzunean**, bihozbera eta miserikordios deLA Jainkoa, atsegin hartzen duzu. (161)

*IKUSI*

– **Ikusten duenean** haurrak bere amaren eskuan zigorra eta hartaz eman nahi dioLA, behatzenago dio amari zigorrari baino. (343)
– **Ikusiko duzu** saindutto bat zoko batean nEgarrez, eta hats-beherapenez, orazionotan dagoeLA: eta ikusiko duzu halaber orazinoz, eta debozinoz konturik egiten ez den bat, betiere jendeartean, jokoan, dantzan, eta atsegin hartzen dabileLA. (563-565)

*IRAKURRI*

– **Irakurri izan dut**, ezen behin gizon batek zitueLA hirur aztore onak eta famatuak. (279)

*FIDATU*

– **Fidatzen zara**, bekatu eginez gerozko kalteak erremediatuko ditueLA Jainkoak. (163)

*KONTU EGIN*

– **Kontu egizu** ezen orain dituzuLA berrogei urte. (181)

*KONTSIDERATU*

– **Kontsidera ezazu** bada zuk, zeure etsaiari barkatu nahi ez diozuna, barkatu dizuLA Jainkoak, (383)

*ADITZERA EMAN*

– **Emaiten du aditzera** Eskritura Sainduak, bitiñak bezala direLA gaixtoak, eta azkeneko egunean, ezkerreko aldean, ipiniko ditueLA Jainkoak. (107)

*PROMETATU*

– **Prometatu zion** gure Jaungoikoak Abrahani eta haren ondokoei, emanen zieLA Judeako erresuma on hura. (137)

Adibideotako ordena horretan, lehenengo aditz nagusia eta ostean perpaus konpletiboa, ezin errazago irakurtzen dira perpausok. Ikusita erabilera horiek (eta beste hainbat, paragrafo barrukoak, eman ez ditugunak), eta jakinda zelan erabiltzen diren gaur egun horrelako egiturak, zelako hurrenkeran, badirudi galaxia

banatakoak direla gaur eguneko euskara eta Axularrena perpaus konpletiboen arloan, hainbesteraino ezen biak ezin baitaitezke ondo egon. Ikusirik zelako hurrenkera darabilen Axularrek, ordena bera baliatzen dute beste idazle klasiko batzuek ere, hala nola, Tartasek, Asteasuko Agirrek, Mogeldarrek...

Datuok eskuan, ez dago duda tantarik, perpaus osoa erabilita badago aurkezpen-testuinguruan batez ere, zein kokalekutan erabili behar genukeen perpaus konpletiboa: aditz nagusiaren atzean. Horra hor zer proposamen egiten dugun.

Egia esateko, aditz nagusia lehenengo eta perpaus osagarria gero, hurrenkera hori, tantaka ikusten da gaurko idazleen artean. Horren erakusgarri adibide batzuk bertoratuko ditugu, idazle ezagun bik idatziak, Kirmen Uribek eta Aurelia Arkotxak. Hona hemen bi lehenengoarenak, *Berria*tik hartuak:

– Berehalaxe konturatu naiz zaldiak hortxe segitzen dutela bizirik, enperadorearen zaldiak. **Kontatzen dute** hemen, *Espainiako eta Austriako Karlos V.a enperadoreak Andaluziatik ekarri ditueLA hona*. (B, 2006-9-9, 50. or.)
– Eta arraza bere horretan gorde izan da hementxe, duela bostehun urteko zaldiak aldaketarik gabe, fosil biziak bailira. **Esaten dute** *gero eta gutxiago direLA zaldiak*. (B, 2006-9-9, 50. or.)

Eta honatx bat bigarrenarena, hau ere *Berria*tik jasoa:

– Hendaian, baratzeko belar hosto hozkadun bati so nengokiola, **ohartuz** *aihenak hedatuz lurrean zebilaLA*, ama, belarra errotik ateraz, hasi zitzaidan **kondari** (kontatzen) *ene birramatxi Martina Erratzuko Aduana parean den Indatxipia etxean bizi zeLA*, Auritz lehen auzo zutelarik. (B, 2006-11-24, 48. or.)

### *2.2. ADIBIDEAK*

Ondorengo perpaus aztergaietan lehenen ematen dira perpaus konpletiboak eta ondoren perpaus nagusiak, (2) ordenan. Ikusi dugunez, komunikagarritasun kaskarra daukate, eta errazago irakurtzeko, gomendatzen dugu lehenengo paratzeko aditz nagusiak eta ostean perpaus osagarriak, hau da, (1) ordenakoa bihurtzeko. Has gaitezen banan-banan lantzen adibideak.

2.2.1

**Bilbon Formula I Lasterketa**

Bilbo Formula I motako kotxe lasterketak egiteko hautagaia dela irakurri dugu.[A]

A. (B, 2003-12-27, 7. or.)

Perpaus horretan aditz nagusitik (*irakurri dugu*) dago eskegita perpaus osagarria (*Zer* informazioa), eta luzea denez (*Bilbo Formula I motako kotxe lasterketak egiteko hautagaia dela*), nekagarria egiten du perpausaren irakurketa. Zelan konpondu? Hartu, irakurlea, hiztun eta idazle klasikoen datuak eta ikusi zelako hurrenkeran erabiltzen duten perpaus nagusia eta perpaus konpletiboa, eta konturako zara ordena honetan ageri direla gehien-gehien-gehienak:

Perpaus nagusia + perpaus konpletiboa

Horren arabera, hona hemen zelan geratzen den perpaus aztergaia:

– Irakurri dugu Bilbo Formula I motako kotxe lasterketak egiteko hautagaia dela.

Aldaera hori askoz errazago irakurtzen da jatorrizkoa baino, baina oraindino gehiago sartu behar dira artaziak, lar luzea da-eta perpaus konpletiboa (*Bilbo Formula I motako kotxe lasterketak egiteko hautagaia dela*). Informazio horrek honako estruktura dauka:

Bilbo ZER dela

Hor, *zer* informazioan (*Formula I motako kotxe lasterketak egiteko hautagaia*), lehenengo, *hautagaia* paratu behar dugu (ikus 1. unitatea) eta, ostean, gainerako informazioa (*Formula I motako kotxe lasterketak egiteko*). Behin operaziook eginda, hona hemen zelan geratzen den perpausa:

– Irakurri dugu Bilbo [hautagaia] dela [Formula I motako kotxe lasterketak egiteko].

Gehiago ere zorrotz daiteke, beste bi modutara:

– Irakurri dugu Bilbo hautagaia dela [kotxe lasterketak egiteko], [Formula I motaN].
– Irakurri dugu Bilbo dela hautagaia [kotxe lasterketak egiteko], [Formula I motaN].

*Ezen…-(e)la* egitura, erabili ez badugu ere, erabili, erabil daiteke:

– Irakurri dugu EZEN Bilbo hautagaia deLA Formula I motako kotxe lasterketak egiteko.
– Irakurri dugu EZEN Bilbo hautagaia deLA kotxe lasterketak egiteko Formula I motaN.

Amaitzeko, beste erabilera batzuk proposatuko ditugu (kazetaritzan gustukoak ez direnak-edo), gura izanez gero aurrerengo erabili perpaus konpletiboaren informazioa, jatorrizko perpausean legez.

– Bilbo hautagaia da Formula I motako kotxe lasterketak egiteko. HORRA ZER irakurri duguN.
– Bilbo da hautagaia Formula I motako kotxe lasterketak egiteko. HORRA ZER irakurri duguN.
– Bilbo hautagaia da Formula I motako kotxe lasterketak egiteko, (HORI) irakurri dugu.
– Bilbo da hautagaia Formula I motako kotxe lasterketak egiteko, (HORI) irakurri dugu.

Edo:

– Bilbo hautagaia da Formula I motako kotxe lasterketak egiteko, irakurri duguNEZ.
– Bilbo da hautagaia Formula I motako kotxe lasterketak egiteko, irakurri duguNEZ.

Badago arindutxo bat ematerik lehenengo parteari, *kotxe lasterketak* aurreratuta:

– Bilbo hautagaia da kotxe lasterketak egiteko Formula I motaN. HORRA ZER irakurri duguN.
– Bilbo da hautagaia kotxe lasterketak egiteko Formula I motaN, (HORI) irakurri dugu.
– Bilbo hautagaia da kotxe lasterketak egiteko Formula I motaN, irakurri duguNEZ.

Puntua erabili dugun perpausetan, badago puntu eta koma erabiltzerik:

– Bilbo hautagaia da kotxe lasterketak egiteko Formula I motan; horra hor zer irakurri dugun.

2.2.2.

**Zaborrarekin zer egin ez da oraindik erabaki**

Luis Maria Oiarbidek, bestalde, San Markoseko zabortegia itxi eta gero, eta errauste planta eraiki bitartean, Donostialdeko zaborrarekin zer egin aztertzen ari dela adierazi zuen.[B]

Perpaus hori nekez irakurtzen da; izan ere, subjektutik (*Luis Maria Oiarbidek*) urrun-urrun dago aditza (*adierazi zuen*). Problema hori gertatzen da aitaturiko osagaien artean beste hiru osagarri daudelako, ez laburrak: *noiz* osagarri bi (*San Markoseko zabortegia itxi eta gero* eta *errauste planta eraiki bitartean*) eta *zer* osagarria edo konpletiboa (*Donostialdeko zaborrarekin zer egin aztertzen ari dela*).

B. (B, 2004-7-20, 12. or)

Problema hori —irakurketa nekeza, komunikagarritasun ustela— konpontzeko, eman diezaiogun aurreratu bat aditz nagusiari eta ipini subjektu ondoan, ahalik eta ondoen:

– Luis Maria Oiarbidek, bestalde, ADIERAZI ZUEN San Markoseko zabortegia itxi eta gero, eta errauste planta eraiki bitartean, Donostialdeko zaborrarekin zer egin aztertzen ari dela.

Perpaus konpletiboan ere, *Donostialdeko zaborrarekin zer egin aztertzen ari dela*, aitzina daiteke aditza eta menderagailua batera (*aztertzen ari dela*):

– Luis Maria Oiarbidek, bestalde, adierazi zuen San Markoseko zabortegia itxi eta gero, eta errauste planta eraiki bitartean, AZTERTZEN ARI DELA Donostialdeko zaborrarekin zer egin.

Perpaus konpletibo edo osagarrian aurreratu dugula aditza, beste aldatutxo batzuk ere egin daitezke informazioan, *zer egin* aurreratuta:

– Luis Maria Oiarbidek, bestalde, adierazi zuen San Markoseko zabortegia itxi eta gero, eta errauste planta eraiki bitartean, aztertzen ari dela ZER EGIN Donostialdeko zaborrarekin.

Ontzat eman daiteke? Eta perpaus osagarri osoa aurreratuko bagenu eta perpaus nagusiaren ostean paratu beroni inkatu-inkatuta?:

– Luis Maria Oiarbidek, bestalde, adierazi zuen [aztertzen ari dela zer egin Donostialdeko zaborrarekin], San Markoseko zabortegia itxi eta gero, eta errauste planta eraiki bitartean.

Edo honela (*eta gero* informazioa kenduta):

– Luis Maria Oiarbidek, bestalde, adierazi zuen aztertzen ari dela zer egin Donostialdeko zaborrarekin, San Markoseko zabortegia itxi Ø eta errauste planta eraiki bitartean.

Guk azkenekoak ditugu guren edo nahien, zeintzuetan, gura izanez gero, *ezen…-(e)la* egitura erabil daitekeen:

– Luis Maria Oiarbidek, bestalde, adierazi zuen EZEN aztertzen ari deLA zer egin Donostialdeko zaborrarekin, San Markoseko zabortegia itxi Ø eta errauste planta eraiki bitartean.

2.2.3.

**Preso politikoek beste gose greba bat hasi dute, Senatuak indultua atzera bota ondoren**

Jorge Mateluna eta Jorge Espinola preso politikoek —indultua eskatzen ari

dira— beste gose greba bat hasi zuten atzo, Senatuak iragan ekainean onartu zituen eskaera batzuk orain atzera bota egin dituela jakin ondoren.[C]

Arrazoia zergatik nekez irakurtzen den, koma ostean dago, bigarren partean:

– (…), Senatuak iragan ekainean onartu zituen eskaera batzuk orain atzera bota egin dituela jakin ondoren

Nekez ere nekez irakurtzen da; izan ere, luzeegia da *zer*, perpaus konpletiboa

– [Senatuak iragan ekainean onartu zituen eskaera batzuk orain atzera bota egin dituela]

eta, gainera, atzeneko lekuan ditu aditza (*jakin*) eta semaforoa (*ondoren*):

– jakin ondoren

Problema hori —nekez irakurri— konpontzeko, komeni da perpaus konpletiboa paratzea aditz nagusiaren ostean:

– (…), JAKIN ONDOREN [Senatuak iragan ekainean onartu zituen eskaera batzuk orain atzera bota egin dituela]

Esan dugunez, perpaus osagarria lar luzea da, azkeneko lekuan dituela aditza (*jakin)* eta semaforoa (*ondoren*), eta horrek eragozten du erraz irakurtzea. Beraz, aldatu bat eman behar diogu perpaus konpletiboari barruko osagaien artean; izan ere, subjektutik (*Senatuak*) lar urrun daude aditza eta menderagailua (*bota egin dituela*). Eroan ditzagun aurrera:

– (…), jakin ondoren [Senatuak orain atzera BOTA (EGIN) DITUELA iragan ekainean onartu zituen eskaera batzuk]

Uste dugu *egin* sobran dagoela (horrexegatik ipini dugu parentesi artean). Orain dena oso erraz irakurtzen da. Badago oraindino hobetzerik osagai-ordena perpaus osagarriaren barruan:

– (…), jakin ondoren [Senatuak orain atzera bota (egin) dituela ESKAERA BATZUK, iragan ekainean onartu zituenAK]

Bestalde, bada beste problema bat, hau hizkuntzazkoa. Kontuan hartzen badugu perpaus aztergai osoa, eta zati bitan paratu

– Jorge Mateluna eta Jorge Espinola preso politikoek —indultua eskatzen ari dira— beste gose greba bat hasi zuten atzo,
– jakin ondoren [Senatuak orain atzera bota (egin) dituela eskaera batzuk, iragan ekainean onartu zituenak]

C. (B, 2004-7-20, 26. or.)

kargutuko gara bigarren parteak esangura kausala duela lehenengo parteari buruz, hau da, *gose greba hasi dutela halako legeak atzera bota dituztelako*. Baina bigarren parteak (orain arte jorratuak)

– (…), jakin ondoren [Senatuak iragan ekainean onartu zituen eskaera batzuk orain atzera bota egin dituela]

ez du esangura kausala formaz, denborazko hutsa baino (esangura hori du *ondoren* semaforoak). Zelan sortu da akats hori? Klonatu delako gordin-gordin gaztelania:

erdaraz *tras* = euskaraz *ondoren*.

Baina arazo bat dago: *tras* horrek esangura bi ditu gaztelaniaz: batzuetan, denborazko hutsa; beste batzuetan, denborazko eta kausala, biak batera (ikus 3. unitatea). Euskaraz *ondoren*ek denborazko esanahi huts-hutsa dauka, sekula ere ez kausala (salbu gaur egun sortzen ari den euskara berrian). Esaterako, gaztelaniaz

– Murió tras comer setas envenenadas.

euskaraz honela erabiltzen dugu:

– Perretxiko pozointsuak janDA hil zen.

eta ez *Perretxiko pozointsuak jan ONDOREN hil zen*. Beraz, *tras*en denborazko eta kausalaren ordaina euskaraz, ez da *ondoren*, ezpabere *-ta* atzizkia.

Gauzak horrela, hona hemen zelan geratzen den perpausa:

– Jorge Mateluna eta Jorge Espinola preso politikoek —indultua eskatzen ari dira— beste gose greba bat hasi zuten atzo, jakinDA [Senatuak iragan ekainean onartu zituen eskaera batzuk orain atzera bota egin dituela].

Edo:

– Jorge Mateluna eta Jorge Espinola preso politikoek —indultua eskatzen ari dira— beste gose greba bat hasi zuten atzo, jakinDA [Senatuak *atzera bota dituela* eskaera batzuk, iragan ekainean onartu zituenak].

Edo:

– Jorge Mateluna eta Jorge Espinola preso politikoek —indultua eskatzen ari dira— beste gose greba bat hasi zuten atzo, jakinDA [Senatuak atzera bota dituela eskaera batzuk, iragan ekainean onartuak].

Guk azkeneko biak ditugu guren edo nahien, edo *ezen…-(e)la* egitura baliatuta:

– Jorge Mateluna eta Jorge Espinola preso politikoek —indultua eskatzen ari dira— beste gose greba bat hasi zuten atzo, jakinda EZEN Senatuak atzera bota ditueLA eskaera batzuk, iragan ekainean onartuak].

2.2.4.

**Miliziek bortxaketa arma gisa erabiltzen dutela esan du AIk**

Sudango mendebaldean dagoen Darfur eskualdeko emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» bortxatu egiten dituztela salatu zuen atzo AI Amnesty International erakundeak.[D]

Hasiko gara paratzen perpaus aztergaiaren informazioa ia bestelako ordenan: lehenengo, *atzo* adberbioa; bigarren, subjektua (*AI Amnesty International erakundeak*); hirugarren, aditz nagusia (*salatu zuen*); eta, azkenen, perpaus osagarria (*Sudango mendebaldean dagoen Darfur eskualdeko emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» bortxatu egiten dituztela*):

– Atzo AI Amnesty International erakundeak salatu zuen Sudango mendebaldean dagoen Darfur eskualdeko emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» bortxatu egiten dituztela.

Ondo erreparatuz gero, perpaus konpletiboa luzearen luzea da, atzen lekuan batera dituela aditza eta menderagailua (*bortxatu egiten dituztela*):

– [Sudango mendebaldean dagoen Darfur eskualdeko emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» bortxatu egiten dituztela]

Aldaera horretan (baita jatorrizkoan ere), erreparatuz gero subjektuari

– Sudango mendebaldean dagoen Darfur eskualdeko emakumeak

ematen du *Darfur eskualde* bat baino gehiago dagoela, eta euretariko bat Sudango mendebaldean (ikus 7. unitatea). Bestela esateko, ez da komeni beharrizan barik izen propio bati ez erlatiborik (*-(e)n*) gaineratzea, ez osterantzeko izenlagunik (*-ko*...) (ikus 5. unitatea). Zelan konpondu? Hona hemen bide bat:

– [Sudango mendebaldean, Darfur eskualdeko emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» bortxatu egiten dituztela]

Ikusten dugunez, erlatiboa kendu dugu eta koma bat ipini. Gehiago ere erraz daiteke, *Darfur eskualdeko* informazioa *Darfur eskualdean* bihurtuta:

– [Sudango mendebaldean, Darfur eskualdeAN, emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» bortxatu egiten dituztela]

Beste arindu bat ere eman dakioke:

– [Sudango mendebaldean, Darfur eskualdeAN, emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, *bortxatu egiten dituztela* «gerra arma gisa»]

D. (B, 2004-7-20, 26. or.).

Perpaus osoa honela geratuko litzateke:

– Atzo AI Amnesty International erakundeak salatu zuen Sudango mende-baldean, Darfur eskualdean, emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, bortxatu egiten dituztela «gerra arma gisa».

Orain, beste begiratu bat emanda perpaus osoari, begitantzen zaigu beste hurrenkera bat edo bi egokiago liratekeela:

– Atzo AI Amnesty International erakundeak salatu zuen emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, bortxatu egiten dituztela «gerra arma gisa» Sudango mendebaldean, Darfur eskualdean.
– Atzo AI Amnesty International erakundeak salatu zuen emakumeak bortxatu (egiten) dituztela, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» Sudango mendebaldean, Darfur eskualdean.
– Atzo AI Amnesty International erakundeak salatu zuen «gerra arma gisa» bortxatu Ø dituztela emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, Sudango mendebaldean, Darfur eskualdean.
– Atzo AI Amnesty International erakundeak salatu zuen Sudango mende-baldean, Darfur eskualdean «gerra arma gisa» bortxatu Ø dituztela emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak.

(Arriskugarri izan daiteke azken aldaera hori, ez dakigu-eta *non* sintagmek (*Sudango mendebaldean* eta *Darfur eskualdean*) zein aditzekin dauden lotuta, *salatu*rekin ala *bortxatu*rekin)

Nahi izanez gero eta erabiliz gero *ezen…-(e)la* egitura (goiko aldaera batean txertatua):

– Atzo AI Amnesty International erakundeak salatu zuen EZEN emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, bortxatu egiten dituzteLA «gerra arma gisa» Sudango mendebaldean, Darfur eskualdean.

Uste dugu azken aukera hori, edo aurrekoak, alderatuz gero jatorrizkoarekin, irabazian ateratzen direla.

Badira beste irtenbide batzuk (batez ere perpaus konpletiboaren informazioa derrigor eman behar izanez gero aurrerengo), baina ez dira, guk uste, kazetarien gogokoak:

– Sudango mendebaldean, Darfur eskualdeko emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» bortxatu egiten dituzte. HORRA ZER salatu zuen atzo AI Amnesty International erakundeak.
– Sudango mendebaldean, Darfur eskualdean emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, «gerra arma gisa» bortxatu egiten dituzte, (HORI) salatu zuen atzo AI Amnesty International erakundeak.

– Sudango mendebaldean, Darfur eskualdean, emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, bortxatu egiten dituzte «gerra arma gisa», atzo AI Amnesty International erakundeak salatu zueNEZ.
– Sudango mendebaldean, Darfur eskualdean, emakumeak, tartean neskatoak eta edadetuak, bortxatu egiten dituzte «gerra arma gisa», atzo AI Amnesty International erakundeak salatutakoaren ARABERA.

Puntua erabili dugun perpausetan badago puntu eta koma erabiltzerik.

Amaitzeko, ez ahaztu, irakurlea, perpausotan *dituzte* aditzaren subjektua titularrean dagoela (*miliziek*).

2.2.5.

**Chiapasera, urte berriari ongietorria ematera**

Dozenaka eta dozenaka pertsona hurbildu dira azken egunotan Chiapasera bertako indigenekin batera 1994ko urtarrilaren 1eko altxamenduaren hamargarren urteurrena eta EZLAN Askapen Nazionaleko Armada Zapatistaren hogeigarren urteurrena ospatzeko.[E]

Oraingoz alde batera utziko dugu lehen partea (*Dozenaka eta dozenaka pertsona hurbildu dira azken egunotan Chiapasera*), eta oratu eta jorratuko dugu bigarrena, honako hau:

– bertako indigenekin batera 1994ko urtarrilaren 1eko altxamenduaren hamargarren urteurrena eta EZLAN Askapen Nazionaleko Armada Zapatistaren hogeigarren urteurrena ospatzeko

Hor aurrera eroanez gero mendeko aditza eta menderagailua (*ospatzeko*):

– bertako indigenekin batera OSPATZEKO 1994ko urtarrilaren 1eko altxamenduaren hamargarren urteurrena eta EZLAN Askapen Nazionaleko Armada Zapatistaren hogeigarren urteurrena.

Beste operazio bat ere egin daiteke: hor sekuentzia bi daude *eta* batez bananduak:

– 1994ko urtarrilaren 1eko altxamenduaren hamargarren urteurrena
– EZLAN Askapen Nazionaleko Armada Zapatistaren hogeigarren urteurrena

Biok bihurtuz gero perpaus konpletibo:

– hamargarren urteurrena BETETZEN DELA altxamendua EGIN ZELA,1994ko urtarrilaren 1ean

E. (B, 2003-12-31, 3. or.)

– hogeigarren urteurrena BETETZEN DELA sortu zela EZLAN Askapen Nazionaleko Armada Zapatista

Eta perpaus osagarri biok txertatuz gero testu osoan:

– Dozenaka eta dozenaka pertsona hurbildu dira azken egunotan Chiapasera bertako indigenekin batera ospatzeko [hamargarren urteurrena betetzen dela altxamendua egin zela,1994ko urtarrilaren 1ean,] eta [hogeigarren urteurrena, Ø sortu zela EZLAN Askapen Nazionaleko Armada Zapatista].

Horra hor aukera bi zein baino zein egokiagoak.

### *2.3. ARIKETAK*

Orain arte aurreko apartaduan, 2. ADIBIDEAKen, agertu zaizkigu perpaus konpletiboak edo osagarriak ez eze baita bestelako egiturak ere. Orain, puntu honetan (3. ARIKETAK), perpaus guzti-guztiek, erratuta ez bagaude, perpaus osagarriak dituzte marapilo bakarra.

Izan dezagun gomutan zelako aldaketa proposatzen dugun hurrengo ariketetan:

[p. osagarria] + [aditz nagusia] = [aditz nagusia] + [p. osagarria]

Hurrengo adibideak mota bitan sailkatu ditugu konplexutasunaren arabera:

– Perpaus konpletiboa sinplea da
– Perpaus konpletiboa konplexutxoagoa da

Hona hemen 10 perpaus zuzentzeko, zeintzuek perpaus konpletibo sinplea duten (lagungarri, adibide guztietan eskema ipini dugu hobeto konpontzeko, eta bertan *zer* galderak ordezten du perpaus konpletiboa):

2.3.1.

Zigortuz gero, misil gehiago jaurtiko dituela ohartarazi du Ipar Koreak

Zigortuz gero Ipar Koreak ohartarazi du ZER

2.3.2.

Bilera baikortzat duen arren, fruitu zehatzak behar direla dio EBk

(...), EBk dio ZER

2.3.3.

Garai batean sorginak izan zirela uste al duzu?

Uste al duzu ZER?

2.3.4.

Xabi Fernandezek, taldeko gitarra eta ahotsak, diskoan «pop freskoa eta rock gogorra» aurkituko dugula aurreratu zuen.

Xabi Fernandezek, taldeko gitarra eta ahotsak, aurreratu zuen ZER

2.3.5.

**Entzierroa!**

Ez dut San Ferminetako entzierroa ikusi, baina guk geuk ere entzierroa eduki dugula esan genezake: Tourreko entzierroa.

(...), baina guk geuk ere esan genezake ZER: Tourreko entzierroa

2.3.6.

**La edad de hielo** [Filma]

Manfred mamutak, Sid nagiak, Diego tigreak eta Scrat katagorriak mundua urtzen ari dela ikusiko dute.

Manfred mamutak, Sid nagiak, Diego tigreak eta Scrat katagorriak ikusiko dute ZER

2.3.7.

**Ezjakintasuna herritarren artean**

Indarrean dagoen araudia ez dutela ezagutzen esan dute animaliak dituzten zenbait herritarrek

Animaliak dituzten zenbait herritarrek esan dute ZER

2.3.8.

**Batasunari erantzun «judiziala eta politikoa» emateko eskatu dio Raxoik PSOEko gobernuari**

Batasuneko mahaikideak kartzeleratuz gero prozesua «blokeatu» egin daitekeela ohartarazi du Permachek

Permachek ohartarazi du ZER

2.3.9.

**Karibeko perla**

Latinoamerikako azken 514 urteko edozein herriren historiari begiratuz, oinaze, odoljario eta etengabeko sufrimenduan oinarrituta dagoela ikus dezakegu.

(…), ikus dezakegu ZER

2.3.10.

PATXI LOPEZ PSE-EEko idazkari nagusia:

«Konponbidearen zati izan daitezen nahi dugula esan diegu»

Esan diegu ZER

Bigarren multzoan (hurrengo bost ariketak) perpaus konpletibo konplexutxoagoak sartu ditugu, parte bitan-edo eman daitezkeenak (laguntzatzat, ez dugu eskemarik ematen).

2.3.11.

**Afganistanen ustezko 40 ekintzaile hil dituzte aste honetan**

Ameriketako Estatu Batuetako Armadak aste honetan ustezko 40 ekintzaile baino gehiago hil dituztela jakinarazi zuen atzo.

2.3.12.

**Jaurlaritzak egonkortasun hitzarmena ezabatu nahi duela salatu dute sindikatuek**

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) egonkortasun hitzarmena arriskuan egon daitekeela ohartarazi dute ELA, LAB, EILAS eta UGT sindikatuek.

2.3.13.

**CNNk datorren ekitaldirako irabaziak espero ditu Sestaoko Naval ontziolan**

Langileak «pixkanaka baina hainbat arinen» gutxituko dituztela esan du Jose Luis Alvarezek

2.3.14.

**Garzonen autoa EAEko Auzitegira bidali dute, Ibarretxeren aurkako kereila indargabetu dezaten**

PSE-Batasuna bilera euskal gizartean «naturaltasunez» onartzen dela esan du EAEko lehendakariak

2.3.15.

**Mahai bat: Nafarroan**. Nafarren eskubidea jorratu beharko luketela diote.

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(Titularra-*Berria,* 2006-7-7, 1. or.) 2-(*Berria,* 2006-7, 5. or.) 3-(B, "Mantagorri", 2004-10-2, 10. or.) 4-(*Gara,* 2004-10-6, 54. or.) 5-(B, 2006-7-8, 36. or.) 6-(B, 2006-4-30, 49. or.) 7-(B, 2006-2-25, 16. or.) 8-(B, 2006-5-26, 9. or.) 9-(B, 2006-1-22, 48. or.) 10-(B, 2006-7, 3. or.) 11-(B, 2006-6-11, 20. or.) 12-(B, 2006-5-19, 13. or.) 13-(B, 2006-7-21, 13. or.) 14-(B, 2006-7-8, 8. or.) 15-(B, 2006-8-10, 8. or.)

# 3. unitatea

## (ERDARAZKO PARTIKULA KAUSAL BATZUK)

**HELBURUA:** Gramatika problema bat ebatzi edo konpondu.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausak erdaraz

– *Murió AL caerse del séptimo piso*
– *Murió TRAS ser arrollado por el tren*

ez dira erabili izan honetara euskaraz:

– *Zazpigarren pisutik jausi *OSTEAN hil zen*
– *Trenak *zapalTZEAN hil zen*

Gaztelaniaz *al, tras* partikulek eduki dezakete esangura kausala, eta orduan ordainak euskaraz ezin daitezke eman besteak beste, *-t(z)ean, -t(z)erakoan* edo *ostean*, ondorenen bidez.

**SOLUZIOA:** Adibideotan kausaltasuna *-ta* atzizki bidez adierazten da (Euskal Herriaren mendebaldean behintzat)

– *Zazpigarren pisutik jausiTA hil da*
– *Trenak zapalduTA hil zen*

***Termino jakin beharrezkoak***

– **Semaforoak** (*-t(z)ean, ostean, -ta...*)
– **Sintagmak** (osagarriak / *-t(ze)an…* atzizkidun sintagmak / *nor, noiz…* sintagmak)
– **Determinatzaileak** (*-a, bat…*)
– **Atzizkiak** (*-ta, -t(z)ean…*)
– **Osagarriak** (*non, zer…* osagarriak)
– **Testuingurua** (testuingurua)

### *3.1.TEORIA*

Sasoi honetan, sartu-sartuta bizi garela erdal munduan, erdarakadak geroago eta ugariago dira euskaran. Horietariko batzuen gainean egingo dugu berba hemen. Gaztelaniaz partikula batzuek, esaterako *al* eta *tras* partikulak, testuinguruaren arabera, eduki ditzakete esangura bi:

– Denborazko hutsa
– Denborazkoa + kausala

Baina erdarazko partikula horien ordaintzat semaforo batzuk erabiltzen ditugu euskaraz, hurrenez hurren *-t(z)ean* (*-t(z)erakoan*...) eta *ostean* (*ondoren*...), zeintzuek ez daukaten esangura kausalik, ezpabere, denborazko hutsa. Gaur egun, hedabideak lekuko, gaztelaniazko semaforook, gehienetan, gordin-gordin imitatzen dira euskaraz (zelako forma erdaraz, halakoa euskaraz), kontuan hartu barik zelako testuinguruan dauden (zeinak erabakitzen duen zer esangura duen semaforodun sekuentziak). Honela kalkatzen da erdara:

AL = -T(Z)EAN, -T(Z)ERAKOAN...
TRAS = OSTEAN, ONDOREN, ONDOAN...

Gaztelaniazko zein euskarazko semaforoak parte bitan aztertuko ditugu. Lehenengoan denborazko esangura hutsa dutela; bestean, denborazkoa eta kausala, biak batera. Has gaitezen gaztelaniazko partikulak eta euskarazko semaforoak jorratzen denbora hutsezko esangura dutela. Hona hemen adibide batzuk, erdarazko *al* eta euskarazko *-t(z)ean*en gainean, denbora esangura hutsezkoak erdaraz zein euskaraz:

– AL venir del trabajo, me encontré con un viejo amigo
– AL llegar a casa, el padre estaba viendo el partido de futbol
– AL operarle, se le olvidaron las tijeras en el estómago
– AL salir el sol, iremos a la playa
– Menditik etorTZEAN aurkitu zituen perretxikuak (P. Goenaga, *Gramatika Bideetan*, Erein, 366. orrialdean)

– Lantegira joaTEAN auto istripua ikusi nuen
– Etxera sarTZEAN galdu nituen giltzak
– Eskailerak jaisTEAN jausi zen (izan dezake esangura kausala ere)

Arlo horretan ez dago buruhausterik, ez da akatsik egiten euskaraz, guk dakigula. Ez dugu erabiltzen atzizki bakarra (*-t(z)ean*); baditugu beste batzuk ere, euskalkitik euskalkira diferenteak.

Orain pasa gaitezen bigarren partera, non arrunt-arrunt erabiltzen diren *al* bidez perpausak esangura kausalean (denborazkoaz gainera):

– Muriò AL ser arrollado por un tren
– Se rompió la pierna AL caerse del 5. piso
– Murió de un ataque al corazón AL saber que le tocó la loto
– Se alegró AL saber que le tocó la lotería

Euskaraz, ostera, *-t(z)ean*, edo baliokideen bidez, ez zaigu irteten ahozko adibiderik esangura kausalekorik. Idatziz ez dugu topatu garaurik ere, baina *-ta* atzizki bidezkoak, piloa. Hona hemen batzuk ahozkoak (geroago emango ditugu idatzizkoak):

– Amak esanDA egiten ditut egunero errekaduak
– Maisuak aginduTA egin ditut beharrak
– Asto gainetik jausiTA apurtu nuen besoa
– Urlia trenak zapalduTA hil zen

Orain aldera ditzagun erdara eta euskara, aurrez aurre paratuta perpausak. Lehenengo ipiniko ditugu erdarazkoak eta azpian euskarazko ordainak:

– Ayer murió una persona en Arranondo **AL** caerse del sexto piso
  – Atzo pertsona bat hil zen Arranondon, 6. pisutik jausi**TA**
– Ayer murió un perro en Arranegi **AL** explotar una bomba
  – Atzo txakur bat hil zen Arranegin, lehergailu batek eztanda egin**DA**

Argi dago lehenengo adibidean *jausteak* eragin zuela *heriotza*, eta bigarrenean *eztandak*. Beraz, hurrengo hitz-kateek

– **AL** caerse del sexto piso
  – Arranondon 6. pisutik jausi**TA**
– **AL** explotar una bomba en Arranegi
  – lehergailu batek eztanda egin**DA**

esangura kausala dute, eta euskaraz ezin da eman *-t(z)ean* edo *-t(z)erakoan* erabilita. Alegia, ez honela:

– Ayer murió una persona en Arranondo **AL** caerse del sexto piso
  – *Atzo pertsona bat hil zen Arranondon, 6. pisutik jaus**TEAN**
– Ayer murió un perro en Arranegi **AL** explotar una bomba
  – *Atzo txakur bat hil zen Arranegin, lehergailu batek eztanda egi**TEAN**

Izan ere, euskaraz *-t(z)ean* atzizkidun sintagmek denborazko esangura hutsa daukate; erdaraz, ostera, *al* partikuladun sintagmek esangura denborazkoa eta denborazko-kausala, testuinguruaren arabera.

Orain arte, testuinguru batean (denborazkoa gehi kausalean) ikusi ditugu hurrengo sekuentziak

– **AL** caerse del sexto piso
– **AL** explotar una bomba

baina ez dezagun pentsa hitz-kateok beti daukatenik esangura kausala. Ez horixe! Aztertu beharra dago zelako testuinguruan erabiltzen diren. Errepara diezaiegun ondoko adibideei, zeinetan, aurrekoen aldean, *Kepa* berba sartu baitugu lehenengoan eta *en Arranondo* bigarrenean:

– Ayer murió una persona en Arranondo **AL** caerse *Kepa* del sexto piso
– Ayer murió un perro en Arranegi **AL** explotar una bomba *en Arranondo*

Perpausotan *al* bidezko informazioek

– **AL** caerse *Kepa* del sexto piso
– **AL** explotar una bomba *en Arranondo*

ez dute esangura kausalik, ezpabere denborazko hutsa, zeina segitzen baita perpausotan dagoen erlazio motatik lehenengo parteen eta bigarrenen artean. Horrelakoetan ondo daude euskaraz perpausak *-t(z)ean* bidez:

– Atzo pertsona bat hil zen Arranondon, Kepa 6. pisutik jaus**TEAN**
– Atzo txakur bat hil zen Arranegin, lehergailu batek eztanda egi**TEAN** Arranondon

Denborazko perpausok honelako testuinguruetan daude emanda:

– Atzo ZER gertatu zen Arranondon Kepa 6. pisutik jaus**TEAN?**
– Atzo ZER gertatu zen Arranegin lehergailu batek eztanda egi**TEAN** Arranondon?

Argi gera bedi *-t(z)ean*ek ez duela balio kausalik. Gauza bera jazotzen da *ostean* eta *ondoren* semaforoekin ere: denborazko esangura hutsa daukate. Beraz, hurrengo perpausok ondo daude

– Atzo pertsona bat hil zen Arranondon Kepa 6. pisutik jausi **OSTEAN**
– Atzo txakur bat hil zen Arranegin lehergailu batek eztanda egin **ONDOREN** Arranondon

baina ondokoak ez

– *Atzo pertsona bat hil zen Arranondon, Ø 6. pisutik jausi **OSTEAN**
– *Atzo txakur bat hil zen Arranegin, lehergailu batek eztanda egin **ONDOREN** Ø

Semaforoek (*ostean*, *ondoren*) denborazko esanahi hutsa daukate-eta. Bestalde, *-ta* atzizkia esangura kausal hutsean bakarrik erabili dugu, eta hortik segi daiteke ondorio okerra: esangura kausal hutsa duela. Eta ez da horrela izan, esangura asko du-eta, besteak beste, denborazkoa:

– BazkalduTA telebista ikusten paratu da
– AfalduTA ohera joan zen

Laburtuta, esan daiteke, batetik *-t(z)ean* eta *ondoren*ek denborazko esangura hutsa dutela, markatuak direla; bestetik, *-ta* atzizkiak esangura kausala ez eze denborazkoa ere baduela, hau da, markatu bakoa da, testuinguruak berak ematen dio esangura bata edo bestea.

Gomutan izan, irakurlea, balio biren inguruan arituko garela, baina euskarazko semaforoek (*-t(z)ean*, *ostean*...) zein gaztelaniazko partikulek (*al*, *tras*) beste balio batzuk ere badituztela.

Gorago esan dugu emango ditugula probak gure idazleek erabili dutela *-ta* atzizkia esangura kausalean. Hona hemen horren adibide garau batzuk (euskara batuan-edo paratu ditugu):

I. ALKAIN, *Gerrako ibilerak (I)(II)(III)*, Auspoa

– Aurretik ni irtengo nauk. Baina, makur-makur, beti Astigarraga aldera egingo diat. Berak, painuelo zuri hori ikusiTA, berengana joango garela usteko ditek. ((I), 52.-53. or.)
– Harriturik gelditu zen ni ikusiTA, eta haietako batek honela dit: ((I), 88. or.)
– Ama-alabak algaraz eta barrez lehertzen. Gu, berriz, pozez beterik, halako jatortasuna ikusiTA. ((II), 79. or.)
– Sukaldeko leihotik begiraka zegoen, eta, gu ikusiTA, etxe-sarrerako atera etorri zen, agur egitera. ((II), 84. or.)

J. B. BILBAO, *Hau mundu arrano hau*, Susa

– Arrisku handietan gabiltza itsastarrok, bada ez dago egunik ontziren bat hondora ez doanik, alemaniarrek ipiniriko mina batek jota. (85. or.)
– Sartzen naiz Batzokian, eta ikaratuta geratzen da bertako kontserjea neu ikusita. (91. or.)
– Oraindino ez egun asko, hementxe joan zen hondora ontzi eder bat itsaspeko mina bat jota. (134. or.)

J. R. ERAUSKIN, *Aien garaia*, Auspoa, 1975

– (…) eta hona etortzen ziren atzerritarrak ere harrituta gelditzen ziren, hemengo jendearen elizarako eta Jaungoikoaren gauzetarako gogoa ikusiTA. (277. or.)

– Baina, nagusiak leihotik kanpora begiratu zuenean, denak gorde egin ziren, eta baita haurra ixildu ere. Bildurtu zen nagusia horiek ikusiTA. (306. or.)

N. ETXANIZ, *Lan Hautatuak*, Hiria, 2000

– Ni naiz Artzaina. Ni naiz Egia. Ni naiz Bidea. Jesukristoren izen hauek argi adierazten zizkigun aldizkari hartan. Gu, txoratuta geunden euskara hain jasoa ikusiTA haren eskuetan. (178. or.)
– Batasuna sortzeko ez zaizkigu gure etsaiak laguntza eskainka etorriko. Ezta hurrik eman ere! Geure etsaiek poz bizi dute, gu sakabanatuak ikusiTA. (53. or.)

A. ZUBIKARAI, *Sits eta bits*

– Baina nor da gaur argitaratzen ausartzen dena, euskaldunek liburuei agertzen dieten betozkoz zimurra ikusiTA. (148. or.)

Argi dago idatziz ere *-ta* atzizkia erabili izan dela esangura kausalean (eta gaur egun ere erabiltzen dela, idazle guztietan ez baina). Edozein modutan, goiko datuok muinarrituta daude Bizkai-Gipuzkoa-Arabetara. Ez gara ausartzen esaten beste lurraldeetan bereizketa bera egiten denik. Beraz, hiru herrialdeotarako behinik behin, egiten dugu proposamena.

Ohartuko zinen, irakurlea, unitate honetan ez dugula ezer landu komunikagarritasunaren gainean. Hemengo perpaus kausalak, atzizki bata erabilita zein bestea, komunikagarriak dira, erraz irakurtzekoak. Unitate honetan arazo gramatikal bat dago tarteko, jokoan, zelako atzizkia erabili: tradizioari —ahozkoari zein idatzikoari— lotua edo beste atzizki bat, erdaratik jasoa (beharrizan barik).

### *3.2. ADIBIDEAK*

Hurrengo adibide guzti-guztietan agertuko dira egitura bi (*ondoren* eta *ostean*, eta *-t(z)ean* semaforoen bidezkoak). Adibide batzuetan esangura denborazkoa eta kausala dauzkate; beste batzuetan denborazko hutsa. Zeuk, irakurlea, igarri behar duzu noiz duen esanahi bata edo bestea. Hori perpausean-perpausean jorratuko dugu. Zertan esanik ez, beste egitura batzuk ere ageri dira, adibidean-adibidean diferenteak. Gu ahaleginduko gara marapilo guztiak askatzen. Adibideak motaka sailka daitezke, honela hurrenez hurren:

*a.* ONDOREN edo OSTEAN dutenak
*b.* -T(Z)EAN bidezkoak

Esaniko ordena horretan agertuko dira jarraian adibideak.

### *a. ONDOREN eta OSTEAN bidezko adibideak*

3.2.1.

**Gaubeka da zortzi t'erdiko txapelketako lehen finalista**

Finalerdietako ligaxkan, atzo, Rekaldek Unda I.ri 35-24 irabazi ostean, Esteban Gaubekak zuzenean lortu du zortzi t'erdiko finala jokatzeko txartela.[A]

Horko perpausetan, batek (*Rekaldek Unda I.ri 35-24 irabazi ostean*) adierazten al du zergatik betetzen den bestea (*Gaubekak zuzenean lortu du zortzi t'erdiko finala jokatzeko txartela*)? Erantzuna baietza da, eta horregatik hor *ostean* duen sintagmak esangura kausala dauka (denborazkoaz gainera). Beraz, *Rekaldek Undari irabazi zioLAKO* lortu du *E. Gaubekak finala jokatzea zortzi t'erdian*.

Baina *ostean* bidezko perpausek, ondo erabiliko badira euskaraz, denborazko esangura beharko lukete, esan dugunez 1. TEORIAn. Badakigu zelan konpondu akatsa, *-ta* atzizkia erabilita:

– Finalerdietako ligaxkan, atzo, Rekaldek Unda I.ri 35-24 irabazi**TA**, Esteban Gaubekak zuzenean lortu du zortzi t'erdiko finala jokatzeko txartela.

Badago, guk uste, hobetzerik perpaus hori aditza eta menderagailua (*-ta*) aurreratuta, ezkerreratuta, mendeko perpausean:

– Atzo, Rekaldek Unda I.ri 35-24 irabazi**TA** finalerdietako ligaxkan, Esteban Gaubekak zuzenean lortu du zortzi t'erdiko finala jokatzeko txartela.

Atzeratu egin dugu *non* osagarria (*finalerdietako ligaxkan*). Bigarren parteari ere gozatua eman ahal zaio, *zer* osagarria

– [zortzi t'erdiko finala jokatzeko txartela]

luzetxoa da, eta arin daiteke *txartela* berba aurreratuta, ezkerretara eroanda:

– Atzo, Rekaldek Unda I.ri 35-24 irabazita finaldietako ligaxkan, Esteban Gaubekak zuzenean lortu du [txartela] [zortzi t'erdiko finala jokatzeko].

3.2.2.

**EKIALDE HURBILEKO GATAZKA**. Asteburuan Gazako segurtasun indarren buru iloba jarri ondoren, atzo berriz Al Majaide jarri zuen postuan Jasser Arafatek.[B]

A. (B, 2004-7-20, 32. or.)
B. (B, 2004-7-20, 22. or.).

Ez dirudi perpaus horretan mendeko perpausagatik (*Asteburuan Gazako segurtasun indarren buru iloba jarri ondoren*) betetzen denik esaten dena perpaus nagusian (*al Majaide jarri zuen postuan Jasser Arafatek*). Osterantzean esateko, *ondoren*dun perpausak ez dauka esangura kausalik testuinguru horretan.

Baina perpaus aztergaian badira beste marapilo batzuk askatu beharrezkoak: subjektua (*Jasser Arafatek*) urrunegi egiten da, gure ustez, atzeneko lekuan. Aurrera eroango dugu, bigarren kokalekura:

– **EKIALDE HURBILEKO GATAZKA**. Asteburuan *Jasser Arafatek* Gazako segurtasun indarren buru iloba jarri ondoren, atzo berriz al Majaide jarri zuen postuan.

Mendeko perpausean batzuek gurago lukete subjektua ere (*iloba*) aurrerago paratu:

– **EKIALDE HURBILEKO GATAZKA**. Asteburuan Jasser Arafatek *iloba* Gazako segurtasun indarren buru jarri ondoren, atzo berriz al Majaide jarri zuen postuan.

Gura izanez gero, errazagotu daiteke denborazko perpausa (*indarren indarreTAN* bihurtuta):

– **EKIALDE HURBILEKO GATAZKA**. Asteburuan Jasser Arafatek iloba buru jarri ondoren [Gazako segurtasun indarreTAN], atzo berriz al Majaide jarri zuen postuan.

Esan dugu, gure ustez, adibide horretan *ondoren* semaforoak ez duela esangura kausalik, ezpabere, denborazko hutsa; hala eta guztiz ere, *-ta* atzizkia ere erabil daiteke, gura izanez gero:

– **EKIALDE HURBILEKO GATAZKA**. Asteburuan Jasser Arafatek iloba buru jarri**TA** Gazako segurtasun indarretan, atzo berriz al Majaide jarri zuen postuan.

Izan ere, *-ta* atzizkiak erabilera neutroa dauka; testuinguruak ematen dio modu bateko edo besteko esangura (Euskal Autonomia Erkidegoan, behinik behin). Gure adibide aztergai horretan argi dago, guk uste, denborazko esangura hutsa daukala.

3.2.3.

**Indiako Administrazioko agintari bat onik atera da hiru hildako eragin dituen bonba eraso batetik**

Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuorde Mangat Ram Sharma onik atera zen atzo ekintzaile independentziazaleek Kapran herrian egiten ari zen bilkura politikoaren kontra granada bat jaurti ondoren.[C]

C. (B, 2004-7-20, 26. or.)

Hasteko, orraztu txiki bat emango genioke testuari, atzera eroanda horko informazio bat, *ekintzaile independentziazaleek*:

– Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuorde Mangat Ram Sharma onik atera zen atzo Kapran herrian egiten ari zen bilkura politikoaren kontra [ekintzaile independentziazaleek] granada bat jaurti ondoren.

Gure hasiera-perpausean sintagma bi daude, *nor* eta *noiz*, zein baino zein lukainkagoak, lar ere lar luzengak:

– NOR: [Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuorde Mangat Ram Sharma]
– NOIZ: [Kapran herrian egiten ari zen bilkura politikoaren kontra granada bat jaurti ondoren ekintzaile independentziazaleek]

Lehenengo sintagma arintzeko, ipin dezagun izen propioa lehenengo lekuan, eta ondoren gainerako informazioa:

– [Mangat Ram Sharma], [Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuordeA]

edo:

– [Mangat Ram Sharma Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuordeA]

Bigarren sintagma luzean (*noiz*) ez ditugu zuzenean artaziak sartuko, ezpabere, aldatu bat emango diogu planteamenduari. Egin dezagun eskema bat jakiteko zelako hurrenkeran landuko dugun perpaus aztergai osoa:

– NOR onik atera zen *eraso batetik* [nortzuek granada bat jaurti ondoren] [noren kontra]

Agerian dagoenez, informazio berri bat sartu dugu, *eraso batetik*. Uste dugu behar dela informazio hori, jatorrizko perpausa ilun dago-eta sintaxia aldetik, ulertu arren. Eskema horri segituko diogu, eta hasiko gara lehenengo kortxetea garantzen:

– NOR onik atera zen *eraso batetik* [ekintzaile independentziazaleek granada bat jaurti ondoren]

Orain ora diezaiogun bigarren kortxeteari "[noren kontra]" eta garandu. Bertako informazioa ikuspuntu jakin batetik dago emanda, determinatzaile mugatu singularraren bidez (*-a*), eta hemen *bat* determinatzailea erabiliko dugu, aurkezpena baita. Hona hemen irtenbide batzuk:

– NOR onik atera zen eraso batetik [ekintzaile independentziazaleek granada bat jaurti ondoren] [bilkura politiko BATen kontra, egiten ari zeNA atzo Kapran herrian]

– NOR onik atera zen eraso batetik [ekintzaile independentziazaleek granada bat jaurti ondoren] [bilkura politiko BATen kontra, ZEINA egiten ari zeN atzo Kapran herrian]
– NOR onik atera zen eraso batetik [ekintzaile independentziazaleek granada bat jaurti ondoren] [bilkura politiko BATen kontra, ZEINA egiten ari BAITzen atzo Kapran herrian]
– NOR onik atera zen eraso batetik [ekintzaile independentziazaleek ATZO granada bat jaurti ondoren] [bilkura politiko BATen kontra, Kapran herrian]

Erreparatu, irakurlea, adibide horretan ustez denborazko esangura hutsa duela kortxete barruko perpausak [... *jaurti ondoren*]. Horrexegatik ez dugu bihurtu [... *jaurtiTA*], baina erabil daiteke; esaterako, goiko aldaeretariko bat hartuta, azkena:

– NOR onik atera zen eraso batetik [ekintzaile independentziazaleek atzo granada bat jaurtiTA] [bilkura politiko baten kontra, Kapran herrian]

Baina *-ta* erabilita *ondoren* berbaren ordez, horrek ez du esan gura automatikoki *-ta* atzizkiak esangura kausala duenik. Ez. *-Ta* menderagailua neutroa da, markatu bakoa, eta testuinguruak ematen dio esangura bat edo beste (kausala, denborazkoa, modala, baldintzazkoa...).

Amaitzeko, perpaus osoa zuzenduta emateko, geratzen zaigu beste informazio bat ematea, *no*ri (*Mangat Ram Sharma, Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuordea*):

– Mangat Ram Sharma, Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuordea, onik atera zen eraso batetik ekintzaile independentziazaleek atzo granada bat jaurti ondoren bilkura politiko baten kontra, Kapran herrian.

Ez ahaztu, irakurlea, azken partea eman daitekeela beste hiru modutara (laugarren modu bat ere badago gutxienez, *bait-* menderagailua hutsik erabilita).

### *b. -T(Z)EAN atzizki bidezko adibideak*

3.2.4.

**Andreen fabore**

Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruzko datuak ikustean.[D]

Argi ikusten bada ere lehenengo-lehenengotik esangura kausala daukala *–t(z)ean* atzizkidun perpausak (*Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari*

D. (B, 2003-11-13, 6. or.)

*buruzko datuak ikustean*), azken partean ebatziko dugu kontu hori, baina has gaitezen aitaturiko perpausa zuzentzen, lar luzea da-eta:

– [Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruzko datuak ikustean]

Hor, *ikustean* hitzetik dago eskegita gainerako informazio guztia. Gura izanez gero, aurrera daiteke aditza, eta errazagotu irakurketa:

– [IKUSTEAN Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruzko datuak]

Perpausa arindu egin da, errazago irakurtzen da, baina segitzen du izaten nekeza irakurtzeko, *zer* osagarria luzeegia du-eta:

– [Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruzko datuak]

Horrelakoak honela konpontzen dira (ikus 6. unitatea):

– [DATUAK] [Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruZ]

Informazio hori txertatuz gero perpausean:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan ikustean [datuak] [Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruz].
– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan [datuak] ikustean [Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruz].

Gaurko ortodoxiatik begiratuta, bigarren aldaera hobeto dago, galdegaia paratuta *ikustean*en aurretxoan. Azken kortxetean, informazio batek (*Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruz*) esangura interrogatiboa du, barruan zehar-galdera bat dauka (ikus 8. unitatea). Horrek esan gura du honela adieraz daitekeela:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan datuak ikustean [ZER/ZELAKO hazkundea izan dueN pobreziak Ipar Euskal Herrian].

Edo honela:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan datuak ikustean [ZELAN hazi deN pobrezia Ipar Euskal Herrian].

Gauza bat geratzen zaigu amaitzeko. Erreparatzen badiogu perpausari, kargutuko gara bigarren partean, aztertu dugun mendeko perpausak esangura kausala duela, adierazten baitu *zergatik* hunkituta geratu zen.

Eta esanahi kausala du ikusiriko aldaeretatik edozeinek; hurrengo honek, kasu:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan datuak ikustean [zelan hazi den pobrezia Ipar Euskal Herrian].

Edo jatorrizko perpausak berak:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan [Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruzko datuak ikustean].

Baina esangura kausala eduki kortxeteko informazioak dauka. Inork argi ikusten ez badu euskaraz, ikus dezala erdarazko ordainean:

– Quedé muy impresionado [AL ver los datos del crecimiento de la pobreza en el Pais Vasco Norte]

Mendeko perpaus horrek, kortxete bidez adierazia, esangura kausala dauka, eta beraz, ondo dago. Euskarazko perpausak gaztelania klonatu du, formaz klonatu ere: gaztelaniaz *AL ver* (edozein esanahi duela), euskaraz *ikusTEAN* (beti). Baina *-t(z)ean* atzizkiak ez du esangura kausalik. Esaterako, itzuli gura izanez gero gaztelaniazko

– Se murió [AL caer de quinto piso]

hor osagarri batek, kortxete barrukoak, esangura kausala dauka (denborazkoaz gainera), eta ez dugu itzultzen honela (gazte batzuei entzuten diegu, zoritxarrez):

– [Bostgarren pisutik jausTEAN] hil zen

ezpabere, honetara:

– [Bostgarren pisutik jausiTA] hil zen

Horrexegatik berorregatik, perpaus aztergaian txarto erabilita dago *-t(z)ean* atzizkia, eta beronen ordez *-ta* erabili behar da. Hona hemen teorian esanikoa hezurmamituta:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan, datuak ikusi**TA** zelan hazi den pobrezia Ipar Euskal Herrian.

edo:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan, ikusi**TA** datuak zelan hazi den pobrezia Ipar Euskal Herrian.

### *3.3. ARIKETAK*

Orain arte adibideetan agertu zaizkigu *ondoren*, *ostean* eta *-t(z)ean* bidezko egiturak ez eze beste mota batekoak ere, ez kausalak ez denborazkoak. Puntu honetan (3. ARIKETAK), perpausetan aitaturiko egiturak agertuko dira soil-soilik.

Has gaitezen ariketak egiten, eta gomuta dezagun hemen ere agertuko zaizkigula aitaturiko hiru semaforodun perpausak soilik, euren esanahia dela,

testuinguruaren arabera, kausala edo denborazkoa. Etsenpluok hiru multzotan banatu ditugu:

1. Semaforoek esangura kausala dute denborazkoaz gain
2. Semaforoek esangura denborazko hutsa dute
3. Semaforoek biotariko esanguraren bat dute

Hona hemen lehenengo multzoko ariketak, esangura kausalekoak (erreparatu ondo zergatik duten esangura kausala, eta zuzendu):

3.3.1.

**Auto eta txirrindulari baten arteko istripua**

65 urteko txirrindulari batek zauri larriak pairatu zituen atzo Galdakaon auto batek kolpatu ondoren.

3.3.2.

**Gizonezko bat hil da Balmasedan, autoa errepidetik aterata**

Balmasedako 52 urteko E.B.P. gizonezkoa hilzen atzo Balmasedan bertan, gidatzen zuen autoak A-67 autobidetik atera ostean.

3.3.3.

**Beste tragedia bat eragin du Iranen istripu batek**

Gutxienez 182 pertsona hil ziren atzo Iranen, merkantzia tren bat lehertzean.

Hona hemen bigarren multzoko ariketak, denbora esangurakoak (erreparatu ondo zergatik daukaten denborazko esangura hutsa):

3.3.4.

MENTIRAS ARRIESGADAS

**Kaliforniako gobernadorea gezurretan**. Hamar urte lehenago *Terminator* film ezaguna elkarrekin egin ondoren, James Cameron (*Abyss, Titanic*) eta Arnold Schwarzenneger berriro elkartu ziren akzio film halamoduzko hau egiteko.

3.3.5.

**Europako adituak datorren astean etorriko dira Euskal Herrira**

XABIER MENDIGUREN (Kontseiluko idazkari nagusia). «Espainiak itxurakeria hutsa egin zuen Euroituneko konpromisoak berrestean»

Hona hemen hirugarren multzoko ariketak, nahasian esangura kausal eta denborazkoak (zuzendu zuzendu beharrezkoak):

3.3.6.

**Garoña da martxan dagoen lehen belaunaldiko zentral bakarra**

Atzo gauerdian Zorita zentral nuklearra itxi ostean, Garoña da lehen belaunaldiko planta bakarra.

3.3.7.

**Bat hobetzen, bestea larri**

Jaitsierako postuetatik irten da Reala Racingi irabazita, eta Alaves zuloan sartu da, Mallorcaren aurka berdindu ostean.

3.3.8.

**Lidergotik gertu segitzen du Tauk Etosari irabazi ondoren**

Tau Baskoniak ACB Ligako lidergotik gertu jarraitzen du, 32. jardunaldiko partidan Etosa Alacant mendean hartu ondoren.

3.3.9.

**Trainerilen estropada**

ONDARROA. Batelen denboraldia amaitu ostean, trainerilen txanda dator.

3.3.10.

**Perezek lau urte ditu UPV euskaldunagoa egiteko**

Joan Ignacio Perez Iglesias "Iñako" da UPVko errektore berria, buruz burukoan Iñaki Antiguedadi erraz nagusitu ostean.

3.3.11.

**Patxi GARAT Kantaria**

Patxi Garat 25 urteko saratarra duela bi urte Ipar Euskal Herrian eta Estatu Frantsesean ezagun egin zen "Star Academy" emankizunean agertu ondoren.

3.3.12.

**Xabier Perez Susperregi, atxilotu ostean askatuta**

Semea goizean ikastolan utzi ostean atxilotu zuten Xabier Perez Susperregi, Baionan.

3.3.13.

**«Gure uste sendoei eutsi genien eta borrokan jarraitzen dugu»**

Felix Padin bizkaitarrak aski ongi ezagutu zituen Miranda-Ebroko kontzentrazio eremuan gertatu ziren miseria eta irainak, bertan hiru aldiz izan ondoren.

3.3.14.

**Beste langile bat hil da, Lasarten, aurtengo hirugarrena**

Eraikin bat margotzen zebilen, lokarri barik, eta bosgarren solairutik jausi zen, aldamioa mugitzean

3.3.15.

**Urliari** [Izena kendua]

Harri eta zur geratu nintzen joan den abenduaren 22an *Berri*an zure gutuna irakurtzean.

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*elNervión,* 2006-5-17, 5 or.) 2-(*Berria,* 2004-5-20, 19. or.) 3-(*Berria,* 2004-2-19, 6. or.) 4-(B, 2006-1-5, 47. or.) 5-(*Berria,* 2004-5-20, 17. or.) 6-(*Gara,* 2006-5-1, 1. or.) 7-(B, 2006-4-16, 1. or.) 8-(B, 2006-5-5, 27. or.) 9-(Lea-Artibaiko eta Mutrikuko *HITZA,* 2004-4-24, 8. or.) 10-(*Xirika,* 2004-10 zbk., 11. or.) 11-(G-2006-4-16, 51. or.) 12-(G-2006-1-6, 16. or.) 13-(*Argia*, 2004-4-11, 7. or.) 14-(B, 2006-1-14, 1. or.) 15-(B, 2004-12-28, 7. or.)

# 4. unitatea

## (GERUNDIO MOTA BAT)

**HELBURUA:** Ahalik eta errazen komunikatu, eta problema gramatikal bat konpondu.

**PROBLEMA:** Honelako perpausak (gaztelaniaz ere debekatuta):

– *Kepa me ha escrito [una carta] *[diciendome que ha muerto Joxe Martin]*

ez dira erabili behar honela:

– *Kepak [gutun bat] idatzi dit *[Joxe Martin hil dela esaneZ]*

Bada gerundio mota bat gaztelaniaz (izartxodun kortxete artean), izenaren osagarria bera, debekatuta dagoena. Debeku berbera dago gerundio mota horren ordainean ere euskaraz.

**SOLUZIOA:** Nahiko da perpaus gerundiala (izartxodun kortxete artean) bihurtzea aditz jokatua, eta *eta* juntagailua erabili. Badira beste konponbide batzuk, besteak beste *zeinismoa:*

– *Kepak [gutun bat] idatzi dit, [eta esaten du Joxe Martin hil dela]*

– *Kepak [gutun bat] idatzi dit, [zeinetan esaten baitu Joxe Martin Hil dela]*

***Termino jakin beharrezkoak***

– **Semaforoak** (*-(e)na..., -(e)z, -(e)la(rik), -t(z)eko...*)
– **Atzizkiak** (*-(r)ekiko…*)
– **Perpaus gerundialak** (= gerundioak: *-(e)z* eta *-(e)la(rik)* atzizkidunak)
– **Izenlagunak** (izenaren osagarri edo adjektibo mota bat)
– **Adizlagunak** (aditzaren osagarri mota bat)
– **Adjektiboak** (adjektibo mota bi daude: izenlagunak eta izenondoak)
– **Perpaus nominalizatuak** (*partizipioa* + *-(e)z* egitura bidezko gerundioak)
– **Juntagailuak** (*eta...*)
– **Menderagailuak** (*-(e)z, -(e)la(rik), -t(z)eko, -(e)n...*)
– **Egitura erlatibo jokatua** *(-(e)na…*)
– **Zeinismoa** (*zein…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak)
– **Nonismoa** (*non…-(e)n* eta *non…bait-* egiturak)

### *4.1. TEORIA*

Zer den gerundioa gaztelaniaz, zelako forma duen, hori denok-edo dakigu:

Marcha*ndo*, jodi*endo*, durmi*endo*, dici*endo*, comi*endo*, trabaja*ndo*...

Gerundio horien ordain batzuek euskaraz buruhausteak ematen dizkigute. Horregatik erdaratik abiatuko gara; izan ere, guk uste, gaztelaniaz ondo ulertzen badugu, euskaraz ere ondo ulertuko dugu. Gerundio mota bi daude gaztelaniaz (labur esateko), gerundioa adizlaguna den (aditz-osagarria, adberbioa) ala izenlaguna (izen-osagarria, adjektiboa):

1. ADIZLAGUNA
– Kepa se fué a Venezuela [*muriéndo* a los 90 años]

2. IZENLAGUNA
– Kepa ha recibido una carta de su madre [*diciéndole* que su padre está grave y que regrese cuanto antes a casa]

Lehenengo adibidean gerundio edo perpaus gerundialak (kortxete artean), adizlagun funtzioa duela, osatzen du aditza (*se fué*). Bigarrenean, ostera, perpaus gerundialak osatzen du izena (*una carta*), izenlagun funtzioa dauka.

Alde batera utzita lehenengo mota, ora diezaiogun bigarrenari, berau aztergaia unitate honetan, non izen bat daukagun, eta beronen adjektiboa edo izenlaguna:

IZENA: carta

IZENLAGUNA: *diciéndole* que su padre está grave y que regrese cuanto antes a casa

Beraz, unitate honetan perpaus gerundialak ditugu aztergai, eurok direla izen baten izenlagunak (adjektibo mota bat). Goiko adibidean, izenlaguna hasten da gerundio bidez (*diciéndole...*), eta izenaren informazioa osatzen du, konplementatzen du. Horrelako gerundio motentzat arau bat dago erdaraz, eta dio gerundio batek ezin duela izen bat osatu, ezin dela adjektibo edo izenlaguna izan (egia esateko, bada salbuespen bat edo beste, erdaraz zein euskaraz). Edozein modutan, gerundioak, horrela erabilita, batzuek deabrutara botatzen dituzte, baina erabili, erabiltzen dira erdaraz.

Problema, erdaraz huskeria bada ere, euskaraz problema-problema bihurtzen da. Izan ere, euskaraz ahoz normal-normal esaten ditugu hau lakoak (lehenengo emanda aditz nominalizatua perpaus gerundialean):

– Kepak amaren gutun bat jaso du [ESANEZ aita larri dagoela eta hainbat arinen etortzeko]

Gaur egun idatziz horrelakoak, aditza aurrerengo, bakanka ikusten dira euskara batuan. Gerundio aditz jokatu bako horrek (esaneZ), badauka ordain jokatua, modu bitan eduki ere, *-(e)la* eta *-(e)larik* bidez. Aplikatuta gure adibideari:

– Kepak amaren gutun bat jaso du, [erraten dioLA(RIK) aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko]

Erabilera bata zein bestea erraz-erraz ulertzen dira, neke barik, erdaraz bezain komunikagarriak dira-eta. Zoritxarrez, erabilera horiek bakarretan ikusten dira euskaraz, eta gehienbat honela erabiltzen dira:

– Kepak amaren gutun bat jaso du [aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko esanEZ]
– Kepak amaren gutun bat jaso du [aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko erraten dioLA(RIK)]

Atzeratu egin ditugularik aditza eta menderagailuak (*-(e)z* edo *-(e)la(rik)*) eta hondar lekuan paratu, perpausok penaz-penaz irakurtzen dira, nekea eragiteraino, komunikagarritasun aldetik herrenak dira-eta.

Orain arte esan dugu erdaraz gaitzetsita dagoela izenlaguntzat erabiltzea gerundioa (baina erabiltzen dela ahoz zein idatziz). Euskaraz gerundioa baztertzekotzat jo dugu kokatzen bada azken lekuan, komunikagarritasun arazoak sortzen ditu-eta, baina ez gara ausartzen zapuzten, guztiz alboratzen, erabiltzen bada lehenengo lekuan (gaztelaniaz legez), ez baitu komunikagarritasun problemarik (erdaraz bezala). Bestalde, erdal gramatikalari guztiek ez dute txartzat jotzen gerundioa, eta frogatuta dago gerundio mota hori ez dela atzo-herenegungoa, sustrai sakonak dituela, mende askokoak.

Badira beste baliabide batzuk ahoz zein idatziz erabiliak. Ahozkoan, berbarako, *eta* juntagailua dugu:

– Kepak amaren gutun bat jaso du, ETA (BERTAN/HAN) esaten da/du aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko

Ezin errazago irakurtzen da. Bada beste bide bat ere, egitura erlatibo jokatua *(-(e)na...)* erabilita. Honela:

– Kepak amaren gutun bat jaso du, esaten dENA aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko

Horrela, *esaten duENA* aurrean erabilita, erraz irakurtzen da. Ez dezagun para azken lekuan:

– Kepak amaren gutun bat jaso du, aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko ESATEN DUENA

Horrela idatzita, aditz-semaforoak (*esaten duena*) azken lekuan, esan dugu, antikomunikatiboa da, nekagarria egin da irakurtzeko.

Estilo jantziak ere baditu bere bideak. Hona hemen egitura bi, idazle klasikoek erabiliak: *zein…-(e)n/bait-* eta *non…-(e)n/bat-*. Zeinismo eta nonismo horiek erabilita, honela geratuko litzateke perpausa:

– Kepak amaren gutun bat jaso du, ZEINETAN esaten BAITa aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko
– Kepak amaren gutun bat jaso du, NON esaten deN aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko

Oker jokatuko genuke, komunikagarritasunaren aldetik, perpausok honela erabiliko bagenitu, hondar lekuan paratuta menderagailuak (*bait-/-(e)n*):

– Kepak amaren gutun bat jaso du, ZEINETAN aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko esaten BAITa
– Kepak amaren gutun bat jaso du, NON aita larri dagoela eta hainbat arinen itzultzeko esaten deN

Hurrengo moduak komunikagarriagoak dira irakurtzeko aurrekoak baino:

– Kepak amaren gutun bat jaso du, ZEINETAN aita larri dagoela esaten BAITa eta hainbat arinen itzultzeko
– Kepak amaren gutun bat jaso du, NON aita larri dagoela esaten deN eta hainbat arinen itzultzeko

Tradizioaren ikuspuntutik, idazle klasikoek gehiagotan erabiltzen dute “aditza + menderagailua” blokea aurrera atzera baino (bestalde, zeinismoaren eta nonismoaren ordez erabil daiteke *bait-* menderagailua).

Laburbilduta, argi geratu behar da gerundioa ezin daitekeela izen baten osagarria izan (salbu salbuspen batzuk —eta eurok ez ditugu aztertuko hemen—), eta ordainetan beste baliabide batzuk daudela, zeintzuen erabilera proposatzen dugun, euron bidez errazago prozesatzen baita informazioa:

BALIABIDEAK

1- ***Eta* juntagailua**
2- **Zeinismoa (*zein…bait-/-en* egiturak)**
3- **Nonismoa (*non…bait-/-en* egiturak)**
4- **Egitura erlatibo jokatua (*-ena…*)**

Adibideetan beste baliabide bat ere agertuko da, *-t(z)eko* bidezkoa.

Bestalde, gorago esan dugu gerundio-esanguran erabili izan direla *-(e)la* eta *-(e)la(rik)* menderagailuak. Hona hemen adibide bat Jose Antonio Mogelek erabilia Peru Abarka liburuan:

| | |
|---|---|
| Dariok, hego eta arnasa beste batzuk harturik, bidali dizkit karta harro eta lotsagabeak, zematzen nauteLA jabetuko dela neure gauzekin | Darío, tomando alas y alientos me ha enviado cartas arrogantes e irrespetuosas, amenazándome (con) que se ha de apoderar de mis cosas. |

(*Peru Abarka*, La Gran Enciclopedia Vasca, 147. or.)

### *4.2. ADIBIDEAK*

Kontuan izan behar da hurrengo adibideetan, zeintzuetan helburu nagusitzat baitago astindu on bat ematea sasigerundioari, ager daitezkeela beste egitura batzuk ere, arteztu beharrekoak. Has gaitezen dauzkagun adibide biak zuzentzen eta komunikagarriago bihurtzen.

4.2.1.

**Pio Caro Barojak Lamiak eta jentilak gaur egunera ekarri ditu eleberri batean**

Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin korapilatuz.[A]

Perpaus horretan perpaus gerundial bat dago, eta izena osatzen du. Bestela esateko, perpaus gerundial hori izenlagun eginkizunean dago:

IZENA: *En aquel tiempo* izeneko eleberria
IZENLAGUNA: Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin *korapilatuz*

Perpaus osoa askoz errazago irakurtzen da aurrera eroanez gero izenlagunean (alegia, perpaus gerundialean) aditza (*korapilatu*) eta gerundioaren menderagailua (*-(e)z*):

– Pio Caro Barojak [*En aquel tiempo* izeneko eleberria] argitaratu berri du, [KORAPILATUZ Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin]

Baliabide hori txartzat jotzen dutenentzat badago beste bat, ahoz asko erabilia:

A. (B, 2003-12-31, 34. or.)

– Pio Caro Barojak [*En aquel tiempo* izeneko eleberria] argitaratu berri du, [ETA (BERTAN/BERTON/HAN) korapilatzen DITU Berako Errandeneko-borda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin].

Agerian dagoenez, *eta* juntagailua paratu dugu, baita aditz jokatu bihurtu ere gerundioa. Baditugu egitura bi idazle klasikoetarik eratorriak, orain arte deabrutuak, baina orain onetsiak, *zein…bait-/-(e)n*, zeintzuk honela hezurmamitzen diren:

– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [ZEINAK korapilatzen BAITitu Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin].
– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [ZEINAK korapilatzen ditueN Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin].

Badira beste egitura klasiko bi ere, *non…bait-/-(e)n*, eta erabil daitezke, aditza, *ditu*, baztertuta, eta ordainetan *da* paratuta:

– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [NON korapilatzen BAITa Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin].
– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [NON korapilatzen deN Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin].

Aurreragoko egitura jantzi biak ere balia ditzakegu:

– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [ZEINETAN korapilatzen BAITa Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin].
– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [ZEINETAN korapilatzen deN Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin].

Azkenez, bada beste bide bat, orain arte aitatu bakoa, baina erabili-erabilia gaur egun, egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…)*:

– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [korapilatzen deNA Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin].

Hor ez da gomendagarria, komunikagarritasunaren aldetik, atzera eroatea semaforoa eta aditza, biak (*korapilatzen duena*), atzen lekura:

– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [Berako Errandenekoborda baserriko nagusia lamiekin eta jentilekin korapilatzen deNA].

Tarteko bidea egon daiteke:

– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [Berako Errandenekoborda baserriko nagusia korapilatzen deNA lamiekin eta jentilekin].

Kontuan hartuta zer dagoen landuta 5. unitatean, ez da derrigor erabili behar *Berako* (bihur dezakegu *BeraN*):

– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [korapilatzen deNA Errandenekoborda baserriko nagusia, berau BeraN, lamiekin eta jentilekin].
– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [korapilatzen deNA lamiekin eta jentilekin Errandenekoborda baserriko nagusia, berau BeraN].
– Pio Caro Barojak *En aquel tiempo* izeneko eleberria argitaratu berri du, [korapilatzen deNA lamiekin eta jentilekin baserri nagusi BAT, ErrandenekobordaKOA, (berau) BeraN].

Ez ahaztu, irakurlea, *bait-* menderagailua ere balia daitekeela, gura izanez gero (unitate honetako adibide eta ariketa guztietan, oker ez bagaude).

4.2.2.

**ELAk bere elkartasuna adierazi zien alemanierrei**

ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo Alemaniako metalgintza langileekiko elkartasuna adierazi nahian.[B]

Hona hemen perpaus horretan zeintzuk diren izena eta perpaus gerundiala, azken hori izenlagun eginkizunean:

IZENA: prentsa ohar bat
IZENLAGUNA: Alemaniako metalgintza langileekiko elkartasuna adierazi nahian

Aurrera eroaten badugu gerundioa (*adierazi nahian*) izenlagunean, lehenengo lekura, askoz errazago irakurriko dugu perpausa:

– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, [ADIERAZI NAHIAN Alemaniako metalgintza langileekiko elkartasuna]

Ahoz, dakigunez, beste bide bat ere badago gerundioa saihesteko, *eta* juntagailua erabilita eta, hori dela-eta, aditza jokatu bihurtuta:

B. (B, 2004-7-20, 21. or.).

– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, [ETA (BERTAN/HAN) adierazi nahi ZUEN Alemaniako metalgintza langileekiko elkartasuna]

*Eta* juntagailuak ordain jantziak ere baditu, dakigunez, egitura klasiko batzuk, *zein…-(e)n/bait-* eta *non…-(e)n/bait-*:

– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, [ZEINETAN adierazi nahi zueN Alemaniako metalgintza langileekiko elkartasuna]
– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, [NON adierazi nahi BAITzuen Alemaniako metalgintza langileekiko elkartasuna]

Baina *-(r)ekiko* hori ondo ote dago erabilita? Gure ustez, gehiegi erabiltzen da atzizki hori, tokiz kanpo erabili ere gehienetan. Kasu honetan ere lekuz kanpo dago? Baiezkoan gaude. Izan ere, egin daitezke orraztu batzuk, hala nola, *-(r)ekiko* atzizkia deseginda, *elkartasuna* berba aurreratuta:

– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, [non adierazi nahi baitzuen ELKARTASUNA Alemaniako metalgintza langileEKIN]
– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, [non adierazi nahi ZIEN elkartasuna Alemaniako metalgintza langileEI]

Gura izanez gero, ipin daiteke *elkartasuna* berba aditz aurretxoan:

– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, [non ELKARTASUNA adierazi nahi zien Alemaniako metalgintza langileei]

Baliabideetan ez dugu ahaztu behar egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*):

– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, [elkartasuna adierazi nahi zaieNA Alemaniako metalgintza langileei]

Atzizki horrek arrisku handia dauka. Zer adierazi gura da beronen bitartez? "**EL** que les expresa solidaridad..." edo " Ø que les expresa solidaridad..."

Amaitzeko, azkeneko baliabide bat geratzen da antzeko esangura duena, *-t(z)eko* menderagailua, zeina ez dugun sartu 1. TEORIAn; izan ere, testuinguru jakin batzuetan bakarrik erabil daiteke:

– ELAko metalgintza federazioak prentsa ohar bat bidali zuen atzo, elkartasuna adierazTEKO Alemaniako metalgintza langileei

### *4.3. ARIKETAK*

Ondoren, proposatuko ditugu ariketa batzuk, eta eurok konpondu edo ebazteko, erakutsi nahi dugu zeintzuk urrats egin behar diren. Horretarako, adibide bat emango dugu erakusgarri, eta beronen azpian eskema orokor bat, erakusteko zeintzuk pauso eman behar diren. Hona hemen adibidea azpian duela eskema orokorra, zeina agertuko den ariketa guztien ondoren:

– Zuzendariak mezu bat bidali digu, gaur ez dela beharrik egingo ESANEZ.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [gaur ez dela beharrik egingo ESANEZ]
2. Baliabideak
   A. **Aditza aurrerengo jarri, buruan (bertan egon ezik)**
   B. ***Eta* juntagailua**
   C. **Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n* egiturak)**
   D. **Nonismoa (*non…bait-/-(e)n* egiturak)**
   E. **Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
   F. ***-T(z)eko* adizlaguna**

Ikusten denez, pauso bi eman behar dira:

1. Identifikatu zer problema daukagun.
2. Zeintzuk baliabide ditugun problema konpontzeko.

Aplika diezazkiogun baliabideak goiko perpausari:

A. **Aditza aurrerengo jarrita**
   – Zuzendariak mezu bat bidali digu, esanEZ gaur ez dela beharrik egingo. (?)

B. ***Eta* juntagailua**
   – Zuzendariak mezu bat bidali digu, ETA esaten digu gaur ez dela beharrik egingo.

C. **Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
   – Zuzendariak mezu bat bidali digu, ZEINETAN esaten BAITigu gaur ez dela beharrik egingo.
   – Zuzendariak mezu bat bidali digu, ZEINETAN esaten diguN gaur ez dela beharrik egingo.
   – Zuzendariak mezu bat bidali digu, ZEINETAN gaur ez dela beharrik egingo esaten BAITigu.
   – Zuzendariak mezu bat bidali digu, ZEINETAN gaur ez dela beharrik egingo esaten diguN.

Lehenengo biak dira irakurterrazenak.

D. **Nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)**
- Zuzendariak mezu bat bidali digu, NON esaten BAITigu gaur ez dela beharrik egingo.
- Zuzendariak mezu bat bidali digu, NON esaten diguN gaur ez dela beharrik egingo.
- Zuzendariak mezu bat bidali digu, NON gaur ez dela beharrik egingo esaten BAITigu.
- Zuzendariak mezu bat bidali digu, NON gaur ez dela beharrik egingo esaten diguN.

Lehenengo biak dira irakurterrazenak.

E. **Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
- Zuzendariak mezu bat bidali digu, esaten zaiguNA gaur ez dela beharrik egingo.
- Zuzendariak mezu bat bidali digu, gaur ez dela beharrik egingo esaten diguNA.

Lehenengoa irakurtzen da errazen.

F. ***-T(z)eko* adizlaguna**
- Zuzendariak mezu bat bidali digu, ESATEKO gaur ez dela beharrik egingo.
- Zuzendariak mezu bat bidali digu, gaur ez dela beharrik egingo ESATEKO.

Azkenekoa irakurtzen da penazen, nekezen.

Ariketotan perpausek sasigerundioa dute ia akats bakarra. Bestalde, denak ez dira hasiera-perpausak, ez dira-eta horrelakoak erraz topatzen. Ditugun ariketak mota bitan banatu ditugu:

A. Gerundioa azkeneko lekuan dago
B. Gerundioa lehenengo lekuan dago

Hona hemen lehen multzoko ariketak:

4.3.1.

Alkateak dekretu bat argitaratu du denden ordutegia emanez.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [denden ordutegia emanez]
2. Baliabideak
   A. Aditza aurrerengo jarri, buruan (egon ezik)
   B. *Eta* juntagailua
   C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)

D. Nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
E. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
F. *-T(z)eko* adizlaguna

4.3.2.

**Haserre**

Idazleak idatzi bat bidali zuen behin egunkarira, gobernuaren politika auzitan jarriz.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [gobernuaren politika auzitan jarriz]
2. Baliabideak
   A. Aditza aurrerengo jarri, buruan (egon ezik)
   B. *Eta* juntagailua
   C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)
   D. Nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
   E. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
   F. *-T(z)eko* adizlaguna

4.3.3.

Nafarroako EHk Oinarrizko Errenta LGSra egokitzeko proposamena egin du 84.000 pezetara igotzea eskatuz.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [84.000 pezetara igotzea eskatuz]
2. Baliabideak
   A. Aditza aurrerengo jarri, buruan (egon ezik)
   B. *Eta* juntagailua
   C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)
   D. Nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
   E. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
   F. *-T(z)eko* adizlaguna

4.3.4.

Tabernan topo egin, eta honelaxe esan ziguten: «Ezkontzera goaz». Segidan, kartazal bat luzatu ziguten, nire eta lagunaren izenarekin. Barruan, poesia eder bat, ezkontzarako gonbidapena luzatuz.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [ezkontzarako gonbidapena luzatuz]
2. Baliabideak
   A. Aditza aurrerengo jarri, buruan (egon ezik)
   B. *Eta* juntagailua

C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)
D. Nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
E. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
F. *-T(z)eko* adizlaguna

4.3.5.

**EUSKAL HERRIKO BASA NATURA** (Liburua)

Bitoriano Gandiagaren poema batek zabaltzen du argazki liburu dotore hau, naturari gorazarre eginez.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [naturari gorazarre eginez]
2. Baliabideak
   A. Aditza aurrerengo jarri, buruan (egon ezik)
   B. *Eta* juntagailua
   C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)
   D. Nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
   E. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
   F. *-T(z)eko* adizlaguna

4.3.6.

**OAXACAKO EGUNEROKOA (liburua)**

XIX. mendeko zientzialarien egunerokoak oinarri harturik, Oliver Sack neurologia irakasleak kaiera hau aurkezten digu, Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura aztertuz.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta cultura aztertuz]
2. Baliabideak

4.3.7.

Urliak proposamen bat egin du euskarari eman behar zaion tratamendua jasoz

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [euskarari eman behar zaion tratamendua jasoz]
2. Baliabideak

4.3.8.

Urliak adierazpen batzuk egin ditu, esanez ETAk armak utzi behar dituela

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [esanez ETAk armak utzi behar dituela]
2. Baliabideak

4.3.9.

Gutun bat heldu zait trafikotik, 200 euro pagatu behar ditudala ohartaraziz.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [200 euro pagatu behar ditudala ohartaraziz]
2. Baliabideak

4.3.10.

Udaletxera erakunde publikoetatik gaztelania hutsezko gutunen bat heltzen denean, bueltan bidaliko dut, udalak euskaraz nahi duela eskatuz.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [udalak euskaraz nahi duela eskatuz]
2. Baliabideak

4.3.11.

Urliak hain egunkaritan gutun bat idatzi du kritikatuz Espainiako Gobernuaren jarrera

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [kritikatuz Espainiako Gobernuaren jarrera]
2. Baliabideak

4.3.12.

Nire lanaren kopia bat bidaliko dizut iritzia eskatuz

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [iritzia eskatuz]
2. Baliabideak

4.3.13.

Lekukotasuna ematen duenak, horko gorabeherak inork baino hobeto ezagututa, liburu bat idatzi du, talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak kontatuz.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak kontatuz]
2. Baliabideak

Pasa gaitezen jorratzera ariketetan lehenengo lekuan dutenak gerundioa.

4.3.14.

**'18/98 auziaren' epaiketa bertan behera uzteko eskatu dute 500 lagun inguruk**

Oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko eskatuz, manifestazio egin zuten atzo iluntzean 500 bat lagunek Donostiako kaleetan.

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [Oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko eskatuz]
2.1. Zer eskema aplikatu behar den:
   – Atzo iluntzean Donostiako Kalean 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten [gerundioaren ordaina euskaraz]
2.2. Baliabideak

4.3.15.

Euskal nazioa onartzeko eskatuz eskutitza bidali diote Zapaterori

1. Identifikatu egin behar da problema, gerundio okerra:
   – [Euskal nazioa onartzeko eskatuz]
2.1. Zer eskema aplikatu behar den:
   – Zapaterori eskutitza bidali diote [gerundioaren ordaina euskaraz]
2.2. Baliabideak

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*Argiro* liburutik hartua) 2-(*Berria,* 2005-10-15, 5. or.) 3-(Ikasle batena) 4-(B, 2005-10-12, 12. or.) 5-(Egunkaria-munduMira...-2001-11-30, 4. or.) 6-(*Gara,* mugalari-2006-5-6, 4. or.) 7- 8- 9- 10- 11-(Irrati batean entzuna) 12- 13-(B, 2006-11-30, 5. or.) 14-(B, 2006-1-14, 11. or.) 15-(Titularra, B, 2005-12-7, 13. or.)

# 5. unitatea

## (*-KO* ATZIZKIA SINTAGMA BATZUETAN)

**HELBURUA:** Ahalik errazen irakurri testua, atzera eroanda alperreko zama.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausetan

– *Ikusi zenuen [atzoKO partida]?*
– *Zapatuan [BilboKO Euskaldunan] izan ginen*

alperrik dago erabilita *-ko* atzizkia leku- eta denbora-sintagmetan.

**SOLUZIOA:** Nahiko da, batzuetan, atzizkia (*-ko*) hutsik kentzea, eta beste batzuetan, *-n* atzizkidun sintagma bihurtzea:

– *Ikusi zenuen atzo_ partida?*
– *Zapatuan Bilbon izan ginen, Euskaldunan*

***Termino jakin beharrezkoak***

– **Sintagmak** (Bilboko Guggenheim / atzoko partida... domekaN, gure herriaN, atzo...)
– **Adizlagunak** (LekeitioN / gure herriaN / /domekaN / atzo goizeaN...)
– **Izenlagunak** (LekeitioKO, aurtenGO, atzo goizeKO
– **Osagarriak** (*-ko* atzizkidunak, izenlagunak: LekeitioKO, aurtenGO...)
– **Atzizkiak** (*-ko*...)
– **Leku-sintagmak** (BilboKO Euskaldunan)
– **Denbora-sintagmak** (atzoKO partida)
– **Semaforoak** (*ondoren*..., menderagailuak, atzizkiak…)

### *5.1. TEORIA*

Unitate honetan aztertuko dugu *-ko* atzizkia, mota bat, batez ere erabiltzen dena denbora- eta leku-esangurako sintagmetan. Askotan esan ohi da gaurko prosa *-ko* atzizkiz (eta erlatiboz) josita dagoela. Eta halaxe da izan. Fenomeno hori frankotan gertatzen da sintagma aztergai mota biotan. Esate baterako:

(1) – Atzo [Bilboko Guggenheim] bisitatu nuen
– Domekan [Lekeitioko San Nikolas] islan izan zen
– Herenegun [nire herriKO etxe batean] ostu zuten

(2) – [AtzoKO partida] ez zitzaidan lar gustatu
– [AurtenGO Ibilaldian] ez naiz izan
– [Atzo goizeKO istripua] ikusi zenuen

Adibide horiek ondo daude horrela? Zelako testuinguruan erabiltzen diren. Esaterako, ondo daude erabiltzen badira erantzuteko galdera hauei:

– Atzo ZEIN Guggenheim bisitatu zenuen?
– Domekan ZEIN San Nikolas islatan izan zen?
– Herenegun ZEIN etxetan ostu zuten?

– ZEIN partida ez zitzaizun lar gustatu?
– ZEIN Ibilalditan ez zara izan?
– ZEIN istripu ikusi nuen?

Ostera, aurkezpen batean erabiltzen badira, non dena informazio berria baita, orduan ez daude egoki. Perpausok ((1) eta (2)) hobetu gura baditugu, aurkezpen-testuinguru batean erabiltzeko, ken diezaiegun *-ko* atzizkia sintagmei, eta ordainetan para diezaiegun *-n* edo Ø, sintagma bi sortuta. Honela:

(1a) – Atzo [BilboN] [Guggenheim] bisitatu nuen
– Domekan [LekeitioN] izan zen [San Nikolas islan]
– Herenegun [nire herriAN] ostu zuten, [etxe batean]

(2a) [Atzo] [partida] ez zitzaidan lar gustatu
– [Aurten] [Ibilaldian] ez naiz izan
– [Atzo goizeAN] [istripua] ikusi zenuen

Sintagmok beste modu batera ere erabil daitezke:

(1b) – Atzo [Guggenhein] bisitatu nuen [BilboN]
– Domekan [San Nikolas islan] izan zen [LekeitioN
– Herenegun ostu zuten [etxe batean], [nire herriAN]

(2b) – [Atzo] ez zitzaidan lar gustatu [partida]
– [Aurten] ez naiz izan [Ibilaldian]
– [Atzo goizeAN] ikusi zenuen [istripua]

Egia esateko, perpausok —batzuk behintzat— modu gehiagotara ere adieraz daitezke. Teorian sarreratxo hau eginda —gehiago sakonduko dugu beste artikulu batean— errazago ulertuko dira adibideak, guk uste.

Ondo dakienak ahozkoaren berri, ez dauka dudarik zer esan dugun, baina ez dira erraz topatzen idatzizko adibideak. Hona adibide batzuk, iritzira topatuak, uste barik:

– Enondoko etxeko semea joan zen [Ameriketara], [Mexikora]. (*Irunen Barrena*, Nikolas Alzola, 126. or.)
– [Supilaur-en], [Gorbeian], Anbotoko Señoraren kobaren aurrean egon ziren andre-gizon bi, ardiak jagoten. (*Idazketa ariketak*, J. G. Gorostiza, Labayru, 111. or.)

Arlo honetan zer sakondu handia geratzen da. Berbarako, ikusi hurrengo adibide biak, guztiz diferenteak:

– ArranondoKO gizon bat atxilotu du Ertzaintzak
≠
– ArranondoN gizon bat atxilotu du Ertzaintzak

Amaitzeko apartadu hau, eta laburpentzat, argi geratu behar da zer helburu daukagun unitate honetan: aurkezpen testuinguru batean ez dago egoki erabilita *-ko*dun sintagma bat, izenlagun bat (batez ere luzea bada):

[—— -KO + izen (konplexu)a]

Gomendatzen dugu *-ko* izenlaguna bihurtzea *-an* adizlaguna, sintagma bakarretik bi bihurtuta:

[—— -AN] + [izen (konplexu)a]

Horrela jokatuta, errazago irakurriko dira sintagmak, komunikagarritasun handiagoa izango dute (horra hor zergatik proposatzen dugun). Edozein modutan, *-ko* izenlagunak (atzoko, aurtengo...) labur edo motzak badira, ez da hain beharrezkoa, komunikagarritasunaren aldetik, ebakitzea edo desegitea sintagma, baldin eta sintagman ez badago alperreko izenlagun gehiagorik. Azken kasu hori ere aztertuko dugu hurrengo batean.

### *5.2. ADIBIDEAK*

Hurrengo adibide guzti-guztietan agertuko da *-ko* atzizkidun informazioren bat, dela denbora esangura duela, dela leku esanahia. Baita beste egitura batzuk ere,

adibidean-adibidean desberdinak. Guk ahaleginak egingo ditugu problema guztiak ebazten. Has gaitezen banan-banan garantzen (aletzen) perpaus aztergaiak.

5.2.1.

**Max Biaggik irabazi du Alemaniako Sari Nagusia**

Max Biaggik bigarren garaipena lortu zuen jarraian Alemaniako sari nagusiko 500 c.c-ko proban.[A]

Igerri-igerrian dago zein osagarrik eragiten duen neketxoa, *non*ek (adizlaguna):

– [Alemaniako sari nagusiko 500 c.c-ko proban]

Hona hemen zelan arteztu (*sari nagusiKO* bihurtuta *sari nagusiAN*):

– Max Biaggik bigarren garaipena lortu zuen jarraian [Alemaniako sari nagusiAN], [500 c.c-ko proban].

Edozein modutan ere, iruntzitara ere garan daiteke gure *non* osagarria, osterantzeko norabidean:

– Max Biaggik bigarren garaipena lortu zuen jarraian [500 c.c-ko proban], [Alemaniako sari nagusiAN].

Gura izanez gero, sar daiteke *eginiko*:

– Max Biaggik bigarren garaipena lortu zuen jarraian [EGINIKO 500 c.c-ko proban], [Alemaniako sari nagusiAN].

Amaitzeko, zalantza gogorra daukagu. Jakinda sari hori Alemanian jokatzen dela, ez ote dago *AlemaniaKO* bilakatzerik *AlemaniaN*?:

– Max Biaggik bigarren garaipena lortu zuen jarraian [AlemaniaN] [sari nagusiko500 c.c-ko proban].
– Max Biaggik bigarren garaipena lortu zuen jarraian [AlemaniaN], [sari nagusiAN], [500 c.c-ko proban].
– Max Biaggik bigarren garaipena lortu zuen jarraian [500 c.c-ko proban] [AlemaniaN], [sari nagusiAN].

5.2.2.

**«Digitalizaziorako ez dago eperik; orain krisian gaude»**

Hainbat urtetan Euskadi Irratiko zuzendari izan ondoren, EITBko irratien arduraduna da Julian Beloki (Legazpia, 1956). (B, 2004-7-20, 45. or.)

A. (B, 2004-7-20, 3. or.)

Ez dugu gustuko zelako hurrenkeran dagoen eratuta perpausa osorik. Lehenengo partea (komara artean) irakurrita, ez dakigu nor den *Euskadi Irratiko zuzendaria*, eta itxaron beharra dago bigarren partera arte. Zergatik ez aurreratu *Julian Beloki* izen propioa lehenengo lekura?

– Julian Beloki (Legazpia, 1956) hainbat urtetan Euskadi Irratiko zuzendari izan ondoren, EITBko irratien arduraduna da.

Lehenengo partea, orain, lar luzea egiten da. Zer edo zer egin beharra dago aditza eta semaforoa (*ondoren*) aurreratzeko. Hona hemen irtenbide bat:

– Julian Beloki (Legazpia, 1956) Euskadi Irratiko zuzendari izan ondoren hainbat urtetan, EITBko irratien arduraduna da.

Gure azpieuskalkian-edo ez genuke erabiliko *izan* aditza, ezpabere *egon*. Horretaz gain, eta beste pare bat operazio eginda (*Euskadi Irratiko* bihurtuta *Euskadi Irratian*, eta *EITBko irratien* bilakatuta *EITBko irratietan*), hurrengo moduan mamituko genuke perpausa:

– Julian Beloki (Legazpia, 1956) zuzendari egon ondoren Euskadi Irratian hainbat urtetan, (orain) arduradun dago EITBko irratieTAn.

Beharbada, testu horren egileak aurrerago ikusi gura luke *hainbat urtetan* informazioa (berak erabilitako lekuan):

– Julian Beloki (Legazpia, 1956) hainbat urtetan zuzendari egon ondoren Euskadi Irratian, (orain) arduradun dago EITBko irratietan.

edo beste hau, zeinetan *zuzendari* paratu dugun aditz ostean:

– Julian Beloki (Legazpia, 1956) hainbat urtetan egon ondoren zuzendari Euskadi Irratian, (orain) arduradun dago EITBko irratietan.

Informazioaren hurrenkeran aldatu bat emanez gero, hona hemen perpausa:

– Julian Beloki (Legazpia, 1956) arduradun dago EITBko irratietan, hainbat urtetan zuzendari egon ondoren Euskadi Irratian.

Amaitzeko, Euskaltzaindiak arau batean (110.ean) berdintzat jo ditu, determinatzailetzat erabiliz gero elementu zehaztuak (zenbakiak), sekuentzia bi, *lau urtean* (singularra) eta *lau urtetan* (mugagabea), iraupena adierazi gura denean, baina forma singularra hobetsita. Guk, geure aldetik, kontuan izanda zelako datuak dauden tradizioan bizkai- eta giputz-berbetan, esan dezakegu baliatzen baditugu determinatzaile zehaztugabeak (*hainbat, zenbait, asko, gutxi*...), forma singularra eta mugagabea, biak erabili izan direla iraupena adierazteko, baina forma singularra nagusiki. Hortaz, *hainbat urtean* zein *hainbat urtetan* hitz-kateak zuzen daude (Euskal Autonomia Erkidegoan behintzat), baina betiere forma singularra hobetsita.

5.2.3.

**Ehunka lagun biktimen omenez**

250 pertsona inguru bildu ziren atzo Donostiako Alderdi Ederren biktimen aldeko elkarretaratzean.[C]

Jatorrizko perpausa, ez dago, esateko, txarto-txarto ere, baina hobe daiteke, orraztu bana emanda bertako osagarri biri, *non*i (*Donostiako Alderdi Ederren*) eta *zertan*i (*biktimen aldeko elkarretaratzean*). *Non* osagarriak, dagoenean, ematen du Alderdi Eder asko daudela hor-hemen, eta elkarretaratzea Donostiako Alderdi Ederren egin dela, eta ez beste ez dakit nongo Alderdi Ederren (ikus 7. unitatea). Zelan argitu lauso hori? Orain arteko bidetik jota; hau da, *non* osagarri bakarretik bi sortuta:

– 250 pertsona inguru bildu ziren atzo [DonostiaN], [Alderdi Ederren], biktimen aldeko elkarretaratzean.

Edo lekuz trukatuta *DonostiaN* eta *Alderdi Ederren*:

– 250 pertsona inguru bildu ziren atzo [Alderdi Ederren], [DonostiaN], biktimen aldeko elkarretaratzean.

*Zertan* osagarri (*biktimen aldeko elkarretaratzean*) luzearen marapiloa ere aska daiteke:

– 250 pertsona inguru bildu ziren atzo DonostiaN, Alderdi Ederren, [elkarretaratzean] [biktimen alde].

Igarrian dagoenez, *alde* paratu dugu *aldeko* zegoen lekuan. Gura izanez gero, txerta daiteke *eginiko*:

– 250 pertsona inguru bildu ziren atzo DonostiaN, Alderdi Ederren, [(bertan) EGINIKO elkarretaratzean] [biktimen alde].

Amaitzeko, duda bat daukagu: *elkarretaratzean* edo *elkarretaratze BATean*?

5.2.4.

**ROY PROBERT NAZIOARTEKO GURUTZE GORRIKO PRENTSA ARDURADUNA**

Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioak Genevan (Suitza) duen egoitzako prentsa arduraduna da Roy Probert.[D]

Perpaus horretan luzeegia da *zer* osagarria:

– [Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioak Genevan (Suitza) duen egoitzako prentsa arduraduna]

C. (B, 2003-12-24, 11. or.)
D. (B, 2003-12-27, 3. or.)

Baina hor eskua sartu aurretik, aldatua emango diogu ordenan perpaus aztergaiari, subjektua (*Roy Probert*) paratuta lehenengo lekuan:

– Roy Probert da Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioak Genevan (Suitza) duen egoitzako prentsa arduraduna.

Segitzen dugu *zer* osagarria luzenga-luzenga dugula, baina badakigu zelan ebaki *zer* hori:

– Roy Probert da [prentsa arduraduna] [NON]

Edo honetara ere eman daiteke:

– Roy Probert [prentsa arduraduna] da [NON]

*Non* hori hezurmamituz gero, honela geratzen da perpaus aztergaia:

– Roy Probert [prentsa arduraduna] da [Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioak Genevan (Suitza) duen egoitzan].

Hala ere, bigarren kortxetean *non* informazioak segitzen du luzetxoa izaten, eta ondorioz, nekagarria irakurtzeko. Aldaketa batzuk egin behar dira bertan, aurreratuta *non* galderaren erantzuna (*Genevan (Suitza)*):

– Roy Probert [prentsa arduraduna] da [Genevan (Suitza)], [Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioak duen egoitzan].

Beste arindutxo bat ere eman dakioke:

– Roy Probert [prentsa arduraduna] da [Genevan (Suitza)], [Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko FederazioAREN egoitzaN].

Azkeneko aukera bietan, azken kortxetean, atzen lekuan dago informazio nagusia (*egoitza*). Badago aurreratzerik:

– Roy Probert prentsa arduraduna da [Genevako egoitza BATean (Suitza)], [Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko FederazioarenEAN].
– Roy Probert prentsa arduraduna da [Genevako egoitza BATean (Suitza)], [Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioak dueneAN].

Azkeneko aldaerok ez ei dira egokiak, elkarrengandik urrunduta daukate-eta sintagma bi (*Roy Probert prentsa arduraduna da* eta *Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioak dueneAN*). Bestalde, *egoitza* berba ez dago zertan erabilirik, guk uste. Orduan honela geratzen da perpausa:

– Roy Probert prentsa arduraduna da [Genevan (Suitza)], Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioan.

Nahi izanez gero, galdegaia (*prentsa arduraduna*) ipin daiteke aditz atzean:

– Roy Probert da [prentsa arduraduna] Genevan (Suitza), Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioan.

Horrela lotura hobea lortzen da kortxete artean, elkarri egiten diote-eta erreferentzia.

Azkeneko hurrenkerak ez ditugu lar gustukoak, aurretik dituztela *Genevako egoitza BATean (Suitza)* edo *Genevan (Suitza)*. Gurago dugu informazio hori atzera eroan, azkeneko kokalekura, beste informazio bat aurreratuta, *Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko FederazioaN*:

– Roy Probert prentsa arduraduna da [Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioan], [Genevako egoitzan (Suitza)].
– Roy Probert prentsa arduraduna da [Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioan], [Genevan (Suitza)].

Amaitzeko, konturatuta-edo gaude guk erabiltzen badugu

– Urlia alkate *dago* Arranondon

hori askok ez dutela erabiltzen gaztelaniaz adierazteko

– Fulano *está* de alcalde en Arranondo

ezpabere

– Fulano *es* el alcalde de Arranondo

Hala bada, perpaus aztergaia hobeto-edo legoke honela emanda:

– Roy Probert prentsa arduradun DAGO Genevan (Suitza), Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioan.
– Roy Probert prentsa arduradun DAGO Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioan, Genevan (Suitza).

Edo aditza (*dago*) aurreratuta, bigarren lekuan ipinita.

5.2.5.

**Basoen bizi-iraupena**

Azken urteotan, Euskal Herriko basoetako suteak ugari egin dira.[E]

E. (B, 2003-12-30, 8. or.)

*Zertzuk* osagarria alperrik dago luzeegi eratuta:

– [Euskal Herriko basoetako suteak]

Hor alperrik dago *-ko* atzizkia *basoetako* berban. *Zertzuk* osagarri horretan *nongo* (*Euskal Herriko basoetako*) *non* bihur daiteke:

– [Euskal Herriko basoetaN]

Hori dela-eta, honela geratzen da perpaus aztergaia:

– Azken urteotan, Euskal Herriko basoetaN suteak ugari egin dira.

Gure ustez, beste hurrenkera bat eman behar zaio perpausari:

– Azken urteotan, [suteak] ugari egin dira [Euskal Herriko basoetaN].

Edo:

– Azken urteotan, ugari egin dira [suteak][Euskal Herriko basoetaN].

Jakina, *ugari* dagoen lekuan ipin daiteke *ugariTU:*

– Azken urteotan, ugariTU egin dira [suteak][Euskal Herriko basoetaN].

5.2.6.

**EUSKADI IRRATIA.** Gaur goizeko *Faktoria* saioan, Gipuzkoako bigarren errausteko planta izango dute hizpide.[F]

Ematen du izenlaguna (*Gaur goizeko*) dela bide, *Faktoria* saio bat baino gehiago dagoela. Erraz-erraz ken daiteke lauso hori, gura izanez gero, izenlaguna (*noizko*) *noiz* bihurtuta:

– **EUSKADI IRRATIA.** Gaur goizeAN, *Faktoria* saioan, Gipuzkoako bigarren errausteko planta izango dute hizpide.

Nahi izanez gero, lekuz truka daitezke *noiz* (*Gaur goizeAN*) eta *non* (*Faktoria saioan*):

– **EUSKADI IRRATIA.** *Faktoria* saioan, gaur goizeAN, Gipuzkoako bigarren errausteko planta izango dute hizpide.

Bigarren partean, gura izanez gero, *hizpide* aurrera daiteke, informazio hori semaforoa antzekoa da-eta:

– **EUSKADI IRRATIA.** *Faktoria* saioan, gaur goizean, HIZPIDE izango dute Gipuzkoako bigarren errausteko planta.

F. (B, 2004-7-20, 47. or.)

### *5.3. ARIKETAK*

Orain arte adibideetan agertu zaizkigu *-ko* atzizkidun sintagmaren bat ez eze baita osterantzeko egitura batzuk ere. Orain, puntu honetan (3. ARIKETAK), perpausetan agertuko zaizkigu ebazkizun *-ko* atzizkidun osagarriak soilik.

Ez dugu ahaztu behar zer kontsigna eman dugun *-ko* atzizkidun osagarriak desegiteko:

[—- -KO + izen (konplexu)a]

Sintagma bakarretik bi egin behar dira, *-ko*-dun informazioa bihurtuta *-an* atzizkidun informazioa:

[—- -AN] + [izen (konplexu)a]

Ariketak, errazago ebazteko asmoz, esanahika sailkatu ditugu, bi multzotan egin ere:

A. -*Ko*dun sintagmak izen propioz horniduta daude
B. -*Ko*dun sintagmek denbora- eta leku-esangura daukate

**A.** Has gaitezen lehenengo puntuko ariketak lantzen. Mota bitako etsenpluak jorratuko ditugu: lehenengoan *-ko*dun sintagmek izen propioren bat osatuko dute (1a); bigarrenean, izen arrunten bat (2a):

(1a) – Bilboko Euskalduna
– Donostiako Kursaala
– Bermeoko Izaro uhartea

(1b) – Lekeitioko txalet batean
– Arranondoko hotel bitan
– Bilboko taberna batean

Zuzen itzazu hurrengo perpausak:

5.3.1.

**Belokik eta Ruizek finalerdietarako hirugarren txartela dute jokoan gaur, Iruñeko Labriten**

Buruz buruko bi txapeldun ohik elkarren aurka jokatuko dute gaur, Iruñeko Labrit pilotalekuan (22:00, ETB1).

[Iruñeko Labrit pilotalekuan]

5.3.2.

**Bortuko lagunak**

Organbidexka eta Saiak elkarteek *Saiak Bortuko Lagunak* erakusketa antolatu dute Baionako Mattin megadendan.

[Baionako Mattin megadendan]

5.3.3.

**Urteko 13. langilea hil da Urretxun**

Tomas Etxeberria Mendiguren zendu zen ostegunean Urretxuko Ofitas harrobian lanean ziharduela.

[ ]

5.3.4.

**Bi etxe okupatu hustu dituzte, bat Donostian eta bestea Gasteizen**

Etxe okupatu bat hustu zuten atzo Donostiako Morlans auzoan ertzainek eta udaltzainek, eta eraitsi.

[ ]

5.3.5.

**Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan ariko da bihar EOS**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan ariko da bihar Principal antzokian aritu beharrean.

[ ]

5.3.6.

**Himalaya**

Nepalgo herriska batean, buruzagia istripuz hil da.

[Nepalgo herriska batean]

5.3.7.

**Indarkeria ate joak Atencon**

Aihotzak dira San Salvador Atenco nekazari herriko biztanle gehienen lanabesa.

[ ]

5.3.8.

**Bi ‘atsoak’ ospitalera joango dira bisitan**

Wazemank saioko bi atsoak ospitalera joango dira lagun bat bisitatzera, eta langile guztiak aztoratuko dituzte.

[ ]

**B.** Pasa gaitezen bigarren puntuko ariketak egitera. Hemen ere mota bitako etsenpluak daude: batean *-ko*dun sintagmek denbora-esanahia daukate (2a); bestean, leku-esangura (2b):

(2a) – Atzoko pelikula
– Aurtengo denboraldia
– Iazko txapelketa

(2b) – Udaletxeko batzar-gela
– Arranondo herriko plaza
– Nebaren logelako armairuan

Artez itzazu ondoko perpausak:

5.3.9.

**Euskal Herria ezkerretik eraikiz, Euskal Herri sozialista!**

Aurtengo maiatzaren lehena kontestu berezian kokatzen da zalantzarik gabe.

[Aurtengo maiatzaren lehena],

5.3.10.

**«Erabakia ezingo da Madrilen berriz negoziatu», esan du EAk**

«Berezia» izango da aurtengo Aberri Eguna Onintza Lasa EAren Komunikazio arduradunaren esanetan.

[aurtengo Aberri Eguna]

5.3.11.

**Urte hasiera oparo eta sendoa**

«Ez nuen espero txapela janztea» adierazi zuen Donato Larretxeak, igandeko Urrezko Aizkora irabazita.

[igandeko Urrezko Aizkora]

5.3.12.

**EN LA CUMBRE**

Bost pertsonaren bizitza gurutzatu egingo da New Yorken, udazkeneko egun batean.

[ ]

5.3.13.

**Bost lagun hil dira Kaxmirren, meskita baten aurkako erasoan**

NWDELHI. Indiaren mendeko Kaxmirko Pulwana barrutiko meskita batera esku granada bat jaurti zuten atzo, eta erasoaren ondorioz bost lagun hil eta 50 zauritu ziren.

[Kaxmirko Pulwana barrutiko meskita batera]

5.3.14.

**TANKE ERDI HUTSEKO GREBA**

Halamoduzko emaitzak eman ditu Araban eta Nafarroan deitutako gasolina zerbitzuetako grebak.

[gasolina zerbitzuetako grebak]

5.3.15.

**Bilboko kaleak egokitu egingo dituzte zirkulazioa hobeto antolatzeko**

Bilboko kaleak egokituko dituzte hirigune barruko trafikoa hobeto antolatzeko.

[ ]

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*Berria,* 2006-5-5, 29. or.) 2-(B, 2004-3-1 ) 3-(B, 2004-3-20, 24. or.) 4-(B, 2006-5-25, 19. or.) 5-(B, 2006-6-5-26, 45. or.) 6-(B, 2006-4-30, 49. or.) 7-(2006-B-gehigarria-5-28, 1. or.) 8-(B, 2006-5-19, 41. or.) 9-(*Gara,* 2006-5-1, 10. or.) 10-(2006-4-13, 10. or.) 11-(B, 2003-6-24, 31. or.) 12-(B, 2006-4-30, 49. or.) 13-(B, 2006-11-11, 23. or.) 14-(B-Hitz bitan-2006-12, 25. or) 15-(B, 2006-11-11, 18. or.)

# 6. unitatea

## (*-KO* ATZIZKIA POSTPOSIZIO BATZUETAN)

**HELBURUA:** Komunikagarriago egin testua, atzera eroanda alperreko karga.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausetan

*– Atzo [drogari buruzKO hitzaldi batean] izan nintzen*
*– Domekan [euskararen aldeKO manifestazio batean] izan nintzen*

alperrik erabilita dago *-ko* atzizkia, postposizioei (buruz, gainean…) inkatuta.

**SOLUZIOA:** Ken dezagun atzizki hori, eta eroan dezagun aditz ostera:

*– Atzo hitzaldi batean izan nintzen [drogari buruzØ]*
*– Domekan manifestazio batean izan nintzen [euskararen aldeØ]*

***Termino jakin beharrezkoak***

– **Postposizioak** (*buru, gain, inguru, alde, arte*…)
– **Aurretestuingurua** (testuinguru mota hau zerbaiten aurrean dago)
– **Osagarriak** (*zer, non*… osagarriak)
– **Sintagmak** (*drogaren gaineko hitzaldi bat*…)
– **Izenlagunak**. (*drogaren gaineko*…)
– **Atzizkiak** (*-ko*…)
– **Determinatzaileak** (*-a, -ak, bat, batzuk*…)
– **Aurkezpen testuingurua** (aurkezpen-egoera, informazioa berria denean)
– **Semaforoak** (*bera(u)*, menderagailuak, atzizkiak…)

### *6.1. TEORIA*

Unitate honetan jorratuko dugu zelan erabili behar diren postposizio batzuk (*buruz, gainean, inguruan*...), egoera jakin batean: aurkezpen-testuinguruetan, hots, lehenengoz sartzen direnean elementuak, dena denean informazio berria. Gaurko prosa beteta eta josita dago *-ko* atzizkiz: nonahi ikusten dira buruz*ko*, gain*eko*, alde*ko*… eta ez dugu, atzizki horren beharrizanik somatzen aurkezpen egoeretan; izan ere, aitaturiko egoera komunikatiboan ez genien horrelakorik entzuten ez gurasoei, ez hiztunik onenei ere inguruan. Guk, gogoratzen dugunetik, modu bakarrean-edo entzuten genien euskara ondo zekitenei erabiltzen postposizio horiek atzizki eta guzti. Esaterako, *gaineko*:

– Asko gustatzen zait "zaldi gaine*ko* toreoa"

Eta gaur bakarretan ikusi-entzuten da adiera horretan erabilita *gaineko* (toreo mota bat adierazteko); ostera, aurkezpenetan-eta prosa josita dago *gainekoz*-eta (*buruzko*…), ia ezagungabeak gure aurrekoentzat (ikusi besterik ez daude ahozko testuak eta *Auspoa* saileko liburuak).

Ikus dezagun zelako testuinguruan erabili behar diren *gainean*, *buruz*… postposizioak, eta ez *buruzko*, *gaineko*... Egin dezagun aurkezpen batean, aurretestuinguru barik, hasten garela kontatzen zer egin behar dugun bihar:

– (1) Bihar [hitzaldi bat] egin behar dut Bilbon [drogaren gainean]

Edo pelikula baten berri eman behar dugula, beti ere aurkezpen batean:

– (2) Atzo [pelikula bat] ikusi nuen [Espainiak eginiko genozidioari buruz Ameriketan]

Edo atzo izaniko autu baten berri eman gura diodala adiskide bati:

– (3) Atzo [konbersazio bat] izan nuen urliarekin [Bushen sasidemokraziaren gainean]

Hiru perpausotan, lehenengo, ageri da informazio mota bat, informazio gunea (hitzaldi / pelikula / konbersazio); ondoren, zer esaten den informazio-gune horien gainean (drogaren gainean / Espainiak eginiko genozidioari buruz Ameriketan / Bushen sasidemokraziaren gainean). Hiru perpaus horiek gaur nagusiki iruntzitara erabiltzen dira, atzekoz aurrera:

– (1a) Bihar [drogaren gaineKO hitzaldi bat] egin behar dut Bilbon
– (2a) Atzo [Espainiak Ameriketan eginiko genozidioari buruzKO pelikula bat] ikusi nuen
– (3a) Atzo [Bushen sasidemokraziaren gaineKO konbersazio bat] izan nuen urliarekin

Hirurok nekagarriak dira irakurtzeko. Zergatik eman modu horretan, izena daukatela osagarriaren (izenlagunaren) ostean, eta ez aurrean, azken honetara askoz errazago irakurtzen bada, eta horrela erabili izan bada beti ahoz?

Zertatik dator akats hori, batera ematekoa informazio-gunea eta gainerakoa, sintagma bakarrean? Ohi legez, sustraiak erdaran daude, gaztelanian. Izan ere, erdaraz, itxura batean, sintagma bakarra osatzen dute informazio mota biok:

– [una conferencía *sobre* la droga]
– [una película *sobre* el genocidio de España en América]
– [una conversación *sobre* la pseudodemocracia de Bush]

Hortaz, eta amaitzeko, aurkezpenetan lehenengo paratu behar dugu informazio-gunea, eta gero zer diogun gune horri buruz, gainerako informazioa:

– [hitzaldi bat] [drogaren gainean]
– [pelikula bat] [Espainiak eginiko genozidioari buruz Ameriketan]
– [konbersazio bat] [Bushen sasidemokraziaren gainean]

Beraz, unitate honetan erakutsi nahi dugu helburutzat testuinguru jakin batean ez dagoela aurkezpenetan zertan erantsi *-ko* atzizkia postposizioei. Izan ere, atzizki hori barik eta informazio gunea aurreratuta, ezin komunikagarriagoak egiten dira perpausak. Beraz, gure proposamenaren bidez errazago prozesatzen da informazioa.

Orain arte hasi-masiak besterik ez ditugu eman zelan erabili egoki aitaturiko postposizioak, baina testuinguru batera mugatuak, aurkezpen-testuingurura. Hurrengo batean gehiago eta sakonago.

### *6.2. ADIBIDEAK*

Hurrengo adibide guzti-guztietan agertuko dira egiturak *buruzkoz*, *gainekoz*... josirik. Baina baita beste egitura batzuk ere, adibidean-adibidean ezberdinak. Gu saiatuko gara problema guztiak ebazten. Has gaitezen banan-banan garantzen adibideak.

6.2.1.

**Asteazkena**

DOKUMENTALA

Kanputxeako Phnom Penh hiriburuko pobreziari buruzko dokumentala.[A]

Nekagarritxo irakurtzen da; izan ere, *zer* osagarria

– [Kanputxeako Phnom Penh hiriburuko pobreziari buruzko dokumentala]

A. (B, 2004-7-20, 45. or.)

lar luzea da, azkeneko lekuan duela informazio gunea, *dokumentala*. Adibide horretan aurkeztu egiten da informazioa, aurkezpen-testuinguruan dago perpausa. Gauzak horrela, ez daukagu, teorian ikusi dugunez, zertan eman osagarri luze eta bakar hori. Egin dezagun osagarri bakarretik bi, lehenengoa *dokumentala* berbaz osatua eta bigarrena gainerako informazioaz:

– [Dokumentala] [Kanputxeako Phnom Penh hiriburuko pobreziari buruzko]

Baina zelan gehitu *dokumentala* informazioari gainerakoa (*Kanputxeako Phnom Penh hiriburuko pobreziari buruzko*)? Zelako formatoa erabilita? Ez ondoko modu bietara:

– Kanputxeako Phnom Penh hiriburuko pobreziari buruzko
– Kanputxeako Phnom Penh hiriburuko pobreziari buruzkoA

ezpabere, teorian ikusi dugunez, *-ko* atzizkia kenduta *buruzko*ri:

– [Dokumentala] [Kanputxeako Phnom Penh hiriburuko pobreziari buruz]

Azken aldaera hori beste era batera ere eman daiteke, zati bi eginda bigarren kortxetea:

– [Dokumentala] [Phnom Penh hiriburuko pobreziari buruz], [(berau) KanputxeaAN]

Baina aldaera hori egokiago eman daiteke, gure ustez behintzat. Hona hemen zelan (zehar-galdera erabilita, esangura interrogatiboa baitu informazioak) (ikus 8. unitatea):

– [Dokumentala] [ZELAKO egoeran dagoeN pobrezia Phnom Penh hiriburuaN, KanputxeaN]
– [Dokumentala] [ZER egoeratan dagoeN pobrezia Phnom Penh hiriburuaN, KanputxeaN]

Edo, gure ustez, nahien, egokien:

– [Dokumentala] [ZERTAN deN pobrezia Phnom Penh hiriburuaN, KanputxeaN]

6.2.2.

**Alvar Aaltoren obrari buruzko argazkiak**

Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruzko erakusketa dago Donostiako Rezola Museumen, urtarrilaren 18ra bitartean.[B]

Perpaus horrek marapilo nagusia dauka *zer* osagarria lar luzea duela, zeri barik:

B. (B, 2003-12-31, 37. or.)

– [Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruzko erakusketa]

Baina has gaitezen, lehenengo-lehenengo, atzekoz aurrera ipintzen perpaus osoa:

– Donostiako Rezola Museumen, urtarrilaren 18an bitartean, Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruzko erakusketa dago.

Ora diezaiogun *zer* osagarriari (*Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruzko erakusketa*). Horren informazio-gunea *erakusketa* da, zeina, teorian ikusi dugunez, lehenengo paratu behar den eta ondoren gainerako informazioa (*Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruzko*). Honela:

– Donostiako Rezola Museumen, urtarrilaren 18an bitartean, [erakusketa] dago [Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruz].

Ikusten dugunez, *buruzko* barik *buruz* paratu dugu. Baina kazetariak bestelako hurrenkera gurako luke, berak erabili duena:

– [Erakusketa] dago [Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruz], Donostiako Rezola Museumen, urtarrilaren 18an bitartean.

Edo:

– Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruz erakusketa dago, Donostiako Rezola Museumen, urtarrilaren 18an bitartean.

Azken hori gramatikala izan arren, ez litzateke erabili behar aurkezpenetan. Guk honela gurako genuke perpausa (*Donostiko* bihurtuta *DonostiAN*):

– Erakusketa (bat) dago Alvar Aalto arkitekto finlandiarraren obrari buruz, DonostiaN, Rezola Museumen, urtarrilaren 18an bitartean.

6.2.3.

**Sardinia:**

Forza Italiako Erromako Legebiltzarreko kide baten etxearen kontrako erasoa egin zuten Oristano herrian.[C]

Perpaus hori nekeztxo irakurtzen da, *zer* osagarria lukainka da-eta:

– [Forza Italiako Erromako Legebiltzarreko kide baten etxearen kontrako erasoa]

Lukainka horretan informazio-gunea *erasoa* da, zeina paratu behar den lehenengo eta ondoren gainerako informazioa (berton, dakigunez, *kontra* idatzi behar da, eta ez *kontrako*):

C. (B, 2003-12-27, 20. or.)

– [Erasoa] [Forza Italiako Erromako Legebiltzarreko kide baten etxearen kontra]

Orain txerta dezagun hori perpausean, aurrerengo lekura pasata *non* osagarria (*Oristano herrian*), zeina atzen lekuan zegoen jatorrizko perpausean:

– Oristano herrian [erasoa] egin zuten [Forza Italiako Erromako Legebiltzarreko kide baten etxearen kontra].

*Noren kontra* osagarrian, informazio-burua, *etxea*, erabiliko dugu aurkezpen-testuinguruetan egiten den moduan, aurreratuta eta *bat* determinatzailea duela lagun, *etxe bat*. Horren ondorioz, desegin beharra dago osagarri bakarra, eta bi sortu. Honela:

– Oristano herrian erasoa egin zuten [etxe BATen kontra], [Forza Italiako Erromako Legebiltzarreko kide batenA].

Edo *berau* semaforoa paratuta aurrerengo lekuan:

– Oristano herrian erasoa egin zuten etxe baten kontra, [BERAU Forza Italiako Erromako Legebiltzarreko kide batenA].

Gure ustez, hor badago zer hobeturik:

– Oristano herrian erasoa egin zuten etxe baten kontra, [BERAU Forza Italiako kide batena Erromako LegebiltzarreAN].

*Berau*ren ordez erabil daiteke *bera* ere. Azken hori balia daiteke azken lekuan ere:

– [Forza Italiako Erromako Legebiltzarreko kide batenA BERA]

Baina *bera* semaforoa azkeneko lekuan ez da komunikagarria, sintagma luzea bada (eta halakoxea da goikoa). Bestalde, dihardugun adibidean *bera(u)* semaforoak barik eman daiteke sintagma:

– Oristano herrian erasoa egin zuten etxe baten kontra, [Forza Italiako kide batena Erromako LegebiltzarreAN].

Guri berez irteten zaigu *kontra* kenduta eta N-NI-NK bihurtuta aditza. Horrela, eta kontuan hartuta hainbat baliabide ditugula, hona hemen hainbat modu perpausa adierazteko:

– Oristano herrian erasoa egin zIOten [etxe batI], [(berau) Forza Italiako kide batena Erromako Legebiltzarrean].
– Oristano herrian erasoa egin zioten [etxe bati], [ZEINA BAITa Forza Italiako kide batena Erromako Legebiltzarrean].

– Oristano herrian erasoa egin zioten [etxe bati], [ZEINAREN jabea BAITa Forza Italiako kide bat Erromako Legebiltzarrean].
– Oristano herrian erasoa egin zioten [etxe bati], [ETA HAU DA Forza Italiako kide batena Erromako Legebiltzarrean].
– Oristano herrian erasoa egin zioten [etxe bati], [ETA HORREN JABEA DA Forza Italiako kide bat Erromako Legebiltzarrean].

Adibide guztiotan ageri da *erasoA*, baina ez ote *eraso BAT*?

6.2.4.

**«Demokrazia eskuratzeko neurri ausartak» eskatu dizkio EAk PSEri**

EAko eta PSE-EEko buruzagiek bilera egin dute euskal politikagintzari buruzko iritziak trukatzeko.[D]

Begiratu batean ikusten da perpaus horretan luzeegia dela *zertarako* osagarria (*euskal politikagintzari buruzko iritziak trukatzeko*), hortxe dagoela problema zergatik irakurtzen den nekez perpausa. Badakigu zelan arindu zama hori, zelan ebaki osagarri luzenga hori: aurreratuta informazio-gunea (*iritziak*) eta atzera eroanda gainerako informazioa (*euskal politikagintzari buruz*):

– EAko eta PSE-EEko buruzagiek bilera egin dute [iritziak] trukatzeko [euskal politikagintzari buruz].

Gura izanez gero, *iritzi* pasa daiteke *trukatzeko* mendeko aditzaren atzera:

– EAko eta PSE-EEko buruzagiek bilera egin dute trukatzeko [iritziak] [euskal politikagintzari buruz].

6.2.5.

**Esan gabekoak**

Beste urte batzuetako mezuetan (2.000 eta 2.002), "Espainia nazio plural" gisa egituratzeari buruzko aipamenak egiten zituen Konstituzioari buruz jardutean, baina aurtengo mezuan [Espainiako] Erregeak nahiago izan du batasun mezua igorri eta "gure Konstituzioaren balio, arau, printzipio eta espiritu integratzaileari elkarrekin eusteko" deia egin.[E]

Perpaus horretan parte bi bereiziko ditugu. Hona hemen lehenengoa:

– Beste urte batzuetako mezuetan (2.000 eta 2.002), "Espainia nazio plural" gisa egituratzeari buruzko aipamenak egiten zituen Konstituzioari buruz jardutean, (...)

D. (B, 2004-7-20, 10. or)
E. (B, 2003-12-27, 6. or.)

Parte horretan buruhauste bat dago: *zertzuk* osagarri lar luzea:

– ["Espainia nazio plural" gisa egituratzeari buruzko aipamenak]

Hori dela-eta, garandu beharra dago; ebaki beharra sintagma luze hori. Zelan? Lehenengo, informazio-muina jarrita (*aipamenak*) eta, ondoren, beste informazioa. Honela:

– Beste urte batzuetako mezuetan (2.000 eta 2.002), [aipamenak] egiten zituen ["Espainia nazio plural" gisa egituratzeari buruz] Konstituzioari buruz jardutean, (...)
– Beste urte batzuetako mezuetan (2.000 eta 2.002), [aipamenak] egiten zituen ["Espainia nazio plural" gisa egituratzeari buruz] jardutean Konstituzioari buruz, (...)

Erreparatu *buruz* paratu dugula, ez *buruzko*, ezta *buruzkoa* ere. Amaitu dugula perpausaren lehen partea, jo dezagun bigarrenera:

– ,baina aurtengo mezuan [Espainiako] Erregeak nahiago izan du batasun mezua igorri eta "gure Konstituzioaren balio, arau, printzipio eta espiritu integratzaileari elkarrekin eusteko" deia egin.

Hor korapilo testual gogorra dago, *zer* osagarri luzeegia:

– [batasun mezua igorri eta "gure Konstituzioaren balio, arau, printzipio eta espiritu integratzaileari elkarrekin eusteko" deia egin]

Parte bi daude, *eta* juntagailuak bananduta. Bigarren partea luzea da, azkeneko kokalekuan duela informazio nagusia (*deia egin*). Zergatik ez aurreratu berori?

– [batasun mezua igorri eta DEIA EGIN "gure Konstituzioaren balio, arau, printzipio eta espiritu integratzaileari elkarrekin eusteko"]

Badago hori hobetzerik, informazio bat aurreratuta (*elkarrekin eusteko*):

– [batasun mezua igorri eta "deia egin ELKARREKIN EUSTEKO gure Konstituzioaren balio, arau, printzipio eta espiritu integratzaileari"]

Bat eginez gero perpausaren parte zuzendu biekin, hona hemen emaitza:

– Beste urte batzuetako mezuetan (2.000 eta 2.002), aipamenak egiten zituen "Espainia nazio plural" gisa egituratzeari buruz Konstituzioari buruz jardutean, baina aurtengo mezuan [Espainiako] Erregeak nahiago izan du batasun mezua igorri eta deia egin elkarrekin eusteko "gure Konstituzioaren balio, arau, printzipio eta espiritu integratzaileari".

Hor problematxo bi ikusten ditugu:

1. *Buruz* bi bider aitatzen da; zatartu egiten dute testua. Ken dezagun lehenengoa eta ordainetan jarri perpaus zehar-galdera bat, testuinguruak esangura interrogatiboa dauka-eta (ikus 8. unitatea).
2. Ez da komeni *erregeak* aitzinatzea?

Operazio biok eginda, ikus dezagun emaitza:

– [Espainiako] Erregeak beste urte batzuetako mezuetan (2.000 eta 2.002) aipamenak egiten zituen ZELAN egitaratu "Espainia nazio plural" gisa Konstituzioari buruz jardutean, baina aurtengo mezuan nahiago izan du batasun mezua igorri eta deia egin elkarrekin eusteko "gure Konstituzioaren balio, arau, printzipio eta espiritu integratzaileari".

Adibide guztietan ageri da *aipamenak egiTEn zituen*, baina ondo ote? Ez ote *aipamenak egin zituen*?

6.2.6.

**Elkarreratzea egingo da gaur, Zarautzen, Uriaren askatasuna eskatzeko**

Gaur betetzen dira 17 hilabete *Egunkaria*-ren kontrako operazio poliziala hasi zela.[F]

Perpaus horretan luzetxoa da *zer* osagarria (*Egunkaria*-ren kontrako operazio poliziala), eta azken lekuan dago mendeko aditza (*hasi zela*). Bi kontuok nekagarritxoa bilakatzen dute perpausaren irakurketa. Errazago irakurtzen da aurrerago eroanez gero mendeko aditza:

– Gaur betetzen dira 17 hilabete HASI ZELA *Egunkaria*-ren kontrako operazio poliziala.

Edozein modutan, badago errazago paratzerik perpaus aztergaia, zati bitan ebakita *zer* osagarria, ohi denez. Horretarako, aurrera dezagun informazio burua, *operazio poliziala*, eta eroan atzera gainerakoa, "*Egunkaria*-ren kontra":

– Gaur betetzen dira 17 hilabete [operazio poliziala] hasi zela [*Egunkaria*-ren kontra].

Kargutzen bagara, ez dugu idatzi *kontrako*, baizik eta *kontra*. Bestera ere eman liteke perpausa, *operazio poliziala* eroanda non dagoen mendeko aditza (*hasi zela*), hara:

– Gaur betetzen dira 17 hilabete hasi zela [operazio poliziala] [*Egunkaria*-ren kontra].

Hurrengo modu honetan ere hobeto sekuentziatuta dago informazioa jatorrizko perpausean baino:

F. (B, 2004-7-20, 10. or.)

– Gaur betetzen dira 17 hilabete [operazio poliziala] hasi zela [*Egunkaria*-ren kontra].

Guk ezagutu dugun ahozkorik onenean, honela esango litzateke:

– Gaur 17 hilabete hasi zen [operazio poliziala] [*Egunkaria*-ren kontra].
– Gaur betetzen dira 17 hilabete hasi zela [operazio poliziala] [*Egunkaria*-ren kontra].

6.2.7.

**Ostirala**

THALASA

Munduko hainbat uharte erakutsiko dituzte itsasoari buruzko *Thalassa* saioan.[G]

Perpaus aztergaian, eta ez da nekez irakurtzen, luzea da *non* osagarria (*itsasoari buruzko* Thalassa *saioan*), zeri barik izan ere. Perpausak, dagoenean, ematen du Thalasa saio bat baino gehiago dagoela, izenlaguna dela-eta (*Munduko hainbat uharte erakutsiko dituzte itsasoari buruzko*) (ikus 7. unitatea). Badakigu zelan kendu lauso hori perpausari eta zelan arindu *non* osagarria: aurrera eroanda informazio gunea (*Thalassa* saioan) eta atzera bestea, *-ko* atzizkia kenduta *buruzko*ri (*itsasoari buruz*). Esanikoa honela hezurmamitzen da:

– Munduko hainbat uharte erakutsiko dituzte [*Thalassa* saioan], [itsasoari buruz].

Jantziagotu daiteke.

– Munduko hainbat uharte erakutsiko dituzte [*Thalassa* saioan], [ZEINA itsasoari buruz ari BAITa]
– Munduko hainbat uharte erakutsiko dituzte [*Thalassa* saioan], [ZEINA itsasoari buruz ari deN]
– Munduko hainbat uharte erakutsiko dituzte [*Thalassa* saioan], [ETA HAU itsasoari buruz ari da]

Baina jantziok pisuegiak dira beharrizan barik erabiltzeko.

### *6.3. ARIKETAK*

Orain arte, ADIBIDEAKen agertu zaizkigu *buruzko*, *gaineko*... egiturak ez eze baita osterantzekoak ere. Puntu honetan, perpausetan aitaturiko egiturak agertuko dira soilik-edo, informazio-guneek determinatzailetzat dutela *bat(zuk).*

G. (B, 2004-7-20, 45. or.)

Ariketa guztietan postposiziodun informazioak emanda daude aurkezpenetan, informazio guztiak berriak direla. Horrelakoetan, esan dugu, alperrik daude *-ko* atzizkiak, eta komunikagarriago egin gura badugu perpausa, informazio-aldaketa egin behar da:

[....buruzKO + izena] = [izena] + [...buruz Ø]

Etsenpluak multzo bitan banatu ditugu: lehenengoan (A) sartu ditugu izen-sintagmaren burutzat izen hutsa dutenak; bigarrenean (B), izena eta adjetiboren bat dutenak. Has gaitezen ariketak egiten.

**A**. *Sintagma-burua izen hutsa dutenak*

6.3.1.

**YO, PUTA** [Filma]

Kazetari bat prostituzioari buruzko ikerketa bat egiten ari da.

[prostituzioari buruzko ikerketa bat ]

6.3.2.

**ETB1-'Sautrela'**

**EBko herrialde berrietako literatura**

Europako Batasuneko herri berrietako literaturari buruzko erreportaia bat emango dute.

[Europako Batasuneko herri berrietako literaturari buruzko erreportaia bat]

6.3.3.

**Instituzioari buruzko testua hitzartu dute Iparraldeko abertzaleek**

Abertzaleen Batasunak, Batasunak eta Eusko Alkartasunak Ipar Euskal Herrirako instituzio aldarrikapenari buruzko testu bat hitzartu dute.

[Ipar Euskal Herrirako instituzio aldarrikapenari buruzko testu bat]

6.3.4.

**AHT Euskal Herrian, zertarako?**

Eusko Jaurlaritzak eta Madrileko agintariek *Euskal Y*-ari buruzko itun bat izenpetuz gero, protesta asko pizten ari dira Euskal Herrian.

[ ]

6.3.5.

**Cava ezagutzeko eta dastatzeko abagunea**

Cavari buruzko hitzaldia emango du Jesus Oleaga sukaldariak gaur Eibarren, Arrate kultur elkarteak gonbidatuta.

[ ]

6.3.6.

**Urliari** [Kendu egin dut agertzen den pertsona izena]

Lehengoan nire zutabe bati buruzko gogoeta irakurri nizun eta erantzun gura nizuke txarto ulertua egon delakoan.

[ ]

6.3.7.

**Nortasun mugagabea eta kultur aniztasuna artean**

Latinoamerikako arteari buruzko erakusketa jarri dute Iruñeko Ziudadelan

[ ]

6.3.8.

**Herriaren begitik**

Bertsozale Elkartea, azkeneko Txapelketa Nagusiaren karietan, bertsozaleta-sunaren gaineko ikerlana burutzen ari da.

[ ]

6.3.9.

**Liburutegi digitalei buruzko hitzaldia Eibarren**

Joxe Mari Egaña Mondragon Unibertsitateko liburuzainak liburutegi digitalen gaineko hitzaldia emango du gaur 16:00etan Eibarko UEUren ikastetxe nagusian.

[ ]

6.3.10.

**‘Iraintzea hitzez jotzea da’ erakusketa**

*Iraintzea hitzez jotzea da* lelopean berben biolentziaren gaineko erakusketa egongo da bihartik hasi eta hurrengo domeka arte Herri Bibliotekan.

[ ]

6.3.11.

**ETB2-'Vaya semanita'**

**EAJren Aberri Eguna**

EAJk Bilbon ospatu zuen Aberri Egunaren inguruko erreportaia egingo du Iñigo Agirrek.

[ ]

**B**. *Sintagma-ardatza izena eta adjektiboren bat dutenak*

6.3.12.

**Cinco condiciones** [Filma]

1967an Jorgen Leth idazle eta irakasleak pertsonen jokabideari buruzko film labur bat egin zuen.

[ ]

6.3.13.

**Euskara azterketa "makroetan" eta egitasmo berrietan**

Azkeneko "Bat" soziolinguistika aldizkarian, besteak beste, makroikerketa soziolinguistikoei buruzko irakurketa kritikoa egiten da,

[ ]

6.3.14.

**Manuel Altolaguirre idazlea hizpide La2n**

XX. mendeko sortzaileen inguruko dokumental saio berri bat estreinatuko dute gaur La2 katean, *Manuel Altolaguirre: la impresión del 27* lanarekin.

[ ]

6.3.15.

**Zuzendu asmoz**

Aurreko igandean, 2004ko otsailaren 29an, *Pareak Bai* ataleko elkarrizketan, Barañaini buruzko datu okerra azaldu zen.

[ ]

### *Adibideon nongo-noizkoak*

1-(*Berria,* 2004-5-8, 49. or.) 2-.(B, 2004-5-1, 50. or.) 3-(B, 2004-3-28, 3. or.) 4-(B, 2006-4-28, 7. or.) 5-(B, 2006-11-23, 43. or.) 6-(B, 2006-3-9, 9. or.) 7-(B, 2004-4-13, 32or.) 8-(B, 2006-4-29, 36. or.) 9-(B, 2004-2-27, 41. or.) 10-(*HITZA*, 2004-3-21, 5. or.) 11-(B, 2004-4-15, 46. or.) 12-(B, 2004-5-21, 49. or.) 13-(*Argia,* 2003-9-21, 31. or.) 14- 15-(B, 2004-3-6, 7. or.)

# 7. unitatea

## (ERLATIBO MOTA BAT IZEN ATZERA)

**HELBURUA:** Komunikagarriago egin testua, atzera eroanda erlatiboa.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausean

*– [Zortzi hizkuntza dakizkien] pertsona bat ezagutu dut*

alperrik dago erabilita erlatiboa, gainkarga egiten du-eta.

**SOLUZIOA:** Eroan dezagun erlatiboa izen atzera, kasu honetan, azken lekura:

*– Pertsona bat ezagutu dut [zortzi hizkuntza dakizkien**A**]*

***Termino jakin beharrezkoak***

– **Erlatibo klasikoak** (*zein…bait-/-(e)n*, *non…bait-/-(e)n*)
– **Aurkezpen testuingurua** (aurkezpen-egoera, informazioa berria denean)
– **Egitura erlatibo jokatua** (*-(e)na*…)
– **Egitura erlatibo jokatugabeak** -I/II/III [partizipioa + -TA/-(R)IK/Ø + *-koa*…]
– **Menderagailuak** (*-(e)n*, *bait-, -(e)la*…)
– **Juntagailuak** (*eta*…)
– **Zeinismoa** (*zein…bait-/-(e)n* egiturak)
– **Nonismoa** (*non…bait-/-(e)n* egiturak)
– **Beronismoa** (esaten diogu egitura batzuetan erakusleak —*bera(u), hau*…— erabiltzeari. Ikus 2. eranskina)
– **Determinatzaileak** (*bat, asko, gutxi, hainbat, -a, -ak*…)
– **Artikuluak** (*-a, -ak*)
– **Osagarriak** (*zer, nortzuk, nork, zertan*… osagarriak)
– **Sintagmak** (*zer*… sintagmak)

### 7.*1. TEORIA*

Unitate honetan alperreko erlatibo bat aztertuko dugu, non menderagailua (*-(e)n*) izenaren ezkerretara paratzen baita. Hona hemen adibide batzuk aurkezpen-testuinguruan emanak, informazio guztia berria dela:

(a) – Umetan ["Cara al sol" eta "Aldapeko" abestiak kantatu eragiten zizkigun] maestra BAT eduki genuen
– Atzo [500.000 euro balio duen] auto BAT ostu zuten Arranondon
– Herenegun [txakurrek ere gaztelaniaz egiten duten] herri BATean izan ginen

Perpausotan erlatiboek (kortxete artean) eskumatara dituzte izenak (azpimarratuak), eta eurok *bat* determinatzailea dute lagun, zeina gehienetan agertzen den *nor* kasuan deklinatuta (baina ager daiteke edozeinetan ere).

Perpausok nekeztxo irakurtzen dira, erlatiboek karga eragiten dute-eta. Zelan arindu, erraztu irakurketa? Pasa ditzagun erlatibook izen atzera eta gaineratu artikulua (*-a*):

(a1) – Umetan maestra bat, ["Cara al sol" eta "Aldapeko" abestiak kantatu eragiten zizkigunA], eduki genuen
– Atzo auto bat, [500.000 euro balio duenA], ostu zuten Arranondon
– Herenegun herri batean, [txakurrek ere gaztelaniaz egiten dutenA], izan ginen

Adibideotan erlatiboak aditz aurrean paratu ditugu, baina gehiagotan erabili ohi da aditz ostean:

(a2) – Umetan maestra bat eduki genuen, ["Cara al sol" eta "Aldapeko" abestiak kantatu eragiten zizkigunA]
– Atzo auto bat ostu zuten Arranondon, [500.000 euro balio duenA]
– Herenegun herri batean izan ginen, [txakurrek ere gaztelaniaz egiten dutenA]

Bada beste irtenbide bat ere, 12. unitatean ikus daitekeenez (galdegaia eroanda aditz aurrera, berari inkatuta):

(a3) – Umetan eduki genuen maestra bat, ["Cara al sol" eta "Aldapeko" abestiak kantatu eragiten zizkigunA]
– Atzo Arranondon ostu zuten auto bat, [500.000 euro balio duenA]
– Herenegun izan ginen herri batean, [txakurrek ere gaztelaniaz egiten dutenA]

Jatorrizko perpausetatik (a), non erlatiboak erabili ditugun, pasatu gara hiru aukeratara (a1, a2 eta a3), zeintzuetan erlatiboak desagertu egin baitira eta ordainetan egitura erlatibo jokatuak (*-(e)na...)* ageri, baina informazio-guneen atzetik (ez aurretik). Gure proposamenaren bidez errazago prozesatzen da informazioa.

Adibideotan egitura erlatibo jokatua (*-(e)na...)* erabili dugu, baina badira beste baliabide batzuk ere:

1. *Zeinismoa (zein…-(e)n/bait-*)

(a4) – Umetan eduki genuen [maestra bat], [ZEINAK "Cara al sol" eta "Aldapeko" abestiak kantatu eragiten zizkiguN]
– Umetan eduki genuen [maestra bat], [ZEINAK "Cara al sol" eta "Aldapeko" abestiak kantatu eragiten BAITzizkigun]

2. *Nonismoa (non…bait-/-(e)n*)

– Herenegun izan ginen herri batean, [NON txakurrek ere gaztelaniaz egiten duteN]
– Herenegun izan ginen herri batean, [NON txakurrek ere gaztelaniaz egiten BAITute]

3. *Eta* juntagailua

(a5) – Umetan eduki genuen [maestra bat], ETA "Cara al sol" eta "Aldapeko" abestiak kantatu eragiten zizkigun]

Kargutu gaitezen zelan dauden osaturik goiko hiru perpausok: batetik, *bat* determinatzailea erabili dute (baina balia daiteke beste bat ere —hainbat, gutxi, asko...—) eta, bestetik, desegin beharrezko sintagmak deklinaturik daude *nor* kasuan *("Cara al sol" eta "Aldapeko" abestiak kantatu eragiten zizkigun maestra bat*) eta *non* kasuan (*txakurrek ere gaztelaniaz egiten duten herri batean*), baina egon daitezke beste edozein kasutan ere. Bestalde, esan dugu esan, egiturok aurkezpenetan soilik jorratuko ditugula, informazio guztia berria dela, eta izan dezagun gomutan zeintzuk lau baliabide erabili ditugun (*bait-* soilik ere erabil daiteke, baina ez dugu baliatuko):

– Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
– Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*)
– Nonismoa (*non…-(e)n/bait-*)
– *Eta* juntagailua

Amaitzeko, hiru adibide jorratu ditugu erlatibo jokatudunak, baina erlatiboak jokatugabeak ere izan daitezke:

– Uganda ingelesek asmatutako estatu bat da.

Erlatibo jokatugabedunek problematika katramilatsuagoa dute eta ez ditugu jorratuko liburu honetan, nahiz eta batzuk, goiko adibidea kasu, konponerrazak izan:

– Uganda estatu bat da [ingelesek asmatutakoA].
– Uganda estatu bat da [ingelesek asmatuA].

Utz ditzagun beste baterako erlatibo jokatugabeok.

### *7.2. ADIBIDEAK*

Hurrengo adibide guzti-guztietan agertuko da erlatiboa (*-(e)n*). Baita beste egitura batzuk ere, adibidean-adibidean ezberdinak. Gu ahaleginduko gara problema guztiak ebazten. Has gaitezen banan-banan garantzen adibideak. Ohartzat esan behar dugu teorian erabili dugula *bat* determinatzailea, baina apartadu honetan beste batzuk ere agertuko dira.

7.2.1.

> **'AD HOC' EGINDAKO LEGEA:** Alderdien Legea egin duen legegilearen helburua alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea ahalbidetuko duen arau bat sortzea da, haren legez kanporatzea lortzeko.[A]

Adibide horretan problema bat daukagu, gure aztergaia, sintagma bat ezin luzeagoa, lar luzea: *zer* osagarria. Honako hau:

– [alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea ahalbidetuko duen arau bat]

Ikusi dugu 1. TEORIAn zelan konpondu problema hori: lehenengo emanda informazio-gunea (*arau bat*) eta ondoren gainerakoa lagun duela *-a* artikulua (*alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea ahalbidetuko duen*). Honela:

– [arau bat] [alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea ahalbidetuko duenA]

Kortxete biok sartuz gero perpaus osoan:

– Alderdien Legea egin duen legegilearen helburua [arau bat] sortzea da [alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea ahalbidetuko duenA], haren legez kanporatzea lortzeko.

Bigarren kortxetean errazago eman daiteke informazioa, arinago, osagai bat aurreratuz gero, *ahalbidetuko duena:*

A. (B, 2004-7-20, 2. or)

– Alderdien Legea egin duen legegilearen helburua arau bat sortzea da [ahalbidetuko duenA alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea], haren legez kanporatzea lortzeko.

Badira beste baliabide batzuk ere, egitura erlatibo jokatuaz (*-(e)na...)* gainera:

1. *Zein…bait-* egitura (zeinismoa)
2. *Zein…-(e)n* egitura (zeinismoa)
3. *Eta* juntagailua

Hona hemen eurok aplikatuta perpaus aztergaiari:

– Alderdien Legea egin duen legegilearen helburua arau bat sortzea da [ZEINAK ahalbidetuko BAITu alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea], haren legez kanporatzea lortzeko.
– Alderdien Legea egin duen legegilearen helburua arau bat sortzea da [ZEINAK ahalbidetuko dueN alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea], haren legez kanporatzea lortzeko.
– Alderdien Legea egin duen legegilearen helburua arau bat sortzea da, ETA (HONEK/BERAK) ahalbidetuko du alderdi politiko zehatz bat (Batasuna) jazartzea], haren legez kanporatzea lortzeko.

Aukera guztiotan bada informazio bat arin daitekeena. Esan beharrean

– Alderdien Legea egin duen legegilearen helburua arau bat sortzea da...

honetara esanda:

– Alderdien Legea egin duen legegileaK helburuTZAT DU arau bat sortzea...
– Alderdien LegeAREN legegileaK helburuTZAT DU arau bat sortzea...

7.2.2.

**Kokaguneen azterketan, hutsuneak**

Donostiako alkateak errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko bere taldearen arrazoiak aipatzen dituen idatzi bat eraman zuen atzoko bilerara.[B]

Hor sintagma bat dago, *zer*, zeinak edonor jar dezakeen arnas estuka luzearen luzez:

– [errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko bere taldearen arrazoiak aipatzen dituen idatzi bat]

Sakon sartu behar dira hor artaziak. Baina has gaitezen ordenan. Lehenengo paratu behar dugu, ohi denez, informazio-gunea (*idatzi bat*) eta gero gainerakoa lagun duela *-a* determinatzailea:

B. (B, 2004-7-20, 13. or)

– [idatzi bat] [errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko bere taldearen arrazoiak aipatzen dituenA]

Horko parte biak txertatuz gero perpausean:

– Donostiako alkateak [idatzi bat] eraman zuen atzoko bilerara, [errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko bere taldearen arrazoiak aipatzen dituenA].

Hor komeni da aldatu bi egitea: batean aditz aurrera eroanda *atzoko bilerara* informazioa; bestean aurreratuta sekuentzia bat kortxetearen barruan, *bere taldearen arrazoiak aipatzen dituenA*:

– Donostiako alkateak *atzoko bilerara* idatzi bat eraman zuen, [*bere taldearen arrazoiak aipatzen dituenA errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko*].

Beste arindu bat eman dakioke kortxete barrukoari:

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [bere taldearen arrazoiak aipatzen dituenA erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen GAINEAN].

Azken aldaera horretan GAINEAN ageri da, ez dagoena aurrekoan. Beste gozatu bat gustura hartuko luke aposizioak, gehiago aurreratuta "aditza eta menderagailua" blokea (*aipatzen dituenA*):

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [aipatzen dituenA bere taldearen arrazoiak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen GAINEAN].

Kontuan hartuta sintagma batek, *bere taldearen arrazoiak* osagarri zuzenak, galderazko esangura duela (gaztelaniaz: (CUALES SON) las razones de su grupo), (ikus 8. unitatea) beste aldatu bat ere egin daiteke (aposizio barruan):

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [aipatzen duenA ZEIN(TZUK) arrazoi ditueN bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].

Orain arte egitura erlatibo jokatua (*-(e)na...)* erabili badugu ere aldaera guztietan, badira beste baliabide batzuk. Has gaitezen *eta* juntagailuarekin:

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [ETA BERTAN/BERTON/HAN aipatzen du zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].

Erabiliz gero egitura bi, *zein…bait-* eta *zein…-(e)n*, hona hemen zer ateratzen den:

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [ZEINETAN aipatzen BAITu zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].
– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, ZEINETAN aipatzen dueN zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].

Badira beste errekurtso bi ere, egitura bi (*non…bait-* eta *non…-(e)n*):

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [NON aipatzen BAITu zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].
– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [NON aipatzen dueN zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].

Bigarren kortxetean, *eta* juntagailuaren aldaera erabilita, bertako informazio zati bat, *atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean*, zehar-galdera bihurtuko dugu, testuinguruak esangura interrogatiboa du-eta (ikus 8. unitatea):

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [eta bertan aipatzen du zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko *ZEIN kokagune izango dueN behin betiko errauste plantak*].

Azkeneko zehar-galderak osatzen, konpletatzen duenez *erabakia* informazioa, zergatik ez berau atzeratu lotura hobea lortzeko? Bestalde, perpausaren hasiera aldean, *atzoko* barik hobeto dago *atzo* (ikus 5. unitatea):

– Donostiako alkateak atzo bilerara idatzi bat eraman zuen, [eta bertan aipatzen du zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak atzeratzeko erabakia *ZEIN kokagune izango dueN behin betiko errauste plantak*].

Jakina, *eta* juntagailuaren ordez para daitezke *zein* eta *non* bidezko egiturak, gura izanez gero. Bestalde, *atzo* eta *bilerara* ere para daitezke aditz ostean (*eraman zuen*).

7.2.3.

**Jostailuzko musika tresnen bilduma eratu du Pascal Comeladek**

Pascal Comelade kataluinar musikariak bere disko grabazioetan erabili dituen 36 jostailuzko musika tresna biltzen dituen erakusketa antolatu du.[C]

Hor *zer* osagarria ezin luzeagoa da, amaibakoa:

C. (B, 2004-7-20, 37. or.)

– [bere disko grabazioetan erabili dituen 36 jostailuzko musika tresna biltzen dituen erakusketa]

Lehenengo apartaduan, 1. TEORIAn, *bat* determinatzailea agertu da lehenengo adibide bietan. Adibide honetan beste determinatzaile bat ageri da: 36. Baina *bat* izan determinatzailea, edo *36*, problematika berbera dago.

Badakigu zelan arindu *zer* sintagma lar luze hori. Ipin dezagun aurrerengo lekuan sintagma-burua (*erakusketa*) eta jarraian gainerako informazioa:

– [erakusketa] [bere disko grabazioetan erabili dituen 36 jostailuzko musika tresna biltzen dituenA]

Hori txertatuz gero perpausean:

– Pascal Comelade kataluinar musikariak [erakusketa bat] antolatu du [bere disko grabazioetan erabili dituen 36 jostailuzko musika tresna biltzen dituenA].

Azken kortxetean, informazioa eman daiteke beste ordena batzuetan, errazago irakurtzeko. Lehenengo aukeran aurrera dezagun *36 jostailuzko musika tresna biltzen dituenA*:

– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, [36 jostailuzko musika tresna biltzen dituenA], [bere disko grabazioetan erabili dituenAK].

Badago beste aukera bat, guretzat hobea (bigarren kortxetean informazio-ordena aldatuta):

– Pascal Comelade kataluinar musikariak [erakusketa bat] antolatu du, [biltzen dituenA 36 jostailuzko musika tresna], [bere disko grabazioetan erabili dituenAK].

Aukera guztietan erabili dugu egitura erlatibo jokatua (*-(e)na...)*, baina bada beste baliabide bat ere, *eta* juntagailua:

– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ETA BERTAN/HAN bere disko grabazioetan erabili dituen 36 jostailuzko musika tresna biltzen ditu.

Hor nekagarria egiten da informazio bat, *eta* juntagailuaren ostekoa, eta gorago ere eman ditugu aukera bi arintzeko, errazteko:

– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ETA bertan/han 36 jostailuzko musika tresna biltzen ditu, disko grabazioetan erabili dituenAK].

– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ETA bertan/han biltzen ditu 36 jostailuzko musika tresna, disko grabazioetan erabili dituenAK].

Aldaerotan *bere* kendu dugu, gure ustez, ez da egokia-eta. Hirugarren baliabide bat erabiliz gero, zeinismoa (*zein…bait-* edo *zein…-(e)n*), hona hemen emaitzak:

– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ZEINETAN disko grabazioetan erabili dituen 36 jostailuzko musika tresna biltzen BAITitu.
– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ZEINETAN 36 jostailuzko musika tresna biltzen BAITitu, disko grabazioetan erabili dituenAK].
– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ZEINETAN biltzen ditueN 36 jostailuzko musika tresna, disko grabazioetan erabili dituenAK].

Bada laugarren baliabide bat ere, nonismoa (*non…bait-* edo *non…-(e)n*). Amaitzeko, guk geuk erabili beharrean

– disko grabazioetan erabili dituenAK

gurago dugu erabili

– disko grabazioetan erabiliAK

Perpausa honela geratuko litzateke:

– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ZEINETAN biltzen ditueN 36 jostailuzko musika tresna, disko grabazioetan erabiliAK].
– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, [biltzen dituenA 36 jostailuzko musika tresna], [bere disko grabazioetan erabiliAK].
– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ETA bertan/han biltzen ditu 36 jostailuzko musika tresna, disko grabazioetan erabiliAK].

Azken-azken aukera bat ere geratzen da:

– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du 36 jostailuzko musika tresnaREKIN, disko grabazioetan erabiliAK].
– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du 36 jostailuzko musika tresnaREKIN, DENAK BERE diskoEN grabazioetan erabiliAK].

Ematen badu ere perpaus aztergai honetan dena jorratu dugula, badira, oraindino, beste irtenbide batzuk:

– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, [biltzen ditueNA 36 jostailuzko musika tresna], [ZEINTZUK erabili BAITitu bere disko grabazioetan].
– Pascal Comelade kataluinar musikariak erakusketa bat antolatu du, ETA bertan/han biltzen ditu 36 jostailuzko musika tresna, [ZEINTZUK erabili ditueN disko grabazioetan].

Guk gustuko dugu azkenaurrekoa.

7.2.4.

**Moskuk gerraren kargu zeuden Errusiako Armadako hainbat goi buruzagi zigortu ditu**

Txetxeniako gerrillari independentziazaleei aurre egiteko ardura zuten Errusiako Armadako hainbat goi buruzagi kargutik kendu ditu Errusiako presidente Vladimir Putinek, tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea.[D]

Perpaus horretan, marapiloa lehenengo partean dago, koma aurrekoan, *nortzuk* osagarrian:

– [Txetxeniako gerrillari indepentziazaleei aurre egiteko ardura zuten Errusiako Armadako hainbat goi buruzagi]

Ikusten dugunez, aurreko adibidean legez (C), hemen ere (D) determinatzailea ez da *bat*, ezpabere, *hainbat*, baina problematika berbera dago.

Sintagma amaibako horri, *nortzuk*, gerotxoago emango diogu astindu ederra. Orain perpaus aztergai osoaren eskematxo bat egingo dugu:

– NORTZUK kargutik kendu ditu Errusiako presidente Vladimir Putinek, tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea

Guk gurago dugu, oraingoz, hurrenkera honetan (*nortzuk* atzerago eroanda):

– Errusiako presidente Vladimir Putinek kargutik kendu ditu NORTZUK, tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea

Proposaturiko eskema horretan, komaren osteko informazioak erreferentzia egiten dio *nortzuk* osagarriari, eta orain elkarren ondoan daudenez, lotura ona dago

D. (B, 2004-7-20, 26. or.)

euren artean, elkarren hurrago daude (jatorrizko perpausean ez legez). Beraz, jatorrizko perpausa hurrenkera honetan jorratuko dugu:

– Errusiako presidente Vladimir Putinek kargutik kendu ditu [Txetxeniako gerrillari independentziazaleei aurre egiteko ardura zuten Errusiako Armadako hainbat goi buruzagi], tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea.

Eman diezaiogun arindu bat *nortzuk* horri:

– [Txetxeniako gerrillari independentziazaleei aurre egiteko ardura zuten Errusiako Armadako hainbat goi buruzagi]

Badakigu informazioaren muina (*hainbat goi buruzagi*) ipini behar dugula aurreren eta gainerakoa ostean:

– [hainbat goi buruzagi] [Txetxeniako gerrillari independentziazaleei aurre egiteko ardura zuten Errusiako ArmadakoAK]

Informazio hori txertatuz gero perpausean:

– Errusiako presidente Vladimir Putinek kargutik kendu ditu [hainbat goi buruzagi], [Txetxeniako gerrillari independentziazaleei aurre egiteko ardura zuten Errusiako ArmadakoAK], tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea.

Bigarren kortxeteak segitzen du luzeegia izaten. Hona hemen zelan arindu, errazagotu (aditza eta egitura erlatibo jokatua (*-(e)na...)*, biak aurreratuta):

– Errusiako presidente Vladimir Putinek kargutik kendu ditu [hainbat goi buruzagi], [Errusiako ArmadaN ardura zutenAK aurre egiteko Txetxeniako gerrillari independentziazaleei], tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea.

*Zeinismoa* erabiliz gero:

– Errusiako presidente Vladimir Putinek kargutik kendu ditu [hainbat goi buruzagi], [ZEINTZUK ardura BAITzuten Errusiako Armadan aurre egiteko Txetxeniako gerrillari independentziazaleei], tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea.

Testuan *Errusiako* bi daude, eta bat ken daiteke:

– Errusiako presidente Vladimir Putinek kargutik kendu ditu [hainbat goi buruzagi], [Ø ArmadaN ardura zutenAK aurre egiteko Txetxeniako gerrillari independentziazaleei], tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea.

– Errusiako presidente Vladimir Putinek kargutik kendu ditu [hainbat goi buruzagi], [ZEINTZUK ardura BAITzuten Ø Armadan aurre egiteko Txetxeniako gerrillari independentziazaleei], tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea.

Baina jatorrizko perpausean *nortzuk* osagarria, [*Hainbat goi buruzagi*], atzerago eroan dugu, baina aurrerengo erabili gurago izanez gero, zelan jokatu?

– [Hainbat goi buruzagi], [Errusiako ArmadaN ardura zutenAK aurre egiteko Txetxeniako gerrillari independentziazaleei], kargutik kendu ditu presidente Vladimir Putinek, tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea.

Aldaera hori ez dugu gustukoa, elkarren urrun geratzen dira-eta hurrengo informazio biok:

– [Hainbat goi buruzagi], [Errusiako ArmadaN ardura zutenAK aurre egiteko Txetxeniako gerrillari independentziazaleei]
– tartean Estatu Nagusiko burua eta FSB Zerbitzu Sekretuetako zuzendariordea

Bigarren informazioak lehenengoari egiten dio erreferentzia; baina, zoritxarrez, lar urrun dago. Horrenbestez, ez dirudi egokia denik azken aldaera.

7.2.5.

**Eric Cantonaren itxuraldaketa**

Manschester Unitedeko eta Frantziako selekzioko jokalari ohiak, Hong Kongen antolatu den umeentzako futbol mintegi batean irakasle dihardu egunotan.[E]

Esango genuke *nork* eta *zertan* osagarriak luzeegiak direla, eta nekeztu egiten dutela irakurketa. Has gaitezen *zertan* osagarritik:

– [Hong Kongen antolatu den umeentzako futbol mintegi batean]

*Zertan* sintagma hori, ebakitzeko, sintagma bi egiteko, aurreratu beharra dago informazio-gunea (*umeentzako futbol mintegi batean*), eta atzera eroan gainerako informazioa, erlatiboa artikulu eta guzti:

– [umeentzako futbol mintegi batean][Hong Kongen antolatu denA]

Txerta dezagun informazio hori perpausean:

E. (B, 2004-7-20, 33. or.)

– Manschester Unitedeko eta Frantziako selekzioko jokalari ohiak, [umeentzako futbol mintegi batean][Hong Kongen antolatu denA] irakasle dihardu egunotan.

Ez dago, ez, txukunegi. Baina beste informazio bat aurreratuta, azken lekukoa (*irakasle dihardu egunotan*):

– Manschester Unitedeko eta Frantziako selekzioko jokalari ohiak irakasle dihardu egunotan [umeentzako futbol mintegi batean], [Hong Kongen antolatu denA].

Orain erraz-erraz irakurtzen da, baina beste orraztu bat egin daiteke azken kortxetean:

– Manschester Unitedeko eta Frantziako selekzioko jokalari ohiak irakasle dihardu egunotan [umeentzako futbol mintegi batean], [Hong Kongen antolatuA].

Beste osagarri bat geratzen zaigu errazago ematea, subjektua, *nork* (*Manschester Unitedeko eta Frantziako selekzioko jokalari ohiak*). Parti dezagun:

– [Jokalari ohiak], [Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoA], irakasle dihardu egunotan umeentzako futbol mintegi batean, Hong Kongen antolatua.

Honetara ere egoki ikusten dugu, bigarren partean orraztu batzuk emanda:

– Jokalari ohiak, Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoa, irakasle dihardu egunotan [futbol mintegi batean], [umeentzat Hong Kongen antolatuA].

Edo, gura bada, *umeentzat* (edo *umeentzako*) hori, lehenengo lekuan barik atzen lekuan paratuta azken kortxetean.

Amaitzeko, kontu bat esan nahi dugu lehenengo partearen gainean: koma artean informazioa (*Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoa*) eman daiteke modu bitara:

– A: Jokalari ohiak, (BERAU) Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoA, irakasle dihardu egunotan (...)
– B: Jokalari ohiak, ZEINA Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoA BAITa, irakasle dihardu egunotan (...)

A adibidean *berau* bihur daiteke *bera*, eta erabili, gura izanez gero, sintagma atzean (*(...), Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoA BERA,(...)*). B adibidea erabil daiteke beste modu batera, beharbada egokiago:

– C: Jokalari ohiak, ZEINAK Manschester UnitedeN eta Frantziako selekziokoaN jokatu BAITzuen, irakasle dihardu egunotan (...)

### *7.3. ARIKETAK*

Orain arte adibideetan agertu zaizkigu erlatiboa ez eze baita bestelako egiturak ere. Orain puntu honetan (3. ARIKETAK), perpausetan erlatiboa hutsik agertuko zaigu perpausean-perpausean. Ariketa guztietan determinatzailetzat *bat* agertuko da soilik, eta laguntza bat edo beste gaineratu diegu, errazago egiteko. Ariketetan euretan sartu orduko, ekar dezagun gomutara zeintzuk baliabide ditugun unitate honetako aztergaiak konpondu edo ebazteko (kanpoan utzi dugu *bait-*menderagailua):

A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na...*)
A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I [partizipioa + -TA + *-koa*...]
A3. Egitura erlatibo jokatugabea-II [partizipioa + -(R)IK + *-koa*...]
A4. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa*...]
B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*) eta nonismoa (*non…-(e)n/bait-*)
C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
D. *Eta* juntagailua

7.3.1.

**Espainiak 36ko gerrako paperak itzultzeko negoziatzea onetsi du**

Joan den asteartean Espainiako Kongresuak lege ez den ekimen bat onartu zuen, aldeko 183 boto, kontrako 135 eta bederatzi abstentziorekin.

[erlatiboa][izena]
[lege ez den][ ekimen bat]

7.3.2.

**Gauzarik gogokoena**

Bazen behin baserri batean bizi zen neskato bat.

[baserri batean bizi zen][ neskato bat]

7.3.3.

**Itzuli, joan**

Europa eta *ongizarteko* jende guztia aztoratzen duen mamu edo iratxo bat dabil.

[ ][ ]

7.3.4.

**Alvaro Amannen transitorea**

Alvaro Amannen kontuetan, olatuen indarra energia bihurtuko duen planta bat eraikiko dute Mutrikun.

[ ][ ]

7.3.5.

**400**

AEBetako biztanle askoren ametsa egia bihur daiteke: euren berdina den panpina bat ozan dezakete.

[ ][ ]

7.3.6.

**Larresoro**

Bazen behin *Zeruko Argia*-n Larresoro izenpean idazten zuen idazle bat.

[ ][ ]

7.3.7.

**GLORIA TOTORICAGUENA**

**Renoko unibertsitateko irakaslea**

«Euskal Herria lurralde mugarik ez duen nortasun bat da»

[ ][ ]

7.3.8.

**‘Unoa ta dosa’**

Suposizioen inguruan berbetan, batek pasa den egunean supozisiotik harantzago doan baieztapena bota zuen.

[ ][ ]

7.3.9.

**Medellingo gizonaren ibilera**

Izenak dioen legez, literatura eta jazza uztartzen dituen ekitaldia dugu Literatur Jazza.

Ordena aldatu:

– Izenak dioen legez, Literatur Jazza ZER da

[ ][ ]

7.3.10.

**Sorgintxulo**

Lehen ipuinak dio bazela Gorritin lizar baten gainean bizi zen sorgin bat.

[ ] [ ]

7.3.11.

**Aro berri baten hasiera dela uste du Jaurlaritzak**

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak atzo Radio Euskadin adierazi zuenez, «elkarrizketa eta errespetua nagusituko diren aro berri bat» izatea espero du PSOEren legegintzaldiarekin datorrena.

Hemen ere, aurrekoan legez, zuhur ibili behar da azkeneko informazioarekin, jakin egin behar da kokagune egokian kokatzen.

[erlatiboa][izena]

7.3.12.

**CORAJE** [Filma]

**Maria Elena Moyanoren bizitza**. Peruko buruzagi ohi Maria Elena Moyanoren bizitza islatzen duen filma apala da *Coraje*.

Ordena aldatuko dugu, egokiagoa delakoan:

– *Coraje* filma apala da [erlatiboa][izena]

7.3.13.

**Sergei Abramov jarri du Moskuk behin-behineko presidente**

Akhmad Kadirov hilda, Moskuk zaila dauka haren hutsunea beteko duten aliatu sendo berriak bilatzea

[ ][ ]

7.3.14.

**Esnea**

Irribarrea eta harridura sortu didan kontu bat irakurri dut egunotan egunkarietan:

Komeni da informazio-ordena aldatzea:

– Egunotan egunkarietan [ ][ ]

7.3.15.

**Abonu denboraldi «bereziarekin» ospatuko du EOSek 25. urteurrena**

Hogeita bat estreinaldi jasotzen dituen egitarau zabala aurkeztu du Iñigo Alberdi zuzendari nagusiak

Zuhur non kokatzen den aditz osteko informazioa.

[ ][ ]

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*Berria,* 2004-5-22, 28. or.) 2-(*Gara,* 2006-4-9, 11. or.) 3- 4-(*Berria,* 2005-2-6, 7. or.) 5-(B, 2006-24, 46. or.) 6-(*Berria,* 2005-3-16, 8. or.) 7-(*Berria,* 2004-2-14, 1. or.) 8-(B, 2003-6, 7. or.) 9-(B, 2004-5-8, 42or.) 10-(B, 2004-12-18, 52or.) 11-(B, 2004-3-16, 3. or.) 12-(B, 2004-3-12, 55. or.) 13-(B, 2004-5-11, 1. or.) 14-(B, 2005-1-25, 52. or.) 15-(B, 2006-6, 42. or.)

# 8. unitatea

## (ERLATIBOA ZEHAR-GALDERA BIHURTU)

**HELBURUA:** Komunikagarriago egin testua, erlatiboa zehar-galdera bihurtuta.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausean

– *No sé [el año en que nació Jesus]*

erlatiboa ez da itzultzen euskarara erlatibo bidez.

– *Ez dakit [Jesus jaio zen urtea]*

Gaztelaniazko erlatibo asko alperrik erabiltzen ditugu erlatibo bidez euskaraz.

**SOLUZIOA:** Perpaus erlatiboak esangura interrogatiboa badauka, eman dezagun zehar-galdera bidez:

*– Ez dakit [ZER urtetan jaio zeN Jesus]*

***Termino jakin beharrezkoak***

– **Erlatibo perpausak** (*-(e)n* atzizkia dute: *Ikusi genueN* mutila etorri da)
– **Zehar-galdera perpausak** (*-(e)n* atzizkia dute eta galdetzaileren bat: Ez dakit *nor* etorri de*n*; galdetu diot *zer* egin due*n*)
– **Aurrekaria erlatibo perpausetan** (*El hombre* que conocímos ayer…)
– **Galdekariak edo galdetzaileak** (*zer(tzuk), zein(tzuk), zelako, zenbat*…)
– **Izenlagunak** (izenaren osagarri mota bat: *behin betiko* erabakia)
– **Adizlagunak** (aditzaren osagarri mota bat: *behin betiko* erabaki zuen)
– **Zeinismoa** (*zein…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak)
– **Nonismoa** (*non…bait-* eta *non…-(e)n* egiturak)
– **Egiturak** (*zein…bait-/-(e)n* eta *non…bait-/-(e)n* egiturak)

### *8.1.TEORIA*

8.1.1. Badira erdaraz egitura batzuk formaz erlatiboak direnak eta esanguraz zehar-galderak. Esate baterako:

– (A) No sé el año en el que nació Napoleón

Formaz erlatibo bat ageri da, eta aurrekari bat dago osatzen:

ERLATIBOA: en el que nació Napoleón
AURREKARIA: el año

Aztarka egiten badugu (A) perpausean eta ondo-ondo erreparatu, konturatuko gara elipsia dagoela:

– (B) No sé (CUAL ES) el año en el que nació Napoleón

Horra zergatik esan dugun hasieran egitura batzuek formaz, agerian, erlatiboa dutela, baina esanguraz, ezkutuan, zehar-galdera. Gaztelaniaz horrelakoak, askotxo daude.

Egin dezagun (A) perpausa itzuli gura dugula. Imitatzen badugu erdara egitura aldetik (gaur hala egin ohi da nagusiki) honako perpausa irteten zaigu:

– Ez dakit Napoleon jaio zeN urtea

Erlatibo horrek durundioa eragiten digu belarrian, belarriko mina; baina erabili, erabiltzen da. Guk, ostera, proposatzen dugu zehar-galdera bidez ematea:

– Ez dakit ZER urtetan jaio zeN Napoleon

Horrela errazago irakurtzen da; are gehiago erlatiboa luzea bada, edo konplexua. Konparaziorako, itzuli gura badugu hurrengo perpausa:

– El padre le pregunto al hijo por las razones por las que no quería estudiar Ingeniería y las consecuencias que eso le podría traer.

Euskaraz ere erabiltzen badugu erlatiboa gaztelaniaren imitazioan, lukainka polita ateratzen zaigu:

– Ingeniaritza ikasi nahi ez zituen arrazoiengatik eta horrek ekar ziezazkiokeen ondorioengatik galdetu zion aitak semeari

Jakinda zelako joera gogorra dagoen gaur egun galdegaia aditz aurrean paratzeko, gehienek horrela itzuliko lukete gaztelaniazko perpausa. Beste batzuek, gutxienek, ostera, aditza aurrera erabiliko lukete:

– Aitak semeari galdetu zion Ingeniaritza ikasi nahi ez zituen arrazoiengatik eta horrek ekar ziezazkiokeen ondorioengatik

Horrela askoz errazago irakurtzen da, baina are errazago zehar-galdera erabiliz gero:

– Aitak semeari galdetu zion ZEINTZUK arrazoirengatik ez zueN ikasi nahi Ingeniaritza eta horrek zeintzuk ondorio ekar ziezazkiokeen

Ikus ditzagun adibide gehiago. Egin dezagun hurrengo perpausak itzuli behar ditugula (aditz banakoak):

PREGUNTAR bidezkoa:
– Me ha preguntado el tiempo que hará mañana
ENSEÑAR bidezkoa:
– Te enseñaré las estrategias que tienes que utilizar para aprobar el nivel-4 de euskara

Perpausok, ondo-ondo erreparatuz gero, esangura interrogatiboa dute gutxienez. Bestela esateko, euron azpian honako perpausak daude:

– Me ha preguntado [QUÉ] tiempo hará mañana
– Te enseñaré [QUÉ] estrategias tienes que utilizar para aprobar el nivel-4 de euskara

cta gaztelaniazko perpausok proposatzen dugu ez itzultzeko honela:

– Bihar egingo duen eguraldia itaundu dit
– 4.HE gainditzeko erabili beharrezko estrategiak irakatsiko dizkizut

ezpabere zehar-galdera baliaturik:

– Itaundu dit ZER eguraldi egingo duen bihar
– Irakatsiko dizut ZERTZUK/ZEINTZUK estrategia erabili behar dituzun 4. HEa gainditzeko

edo honela:

– Itaundu dit ZELAKO eguraldia egingo duen bihar
– Irakatsiko dizut ZELAKO estrategiak erabili behar dituzun 4. HEa gainditzeko

8.1.2. Orain arte gaztelaniazko erlatiboak zehar-galdera bidez konpondu ditugu galdekari batzuk erabilita *zer(tzuk)*, *zein(tzuk)* eta *zelako,* baina ikus dezagun noiz erabili behar den *zenbat*. Egin dezagun euskarara ekarri gura dugula hurrengo perpausa:

– Desconozco el número de accidentes que ha tenido el profesor

Horren azpian honako hau dago:

– Desconozco (CUAL ES) el número de accidentes que ha tenido el profesor

Horren ordez beste honen itzulpena egiten dugu euskaraz:

– Desconozco CUÁNTOS accidentes ha tenido el profesor

Eman gura izanez gero euskaraz, ez, ahaleginez, erlatibo bidez:

– Ez dakit irakasleak eduki/izan duen istripu kopurua

ezpabere zehar-galdera bidez:

– Ez dakit zenbat istripu eduki/izan duen irakasleak

Hona hemen beste adibide batzuk erdaraz:

– Me contó los años que cotizó a la Seguridad Social
– Me gustaría saber los años que tiene fulano
– Fulano nos ha informado de los muertos que ha habido en el accidente
– No me has dicho las horas que has tenido que trabajar para aprobar el exámen

Perpaus horiek beste hauek dituzte baliokide:

– Me contó CUÁNTOS años cotizó a la Seguridad Social
– Me gustaría saber CUÁNTOS años tiene fulano
– Fulano nos ha informado de CUÁNTOS muertos ha habido en el accidente
– No me has dicho CUÁNTAS horas has tenido que trabajar para aprobar el exámen

Euskaraz eman gura izanez gero, proposatzen dugu alde batera uzteko erlatibo bidea eta erabiltzeko zehar-galdera (errazago irakurtzen delako):

– Kontatu zidan ZENBAT urte(t)an kotizatu zion Segurtasun Sozialari
– Jakin gura nuke ZENBAT urte dituen urliak
– Urliak informatu gaitu ZENBAT hil(dako) izan diren istripuan
– Ez diguzu esan ZENBAT ordu egin dituzun azterketa gainditzeko

Hemen etengo dugu informazioa zehar-galderen gainean. Gai hau (erlatiboa erdaraz, zehar-galdera euskaraz) luze-zabala da, sustrai luzea du eta guk hemen muturra besterik ez dugu erakutsi, hasi-masiak. Hurrengo batean gehiago. Pasa gaitezen ondoko apartadura.

### *8.2. ADIBIDEAK*

Apartadu honetako adibideak konponduta gehitxoago ikasiko dugu unitateko aztergai honen gainean. Eta kargutuko gara esangura bat baino gehiago egon daitezkeela gure egitura aztergai mota honen barruan. Esaterako, perpaus honetan:

8.2.1.

**ETB2 (21:55) 'La noche de...'**

**Maddonaren 'look' aldaketa hizpide**

Maddonak izan dituen itxura aldaketak aztertuko dituzte *La noche de...* saioan.[A]

Badirudi honako esangura duela:

– Maddonak ZEINTZUK itxura aldaketa izan ditueN aztertuko dute *La noche de...* saioan.

Perpaus aztergaiak ez du lotura egokia egiten goreneko titularrarekin. Lotura ona egingo badu, lehenengo kokalekuan egon behar da "*La noche de...* saioan" informazioa. Bestalde, perpaus aztergaiak zehar-galdera eskatzen du:

– *La noche de...* saioan Maddonak ZEINTZUK itxura aldaketa izan ditueN aztertuko dute.

Hobe daiteke aitzinatuz gero aditza, ahozko testuetan egiten den legez, edo idazle klasikoetan:

– *La noche de...* saioan aztertuko dute Maddonak ZEINTZUK itxura aldaketak izan ditueN.

Baina kazetari hurrenkeran gurago da jatorrizko ordena errespetatu (baina goragoko operazioak eginda):

– Maddonak ZEINTZUK itxura aldaketak izan dituen aztertuko dute *La noche de...* saioan.

Lehenengotan esan dugu, kohesio ona egiteko titularraren eta perpaus aztergaiaren artean komeni dela "*La noche de...* saioan " informazioa aurreratzea, ezaguna da-eta. Baina nagusitzen denez kazetari-ikuspegia (atzera bigarren mailako informazioa), errespetatu beharra dago jatorrizko perpausean dagoen lekua.

Bestalde, *zeintzuk* galdetzailea erabili da, baina batzuok *zelako* ere erabiliko genuke:

A. (B, 2004-7-20, 46. or.)

– Maddonak ZELAKO itxura aldaketak izan dituen aztertuko dituzte *La noche de*... saioan.

8.2.2.

**Kokaguneen azterketan, hutsuneak**

Donostiako alkateak errauste plantaren behin betiko kokagunearen erabakia atzeratzeko bere taldearen arrazoiak aipatzen dituen idatzi bat eraman zuen atzoko bilerara.[B]

Hau landu dugu 7. unitatean. Hemen soilik jorratuko dugu zehar-galderari dagokion partea. Hona hemen 7. unitate horretan zer zuzenketa dugun eginda zehar-galderaren kontuari oratu baino lehenago:

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [ETA BERTAN aipatzen ditu bere taldearen arrazoiak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen GAINEAN].

Kontuan hartuta sintagma batek, *bere taldearen arrazoiak*, esangura interrogatiboa duela (gaztelaniaz: (CUALES SON) las razones de su grupo), beste aldatu bat ere egin daiteke kortxete barruan:

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [ETA HAN aipatzen du ZEIN(TZUK) arrazoi ditueN bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].

Erabiliz gero zeinismoa (*zein…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak) hona hemen zer ateratzen den:

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [ZEINETAN aipatzen BAITu zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].
– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, ZEINETAN aipatzen dueN zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].

Bada beste errekurtso bat, nonismoa (*non…bait-* eta *non…-(e)n* egiturak):

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [NON aipatzen BAITu zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].

B. (B, 2004-7-20, 13. or)

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [NON aipatzen dueN zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean].

Aldaera guztiotan, kortxete barruko beste informazio batek ere (*erabakia atzeratzeko errauste plantaren behin betiko kokagunearen gainean*) esangura interrogatiboa dauka (la decisión de retrasar (CUAL SERÁ) el lugar de instalación definitiva de la planta de incineración). Horren ondorioz, perpaus aztergaia honela geratzen zaigu:

– Donostiako alkateak atzoko bilerara idatzi bat eraman zuen, [eta bertan aipatzen du zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak erabakia atzeratzeko *ZEIN behin betiko kokagune izango dueN errauste plantak*].

Azkeneko zehar-galderak osatzen duenez *erabakia* informazioa, zergatik ez berba hori atzeratu lotura hobea lortzeko zehar-galderarekin? Bestalde, perpausaren hasiera aldean, *atzoko* barik hobeto dago *atzo*:

– Donostiako alkateak atzo bilerara idatzi bat eraman zuen, [eta bertan aipatzen du zeintzuk arrazoi izan dituen bere taldeak atzeratzeko erabakia *ZEIN behin betiko kokagune izango dueN errauste plantak*].

Jakina, *eta* juntagailuaren ordez para daitezke *zein* eta *non* bidezko egiturak, gura izanez gero. Bestalde, ez ote dago hobeto emanda azken zehar-galderan *behin betiko* adizlaguna, eta ez izenlaguna?:

– (...) atzeratzeko erabakia zein *kokagune izango duen errauste plantak BEHIN BETIKO*.

8.2.3.

**Andreen fabore**

Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruzko datuak ikustean.[C]

Perpaus hau 3. unitatean jorratu dugu. Hemen bereziki landuko dugu puntu bat: zelan informazio batek, formaz baiezka, esangura interrogatiboa duen, zehar-galdera esangura. 3. unitatean hurrengo perpausetara heldu ginen (*ikustean* barik *ikusiTA* paratuta, esangura kausala dela-eta):

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan ikusiTA [datuak] [Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruz].
– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan [datuak] ikusiTA [Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruz].

C. (B, 2003-11-13, 6. or.)

Kortxeteetako informazioak "[datuak][Ipar Euskal Herriko pobreziaren hazkundeari buruz]" zehar-galdera esangura interrogatiboa du, barruan zehar-galdera bat dauka. Ikus dezagun gaztelaniaz:

– ... los datos sobre (COMO HA SIDO) el desarrollo de la pobreza en...

Gauzak horrela, argi eta garbi dago euskarazko informazioak, kortxete barrukoak, esangura interrogatiboa duela eta formaz ere zehar-galdera bihurtu ahal dugula:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan [datuak] ikusita [ZER/ZELAKO hazkundea izan dueN pobreziak Ipar Euskal Herrian].

Edo honela:

– Guztiz hunkituta geratu nintzen lehengoan [datuak] ikusita [ZELAN hazi deN pobrezia Ipar Euskal Herrian].

Esan dugu gorago *datuak* informazioa —kortxete artean— aditz ostean erabil daitekeela, gura izanez gero.

### *8.3. ARIKETAK*

Ondoko ariketetan galdekari bat edo gehiago ipini ditugu ebatzi beharrezko ariketa bakoitzaren azpian, euskalkietan ez direlako galdekari berberak erabiltzen, eta ez dituztelako ezta erabilera berak ere.

8.3.1.

**Maileguak**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak atzo aurkeztu zuen ikasliburuak doan ezartzeko erabiliko duen formula.

ZER ZELAKO

8.3.2.

**Itzuli-mitzuli: zer eta norentzat itzuli?**

Joxemari Iturralde idazlearen hitzek ondo laburbiltzen dute euskal munduan zabalduta dagoen iritzia:

ZER ZELAKO

8.3.3.

**Zaldiak burua altxatu nahi du**

Datorren sasoian 1Formula Txapelketan erabiliko duen autoa aurkeztu du Ferrarik: '248 F1'

ZER ZELAKO

8.3.4.

**Kataluinako presidenteak PPren aurkako fronterik ez duela osatuko ziurtatu du**.

Espainiako Gobernu berriaren jarreraren zain dagoela adierazi du, inolako mugimendurik egiten hasi aurretik.

(Bigarren perpausa dugu aztergai)

ZER ZELAKO

8.3.5.

Ikasturte honetan hiru hizkuntzari buruz duzuen iritzia aztertuko duzue

ZER ZELAKO

8.3.6.

**Zarauzko haur danborrada**

Ilaski Serranok eta Amaia Jacksonek Zarauzko haur danborradaren 25. urteurreneko ekitaldiak aurkeztuko dituzte gaur arratsaldean.

ZEIN(TZUK)[Hiztun batzuek ez darabilte *zeintzuk*], ZERTZUK, ZELAKO

8.3.7.

**Aitor Aranaren 'Editorea' eta Xabier Etxanizen 'Marrazkia' eman dituzte argitara**

Kutxa Fundazioak Donostia Hiria antzerki eta ipuin sariketaren aurtengo ekitaldiko lan irabazleak eman berri ditu argitara:

NORTZU(E)K, ZEINTZU(E)K [Hiztun askok ez darabilte ez *nor* ez *nortzu(e)k*]

8.3.8.

**Sakanako Formakuntza Batzordea Parlamentuan agertuko da gaur**

Lanbide Heziketa euskaraz emateko dauden oztopoak azalduko ditu.

ZEIN(TZUK), ZERTZUK ZELAKO

8.3.9.

Oraindik ondorio zehatzak ateratzeko goiz bada ere, antolatzaileak —Ibaizabal kooperatiba— bigarren urtean egin ditzaketen hobekuntzetan pentsatzen hasiak dira.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

8.3.10.

**Gasteizko Udalak euskalduntzeaz dituen premiak gogoratu ditu EHk**

GASTEIZKO Udalak euskalduntzeari buruz dituen premiazko egitekoak gogora ekarri dizkio EHk.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

8.3.11.

Erostera bultzatzen gaituzten 'amarruak' saltoki handietan

ZEIN(TZUK) ZELAKO

8.3.12.

(...) Pozik dago Luis Fernandezek egindako lanarekin eta kontratua beste urte eta erdirako duela gogoratu nahi du. Behin mendeurreneko ospakizunak amaituta Arratek urte berrirako dituen itxaropenak azaldu dizkigu.

(Bigarren perpausa dugu aztergai)

ZEIN(TZUK) ZELAKO

8.3.13.

Erretiro aurreratua hartuz gero, langileek izango lituzkeen baldintza ekonomikoak.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

8.3.14.

Hizkuntza eredu egokia definitzen duten ezaugarriak.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

8.3.15.

**EL ARCA RUSA**

Hermitage jauregian lau mendeetan izandako gertaera historikoak kontatzen dira, Coustine markesaren begietan.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*Berria,* 2006-6-1, 5. or.) 2-(B, 2006-3-16, 34. or.) 3-(B, 2006-1-25, 34. or.) 4- 5- 6-(B, 2003-6-28, 46. or.) 7- 8- 9- 10-(*Egunkaria,* 1999-7-8, 11. or.) 11-(*Egunkaria,* 1998-3-1, 1. or.) 12-(*Egunkaria,* 1999-1-3, 26. or.) 13- 14- 15-(B, 2004-5-8, 49. or.)

# 9. unitatea

## (ERLATIBOA ERAKUSLE ATZERA)

**HELBURUA:** Komunikagarriago egin testua, atzera eroanda erlatiboa.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausean

*– Urliak zuzenduriko] pelikula hau ezin interesgarriago da*

alperrik dago erabilita erlatiboa erakusle aurrean.

**SOLUZIOA:** Eroan dezagun erlatiboa erakusle atzera:

*– Pelikula hau, [urliak zuzendu(riko)A], ezin interesgarriago da*

***Termino jakin beharrezkoak***

- **Egitura erlatibo jokatua** (*-(e)na…*)
- **Egitura erlatibo jokatugabea-I/II/III** [partizipioa + -TA/-(R)IK/Ø + *-koa…*]
- **Artikuluak** (*-a, -ak*)

## 9.*1. TEORIA*

Unitate honetan perpaus aztergaiek erlatiboa daukate erakusle aurrean. Adibide bitartez esateko, hauek lako perpausak jorratuko ditugu:

– [Arineketan datorren] gazte HORI lehengusua dut
– [Arineketan datorren eta Kepak agurtu duen] gazte HORI lehengusua dut

Honako eskema daukate:

[**erlatiboa**] + [erakuslea] + [aditza]

Perpausok penaz irakurtzen dira, erlatiboak (kortxete barruan) alperrik daudeeta erakusleen ezkerretara, beharrizan barik karga egiten. Arazo horrek konponbide erraza dauka: eroan ditzagun erlatibook erakusle atzera, eskuma aldera. Baina erakusle ostean kokaleku bi egon daitezke erlatiboarentzat, eta horren arabera eskema bi ateratzen zaizkigu:

ESKEMAK

a-[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
b-[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]

Erabil ditzagun eskema biok, ipin ditzagun erlatibook kokaleku biotan eta ikus dezagun zein lekutan dauden ondoen. Erabil dezagun lehenengo eskema, eta aplikatu goiko hiru perpausei:

a-[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]

– Gazte HORI [arineketan datorrenA] lehengusua dut
– Gazte HORI [arineketan datorren eta Kepak agurtu duenA] lehengusua dut

Pasa gaitezen bigarren eskema erabiltzera, zeina soilik aplika dakiekeen lehenengo perpaus biei:

b-[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]

– Lehengusua dut gazte HORI [arineketan datorrenA]
– Lehengusua dut gazte HORI [arineketan datorrenA eta Kepak agurtu duenA]

Adibideoi erreparatuta, kontura gaitezen, lehenik, erlatiboei (kokaleku bietan) gaineratu diegula artikuluren bat (*-a* edo *-ak*) eta, bigarrenik, erantzunak egoki daudela, guk uste, eskema batean zein bestean. Edozein modutan ere, adibidean-adibidean ikusi beharko da eskema biak beti ote diren aplikagarri, edo zein bai, eta zein ez.

Bestalde, aztertu beharra dago zer baliabide erabili erlatiboaren (*-(e)n*) informazioa kudeatzeko. Bat ikusi dugu, egitura erlatibo jokatua (*-(e)na...*), baina badira beste batzuk ere. Ikus ditzagun guztiak, hemen erabiliko ditugunak behinik behin (*bait-* menderagailu hutsa kanpoan utzi dugu):

BALIABIDEAK

A. Erlatiboak
  A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…)
  A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partizipioa + -TA/-(R)IK + *-koa*…]
  A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa*…]
B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*) eta nonismoa (*non…-(e)n/bait-*)
C. Beronismoa (*bera(u), hau*…)
D. *Eta* juntagailua
E. Besterik (marrak, parentesiak…)

Orain arte ikusi dugu, batetik, eskema-aldaketa bat egin behar dela, eta eskema bi ditugula perpaus aztergaiak jorratzeko; bestetik, baliabide batzuk ditugula.

Orain perpaus bi emanda eredugarri, ikusiko dugu zelan aplikatzen zaizkien eskema-baliabideok. Hona hemen perpaus biak:

– [Arineketan datorren] gazte HORI lehengusua dut
– [Arranondotik etorririko] gazte HORI lehengusua dut

Aplika diezaiegun lehenengo eskema eta baliabideetan ahal direnak:

a-[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (-(*e*)*na*…)**
– Gazte hori, arineketan datorrenA, lehengusua dut

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**
– Gazte hori, Arranondotik etorriRIKOA, lehengusua dut

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz.+ Ø + *-koa*…]**
– Gazte hori, Arranondotik etorriA, lehengusua dut

**B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*)**
– Gazte hori, ZEINA arineketan BAITator, lehengusua dut
– Gazte hori, ZEINA arineketan datorreN, lehengusua dut

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Gazte hori**,** Arranondokoa BERA(U), lehengusua dut
– Gazte hori**,** BERORI/BERAU Arranondokoa, lehengusua dut

**D. *Eta* juntagailua**
– Gazte hori Arranondotik etorri da, ETA lehengusua dut

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**
– Gazte hori —Arranondotik etorriA— lehengusua dut
– Gazte hori (Arranondotik etorriA) lehengusua dut

Orain aplika diezaiegun perpaus biei bigarren eskema eta baliabideetan ahal direnak:

b-[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Lehengusua dut gazte hori, arineketan datorrenA

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Lehengusua dut gazte hori, Arranondotik etorriRIKOA

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Lehengusua dut gazte hori, Arranondotik etorriA

**B. Zeinismoa (*zein…-(e)n*/bait-)**
– Lehengusua dut gazte hori, ZEINA arineketan BAITator
– Lehengusua dut gazte hori, ZEINA arineketan datorreN

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Lehengusua dut gazte hori, Arranondokoa BERA(U)
– Lehengusua dut gazte hori, BERORI/BERAU Arranondokoa

**D. *Eta* juntagailua**
– Lehengusua dut gazte hori, ETA Arranondotik dator

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**
– Lehengusua dut gazte hori —Arranondotik etorriA—
– Lehengusua dut gazte hori (Arranondotik etorriA)

Bestalde, bada hirugarren eskema bat ere:

| c-[erakuslea] + [aditza] + [**erlatiboa**] |
|---|

Aplika diezaiegun gure perpaus biei hirugarren eskema hau eta ahal diren baliabideak:

– Gazte hori lehengusua dut arineketan datorrenA (?)
– Gazte hori lehengusua dut**,** Arranondotik etorriRIKOA (?)
– Gazte hori lehengusua dut, ZEINA arineketan BAITator (?)

Badirudi ordena edo eskema hori, erakuslea urrunduta erlatibotik, ez dela egokia (interrogante bidez adierazi gura dugu zalantzazkoak direla perpausak). Ez, behinik behin, beste biak bestekoa. Beharbada, egokia izan daiteke beste perpaus batzuetan. Ikusiko dugu adibidean-adibidean. Balorazio orokor bat eginda, gure proposamenak (edozein baliabide erabilita) koste txikiagoa dauka informazioa prozesatzeko erlatiboa erakusle aurrean erabilita baino.

### *9.2. ADIBIDEAK*

Hurrengo adibide guzti-guztietan agertuko da unitate honetako aztergaia (erlatiboa erakusle aurrean), baina baita beste batzuk ere, adibidean-adibidean ezberdinak. Gu ahaleginduko gara marapilo guztiei askabidea topatzen. Has gaitezen banan-banan jorratzen adibideak.

9.2.1.

**LAAGAN. ERASE UNA VEZ EN LA INDIA**

**‘Bollywood’-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, Oscarretarako izendatua egon zen musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea nahasten dituen film indiar hau.[A]

1. TEORIAn esan dugu erakusle aurrean badago erlatibo bat alperrik, karga egiten duela eta irakurketa behar baino nekagarriago bihurtu. Goiko adibidean honako erlatiboa dago alperrik:

– [musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea nahasten ditueN]

Konponbidetzat proposatu dugu erlatiboa (luzea lukainka!) eroateko erakuslearen eskumatara:

– **‘Bollywood’-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, Oscarretarako izendatua egon zen film indiar hau, [musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea nahasten dituenA].

A. (B, 2004-7-20, 47. or.)

Erlatiboari (*-(e)n*) artikulu singularra (*-a*) gaineratu diogu eta egitura erlatibo jokatua sortu (*-(e)na*...). Segitzen du lar luzea izaten informazioak kortxete barruan. Zelan desegin egitura luzenga hori? Aurrera eroanda "aditza + egitura erlatibo jokatua", ahozkoan egiten den moduan (eta batzuetan idatzizkoan):

– **'Bollywood'-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, Oscarretarako izendatua egon zen film indiar hau, [nahasten dituenA musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea].

Egitura erlatibo jokatuaren ordez, badago beste baliabide bat ere erabili-erabilia euskara mintzatuan: *eta* juntagailua. Hona hemen zelan erabiltzen den:

– **'Bollywood'-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, Oscarretarako izendatua egon zen film indiar hau, [ETA nahasten ditu musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea].

Badira beste baliabide batzuk, *zein…bait-* eta *zein…-(e)n*, idazle klasikoek baliatuak:

**'Bollywood'-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, Oscarretarako izendatua egon zen film indiar hau, [ZEINAK nahasten BAITitu musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea].

– **'Bollywood'-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, Oscarretarako izendatua egon zen film indiar hau, [ZEINAK nahasten ditueN musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea].

Bada beste bide bat ere perpausari heltzeko. Horretarako, erakuslea, *nor* kasuan deklinatuta dago, *nork* bihurtu behar da, eta besteak beste, *zein…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak erabili:

– **'Bollywood'-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, film indiar HONEK, [ZEINA Oscarretarako izendatu(T)a egon BAITen], nahasten ditu musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea.
– **'Bollywood'-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, film indiar HONEK, [ZEINA Oscarretarako izendatu(T)a egon zeN], nahasten ditu musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea.

Zeinismook kenduta, beste baliabide batzuk ere erabil daitezke:

– **'Bollywood'-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, film indiar HONEK, [Oscarretarako izendatua egonA], nahasten ditu musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea.

– **‘Bollywood’-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, film indiar HONEK, [BERAU Oscarretarako izendatua egonA], nahasten ditu musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea.

*Berau* dagoen tokian ipin daiteke *bera* ere; baita, gura izanez gero, atzen lekuan paratu ere bata zein bestea:

– **‘Bollywood’-eko koktel txundigarria**. Duela hiru urte, film indiar HONEK, [Oscarretarako izendatua egonA BERA(U)], nahasten ditu musikala, drama, komedia, abentura eta erromantzea.

Laburpentzat, esan dezakegu honelako estrategiak erabili ditugula aztergaia (erlatibo + erakuslea) desegiteko:

A. Egitura erlatibo jokatua
– [film indiar hau], [nahasten ditueNA…]

D. *Eta* juntagailua
– [film indiar hau], [ETA nahasten ditu…]

B. Zeinismoa
– film indiar hau], [ZEIN…- BAIT- / -(e)N]

C. Beronismoa
– film indiar hau], [BERA(U)...]

9.2.2.

**Euskal jai gaztetxea defenda dezagun**

Barcinatar faxismoa jaun eta jabe da Iruñean. *Irribarre demokratikoa* duen burdinazko andere honek, *buldzer* bailitzan, herritar kutsua duen orori erasotzen dio: auzoetako jaiak...[B]

Oraingo honetan ez dugu lehenengo perpausa jorratuko, ezpabere, bigarrena:

– *Irribarre demokratikoa* duen burdinazko andere honek, *buldzer* bailitzan, herritar kutsua duen orori erasotzen dio: auzoetako jaiak...

Alperrik dago erabilita erlatiboa (*Irribarre demokratikoa* duen) eskumatara duela erakuslea (*honek*), behar barik egiten du-eta kargantetxoa perpausa. Nor edo nork esan lezake erdaraz ere badagoela erlatiboa ([*Irribarre demokratikoa* dueN] burdinazko andere honek):

– Esta señora de hierro QUE tiene *una sonrisa democrática*

B. (B, 2004-7-20, 7. or.)

Baina kargutu gaitezen erlatiboa, erdaraz, izenaren eskumatara ipintzen dela (ez ezkerretara). Guk ere eskumatara emango dugu erlatiboaren informazioa, baina erlatiboa barik. Hona hemen hainbat modutara emanda:

– Burdinazko andere honek *irribarre demokratikoa* du, ETA *buldozer* bailitzan, herritar kutsua duen orori erasotzen dio: auzoetako jaiak...

Edo:

– Andere honek, BURDINAZKOA (BERA(U)), *irribarre demokratikoa* du, eta *buldozer* bailitzan, herritar kutsua duen orori erasotzen dio: auzoetako jaiak...

Edo

– Andere HAU burdinazkoa da, *irribarre demokratikoa* du, eta *buldozer* bailitzan, herritar kutsua duen orori erasotzen dio: auzoetako jaiak...

Edo:

– Burdinazko andere *IRRIBARRE DEMOKRATIKODUN* honek, *buldozer* bailitzan, herritar kutsua duen orori erasotzen dio: auzoetako jaiak...

Perpausean bigarren parteari oratuta, eta alde batera utzita "*buldozer* bailitzan" informazioa, erlatiboak (*herritar kutsua dueN*) baldintzazko esangura dauka:

[herritar kutsua dueN] orori erasotzen dio

Horrexegatik adieraz daiteke baldintza bidez:

– Burdinazko andere honek *irribarre demokratikoa* du, eta *buldozer* bailitzan, orori erasotzen dio herritar kutsua BAdu: auzoetako jaiak...
– Burdinazko andere honek *irribarre demokratikoa* du, eta *buldozer* bailitzan, orori erasotzen dio herritar kutsua edukiZ GERO: auzoetako jaiak...
– Andere HAU burdinazkoa da, *irribarre demokratikoa* du, eta *buldozer* bailitzan, orori erasotzen dio herritar kutsua BAdu: auzoetako jaiak...
– Andere HAU burdinazkoa da, *irribarre demokratikoa* du, eta *buldozer* bailitzan, orori erasotzen dio herritar kutsua izaneZ GERO: auzoetako jaiak...
– Burdinazko andere *irribarre demokratikodun* honek, *buldozer* bailitzan, orori erasotzen dio herritar kutsua BAdu: auzoetako jaiak...
– Burdinazko andere *irribarre demokratikodun* honek, *buldozer* bailitzan, orori erasotzen dio herritar kutsua edukiZ GERO: auzoetako jaiak...

Jatorrizko perpausean zein aldaera guztietan, gure ustez, *buldozer* barik erabili behar da *buldozerra*:

– Burdinazko andere honek *irribarre demokratikoa* du, eta *buldozer**rA*** bailitzan, orori erasotzen dio herritar kutsua BAdu: auzoetako jaiak...

Amaitzeko, komeni da jakitea *bailitzan* eta antzeko egiturak ez dituela gomendatzen Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak. Ordainetan hiruzpalau aukera daude:

– Balitz moduan
– Balitz legez
– Balitz bezala
– Balitz antzera

### *9.3. ARIKETAK*

Ondoren, ohi legez, proposatuko ditugu ariketa batzuk, eta eurok konpondu edo ebazteko, erakutsi nahi dugu zeintzuk urrats egin behar diren. Berriro azalduko dugu, 1. TEORIAn egindako moduan, zer metodologia erabili. Horretarako, adibide bat emango dugu erakusgarri, eta beronen azpian eskema orokor bat, erakusteko zeintzuk pauso eman behar diren. Hona hemen adibidea azpian duela eskema orokorra, zeina agertuko den ariketa guztien ondoren:

– Kastnerrek zuzendu eta protagonizatutako pelikula hau bitxikeriatzat jo daiteke. (B, 2004-11-12, 51. or.)(Moldatua)

1. Identifikatu (egin behar da) problema, erlatiboa (unitate honetan):
   – [Kastnerrek zuzendu eta protagonizatutako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
      A. [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
         – Pelikula hau [**erlatiboa**] bitxikeriatzat jo daiteke
      B. [aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
         – Bitxikeriatzat jo daiteke pelikula hau [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]
      B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
      C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      D. *Eta* juntagailua
      E. Besterik (marrak, parentesiak…)

Ikusten denez, urrats bi egin behar dira perpausa arteztu edo zuzentzeko:

1. Identifikatu problema.
2. Erakutsi konponbideak.

Lehenengo urratsean identifikatu egin behar da problema, beti bat bera unitate honetan: erlatiboa alperrik dago erakusle aurrean. Bigarren urratsean bistaratu egin behar ditugu zeintzuk konponbide ditugun, batetik, eskema mailan eta, bestetik, baliabide arloan:

2.1. Zein(tzuk) eskema aplikatu behar zai(zki)on perpausari.
2.2. Zeintzuk baliabide ditugun eskumenean.

Adibide honetan eskema bi atera zaizkigu problema ebazteko, konpontzeko, baina ariketetan bakarra izango dugu gehienetan.

Adibide aztergaian bistaratu ditugula zer problema dagoen eta zeintzuk konponbide, hezurmamitu ditzagun lehenengo eskema eta beroni aplikatu ahal zaizkion baliabideak:

a-[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Pelikula hau, Kastnerrek zuzendu eta protagonizatu(T)A dagoeNA, bitxikeriatzat jo daiteke

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Pelikula hau, Kastnerrek zuzendu eta protagonizatutakoA, bitxikeriatzat jo daiteke

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Pelikula hau, Kastnerrek zuzendu(A) eta protagonizatuA, bitxikeriatzat jo daiteke

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Pelikula hau, ZEINA Kastnerrek zuzendu eta protagonizatu(T)A BAITago, bitxikeriatzat jo daiteke
– Pelikula hau, ZEINA Kastnerrek zuzendu eta protagonizatu(T)A dagoeN, bitxikeriatzat jo daiteke

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Pelikula hau, BERAU Kastnerrek zuzendu(A) eta protagonizatuA, bitxikeriatzat jo daiteke

(*Bera* ere erabil daiteke, atzean zein aurrean)

**D. *Eta* juntagailua**
– Pelikula hau, ETA berau/hau Kastnerrek zuzendu eta protagonizatu(T)A dago, bitxikeriatzat jo daiteke
– Pelikula hau Kastnerrek zuzendu(T)A eta protagonizatu(T)A dago, ETA bitxikeriatzat jo daiteke

**E. Besterik (parentesia...)**
– Pelikula hau —Kastnerrek zuzendu(A) eta protagonizatuA— bitxikeriatzat jo daiteke
– Pelikula hau (Kastnerrek zuzendu(A) eta protagonizatuA) bitxikeriatzat jo daiteke

Orain pasa gaitezen bigarren eskemara:

b-[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Bitxikeriatzat jo daiteke pelikula hau, Kastnerrek zuzendu eta protagonizatu(T)A dagoeNA

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Bitxikeriatzat jo daiteke pelikula hau, Kastnerrek zuzendu eta protagonizatutakoA

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]**
– Bitxikeriatzat jo daiteke pelikula hau, Kastnerrek zuzendu(A) eta protagonizatuA

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Bitxikeriatzat jo daiteke pelikula hau, ZEINA Kastnerrek zuzendu(T)A eta protagonizatu(T)A BAITago
– Bitxikeriatzat jo daiteke pelikula hau, ZEINA Kastnerrek zuzendu(T)A eta protagonizatu(T)A dagoeN

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Bitxikeriatzat jo daiteke pelikula hau, BERAU Kastnerrek zuzendu(A) eta protagonizatuA

(*Bera* ere erabil daiteke, atzean zein aurrean)

OHARRAK

Batzuetan osagaietan egin ditzakegu aldaketak, orrazketak edo zuzenketak. Gure perpaus aztergai honetan ere egin daitezke. Esaterako, eroan dezagun aditza (*dago*) aurrera, eta atzera gainerako informazioa (*Kastnerrek zuzendu(T)A eta protagonizatu(T)A*):

– Pelikula hau, ETA BERAU/HAU dago Kastnerrek zuzendu(T)A eta protagonizatu(T)A, bitxikeriatzat jo daiteke
– Pelikula hau, ZEINA BAITago Kastnerrek zuzendu(T)A eta protagonizatu(T)A, bitxikeriatzat jo daiteke
– Pelikula hau, ZEINA dagoeN Kastnerrek zuzendu(T)A eta protagonizatu(T)A, bitxikeriatzat jo daiteke

Ondoren ariketak datoz multzo bitan. Lehenengoan sartu ditugu lehenengo zazpiak, zeinetan erlatiboa eroan behar den azkeneko lekura; bigarren multzoan daude gainerako zortziak, non erlatiboa paratu behar den perpausaren erdian, koma artean. Has gaitezen lehenengo multzotik, non hurrengo eskema aplikatu behar den:

| b-[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**] |
|---|

9.3.1.

**LOS RÍOS DE COLOR PÚRPURA**

**Hiletak eta profanazioak**. Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria askoz ere kaskarragoa den film hau egiteko.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [askoz ere kaskarragoa den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
      – Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oina-rritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]
      B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      C. Beronismoa (*bera(u), hau*…)
      D. *Eta* juntagailua
      E. Besterik (marrak, parentesiak…)

9.3.2.

**Mundua menderatzeko tresna**. *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da Egipton girotutako abenturazko film hau.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Egipton girotutako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
      – *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da film hau, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na(k)*)
         A2. Erlatibo jokatugabea-I [partizipioa + -TA(-RI)KOa(k)]
         A3. Erlatibo jokatugabea-II [partizipioa + *-a(k)*]
      B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      C. Beronismoa (*bera(u), hau*…)
      D. *Eta* juntagailua
      E. Besterik (marrak, parentesiak…)

9.3.3.

*Literatura Unibertsala* bildumako beste bi liburu plazaratu dira: Jules Renar-den *Axenario* eta Leonid Nikolaievitx Andeiev-en *Zazpi urkatuak*. Honenbestez, 119.alera iritsi da EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako sorta hau.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
      – (...) Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua *(-(e)na*…)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]
      B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      C. *Eta* juntagailua
      D. Besterik (marrak, parentesiak…)

9.3.4.

**Teilatuko lizarra** [Liburua]

Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu Susa argitaletxeak karrikaratu berri duen liburu honek.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Susa argitaletxeak karrikaratu berri duen]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
      – Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]
      B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
      D. *Eta* juntagailua
      E. Besterik (marrak, parentesiak…)

9.3.5.

**GR-121, Gipuzkoako Itzulia** [Liburua]

*GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu duen gida honek.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu duen]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
      – *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua du gida honek, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak

9.3.6.

PLANTEAMENDU LEXIKALA: ELT-REN EGOERA ETA...[Liburua]

**Michael Lewisen etorkizunerako proposamena**

Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da HABEk plazaratzen duen liburu hau,

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [HABEk plazaratzen duen]

2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [aditza] + [**erlatiboa**]
      – Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, [**erlatiboa**],
   2.2. Baliabideak

Pasa gaitezen bigarren multzoko ariketak egitera, zeinetan erlatiboaren informazioa ipini behar den perpaus barruan, koma artean. Osterantzean esateko, hurrengo eskema baliatu behar da:

| a-[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza] |
|---|

9.3.7.

**Ibilbideak Estellerrian** [Liburua]

Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratutako liburuxka honek 20 ibilbide erakusten ditu.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratutako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Liburu honek, [**erlatiboa**], 20 ibilbide erakusten ditu.
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]
      B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
      C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      D. *Eta* juntagailua

9.3.8.

**La mentira del silencio** [Filma]

**Ingurukoen kontuen entzulea**. Telebistarako ekoitzitako film honek ez du aparteko interesik.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Telebistarako ekoitzitako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Film honek, [**erlatiboa**], ez du aparteko interesik
   2.2. Baliabideak

9.3.9.

1978ko *Gure Almanaka*tik hartutako txiste hau bertan agertu bezala eskainiko dizuet.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [1978ko *Gure Almanaka*tik hartutako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Txiste hau,[**erlatiboa**], bertan agertu bezala eskainiko dizuet
   2.2. Baliabideak

9.3.10.

**EL PADRE DE LA NOVIA** [Filma]

Steve Martin arrakastatsuak protagonizatutako komedia hau Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, jatorrizko bertsioa bezain ona izan gabe.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Steve Martin arrakastatsuak protago-nizatutako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Komedia hau, [**erlatiboa**], Minnelliren izenburu bereko harribitxia-ren *remake* zuzen eta dibertigarria da, jatorrizko bertsioa bezain ona izan gabe.
   2.2. Baliabideak

9.3.11.

**JUKIA TIMOSHENKO**

Izatez ekonomista den 44 urteko emakume hau Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Izatez ekonomista den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – 44 urteko emakume hau, [**erlatiboa**], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.
      – Beste modu batera ere plantea daiteke, erlatiboaren informazioan “44 urteko” sartuta: [Izatez ekonomista den *44 urteko*]
      – Emakume hau, [**erlatiboa**], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.
   2.2. Baliabideak

9.3.12.

**Rock&Roll indartsuaren eta melodiaren artean**

Orain dela hiru urte Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek sonoritate indartsua daukan talde hau jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [sonoritate indartsua daukan]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Orain dela hiru urte Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek talde hau, [**erlatiboa**], jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin
   2.2. Baliabideak

9.3.13.

**EL CAZADOR DE FORTUNAS** [Filma]

Ande de Tothek Mendebalde Urrunera egindako bisita hau ez da oso nabarmengarria.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Ande de Tothek Mendebalde Urrunera egindako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Bisita hau, [**erlatiboa**], ez da oso nabarmengarria.
   2.2. Baliabideak

9.3.14.

1987an giroturiko film honek komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [1987an giroturiko]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Film honek, [**erlatiboa**], komunitate itxi baten historia kontatzen digu.
   2.2. Baliabideak

9.3.15.

Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarritutako film honek ez du askorik balio.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarritutako]

2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Film honek, [**erlatiboa**], ez du askorik balio.
   2.2. Baliabideak

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*Berria,* 2006-5-2, 47. or.) 2-(B, 2006-4-11, 47. or.) 3-(*Diario Vasco,* 2006-7-3, 84. or.) 4-(*Gara,* mugalari, 2006-4, 5. or.) *5-(Egunkaria,* munduMira..., 2001-12-28, 2. or.) 6-(*Argia,* 2001-10-21, 47. or.) 7-(Eg.-munduMira..., 2001-12-7, 3. or.) 8-(B, 2006-4-29, 47. or.) 9-(A, 2006-7-30, 45. or.) 10-(*Egunkaria,* 2002-3-3, 54. or.) 11-(B, 2005-1-25, 24. or.) 12-(A, 2006-6-18, 33. or.) 13-(Eg., 2002-3-15, 58. or.) 14-(*Zabalik,* 247zbk., 28. or.)(Moldatua) 15-(B, 2004-9-25, 55. or.)

# 10. unitatea

## (ERLATIBOA IZEN PROPIO ATZERA)

**HELBURUA:** Komunikagarriago egin testua, atzera eroanda erlatiboa.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausean

– *[Egunero footing egiten duen] J. J. Ibarretxeri loteria tokatu ei zaio*

alperrik dago erabilita erlatiboa izen propioaren aurrean.

**SOLUZIOA:** Eroan dezagun erlatiboa izen propioaren eskumatara:

– *J. J. Ibarretxeri, [egunero footing egiten duenA], loteria tokatu ei zaio*

– *Loteria tokatu ei zaio J. J. Ibarretxeri, [egunero footing egiten duenA]*

***Termino jakin beharrezkoak***

– **Osagarriak** (*zertaz, zelan*… osagarriak)
– **Sintagmak** (*non*… sintagmak)
– **Egitura erlatibo jokatua** (*-(e)na*…)
– **Egitura erlatibo jokatugabeak** -I/II/III [partizipioa + -TA/-(R)IK/Ø + *-koa*…]
– **Artikuluak** (singularra (*-a*), plurala (*-ak*))
– **Egiturak** (*zein…bait-/(e)n*, *non…bait-/(e)n*)
– **Zeinismoa** (*zein…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak)
– **Nonismoa** (*non…bait-* eta *zein…-(e)n* egiturak)

### *10.1. TEORIA*

Unitate honetan perpaus mota bat aztertuko dugu, zeinetan erlatiboa ageri den izen propioaren ezkerretan. Kontuan hartuta erlatiboak mota bitakoak daudela (ikuspegi batetik begiratuta)

– Erlatibo jokatuak (etorri deN...)
– Erlatibo jokatugabeak (etorritaKO/ekarririKO...)

Egitura mota bi dauzkagu aztergai unitate honetan, erlatibo motaren arabera:

– Erlatibo jokatua + izen propioa
– Erlatibo jokatugabea + izen propioa

Hezurmamitu ditzagun egitura edo eskema biok etsenplu bidez (erlatibo bana edo bina dituztela):

– [Madrilen bizi deN] Joxe Urraza etorri zait bisitan
– [Madrilen bizi deN eta ingeniari beharrean dihardueN] Joxe Urraza etorri zait bisitan
– [Atzo ikusitaKO] Lorea Lakarrari loteria tokatu zaio
– [Atzo ikusitaKO eta alkate-andrea izaniKO] Lorea Lakarrari loteria tokatu zaio

Adibideok, zehatz esateko, honako eskemari erantzuten diote:

a. [**erlatiboa**] + [izen propioa] + [aditza]

Baina bigarren eskema bat ere ager daiteke:

b. [aditza] + [**erlatiboa**] + [izen propioa]

– Bisitan etorri zait [Madrilen bizi deN] Joxe Urraza
– Bisitan etorri zait [Madrilen bizi deN eta ingeniari beharrean dihardueN] Joxe Urraza

– Loteria tokatu zaio [atzo ikusitaKO] Lorea Lakarrari
– Loteria tokatu zaio [atzo ikusitaKO eta alkate-andrea izaniKO] Lorea Lakarrari

Adibideotan izen propiook pertsona bakarrari egiten diote erreferentzia, hau da, testuinguruan Joxe Urraza bakarra dago eta Lorea Lakarra bakarra.

Perpausotan erlatiboak —karga handiak baitira izen propioaren ezkerretara paratuta—, batetik, nekagarriak egiten dira irakurtzeko; bestetik, oso lausoak dira

esangura aldetik: erreparatuz gero, berbarako, lehenengo puntuan (1) adibideei, ematen du, erlatiboa dela bide, Joxe Urraza bat baino gehiago dagoela testuinguruan, eta adierazi gura dela Joxe Urrazaetariko bat etorri dela, hain zuzen *Madrilen bizi dena (eta ingeniari beharrean diharduena).* Baina, bestalde, gorago esan dugu izen propiook darabiltzagula pertsona jakin bakarraren gainean.

Hobeto ulertzeko, egin dezagun izen propio bat barik izen komun bat darabilgula, esaterako *boligrafoa*. Hurrengo perpausa erabiltzen badugu:

– Ekarri mahai gaineko boligrafoa

Izenlagunaren bidez (*mahai gaineko*) adierazi gura dugu boligrafo bat baino gehiago dagoela testuinguruan. Boligrafo bakarra balego, honetara esango genuke, izenlagun barik:

– Ekarri boligrafoa

Jazo daiteke entzuleak ez jakitea non dagoen boligrafo bakar hori. Orduan, mintzatzaileak argitu egin behar dio zelan edo halan. Esaterako:

– Ekarri boligrafoa; mahai gainean dago

Ikusten dugunez, testuinguruan badago entitate bakarra, eta eman behar bada argibidea non dagoen, edo beste edozein argibide, kokatu beharra dago entitatearen ostean. Halaxe ikasi genien gurasoei, eta halaxe entzun diegu gure ingurunean hiztunik onenei.

Unitate honetako egitura mota (erlatiboa + izen propioa) indar handian dabil egunkarietan. Guk oraintsurengora arte ez dugu sekula entzun horrelakorik. Kontuan izanda egitura motok penaz eta nekez irakurtzen direla (eta ahoz esateko itogarriak izan daitezkeela, arnas estukoak), beste proposamen batzuk egingo ditugu; beste irtenbide batzuk ekarriko ditugu hona, askoz errazagoak eta ahoz zein idatziz beti erabiliak. Horretarako, egitura mota hau (erlatiboa + izen propioa) ebazteko urrats bi egingo ditugu: batetik, aldatu perpausaren eskema (erlatiboa pasatu izen propioaren ostera); bestetik, bistaratu zeintzuk baliabide ditugun erlatiboa (edo beronen informazioa) egoki txertatzeko perpausean.

Has gaitezen lehenengo pausoarekin. Jakinda zelako eskema duten zuzendu beharrezko perpausek, ondokoetariko bat:

– [**erlatiboa**] + [i. propioa] + aditza
– aditza + [**erlatiboa**] + [i. propioa]

Zuzendu edo arteztu egin behar ditugu eskemok, eta horretarako, beste bi proposatzen ditugu errazago irakurtzeko (batean zein bestean erlatiboa beti izen propioaren atzean), eta gerta daiteke biak erabiltzea, edo bat:

ESKEMAK

a. [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
b. [aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]

Bigarren pausoan argi eduki behar dugu zeintzuk baliabide ditugun ondo txertatzeko erlatiboa (edo beronen informazioa) perpausean, eskema batean zein bestean. Hona hemen baliabide sorta bat (ez dugu sartu *bait-* menderagailu hutsa):

BALIABIDEAK

A. Erlatiboak
  A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
  A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partizipioa + -TA/-(R)IK + *-koa*…]
  A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa*…]
B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*) eta nonismoa (*non…-(e)n/bait-*)
C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
D. *Eta* juntagailua
E. Besterik (marrak, parentesiak…)

Baditugula, batetik, eskema bi egitura aztergai katramilatsua ebatzi eta komunikagarriago egiteko eta, bestetik, hainbat baliabide, has gaitezen aplikatzen lehenengo eskema eta beroni ondo egokitzen zaizkion baliabideak:

a. [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Joxe Urraza, [Madrilen bizi deNA], etorri zait bisitan
– Joxe Urraza, [Madrilen bizi deNA eta ingenieru dihardueNA beharrean], etorri zait bisitan

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusitaKOA], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusi(taKOA) eta alkate-andrea izaniKOA], loteria tokatu zaio

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]**
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusiA], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusi(A) eta alkate-andrea izanA], loteria tokatu zaio

**B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*)**
– Joxe Urraza, [ZEINA Madrilen bizi deN], etorri zait bisitan
– Joxe Urraza, [ZEINA Madrilen bizi BAITa eta ingenieru BAITihardu beharrean], etorri zait bisitan

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Lorea Lakarrari, [BERAU atzo ikusiA], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [BERAU atzo ikusiA eta alkate-andrea izanA], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusiA BERA(U)], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusiA eta alkate-andrea izanA BERA(U)], loteria tokatu zaio

(Azkena ez genuke erabiliko, urrun egiten da-eta semaforoa (*bera(u)*))

**D. *Eta* juntagailua**
– Lorea Lakarrari, ETA bera(u)/hau atzo ikusi genuen, loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarra atzo ikusi genuen, ETA (berari/beroni) loteria tokatu zaio (?)

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**
– Lorea Lakarrari —atzo ikusiA— loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari (atzo ikusiA eta alkate-andrea izanA) loteria tokatu zaio

Edozein aldaera irakurtzen da errazago jatorrizko perpausa baino.

Orain aplika diezazkiogun perpausari bigarren eskema eta ongi dagozkion baliabideak:

b. [aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Bisitan etorri zait Joxe Urraza, [Madrilen bizi deNA]
– Bisitan etorri zait Joxe Urraza, [Madrilen bizi deNA eta ingenieru dihardueNA beharrean]

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partizipioa + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Loteria tokatu zaio Lorea Lakarrari, [atzo ikusitaKOA]
– Loteria tokatu zaio Lorea Lakarrari, [atzo ikusitaKOA eta alkate-andrea izaniKOA]

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]**
– Loteria tokatu zaio Lorea Lakarrari, [atzo ikusitaKOA]
– Loteria tokatu zaio Lorea Lakarrari, [atzo ikusitaKOA eta alkate-andrea izaniKOA]

Edozein modutan, hirugarren eskema bat ere gerta daitezke erabilgarri:

**c**. [i. propioa] + [aditza] + [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (-(*e*)*na*…)**
– Joxe Urraza etorri zait bisitan [Madrilen bizi deNA] (?)
– Joxe Urraza etorri zait bisitan [Madrilen bizi deNA eta ingenieru beharrean dihardueNA] (?)

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partizipioa + -TA/-(R)IK + -*koa*…]**
– Lorea Lakarrari loteria tokatu zaio [atzo ikusitaKOA] (?)
– Lorea Lakarrari loteria tokatu zaio [atzo ikusitaKOA eta alkate-andrea izaniKOA] (?)

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + -*koa*…]**
– Lorea Lakarrari loteria tokatu zaio [atzo ikusiA] (?)
– Lorea Lakarrari loteria tokatu zaio [atzo ikusiA eta alkate-andrea izanA] (?)

Ez dirudi eskema honetan perpausak natural-natural irakurtzen direnik (horrexegatik erabili ditugu interroganteak); izan ere, izen propioetatik urrun daude euron osagarriak (kortxete artean). Baina eskema hau erabili, erabiltzen da, geroago ikusiko dugunez.

Balorazio orokor bat egiteko, guk uste, alderatzen baditugu erlatiboa erabilita izen propioaren aurrean eta gure proposamena, bigarrena ateratzen da irabazian, ahalegin gutxiago eskatzen du-eta informazioa prozesatzeko. Edozein modutan ere, bada salbuespen bat erlatiboa erabiltzeko izen propioaren ezkerretara. Argi dezagun adibide baten bitartez:

– Jakin-minak bultzatzen duen Baroja. Mundua ezagutu nahi duen Baroja. Mina zer den badakien Baroja eta mina dutenengana iristen den Baroja. Baroja horrekin topo egingo du irakurleak Felipe Juaristik (Azkoitia, Gipuzkoa, 1957) gaztelaniatik euskarara ekarritako ipuinetan, Juaristi beraren hitzetan. (B, 2007-3-31)

Hor, *Baroja*ri ezkerretik gaineratuta erlatiboa, adierazi gura da Baroja mota bat. Eta orduan ondo dago erabilita. Edozein modutan, idazleak gura izan balu, erabil zitzakeen erlatibook izen propinaren atzean ere. Erlatibo mota hau (zeinaren bidez izen propioaren alderdi edo aspektu bat nabarmentzen baita) ez dugu landuko hurrengo adibideetan, ezta paratuko ere ariketetan.

## *10.2. ADIBIDEAK*

Hurrengo adibide guzti-guztietan agertuko da "erlatiboa + izen propioa" egitura. Baita beste egitura batzuk ere, adibidean-adibidean ezberdinak. Gu ahaleginduko gara problema guztiak ebazten. Multzo bitan banatu ditugu adibideak: lehenengo jorratuko ditugu erlatibo jokatudun adibideak eta ondoren jokatugabedunak. Has gaitezen banan-banan garantzen adibideak.

10.2.1.

**TXENTXO JIMENEZ NAFARROAKO ARALARREKO LEGEBILTZARKIDEA**

Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu duten Nafarroa Bai koalizioaz itxaropentsu hitz egin du.[A]

Ikusten dugunez, *zertaz* osagarria

– [Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu duteN Nafarroa Bai koalizioaz]

nekeza egiten da irakurtzeko, erlatiboa dela-eta:

– [Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu duteN]

Badakigu erlatibo hori alperrik dagoela eskumatara duela izen propioa (*Nafarroa Bai koalizioaz*). Gainera, aditza (*hitz egin du*) lar urrunduta dago subjektutik (*Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak*).

Askatu beharrezko marapilo bietan (erlatiboa alperrik izen propioaren ezkerrean eta aditza urrunegi subjektutik) has gaitezen bigarrenarekin: aurrera dezagun aditza eta beronekin batera *zelan* osagarria (*itxaropentsu*):

– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak *itxaropentsu hitz egin du* Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu duten Nafarroa Bai koalizioaz.

Askoz errazago irakurtzen da jatorrizko testua baino. Orain ora diezaiogun lehenengo marapiloari, erlatiboa alperrik dagoela izen propioaren ezkerretara, eta ipin dezagun *zertaz* osagarrian izen propioa lehenengo eta erlatiboa ostean:

– [Nafarroa Bai koalizioaz] [Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu duten]

Ordena hori eroanda perpausera, eta koma bat jarrita parte bien artean:

– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak itxaropentsu hitz egin du [Nafarroa Bai koalizioaz], [Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu duten].

A. (B, 2003-12-27, 10. or.)

Erlatiboa, dagoenean, ez dago ondo. Gainera diezaiogun artikulu singularra (*-a*) erlatiboari:

– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak itxaropentsu hitz egin du [Nafarroa Bai koalizioaz], [Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu dutenA].

Aukera hori esanahi aldetik txarto dago, jatorrizko perpausa bestean egon ere, batak zein besteak, biek, esangura bera adierazten dute-eta: koalizio bat baino gehiago dagoela *Nafarroa Bai* izenekoa, eta bat dagoela Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartuta. Baina komunikagarritasunaren aldetik, askoz errazago irakurtzen da aldaera jatorrizko perpausa baino.

Inork gogoko ez badu egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…)* esangura lausoa ematen diolako perpausari, euskarak baditu beste baliabide batzuk lausotasun hori desegiteko, aienatzeko. Hona hemen egitura bi:

1. ZEIN…BAIT-

2. ZEIN…-(e)N

Aplikatuz gero perpausari, hona hemen emaitzak

– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak itxaropentsu hitz egin du Nafarroa Bai koalizioaz, [ZEINA Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu BAITute].
– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak itxaropentsu hitz egin du Nafarroa Bai koalizioaz, [ZEINA Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu duteN].

Badira beste baliabide bi ere, gura izanez gero erabili. Bata *eta* juntagailua:

– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak itxaropentsu hitz egin du Nafarroa Bai koalizioaz, [ETA (HAU) Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartu dute].

Badaukagu beste baliabide bat ere, *bera(u)* erakuslea:

– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak itxaropentsu hitz egin du Nafarroa Bai koalizioaz, [BERA(U) Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartuA].
– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak itxaropentsu hitz egin du Nafarroa Bai koalizioaz, [Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartuA BERA(U)].

Azken aukera horiek erabil daitezke *bera(u)* barik ere:

– Txentxo Jimenez Aralar alderdiko Nafarroako legebiltzarkideak itxaropentsu hitz egin du Nafarroa Bai koalizioaz, [Aralarrek, EAk eta EAJk hitzartuA].

Azken aukera biotan, *hitzartuA* ipini dugu lehen *hitzartu dute* zegoen tokian (baina jar genezakeen *hitzartutakoa* edo *hitzarturikoa* ere).

10.2.2.

**30 pertsona ezagunek Iñaki Uria aske uzteko eskatu diote epaileari**

«Guk Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria den Iñaki Uria Manterola jauna aske uzteko eskatzen dugu» hitzok jasotzen ditu 30 lagunek sinatu duten dokumentuak.[B]

Hor giltza artean bada informazio bat, *zer* osagarria

– [Guk Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria den Iñaki Uria Manterola jauna]

lar luzea, non erlatiboa

– [Guk Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria den]

kokatuta baitago izen propioaren ezkerretara alperrik. Gainera, aditza ere (*eskatzen dugu*) urrunegi dago subjektutik (*Guk*). Has gaitezen askatzen erlatiboak eragiten duen marapiloa. Horretarako, pasa dezagun erlatiboa izen propioaren ostera:

– [Iñaki Uria Manterola jauna][guk Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria den]

Txerta dezagun informazio hori perpausean bertan, erlatiboari artikulu singularra (*-a*) gaineratuta:

– «Guk aske uzteko eskatzen dugu [Iñaki Uria Manterola jauna],[Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria dena]» hitzok jasotzen ditu 30 lagunek sinatu duten dokumentuak.

Edo *aske uzteko* aditz ostera eroanda:

– "Guk eskatzen dugu aske uzteko [Iñaki Uria Manterola jauna],[Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria dena]" hitzok jasotzen ditu 30 lagunek sinatu duten dokumentuak.

Gura izanez gero, *dena* sobran dago, gure euskaran behintzat. Izan ere, guk ez dugu erabiltzen

– Irakasle bat daukagu, Markinakoa denA

B. (B, 2003-12-31, 11. or.)

ezpabere

– Irakasle bat daukagu, Markinakoa Ø

Gauzak horrela, gurago dugu perpaus aztergaia *denA* ez duela:

– «Guk eskatzen dugu aske uzteko Iñaki Uria Manterola jauna, Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria Ø» hitzok jasotzen ditu 30 lagunek sinatu duten dokumentuak.

Giltza ondoko informazioa, *hitzok jasotzen ditu 30 lagunek sinatu duten dokumentuak*, ez dago errazago ematerik, arin eta ondo irakurtzeko? Zergatik ez erabili informazio horretan erlatiboa atzean? Zelan? *Dokumentu* berba testuan sartuta *bat* duela lagun.

– «Guk eskatzen dugu aske uzteko Iñaki Uria Manterola jauna, Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria» hitzok jasotzen ditu dokumentu BATek, 30 lagunek sinatu dutenA.
– «Guk eskatzen dugu aske uzteko Iñaki Uria Manterola jauna, Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria» hitzok jasotzen ditu dokumentu BATek, 30 lagunek sinatuA.

Beste modu batera ere erabil daiteke:

– «Guk eskatzen dugu aske uzteko Iñaki Uria Manterola jauna, Euskaldun Egunkariaren kontseilari ordezkaria». HORRA ZEINTZUK hitz jasotzen ditueN dokumentu batek, 30 lagunek sinatuA.

10.2.3.

**Milaka herritarrek alde egin dute Uaziristandik, Armada bonbardaketak egiten ari delako**

Ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen dituen Hego Uaziristan probintziako hainbat herri helikopteroetatik bonbardatzen ari da Pakistango Armada.[C]

Hor osagarri bat dugu, *zer*

– [Ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen dituen Hego Uaziristan probintziako hainbat herri]

zeinak, luzearen luzez, oztopatu egiten baitu normal-normal irakurtzea perpaus aztergaia. Badakigu zelan konpontzen den: eskumatara eroanda erlatiboa artikulu (*-a*) eta guzti (*Ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen dituenA*):

C. (B, 2004-7-20, 26. or.)

– [Hego Uaziristan probintziako hainbat herri] [ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen dituenA]

Orain txerta dezagun informazio hori perpausean:

– Hego Uaziristan probintziako hainbat herri, [ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen dituenA] helikopteroetatik bonbardatzen ari da Pakistango Armada.

Hor, salto informatibo bi daude. Bestela esateko, salto informatibo bana dago hurrengo binakako informazioetan (tarte handiegia dago informazio bien artean):

– [Hego Uaziristan probintziako] ——— [ustez Al Kaedako (...) aterpetzen dituenA]
[hainbat herri] ——— [helikopteroetatik (…)]

Saltorik egon ez dadin ezkerretako informazioetatik eskumakoetara, elkarren hur ipini behar dira. Hona hemen zelan:

– [Hego Uaziristan probintziaN], [ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen dituenA], [hainbat herri] helikopteroetatik bonbardatzen ari da Pakistango Armada.

Baina aukera horrek zein jatorrizko perpausak arazotxo bat daukate larria. Geroago azalduko dugu. Orain eman dezagun beste hurrenkera batean jatorrizko perpausa, subjektotik (*Pakistango Armada*) hasita:

– Pakistango Armada helikopteroetatik borbardatzen ari da ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen dituen Hego Uaziristan probintziako hainbat herri.

Egin beharrezko orraztuak eginda (gorago ikusi ditugu), hona hemen emaitza:

– Pakistango Armada helikopteroetatik borbardatzen ari da [hainbat herri] [Hego Uaziristan probintziaN], [ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen dituenA].

Erreparatu, irakurlea, informazio bat, *ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen ditu*, azalpena da, justifikazioa, zergatik esaten den *Pakistango Armada helikopteroetatik borbardatzen ari da hainbat herri Hego Uaziristan probintzian*. Badakigu *eta* eta *bait-* bidez adieraz daitezkeela perpaus kausal azalpenezkoak. Hona hemen zelan egiten den *eta* bidez:

– Pakistango Armada helikopteroetatik borbardatzen ari da hainbat herri Hego Uaziristan probintzian, [ustez BERONEK/BERAK aterpetzen ditu-ETA Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak].
– Pakistango Armada helikopteroetatik borbardatzen ari da hainbat herri Hego Uaziristan probintzian, [ustez BERTAN/BERTON daude aterpetuta-ETA Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak].

Perpaus kausal azalpenezkoa adierazteko, *eta* baliabideaz gainera, bada beste bat: *bait-*. Hona hemen goiko adibide biak *bait-* bidez emanda:

– Pakistango Armada helikopteroetatik borbardatzen ari da hainbat herri Hego Uaziristan probintzian, [ustez beronek aterpetzen BAITitu Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak].
– Pakistango Armada helikopteroetatik borbardatzen ari da hainbat herri Hego Uaziristan probintzian, [ustez bertan BAITaude aterpetuta Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak].

Jatorrizko perpausean atzera eroan dugu *zer* osagarria, baina ipini beharra badago dagoen lekuan, hala erabaki duelako kazetariak, lehentasuna emanda informazio horri, zelan antolatu perpaus osoaren informazioa? Hona hemen aukera batzuk (Ez, ustez, egokiak kazetari estiloan, *bonbardaketa* da-eta albiste nagusia, eta berau atzera eroan dugu):

– Ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen ditu hainbat herrik Hego Uaziristan probintziaN, ETA HORREXEGATIK ari da borbardatzen Pakistango Armada helikopteroetatik.
– Hego Uaziriztan probintzian, hainbat herri, ZEINTZUEK ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen BAITitu, borbardatzen ari da Pakistango Armada helikopteroetatik.
– Hego Uaziriztan probintzian, hainbat herri, ZEINTZUEK ustez Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak aterpetzen ditueN, borbardatzen ari da Pakistango Armada helikopteroetatik.

Ondorengo aukeretan, ostera, aurreratuta dago albistearen ardatza (*bonbardaketa*), eta perpausa idatzita kazetari estiloan

– Hego Uaziriztan probintzian, hainbat herri ari da borbardatzen Pakistango Armada helikopteroetatik, BERTAN ustez daude-ETA aterpetuta Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak.
– Hego Uaziriztan probintzian, hainbat herri ari da borbardatzen Pakistango Armada helikopteroetatik, BERTAN ustez BAITaude aterpetuta Al Kaedako ekintzaileak eta talibanak.

Azken aldaera biok ez ditugu egokitzat jotzen, zeren-eta BERTAN urruntxo egiten da beraren erreferentziatik (*hainbat herri*), lotura txarra dago.

10.2.4.

**DIDIER MUNDUTEGI**

Marinel lapurtarra kapitain duen ‘60 sud’ itsasontziak irabazi zuen Urrezko Balea, iragan igandean amaitu zen Costa Vasca estropadaren XIII.aren aldian.[D]

Problema bi daude perpausean. Lehenengoan, erlatibo bat dela bide

– [Marinel lapurtarra kapitain duen]

perpausa alperrik nekeztxo irakurtzeaz gain, badirudi ‘60 sud’ itsasontzi bat baino gehiago dagoela, eta batek Didier Mundutegi marinel lapurtarra duela kapitain (ikus 7. unitatea). Problema hori konpontzen da erlatiboa izen propioaren eskumatara pasata:

– ‘60 sud’ itsasontziak [Marinel lapurtarra kapitain du] irabazi zuen Urrezko Balea,

Kortxete barruko informazioa egoki txertatuko badugu, baliabide batzuk behar. Esaterako:

– ‘60 sud’ itsasontziak, [(BERONEK/BERAK) marinel lapurtarra du kapitain], irabazi zuen Urrezko Balea,

Aurrera daiteke, gura izanez gero, *Urrezko Balea* informazioa:

– ‘60 sud’ itsasontziak, [(beronek) marinel lapurtarra du kapitain], Urrezko Balea irabazi zuen,

Hor informazio bat, kortxete barrukoa (*marinel lapurtarra du kapitain*), adieraz daiteke beste era bitara ere:

– ‘60 sud’ itsasontziak, [ZEINAK marinel lapurtarra BAITu kapitain], Urrezko Balea irabazi zuen,
– ‘60 sud’ itsasontziak, [ZEINAK marinel lapurtarra dueN kapitain], Urrezko Balea irabazi zuen,

Baina ez dugu gomendatzen ematea egitura erlatibo jokatu bidez (*-(e)na…)*, nahiz eta gaur egun gehien erabili:

– ‘60 sud’ itsasontziak, [marinel lapurtarra dueNA kapitain], Urrezko Balea irabazi zuen,

D. (B, 2004-7-20, 33. or.)

zeren perpaus horrek zer esan gura du?

– (...), que tiene de capitan al marinero lapurtarra

edo:

– (...), EL que tiene de capitan al marinero lapurtarra

Horrelako nahasteei ez da komeni bide ematea.

Esanikoa adierazteko bada beste bide bat, *eta* juntagailua:

– Marinel lapurtarra kapitainak [‘60 sud’ itsasontziak] du, ETA (BERAK / BERONEK) irabazi zuen Urrezko Balea,

Hor ezaba daiteke informazioa parentesi barruan, eta ordainetan aditz ostekoa ipini aditz aurrean:

– Marinel lapurtarra kapitainak ‘60 sud’ itsasontziak du, ETA Urrezko Balea irabazi zuen,

Igaro gaitezen bigarren problemara. Perpaus aztergaiaren bigarren parteak

– iragan igandean amaitu zen Costa Vasca estropadaren XIII.aren aldian

erlatiboa (*iragan igandean amaitu zen*) tokiz kanpo dauka, alperreko karga eragiten diola perpausari. Konponbideak eskatzen du izen propioaren eskumatara igarotzea erlatiboaren informazioa:

– Costa Vasca estropadaren XIII.aren aldian [iragan igandean amaitu zen]

Baina zer baliabide erabiliko dugu informazioa mamitzeko kortxete barruan? Hor daukagu, besteak beste, *zeinismoa*:

– Costa Vasca estropadaren XIII.aren aldian, [ZEINA iragan igandean amaitu BAITzen].

Hor, gura izanez gero, errazago adieraz daiteke informazio bat, *Costa Vasca estropadaren XIII.aren aldian*:

– [Costa Vasca estropadaN], [XIII.aren aldian], [zeina iragan igandean amaitu baitzen].

Jakina, *zein…bait-* egituraren ordez erabil daiteke *zein…-(e)n* ere. Baita *eta* juntagailua ere:

– [Costa Vasca estropadan, XIII.aren aldian, [ETA HAU iragan igandean amaitu zen].

Edo *berau* erabilita:

– Costa Vasca estropadan, XIII.aren aldian, [BERAU iragan igandean amaituA].

Azken emaitza honako hau izan daiteke, besteak beste:

– '60 sud' itsasontziak, marinel lapurtarra duela kapitain, Urrezko Balea irabazi zuen, Costa Vasca estropadan, XIII.aren aldian, berau iragan igandean amaitua.

Azken aldaera horretan, *berau* (edo *bera*) para daiteke azken lekuan, baina kokaleku bietan ez erabilita ere, ondo eratuta egongo litzateke perpausa, gure ustez.

10.2.5.

**Iñaki Mendiguren eta Aitor Arana nagusitu dira Vitoria Gasteiz itzulpen sarietan.**

Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak eskuratu dituzte Gasteizko Udalak antolatutako Vitoria Gasteiz itzulpen sarietako sari nagusiak.[E]

Informazio bat dago hor, *zertzuk*, oso luzea

– [Gasteizko Udalak antolatutako Vitoria Gasteiz itzulpen sarietako sari nagusiak]

zeina nekagarria den, erlatibo jokatugabea dela bide (*Gasteizko Udalak antolatutako*). Badakigu zelan konpondu, erlatiboa atzera eroanda:

– [Vitoria Gasteiz itzulpen sarietako sari nagusiak] [Gasteizko Udalak antolatutako]

Ondoren tarteka dezagun informazio hori perpausean:

– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak [Vitoria Gasteiz itzulpen sarietako sari nagusiak] eskuratu dituzte, [Gasteizko Udalak antolatutako].

Erants diezaiogun erlatiboari *-ak* atzizkia (artikulu plurala):

– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak Vitoria Gasteiz itzulpen sarietako sari nagusiak eskuratu dituzte, [Gasteizko Udalak antolatutakoAK].

edo

– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak Vitoria Gasteiz itzulpen sarietako sari nagusiak eskuratu dituzte, [Gasteizko Udalak antolatuAK].

E. (B, 2003-12-19, 40. or.)

Baina luzeegia da galdegaia [*Vitoria Gasteiz itzulpen sarietako sari nagusiak*], eta labur daiteke. Zelan? Osagarri bakar hori bi bihurtuta:

– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak [sari nagusiak] eskuratu dituzte [Vitoria Gasteiz itzulpen sarietaN], Gasteizko Udalak antolatuak.

Agerian dago sintagma bakarra (*Vitoria Gasteiz itzulpen sarietako sari nagusiak*) bi bihurtu ditugula, eta bigarren zatia, *non* sintagma, aditz ostean paratuko dugu. Gura izanez gero, galdegaia bera (*sari nagusiak*) ere ipin daiteke aditz atzean:

– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak eskuratu dituzte [sari nagusiak] Vitoria Gasteiz itzulpen sarietan, Gasteizko Udalak antolatuak.

Jakina, koma osteko informazioa adieraz daiteke beste era batzuetara ere. Esate baterako, *zeinismoa* modu bietan erabilita:

– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak eskuratu dituzte sari nagusiak Vitoria Gasteiz itzulpen sarietan, [ZEINTZUK Gasteizko Udalak BAITaude antolatuta].
– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak eskuratu dituzte sari nagusiak Vitoria Gasteiz itzulpen sarietan, [ZEINTZUK Gasteizko Udalak daudeN antolatuta].

Erabil daiteke beste baliabide bat ere, *eurok*:

– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak eskuratu dituzte sari nagusiak Vitoria Gasteiz itzulpen sarietan, [EUROK Gasteizko Udalak antolatuAK].

*Eta* juntagailuak ere balio du:

– Iñaki Mendiguren eta Aitor Aranak eskuratu dituzte sari nagusiak Vitoria Gasteiz itzulpen sarietan, ETA (EUROK) Gasteizko Udalak DAUDE antolatuta.

*Eurok* semaforoaren ordez erabil daitezke *eurek*, *beraiek* edo *haiek* ere.

### *10.3. ARIKETAK*

Ondoren, ohi legez, proposatuko ditugu ariketa batzuk, eta eurok konpondu edo ebazteko, erakutsi nahi dugu zeintzuk urrats egin behar diren. Berriro azalduko dugu, 1. TEORIAn egindako moduan, zer metodologia erabili. Horretarako, adibide bat emango dugu erakusgarri, eta beronen azpian eskema orokor bat, erakusteko zeintzuk pauso eman behar diren. Hona hemen adibidea azpian duela eskema orokorra, zeina agertuko den ariketa guztien ondoren:

– Albert Boadellak zuzentzen duen Els Joglars antzerki taldeak *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon. (B, 2006-5-6, 47. or.)

1. Identifikatu (egin behar da) problema, erlatiboa (unitate honetan):
   – [Albert Boadellak zuzentzen duen]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
      A. [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
         – Els Joglars antzerki taldeak [**erlatiboa**] *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon
      B. [aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
         – Bilbon, maiatzaren 14a arte *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]
      B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
      C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      D. *Eta* juntagailua
      E. Besterik (marrak, parentesiak…)

Ikusten denez, urrats bi egin behar dira perpausa arteztu edo zuzentzeko:

1. Identifikatu problema.
2. Erakutsi konponbideak.

Lehenengo urratsean identifikatu egin behar da problema, beti bat bera unitate honetan: erlatiboa alperrik dago erakusle aurrean. Bigarren urratsean bistaratu egin behar ditugu zeintzuk konponbide ditugun, batetik, eskema mailan eta, bestetik, baliabide arloan:

2.1. Zein(tzuk) eskema aplikatu behar zai(zki)on perpausari.

2.2. Zeintzuk baliabide ditugun eskumenean.

Adibide honetan eskema bi atera zaizkigu problema ebazteko, konpontzeko, baina ariketetan bakarra izango dugu gehienetan.

Adibide aztergaian bistaratu ditugula zer problema dagoen eta zeintzuk konponbide, hezurmamitu ditzagun lehenengo eskema eta beroni aplikatu ahal zaizkion baliabideak:

a. [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzentzen due**nA**], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzendutа**koA**], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]**
– Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzendu**A**], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Els Joglars antzerki taldeak, [**ZEINA** Albert Boadellak zuzentzen **BAIT**u], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko dute maiatzaren 14a arte, Bilbon.
– Els Joglars antzerki taldeak, [**ZEINA** Albert Boadellak zuzentzen du**eN**], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Els Joglars antzerki taldeak, [**BERA(U)** Albert Boadellak zuzentzen du], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.
– Els Joglars antzerki taldeak, [**BERA(U)** Albert Boadellak zuzenduA], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.
– Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzentzen du **BERA(U)**], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.
– Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzenduA **BERA(U)**], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.
– Els Joglars antzerki taldeak, [**eta BERAU** Albert Boadellak zuzendu(T)A **dago**], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.
– Els Joglars antzerki taldeak, [**eta BERAU dago** Albert Boadellak zuzendu(T)A], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**D. *Eta* juntagailua**
– Els Joglars antzerki taldea Albert Boadellak zuzentzen du, **ETA** (**bera(u)/hau**) *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**E. Besterik (parentesia...)**

– Els Joglars antzerki taldeak (Albert Boadellak zuzenduA) *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.
– Els Joglars antzerki taldeak –Albert Boadellak zuzenduA– *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.

Hel diezaiogun berriz perpausari, baina bigarren eskema aplikatuta eta baliabide egokiak:

b. [aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzentzen duen**A**].

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzenduta**koA**];

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]**

– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzendu**A**].

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak, [**ZEIN** Albert Boadellak zuzentzen due**N**].
– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak, [**ZEIN** Albert Boadellak zuzentzen **BAIT**u].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak, [**BERAU** Albert Boadellak zuzendu**A**].
– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzendu**A BERA(U)**].
– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du Els Joglars antzerki taldeak, [**eta BERAU/HAU** Albert Boadellak zuzendu(T)A dago].

OHARRAK

Batzuetan osagaietan egin ditzakegu aldaketak, orrazketak edo zuzenketak. Gure perpaus aztergai honetan ere egin daitezke. Esaterako, *Albert Boadellak* informazioa semaforo ostean ipinita:

– Els Joglars antzerki taldeak, [**ZEINA** zuzentzen **BAITu** Albert Boadellak], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon;

Azken eskeman ere egin daitezke orraztutxo batzuk:

– *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte…

Bada hirugarren eskema bat ere, erakutsi duguna lehenengo apartaduan (1. TEORIA):

| |
|---|
| c. [i. propioa] + [aditza] + [**erlatiboa**] |

Baina eskema hori ez da aplikagarria jorratzen dihardugun perpaus honetan, baina izan daiteke beste adibide batzuetan, eta halaxe da izan ondoren zuzendu beharrezko adibide batzuetan.

Behin ikusita zelan ebatzi egitura katramilatsua unitate honetan, pasa gaitezen ariketak egitera. Eurotan banan-banan egingo ditugu, batetik identifikatu zer problema (erlatiboa izan propio aurrean) daukan perpausak eta, bestetik, problema konpontzeko, zer eskema/eskemak aplikatu behar den/diren eta zeintzuk baliabide erabili. Edozein modutan, ikusiriko hiru eskemak aplika daitezke:

ESKEMAK

| |
|---|
| a. [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza] |
| b. [aditza] + [**erlatiboa**] + [i. propioa] |
| c. [i. propioa] + [aditza] + [**erlatiboa**] |

Hiru eskemok honela daude banaturik hurrengo hamabost ariketetan:

a. Eskema: 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15.
b. Eskema: 1, 2, 3, 13, 14.
c. Eskema: 4, 5.

Has gaitezen banan-banan artezten hamabost ariketok:

10.3.1.

**Jesus eta Maria Madalena bertsotan**

Ander Lizarraldek eraman zuen herenegun Zarautzen jokatu zen Lizardi sariko txapela, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [herenegun Zarautzen jokatu zen]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [aditza ] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
      – Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, [**erlatiboa**], eta bigarren Agin Rezola geratu zen.
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]
      B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
      C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      D. *Eta* juntagailua

10.3.2.

**Hizkuntza berdintasuna aldarrikatuko dute Atenasen Behatokiak eta EHEk**

Europako Ituna izango da ardatz nagusia Grezian egingo den Europako Foro Sozialean.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Grezian egingo den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema zuzentzailea: [aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
      – Europako Ituna izango da ardatza nagusia Europako Foro Sozialean, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]
      B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)

C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
D. *Eta* juntagailua

10.3.3.

**Errenteria dantzan hasiko da maiatzarekin**

Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago Errenteriako kaleetan jardungo dira maiatzaren batean ospatuko den Dantzari Txiki Egunean.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [maiatzaren batean ospatuko den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
      – Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago Errenteriako kaleetan jardungo dira Dantzari Txiki Egunean, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]
      B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
      C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      D. *Eta* juntagailua

10.3.4.

**Kresala taldearen ikuskizuna**

Musika tradizional, txotxongiloak, antzerkia eta dantza nahasten dituen *Marixe* ikuskizuna emango dute.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Musika tradizional, txotxongiloak, antzerkia eta dantza nahasten dituen]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [aditza] + [**erlatiboa**]
      – *Marixe* ikuskizuna emango dute, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]

B. Beronismoa (*bera(u), hau*…)
C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
D. *Eta* juntagailua

10.3.5.

Katarina Jukaszova kazetariak Eslovakian hungarieraz argitaratzen den *Uj Szo* egunkarian egiten du lan.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Eslovakian hungarieraz argitaratzen den]
2. .Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [aditza] + [**erlatiboa**]
      – Katarina Jukaszova kazetariak *Uj Szo* egunkarian egiten du lan, [**erlatiboa**]
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]
      B. Beronismoa (*bera(u), hau*…)
      C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      D. *Eta* juntagailua

10.3.6.

**Gazte Topagunea arrakastatsua izan da**

Joan den ostiraletik atzo bitartean Etxarri Aranatzen egin den Gazte Topagunea arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Joan den ostiraletik atzo bitartean Etxarri Aranatzen egin den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Gazte Topagunea, [**erlatiboa**], arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez.
   2.2. Baliabideak

10.3.7.

Egunotan Bilbon egiten ari diren BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian hitzaldi sorta bat eman dute.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Egunotan Bilbon egiten ari diren]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian, [**erlatiboa**], hitzaldi sorta bat eman dute.
   2.2. Baliabideak

10.3.8.

Pasa den zenbakian aurreratzen genizuen legez, amaitu berri den Blokeko Munduko Kopan Leire Agirre seigarren geratu da.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [amaitu berri den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – (...), Blokeko Munduko Kopan, [**erlatiboa**], Leire Agirre seigarren geratu da.
   2.2. Baliabideak

10.3.9.

**Irria begian zuen gizon ttipia**

Duela 20 urte zendu den Mattin bertsolaria omenduko dute Ahetzen, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Duela 20 urte zendu den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Mattin bertsolaria, [**erlatiboa**], omenduko dute Ahetzen, (...)

10.3.10.

**Katalin udan** [Liburua]

Orrialde garbigarriak eta ertz biribilduak dituen *Katalin udan* liburuxka etxeko gazteenei zuzendua dago, beraiek irakurtzeko, edo narratzaileen papera helduren batek egin dezan.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Orrialde garbigarriak eta ertz biribil-duak dituen]

2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – *Katalin udan* liburuxka, [**erlatiboa**], etxeko gazteenei zuzendua dago, (...)

10.3.11.

**Hogei urte 'Documentos TV'-rekin**

Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztutako *Documentos TV* saio prestigiodunak 20 urte beteko ditu gaur.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztutako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – *Documentos TV* saio prestigiodunak, [**erlatiboa**], 20 urte beteko ditu gaur.

10.3.12.

**Jon Arretxek parte hartu du Wikinobela ekimenean**

Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarritako Wikinobela ekimenean Jon Arretxek parte hartu du.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarritako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskema: [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
      – Wikinobela ekimenean, [**erlatiboa**], Jon Arretxek parte hartu du.

10.3.13.

Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei mendia, kultura eta natura ardatz dituen *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [mendia, kultura eta natura ardatz dituen]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
      *a.* [aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
      *b.* [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

***a***. Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, [**erlatiboa**], azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.
***b***. *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, [**erlatiboa**], berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.

10.3.14.

Lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen duen *Boletin* aldizkariak, eta oraingoan ere berdin egin du.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen duen]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
      *a.* [aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
      *b.* [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

***a***.Lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du *Boletin* aldizkariak, [**erlatiboa**], eta oraingoan ere berdin egin du.
***b***. *Boletin* aldizkariak, [**erlatiboa**], lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du, eta oraingoan ere berdin egin du.

10.3.15.

Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztu duen Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, zazpi urteko neska batek barraskiloak inork jan ez zitzan egin zuen kontatzen du.

1. Identifikatu problema, erlatiboa:
   – [Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztu duen]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak. Eskema bakarra aplikatu behar da
      b. [i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

baina modu bitara, kontuan hartuta izenlaguna (Pere Martí i Bertranen) uzten bada dagoen tokian edo eroaten bada atzera erlatiboarekin batera. Bestela esateko, eskema bi hauen arabera:

**1**. Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, [**erlatiboa**], zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.
**2**. *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, [Pere Martí i Bertranen][**erlatiboa**], zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*Gara,* 2006-9-3, 45. or.) 2-(G-2006-4-29, 21. or.) 3-(*Berria,* 2006-4-28, 35. or.) 4-(B, 2006-4-19, 47. or.) 5-(B, 2004-2-21, 19. or.) 6-(B, 2006-4-18, 4. or.) 7-(G-2005-10-29, 54. or.) 8-(G-mendia-2005-10-12, 8. or.) 9-(Egunkaria.-2001-11-10, 44. or.) 10-(*Argia,* 2006-7-23, 35. or.) 11-(B, 2006-4-29, 45. or.) 12-(B, 2006-4-28, 35. or.) 13-(A, 2004-2-8, 33. or.) 14-(A, 2005-10-30, 36. or.) 15-(A, 2004-3-14, 32. or.)

# 11. unitatea

## (APOSIZIO MOTA BAT ATZERA)

**HELBURUA:** Testua ahalik errazen irakurri, eskumara eroanda alperreko zama.

**PROBLEMA:** Hurrengo perpausean

– *[Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu] Javier Madrazo Lehendakari gaiaurkeztuko da*

alperrik dago erabilita aposizioa (kortxete artean) izen propioaren aurrean.

**SOLUZIOA:** Eroan dezagun aposizioa izen propioaren eskumatara

– *[Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuA] Lehendakarigai aurkeztuko da*

– *[Javier Madrazo], Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuA], Lehendakarigai aurkeztuko da*

***Termino jakin beharrezkoak***

– **Aposizio murrizgarriak** (i*rakasle* Kepa, *andereño* Laura)
– **Osagaiak** (aposizioaren elementu biak: aurrekaria eta aposizioa bera)
– **Aposizio komunztaduradunak** (Jonekin bazkaldu dut, *Obako alkatearekin*)
– **Aposizio komunztadura bakoak** (Jonekin bazkaldu dut, *Obako alkatea*)
– **Komunztaduradun aposizioak** (= aposizio komunztaduradunak)
– **Komunztadura bako aposizioak** (= aposizio komunztadura bakoak)
– **Sintagmak** (Laura, *Arranondoko alkate andrea*, (…))
– **Izenlagunak** (g*auEKO* lana, *KepaREN* etxea)
– **Aurrekariak** (aposizioen lehen osagaiak: *Irakasle* Kepa; *Kepa*, irakaslea… )
– **Artikuluak** *(-a, -ak, bat*…)

### *11.1. TEORIA*

Aposizio mota bi daude, baina hemen baten gainean jardungo dugu: aposizio murrizgarriak. Aposizio mota horretan izen propioek ezkerretara dituzte aposizioak (osagairen bat edo gehiago). Hona hemen adibide bi:

(1)– [maisu] Juan
– [andre] Maddalen

Izen propioei (*Juan* eta *Maddalen*) ezkerretik gaineratu diegu aposiziotzat elementu edo osagai bana (*maisu* eta *andre*). Sintagmok ez daukate problemarik komunikagarritasun aldetik, erraz-erraz irakurtzen dira-eta. Baina gainera diezaiegun beste izenlagun bana ezkerretik:

(2)– [BilboKO maisu] Juan
– [GuRE andre] Maddalen

Sintagmok segitzen dute erraz irakurtzen, baina ez aurrekoak bestean. Erants diezaiegun beste izenlagun bana:

(3)– [BilboKO guRE maisu] Juan
– [ArranondoKO guRE andre] Maddalen

Hor hasten dira oztopoak normal-normal irakurtzeko. Gure aldetik, esan behar dugu (1) eta (2)ko sintagmok ahoz ere erabiltzen direla (eta beharbada, baita (3)koak ere). Kontsultatu ditugu *Estudios de Sintaxis Vasca* (L. Villasante), *EGLU-1* eta *Euskal Gramatika Laburra: perpaus bakuna* (Euskaltzaindiarenak), *Euskal Gramatika Deskriptiboa* (J. M. Agirre), *Euskal Estilo libururantz* (Alberdi-Sarasola) eta *Hitz elkartuak euskaraz* (M.Azkarate), eta ikusi dugu liburuotan aposizioak ez direla lukainkak, ez dira lar luzeak, denak dira guk aurkeztuak bainoa txikiagoak, ez dute erlatiborik, ezta izenlagun bi (*-ren* eta *-ko*) baino gehiago ere.

Baina osagai bi baino gehiago erantsiz gero, hasiko ginateke nekez irakurtzen, arazoak izaten komunikagarritasunean. Ondoren adibide bi emango ditugu, eta euretan aposizioak (kortxete artean) aurrekarien (*Javier Madrazo*) ezkerretara daude ipinita:

(4a)– [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu] Javier Madrazo euskara ari da ikasten.
(4b)– [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua *den*] Javier Madrazo euskara ari da ikasten.

Aposiziok euren artean bereizten dira bigarrenean aditza eta erlatiboa daudelako (*da* + *-(e)n* = *den*), lehenengoan ez legez. Guk uste, zuzendu egin beharko genituzke gutxienez horiek bezain luzeak, eta zertan esanik ez, luzeagoak. Unitate

honetan aposizioak agertuko dira konplexuagoak (2. ADIBIDEAKen eta 3. ARIKETAKen). Hori dela-eta, goiko perpaus horietan, non azkeneko lekuan dagoen aditza (*ari da ikasten*) komeni zaigu ebaztea, konpontzea, goiko aposizio mota biok (aditz bakoa eta adiztuna); horretarako, lehenengo, egitura mota aldatu behar dugu: pasatu behar dugu ezkerreko aposizio motatik eskumako aposizio motara, eta hemen eskema mota bi daude:

ESKEMAK

a-Eskumako aposizio koma bakoa
[i. propioa **aposizioa**] + [aditza]
b-Eskumako aposizio koma artekoa
[i. propioa], [**aposizioa**], + [aditza]

Lehenengo aposizioa koma bakoa da; bigarrena, berriz, komaduna (laster ikusiko ditugu adibideetan hezurmamituta). Behin jakinda zeintzuk eskema biren bidez ebatz daitezkeen ezkerreko aposizio luzengak, ikusi behar dugu zeintzuk baliabide ditugun erabiltzeko eskema bakoitzean. Hona hemen zeintzuk (ez dugu sartu *bait-* menderagailu hutsa):

BALIABIDEAK

A. Erlatiboak
A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partizipioa + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]
B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*) eta nonismoa (*non…-(e)n/bait-*)
C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
D. *Eta* juntagailua
E. Besterik (marrak, parentesiak…)

Aplika diezazkiegun eskema-baliabideok goiko perpaus aztergai biei [(4a) eta (4b)]. Has gaitezen lehenengotik

(4a)– [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu] Javier Madrazo euskara ari da ikasten.

Erabiliz gero lehenengo eskema (a), hona hemen emaitza:

**A. Eskumako aposizio koma bakoa**
[i. propioa **aposizioa**] + [aditza]
– [Javier Madrazo *Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua*] euskara ari da ikasten.

Bestalde, ez dugu ikusten perpaus horretan (bikain eratua) zertan erabilirik ezelako baliabiderik. Igaro gaitezen bigarren eskemara (b).

**B. Eskumako aposizio koma artekoa**
[i. propioa], [**aposizioa**], + [aditza]
– [Javier Madrazo], [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua], euskara ari da ikasten.

Eskema horretan badago erabiltzerik baliabide bat (edo bi):

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– [Javier Madrazo], [BERAU Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua], euskara ari da ikasten.
– [Javier Madrazo], [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua BERA(U)], euskara ari da ikasten.

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**
– Javier Madrazo (Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua) euskara ari da ikasten.
– Javier Madrazo —Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua— euskara ari da ikasten.

OHARRA

Aposizioan bertan (*Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua*) egin daitezke aldaketa batzuk osagai-ordenan:

– sailburuA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako

Orain txerta dezagun hori goiko perpausean:

– [Javier Madrazo], [(berau) sailburuA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako], euskara ari da ikasten.
– [Javier Madrazo], [sailburuA (berau) Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako], euskara ari da ikasten.

Ora diezaiogun bigarren adibideari, zeinak aditz jokatua (*da*) eta erlatiboa (*-(e)n*) dituen (*den*):

(4b)– [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu *den*] Javier Madrazo euskara ari da ikasten.

Erabil dezagun lehenengo eskema (a):

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**
[i. propioa **aposizioa**] + [aditza]
– [Javier Madrazo *Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua den*_] euskara ari da ikasten.

Ikusten dugunez, eskema, dagoenean, ez dago egoki, artikulua falta zaio-eta erlatiboari. Horretarako, badago baliabide bat, egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…):

– [Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua *den*A] euskara ari da ikasten.

Pasa gaitezen erabiltzera bigarren eskema (b):

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
[i. propioa], [**aposizioa**], + [aditza]
– [Javier Madrazo], [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua *den*_], euskara ari da ikasten.

Ikusten dugunez, erlatibo hutsa (*-(e)n*) dago. Badugu baliabide egokia horretarako, egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…):

– Javier Madrazo, [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua denA], euskara ari da ikasten.

Beste baliabide batzuk ere balia daitezke:

**B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*)**
– Javier Madrazo, [ZEINA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua deN], euskara ari da ikasten.
– Javier Madrazo, [ZEINA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua BAITa], euskara ari da ikasten.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– [Javier Madrazo]**,** [eta BERAU/HAU Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua da]**,** euskara ari da ikasten.

**D. *Eta* juntagailua**
– Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua da, ETA euskara ari da ikasten.

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**
– Javier Madrazo (Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua denA) euskara ari da ikasten.
– Javier Madrazo —Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua denA— euskara ari da ikasten.

OHARRA

Aposizioan bertan (*Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua denA*) egin daitezke aldaketa batzuk osagai-ordenan

– sailburua denA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako

Orain, gura izanez gero, aposizio modu hori erabil daiteke goiko perpausetan. Ikus dezagun zelako itxura daukan aposizio modu berri horrek perpaus batean edo bestean erabilita:

– [Javier Madrazo], [( eta berau) sailburua denA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako], euskara ari da ikasten.
– [Javier Madrazo], [zeina sailburua baitA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako], euskara ari da ikasten.

Bestalde, erabiliriko eskema bietan aditza atzen lekuan kokatu dugu:

ADITZA ATZEAN
a-Eskumako aposizio koma bakoa
[i. propioa + **aposizioa**] + [aditza]
b-Eskumako aposizio koma artekoa
[i. propioa], [**aposizioa**] + [aditza]

baina askotan aurrean ere erabili beharko da aditza:

ADITZA AURREAN
c-Eskumako aposizio koma bakoa
[aditza] + [i. propioa + **aposizioa**]
d-Eskumako aposizio koma artekoa
[aditza] + [i. propioa], [**aposizioa**]

Azken eskemok [(e) eta (d)] aplikatuko dizkiegu gure adibide aztergai biei [(4a) eta (4b)]. Has gaitezen lehenengotik:

(4a)– [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu] Javier Madrazo euskara ari da ikasten.

Erabiliz gero lehenengo eskema (c), hona hemen emaitza:

**c-Eskumako aposizio koma bakoa**
[aditza] + [i. propioa + **aposizioa**]
– Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo *Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua*].

Bestalde, ez dugu ikusten perpaus horretan (bikain eratua) zertan erabilirik ezelako baliabiderik.

Igaro gaitezen bigarren eskemara (d):

**d-Eskumako aposizio koma artekoa**
[aditza] + [i. propioa], [**aposizioa**]
– Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo]**,** [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua].

Eskema horretan badago erabiltzerik baliabide bat (edo bi):

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
- Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo], [BERAU Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua].
- Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo], [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua BERA(U)].

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**
- Euskara ari da ikasten Javier Madrazo (Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua).
- Euskara ari da ikasten Javier Madrazo —Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua—.

OHARRA

Aposizioan bertan (*Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua*) egin daitezke aldaketa batzuk osagai-ordenan:

- sailburuA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako

Orain txerta dezagun hori goiko perpausean:

- Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo], [(berau) sailburuA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako].
- Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo], [sailburuA (berau) Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako].

Pasa gaitezen bigarren adibide aztergaira:

(4b)– [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu *den*] Javier Madrazo euskara ari da ikasten.

Erabil dezagun lehenengo eskema (c):

**c-Eskumako aposizio koma bakoa**
[aditza] + [i. propioa + **aposizioa**]
- Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo *Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua den*_].

Ikusten dugunez, eskema, dagoenean, ez dago egoki, artikulua falta zaio-eta erlatiboari. Horretarako, badago baliabide bat, egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*):

- Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua *den*A].

Pasa gaitezen erabiltzera bigarren eskema (d):

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
[aditza] + [i. propioa], [**aposizioa**]
– Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo], [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua *den*_].

Ikusten dugunez, erlatibo hutsa dago (*-(e)n*). Badugu baliabide egokia horretarako, egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…):

– Euskara ari da ikasten Javier Madrazo, [Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua denA].

Beste baliabide batzuk ere balia daitezke:

**B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*)**
– Euskara ari da ikasten Javier Madrazo, [ZEINA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua deN].
– Euskara ari da ikasten Javier Madrazo, [ZEINA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua BAITa].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo]**,** [eta BERAU/HAU Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua da].

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**
– Euskara ari da ikasten Javier Madrazo (Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua denA).
– Euskara ari da ikasten Javier Madrazo -Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua denA-.

OHARRA

Aposizioan bertan (*Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua denA*) egin daitezke aldaketa batzuk osagai-ordenan:

– sailburua denA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako

Orain, gura izanez gero, osagai-ordena hori erabil daiteke goiko perpaus batzuetan:

– Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo], [sailburua denA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako].
– Euskara ari da ikasten [Javier Madrazo], [zeina sailburua baitA Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako].

Eskema bietan (aditza aurrean edo atzean) zein den onena, eta baliabideetan zein egokiena, testuinguruak-eta esan beharko.

Hau guztiau 3. ARIKETAKen ikusiko dugu berriro. Orain, gura baduzu, irakurlea, ikus dezagun zelan ebazten diren adibide batzuk.

### *11.2. ADIBIDEAK*

Hurrengo adibideetan, bi besterik ez, aposizio marapilo hutsak askatuko ditugu, alde batera utzita beste egitura bihurri batzuk.

11.2.1.

**Koordinadoraren iritziz, Odon Elorzak «antzerkia» baino ez du egin**

Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadorako kide Mikel Izagirrek BERRIAri azaldu dionez, Donostiako alkate Odon Elorzak atzo «antzerkia» baino ez zuen egin.[A]

Hona hemen perpaus horretan zer sintagma arindu behar den:

– [Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadorako kide Mikel Izagirrek]

Hor untzea edo gakoa dago zelan kudeatu aposizioa (*Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadorako kide*), eta bera barik honela geratuko litzateke testua:

– [Mikel Izagirrek] BERRIAri azaldu dionez, Donostiako alkate Odon Elorzak atzo «antzerkia» baino ez zuen egin.

Baina zelan txertatu hor *Mikel Izagirrek* ez beste informazioa, aposizioa (*Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadorako kide*)? Hona hemen modu bat:

– Mikel Izagirrek BERRIAri azaldu dionez, [berau Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadorako kide], Donostiako alkate Odon Elorzak atzo «antzerkia» baino ez zuen egin.

Ez dago santu-santu, ez dakigu-eta *berau* erakusleak zer erreferente duen, *BERRIA* edo *Mikel Izagirre*. Lauso hori saihesteko, eroan dezagun *Mikel Izagirre* informazioa *berau*ren aurre-aurrera):

– BERRIAri azaldu dionez Mikel Izagirrek, [*berau* Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadorako kide], Donostiako alkate Odon Elorzak atzo «antzerkia» baino ez zuen egin.

Pasatzen badugu kortxete barruan *kide(a)* informazioa *berau*ren eskumatara (eta *koordinadorako* bihurtu *koordinadoraN*):

A. (B, 2004-7-20, 13. or)

– BERRIAri azaldu dionez Mikel Izagirrek, [berau *kide(a)* Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadoraN], Donostiako alkate Odon Elorzak atzo «antzerkia» baino ez zuen egin.

Aurkezturiko aldaerok errazago irakurtzen dira jatorrizko perpausa baino, baina oraindino luzeegia gertatzen da kortxetea. Beste era batera askatu beharra dago marapilotzar hori. Hona beste proposamen bi, *eta* juntagailua erabilita:

– (Dakigunez) Gipuzkoan herri plataformak sortu dira eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka, ETA plataformotako koordinadorako kide batek, Mikel Izagirrek, BERRIAri azaldu dioenez, Donostiako alkate Odon Elorzak atzo «antzerkia» baino ez zuen egin.
– Gipuzkoan eraiki nahi dituzte bi errauste planta, ZEINTZUEN aurka herri plataformak sortu direN, ETA EUROTARIKO koordinadorako kide batek, Mikel Izagirrek, BERRIAri azaldu dioenez, Donostiako alkate Odon Elorzak atzo «antzerkia» baino ez zuen egin.

Egia esateko, jatorrizko perpausa jasanezina gertatzen bada ere, gure proposamenak, nahiz eta errazago irakurri, ez dira egoki-egokiak. Amaitzeko, beste proposamen bat egingo dugu, ezkerreko aposizioa bihurtuta eskumakoa:

– [Mikel Izagirre Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadorako kideak] BERRIAri azaldu dionez, Donostiako alkate Odon Elorzak atzo «antzerkia» baino ez zuen egin.

– Mikel Izagirrek, [(berau) Gipuzkoan eraiki nahi dituzten bi errauste planten aurka sortu diren herri plataformen koordinadorako kideak], (…)

11.2.2.

**Indiako Administrazioko agintari bat onik atera da hiru hildako eragin dituen bonba eraso batetik**

Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuorde Mangat Ram Sharma onik atera zen atzo ekintzaile independentziazaleek Kapran herrian egiten ari zen bilkura politikoaren kontra granada bat jaurti ondoren.[B]

Perpaus aztergai hori 3. unitatean ere jorratuta dago luze-zabal. Hemen mugatuko gara soilik aposizioaren marapiloa askatzera. Problema hurrengo sintagma honetan dago:

– [Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuorde Mangat Ram Sharma]

B. (B, 2004-7-20, 26. or.)

Eroan dezagun eskumatara ezkerreko aposizio hori (*Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuorde*), zeina para daitekeen modu bitara, izen propioaren segidan koma barik edo koma artean:

– [Mangat Ram Sharma], [Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuordeA]

Edo:

– [Mangat Ram Sharma Indiaren menpeko Jammu eta Kaxmir estatuko gobernuburuordeA]

Hirugarren eta laugarren modu batzuk ere proposatu gura genituzke, errazagoak aurreko biak baino:

– [Mangat Ram Sharma], [BERAU gobernuburuA Jammu eta Kaxmir estatuAN, Indiaren menpekoA], onik atera zen...
– [Mangat Ram Sharma], [BERAU gobernuburuA Jammu eta Kaxmir estatuAN, ZEINA Indiaren menpekoA BAITA], onik atera zen...

Aldaerok "normalizatuz" gero (maiuskulak minuskula bihurtuta eta kortxeteak kenduta), honetara geratzen dira:

– Mangat Ram Sharma, berau gobernuburua Jammu eta Kaxmir estatuan, (zeina) Indiaren menpekoa (baita), onik atera zen...

Hor koma arteko informazio bat, parentesiduna, eman daiteke marra edo parentesi artean, gura izanez gero:

– Mangat Ram Sharma, berau gobernuburua Jammu eta Kaxmir estatuan, —Indiaren menpekoa— onik atera zen...
– Mangat Ram Sharma, berau gobernuburua Jammu eta Kaxmir estatuan, (Indiaren menpekoa) onik atera zen...

Egia esateko, *berau* hori ken daiteke aldaera biotan, eta eurok segitzen dute erraz irakurtzen, lehen bestean:

– Mangat Ram Sharma, gobernuburua Jammu eta Kaxmir estatuan, —Indiaren menpekoa— onik atera zen...
– Mangat Ram Sharma, gobernuburua Jammu eta Kaxmir estatuan, (India-ren menpekoa) onik atera zen...

### *11.3. ARIKETAK*

Ondo eta erraz konpondu edo ebatzi nahi baditugu ondorengo ariketak, erakutsi egin behar zeintzuk urrats egin behar diren. Berriro azalduko dugu TEORIAn esanikoa, baina zehatzago. Horretarako, adibide bi emango ditugu erakusgarri

zeintzuk pauso eta zelan eman behar ditugun (adibideotan aposizio mota biak agertuko dira: lehenengoa aditz bakoa; bigarrena adiztuna):

– Ibarretxek [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia Maria Angeles Gonzalez Garciarekin] bazkaldu du
– Ibarretxek [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia *den* Maria Angeles Gonzalez Garciarekin] bazkaldu du

Has gaitezen paratuz, lehenengo, adibidea, eta beronen azpian (gero ariketa guztietan egingo dugun legez) eskema, non pauso bi eman behar diren (problema identifikatu eta konponbideak):

– Ibarretxek [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia Maria Angeles Gonzalez Garciarekin] bazkaldu du

1. Identifikatu (egin behar da) problema, aposizioa izen aurrean (unitate honetan):
   – [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak. Aditza non kokatzen dugun, eskema nagusi bi ateratzen dira beste eskema binarekin:
      1. ADITZA ATZEAN
      a-Eskumako aposizio koma bakoa
      [i. propioa **aposizioa**] + [aditza]
      b-Eskumako aposizio koma artekoa
      [i. propioa], [**aposizioa**], + [aditza]
      2. ADITZA AURREAN
      c-Eskumako aposizio koma bakoa
      [aditza] + [i. propioa **aposizioa**]
      d-Eskumako aposizio koma artekoa
      [aditza] + [i. propioa], [**aposizioa**]
   2.2. Baliabideak:
      – A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
         A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]
      – B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*) eta nonismoa (*non…-(e)n/bait-*)
      – C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
      – D. *Eta* juntagailua
      – E. Besterik (marrak, parentesiak…)

Ikusten denez, urrats bi egin behar dira perpausa arteztu edo zuzentzeko:

1. Identifikatu problema.
2. Erakutsi konponbideak.

Lehenengo urratsean identifikatu egin behar da problema, beti bat bera unitate honetan: aposizioa alperrik dago izen aurrean. Bigarren urratsean bistaratu egin behar ditugu zeintzuk konponbide ditugun, batetik, eskema mailan eta, bestetik, baliabide arloan:

2.1. Zein(tzuk) eskema aplikatu ahal zai(zki)on.
2.2. Zeintzuk baliabide ditugun eskumenean.

Kontuan hartuta eskema nagusi bietan lehenengoa bakarrik (aditza atzean: 1a/1b) erabil daitekeela eta zeintzuk baliabide ditugun (batzuk soilik aplika daitezke), hona hemen irtenbideak.

SOLUZIOAK

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

[i. propioa **aposizioa**] + [aditza]

– Ibarretxek [Maria Angeles Gonzalez Garcia Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusiarekin] bazkaldu du
– Ibarretxek bazkaldu du [Maria Angeles Gonzalez Garcia Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusiarekin]

Bigarren adibide horretan azken lekura eroan dugu aposizioa.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

[i. propioa], [**aposizioa**], + [aditza]

– Ibarretxek [Maria Angeles Gonzalez Garciarekin], [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia], bazkaldu du

Aditza aurrera daiteke, eta aditza atzera, eta beste eskema bat genuke:

[aditza] + [i. propioa], [**aposizioa**]

– Ibarretxek bazkaldu du [Maria Angeles Gonzalez Garciarekin], [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia]

Lehenengo eskemari ezin zaio aplikatu ezelako baliabiderik; bigarrenari, ostera, bai:

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Ibarretxek [Maria Angeles Gonzalez Garciarekin], [BERAU Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia], bazkaldu du
– Ibarretxek bazkaldu du [Maria Angeles Gonzalez Garciarekin], [BERAU Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia]
– Ibarretxek bazkaldu du [Maria Angeles Gonzalez Garciarekin], [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia BERA(U)]

Azken aldera hori, gure ustez, desegokia da komunikagarritasun aldetik azken lekuan duelarik semaforoa.

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**

– Ibarretxek Maria Angeles Gonzalez Garciarekin, —Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia—, bazkaldu du
– Ibarretxek bazkaldu du Maria Angeles Gonzalez Garciarekin (Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia).

Pasa gaitezen bigarren aposizio motara, adiztuna bera. Jar dezagun, eta azpian koadroa, zeinetan agertzen diren eman beharrezko perpausak (identifikatu problema eta konponbideak):

– Ibarretxek [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia *den* Maria Angeles Gonzalez Garciarekin] bazkaldu du

1. Identifikatu (egin behar da) problema, aposizioa izen aurrean (unitate honetan):
   – [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak. Aditza non kokatzen dugun, eskema nagusi bi ateratzen dira beste eskema binarekin:
   1. ADITZA ATZEAN
   a-Eskumako aposizio koma bakoa
   [i. propioa **aposizioa**] + [aditza]
   b-Eskumako aposizio koma artekoa
   [i. propioa], [**aposizioa**], + [aditza]
   2. ADITZA AURREAN
   c-Eskumako aposizio koma bakoa
   [aditza] + [i. propioa **aposizioa**]
   d-Eskumako aposizio koma artekoa
   [aditza] + [i. propioa], [**aposizioa**]
   2.2. Baliabideak:
   A. Erlatiboak
   A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
   A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
   A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]
   B. Zeinismoa (*zein…-(e)n/bait-*) eta nonismoa (*non…-(e)n/bait-*)
   C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
   D. *Eta* juntagailua
   E. Besterik (marrak, parentesiak…)

Kontuan hartuta eskema nagusi bietan lehenengoa bakarrik (aditza atzean: 1a/1b) erabil daitekeela eta zeintzuk baliabide ditugun (batzuk soilik aplika daitezke), hona hemen irtenbideak.

SOLUZIOAK

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

[i. propioa **aposizioa**] + [aditza]

– Ibarretxek [Maria Angeles Gonzalez Garcia Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia denarekin] bazkaldu du
– Ibarretxek bazkaldu du [Maria Angeles Gonzalez Garcia Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia denarekin]

Bigarren adibide horretan azken lekura eroan dugu aposizioa.

**b-Eskumako aposizioa koma artekoa**

[i. propioa], [**aposizioa**] + [aditza]

– Ibarretxek [Maria Angeles Gonzalez Garciarekin], [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia dena], bazkaldu du

Aditza aurrera daiteke, eta aditza atzera, eta beste eskema bat genuke:

[aditza] + [i. propioa], [**aposizioa**]

– Ibarretxek bazkaldu du [Maria Angeles Gonzalez Garciarekin], [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia dena]

Ikus ERANSKINA

Lehengo eskeman ez dugu ikusten egokia denik erabiltzea ezelako baliabiderik; bigarrenean, ostera, bai (dagoeneko erabilita dago egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…). Hona hemen beste baliabide batzuk:

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– Ibarretxek Maria Angeles Gonzalez Garciarekin, [ZEINA Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusi deN, bazkaldu du
– Ibarretxek bazkaldu du Maria Angeles Gonzalez Garciarekin**,** [ZEINA Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusi BAITa]

**D. *Eta* juntagailua**

– Ibarretxek [Maria Angeles Gonzalez Garciarekin] bazkaldu du, ETA hau Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia da.

**E. Besterik (marrak, parentesiak…)**

– Ibarretxek Maria Angeles Gonzalez Garciarekin (Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia), bazkaldu du
– Ibarretxek bazkaldu du Maria Angeles Gonzalez Garciarekin —Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia—.

OHARRAK

Batzuetan osagaietan egin daitezke aldaketak, orrazketak edo zuzenketak. Egin daitezke gure aposizioan ere (Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusi):

– … idazkari nagusia (da) Espainiako Gobernuko Barne MinisterioAN

Sekuentzia hori txertatuta perpausean:

– Ibarretxek bazkaldu du Maria Angeles Gonzalez Garciarekin**,** [idazkari nagusi denA Espainiako Gobernuko Barne MinisterioAN]
– Ibarretxek bazkaldu du [Maria Angeles Gonzalezekin], [ZEINA idazkari nagusia BAITa Garcia Espainiako Gobernuko Barne MinisterioAN]

Pasa gaitezen ariketak egitera, zeinetan azkeneko biek izan ezik, beste guztiek ez baitute aditzik aposizioetan. Ariketa guztiek azpian koadro bana dute lagungarri:

11.3.1.

**Elkarrizketa MCCko Jesus Cataniari**

MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari Jesus Cataniari elkarrizketa egingo diote.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1.ADITZA ATZEAN
   a-[Jesus Catania **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Jesus Cataniari], [**aposizioa**], + [aditza]
   2.2. Baliabideak:
   A. Erlatiboak
   A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
   A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
   A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]
   B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
   C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
   D. *Eta* juntagailua
   E. Besterik (marrak, parentesiak…)

11.3.2.

**Patxi Lopezi elkarrizketa**

PSE-EE alderdiko idazkari nagusi Patxi Lopezek sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [PSE-EE alderdiko idazkari nagusi]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1.ADITZA ATZEAN
   a-[Patxi Lopez **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Patxi Lopezek], [**aposizioa**], + [aditza]
   2.2. Baliabideak:
   A. Erlatiboak
   A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
   A2. Egit. erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
   A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]
   B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
   C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
   D. *Eta* juntagailua
   E. Besterik (marrak, parentesiak…)

11.3.3.

**RADIO EUSKADI**

Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide Joseba Alvarez elkarrizketatuko du gaur goizean Xabier Lapitzek, *Boulevar Abierto* saioan.

– 1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide]
– 2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1.ADITZA ATZEAN
   a-[Joseba Alvarez **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Joseba Alvarez], [**aposizioa**], + [aditza]
   2.2. Baliabideak:
   A. Erlatiboak
   A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)
   A2. Egit. erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
   A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]
   B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
   C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
   D. *Eta* juntagailua
   E. Besterik (marrak, parentesiak…)

11.3.4.

**EAJko Iñaki Gerenabarrena**

EAJko Araba Buru Batzarreko presidente Iñaki Gerenabarrenak egungo egoera politikoa aztertuko du.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [EAJko Araba Buru Batzarreko presidente]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1. ADITZA ATZEAN
   a-[Iñaki Gerenabarrena **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Iñaki Gerenabarrenak], [**aposizioa**], + [aditza]
   2.2. Baliabideak:
   A. Erlatiboak
   A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na...*)
   A2. Egit. erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]
   A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]
   B. Beronismoa (*bera(u), hau…*)
   C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
   D. *Eta* juntagailua
   E. Besterik (marrak, parentesiak…)

11.3.5.

**Pedro Azpiazurekin hizketan**

Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai Pedro Azpiazu elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1. ADITZA ATZEAN
   a-[Pedro Azpiazu **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Pedro Azpiazu], [**aposizioa**], + [aditza]
   2.2. Baliabideak

11.3.6.

**Ertzaintzaren protokoloarekin, «zorrotz»**

Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalari Theo Van Bovenek inkomunikazioa «laidogarria» dela eta torturatzeko bidea ematen duela jasotzen duen txostena «kezkatzekoa» dela esan zuen atzo Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalari]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
      1. ADITZA ATZEAN
      a-[Theo Van Boven(e) **aposizioa**] + [aditza]
      b-[ Theo Van Bovenek], [**aposizioa**], + [aditza]
   Ez dakigunez izen propioa amaitzen den bokalez edo kontsonantez, parentesia ipini dugu (Theo Van Boven(e)).
   2.2. Baliabideak:
      A. Erlatiboak
         A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…)
         A2. Egit. erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]
         A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa*…]
      B. Beronismoa (*bera(u), hau*…)
      C. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*) edo nonismoa (*non…bait-/-(e)n*)
      D. *Eta* juntagailua
      E. Besterik (marrak, parentesiak…)

11.3.7.

Sabin Arana fundazioko buru eta Eusko Legebiltzarreko buru ohi Juan Mari Atutxa, berriz, «penatuta» azaldu zen Ibarretxek deklaratzera joan behar duelako.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Sabin Arana fundazioko buru eta Eusko Legebiltzarreko buru ohi]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
      a-[Juan Mari Atutxa **aposizioa**] + [aditza]
      b-[Juan Mari Atutxa], [**aposizioa**], + [aditza]
   2.2. Baliabideak

11.3.8.

**Samiei petrolio eremuetatik dagozkien irabaziak ukatu nahi dizkie Norvegiak**

Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro Dag Terje Andersenek aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
      1. ADITZA ATZEAN

a-[Dag Terje Andersen **aposizioa**] + [aditza]
b-[Dag Terje Andersenek], [**aposizioa**], + [aditza]

2.2. Baliabideak

11.3.9.

**NBEk Ekuadorko indigenen eskubideen urratzea salatu du**

Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari berezi Rodolfo Stavenhagenek salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari berezi]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1. ADITZA ATZEAN
   a-[Rodolfo Stavenhagene(e) **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Rodolfo Stavenhagenek], [**aposizioa**], + [aditza]
   Ez dakigunez izen propioa amaitzen den bokalez edo kontsonantez, parentesia ipini dugu (Rodolfo Stavenhagene(e)).
   2.2. Baliabideak

11.3.10.

Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo EUDELeko presidente eta Leioako alkate Karmelo Sainz de la Mazak.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [EUDELeko presidente eta Leioako alkate]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   2. ADITZA AURREAN
   c-[aditza] + [Karmelo Sainz de la Maza **aposizioa**]
   d-[aditza] + [Karmelo Sainz de la Mazak], [**aposizioa**]
   2.2. Baliabideak

11.3.11.

**Hizkuntza politikako arduradun izandakoak, Euskalerria Irratiarekin**

Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi izandako Fernando Perez de Viñaspre, Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi izandako]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1. ADITZA ATZEAN
   a-[Fernando Perez de Viñaspre **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Fernando Perez de Viñaspre], [**aposizioa**], + [aditza]
   2. ADITZA AURREAN
   c-[aditza] + [Fernando Perez de Viñaspre **aposizioa**]
   d-[aditza] + [Fernando Perez de Viñaspre], [**aposizioa**]
   2.2. Baliabideak

11.3.12.

Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile Diego Lopez Garridok baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1. ADITZA ATZEAN
   a-[Diego Lopez Garrido **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Diego Lopez Garridok], [**aposizioa**], + [aditza]
   2.2. Baliabideak

11.3.13.

Zentzu horretan, PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru eta diputatu Ualid Jumblattek armadari ordena zaintzeko eskatu zion.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru eta diputatu]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1. ADITZA ATZEAN
   a-[Ualid Jumblatt(e) **aposizioa**] + [aditza]
   b-[Ualid Jumblattek], [**aposizioa**], + [aditza]
   Ez dakigunez izen propioa amaitzen den bokalez edo kontsonantez, parentesia ipini dugu (Ualid Jumblatt(e)).
   2.2. Baliabideak

11.3.14.

**Keinuetatik eta itxuretatik harago**

Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri den Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak.

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   2. ADITZA AURREAN
   c-[aditza] + [Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildar **aposizioa**]
   d-[aditza] + [Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak], [**aposizioa**]
   2.2. Baliabideak

11.3.15.

**Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005** [Liburua]

Soziologian doktore eta UPV/EHUko irakasle den Jose Inazio Imaz Bengoetxeak lan denboraren gaia aztertzen du,...

1. Identifikatu problema, aposizioa izen aurrean:
   – [Soziologian doktore eta UPV/EHUko irakasle den]
2. Konponbideak (Eskema-baliabideak)
   2.1. Eskemak:
   1. ADITZA ATZEAN
   c-[Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildar **aposizioa**] + [aditza]
   d-[Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak], [**aposizioa**], + [aditza]
   2.2. Baliabideak

***Adibideon nongo-noizkoak***

1-(*Berria,* 2004-5-7, 54. or.) 2-(B, 2004-12-23, 50. or.) 3-(B, 2004-5-7, 55. or.) 4-(B, 2006-4-11, 46. or.) 5-(B, 2004-2-27, 50. or.) 6-(B, 2004-3-10, 3. or.) 7-(B, 2007-1-18, 8. or.) 8-(B, 2007-1-13, 26. or.) 9-(B, 2006-5-25, 23. or.) 10-(B, 2007-1-24, 12or.) 11-(B, 2006-5-19, 19. or.) 12-(B, 2007-1-24, 9. or.) 13-(B, 2007-1-24, 22. or.) 14-(*Argia*, 2004-3-21, 22. or.) 15-(A, 2006-7-9, 37. or.)

# 12. unitatea

**(GALDEGAIA ADITZ OSTERA ERE)**

**HELBURUA:** Ahalik errazen irakurri testua, alperreko zama aditz ostera eroanda.

**PROBLEMA:** Galdegaiak, batez ere luzea bada, nekezago egiten du perpausaren irakurketa, aditz aurrean badago kokatuta.

**SOLUZIOA:** Eroan dezagun aditz atzera galdegaia.

***Termino jakin beharrezkoak***

- **Galdegaia** (= fokoa: perpausean osagaiarik garrantzitsuena informazio aldetik)
- **Galdegai-lekua** (lekua non kokatzen den galdegaia)
- **Joskera** (= sintaxia)

### *12.1. SARRERA*

Gaiak zenbat eta eztabaidatuagoak izan, orduan eta garrantzitsuagoak izango balira, galdegaiaren gaia gailurrean egongo litzateke, txapelduna izango litzateke gaietan. Baina hala da izan? Gure ustez, ez, ezelan ere ez. Asko ere asko idatzi izan da galdegaiaren gainean, baina beti teoria hutsean, ezelako datu barik, aintzat hartu barik idazle klasikoek eta hiztunek ekoitziriko testuak, harik eta Bittor Hidalgo heldu izan den arte eta hasi datu errealak ematen, ahozkoak zein idatzizkoak. Harrezkero gauzak zer edo zertxo aldatu dira eta segituko dute aldatzen, guk uste. Edozein modutan, eta oraingoz, galdegaia aditz aurrean erabiltzen da nagusiki euskal prosan.

Beste unitateek hiruna atal dituzte; honek (eta hurrengoak), ostera, bi izango ditu SARRERA hau eta ARIKETAK. Lehenengo atal honetan, SARRERAn, proposatzen dugu ondoko 3 artikuluak irakurtzea (komeni da gutxienez lehenengoa irakurtzea, eta konklusioak besteetan), irakurlea kontura dadin, dagoeneko jabetuta ez badago, galdegaiaren legea gezur hutsa dela, idazle klasikoek eta hiztunik onenek aditz ostean erabiltzen dute-eta galdegaia gehienetan:

– "Galdegai-lekua testu hastapenetan" (*Hegats*, **34**, 45-61)
– "Galdegai-lekua testu hastapenetan (I)" (*Hizpide*, **54**, 39-56)
– "Galdegai-lekua testu hastapenetan (eta II)" (*Hizpide*, **55**, 43-59)

Artikulu horietan, nahiko teoria agertzen da sarreretan, eta ez dugu hemen berrituko. Baina badira beste aipamen bi galdegai-lekuaren gainean, jakingarriak. Lehenengoa, Ibon Sarasolak idatzia; bigarrena, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak:

Ibon Sarasolak oraintsu idatzi du hurrengoa *Egunkaria*n, *Joskera lantegi* liburuaren gainean, berau Juan Gartziak idatzia:

> Ez da hau parada —2000 letra eman dizkidate— ur sakonetan sartzeko. Dena dela, egileak saldu nahi diguna —ala galdegaia ala kaosa— ez da, inondik ere, euskal joskeraren arazo nagusia, are gutxiago praktikan. (...)
>
> Galdegaiaren auziaren irtenbidea ez da «arazoa» puztea, gero Juan Garziak salba gaitzan, baizik eta kontrakoa: galdegaia ahalik eta gutxiena kontuan hartzea. Hori da, bederen, funtzionaltasunak niri eskatzen didana. Ikusi du irakurleak Mitxelena batek askotan ez duela altuberaz idazten, eta, hori da kontua, ez dela ia inor ohartzen? Artikulu honen izenburua [*Linguistika, gure aspaldiko etsai kuttuna, sartu zaigu behar ez den lekuan*] harena da; altuberaz al dago? Eta, egon ala ez, ez al da berdin? Galdegaia gorabehera dira idazleak, joskeraren aldetik, onak ala txarrak. Izendatuko al didak, Juan, euskal idazle erreal bat, ona izanik galdegaia «gaizki erabiltzeak» gaiztotu duena? (*Egunkaria*, 1998-3-5, 14. or.)

Gramatika batzordeak artikulu bat idatzi du oraintsurengo *Euskera* aldizkarian, "Gramatika batzordearen irizpena 'galdegaia eta definizio-atribuzioak' kontsultari buruz". Bertan besteak beste dio:

– Galdegaiaren kasuan, Gramatika batzordeak argi du badela arau orokor bat, baina, horrekin batera, baita arau hori aplikatzeko malgutasun bat ere. Horrekin esan nahi duguna da, erabilerarik erabilera, ez dagoela zertan arauari bete-betean lotzen ez zaion adibidea arbuiatu edo gaitzetsi
– (...)
– Gaur gaurkoz, alabaina, iruditzen zaigu Gramatika batzordeak ezin eman dezakeela iritzirik, eta gutxiago eredu horietako bat hobetsi eta besteak bigarren mailan utzi. (*Euskera* aldizkaria, 2005, **2**, 741)

Nor edo nork itaun lezake ea hain garrantzitsua ote den galdegaia erabiltzea aditz aurrean edo ostean. Galdegaia txikia bada, ez dauka hainbesteko garrantzirik aditz aurrean egon ala atzean, baina zenbat eta luzeagoa izan galdegaia, orduan eta penazago irakurtzen da eta berba egiten. Liburu honetan, hainbat unitatetan —gehienetan— kontsignatzat eman dugu (idatzizko eta ahozko tradizioan oinarrituta), errazago irakurtzeko, komeniko litzatekeela osagarria paratzea izenaren edo aditzaren ostean. Unitate honetan ere galdegaia erabiltzen badugu aditz ostean, komunikagarriago egingo dugu perpausa, errazago irakurriko dugu. Edozein modutan ere, ez dugu proposatzen pikutara botatzea orain artekoa legea (galdegaia aditz aurrean), eta beti kokatu beharra dagoela galdegaia aditz ostean. Nahiko litzateke tradizioari eustea (gutxigora behera % 80an aditz atzean galdegaia) edo Bittor Hidalgoren proposamena adostea (galdegai luzeak, atzean; laburrak, aurrean), betiere kontuan hartuta salbuespenak (esaterako, txiste batean galdegaia bada txistearen funtsa, azken errematea, aditz ostean jarriko dugu, azkeneko lekuan).

Behin emanda berriok galdegaiaren gainean, hurrengo datoz aitaturiko hiru artikuluak galdegaiaren gainean, eta ondoren ariketak.

## *GALDEGAI-LEKUA TESTU HASTAPENETAN*

(*Arpoi baten eran* liburuan)

### *O. SAR BERBAK*

Gaur galdegaia totemtzat dago, gurtu beharrezkotzat, eta berak gidatuta, berak itsuaurreko eginda, irakasten-idazten da nagusiki-edo (eta gogor zigortzen da haren legea bete ezean, behintzat eskola-euskaltegietan). Gainera, irakurleok ohituta gaude egon gaur eguneko prosan irensten ezinbestean "galdegaia + aditza" blokea. Baina okerrago gertatzen da bloke hori, bunker hori, badago perpausaren azken aldean, orduan irakurketa, batez ere perpaus luzeetan, errukigarria bihurtzen da, jasanezina, ernegagarria, kabreatzekoa.

Baina nondik dator galdegaia kokatu beharra dagoela aditzaren aurrean, berari inkatu-inkatuta, bloke bat eginda? Galdegaia aditzaren aitzinean kokatu behar dela, lege hori denok-edo dakigu Altubek eman zuela, berak esplizitatu zuen lehenengo zer den galdegaia eta non kokatu behar den, nahiz eta aurretik Azkue-eta egin lehenengo hasi-masiak. Geroago Mitxelenak eta Villasantek gogor kritikatu zuten galdegaiaren legea. Oraintsuago beste hizkuntzalari bik ere (tesiegileak galdegaiaren gainean) astindu ederra eman diote: Eusebio Osak dio euskarazko hiztunik onenak —baserritarrak— direla galdegaiaren hauslerik handienak; eta Bittor Hidalgok, idazle klasikoetan gehiagotan erabiltzen dela galdegaia aditz gibelean aitzinean baino.

Baina zer dauka galdegaiak, beraren gainean idatzi baitira tesi doktoral bi eta hainbat artikulu? Erreparatuz gero zer dioen galdegaiaren legeak (galdegaia kokatu behar dela aditzaren ezkerrean, berari itsatsita) ez dauka eduki ezer txarrik tentuz eta neurrian erabiliz gero aditz aurrean, hau da, galdegaia txikia bada edo elementu bakarrekoa, baina luzea eta konplexua bada, nekagarria bihur dezake perpausaren irakurketa.

Artikulu honetan erakutsi gura nuke helburu nagusitzat *Harpoi baten eran* liburuan, J. B. Agirrek idatzia, galdegaiaren legea ustela dela narrazioetako hasiera perpausetan. Helburu sekundariotzat manipulatu nahi nituzke hasiera perpausok, beste hurrenkera batzuk eman osagaiei (batez ere aditzari eta galdegaiari), eta alderatu jatorrizko perpausa eta aldaerak komunikazioaren aldetik (zein sekuentzia irakurtzen den errazen edo nekezen, eta zergatik).

Aitaturiko liburuan perpaus mota jakin bat aztertuko dut, baiezko hutsak (Laurak 2.000 pezetaren okela jaten du egunero), eta ez ezezkoak (Laurak ez du jaten 2.000 pezetaren okela egunero) eta ez galdezkoak (Laurak 2.000 pezetaren okela jaten du egunero?).

Hona hemen artikulu honetan zeintzuk urrats egingo ditudan: lehenengo, jorratuko dut zeintzuk abantaila dituen perpaus batek komunikazioaren aldetik (errazago edo gaitzago prozesatzeko) galdegaia badago aditz ostean; bigarren, batetik, jorratuko ditut narrazioetako hasiera perpaus batzuk (guztiak ezin, tokirik eza dela-eta) galdegai aldetik (zein kokalekutan duten galdegaia: aditz aurrean edo ostean), bestetik, beste era batera edo gehiagotara sekuentziatuko ditut perpausak, ebaluatzeko errazago edo zailago irakurtzen diren; eta, azkenez, emango ditut konklusioak.

## *1. ABANTAILAK GALDEGAIA ADITZ OSTEAN ERABILITA*

Hartzen badugu edozein perpaus, konturatuko gara zenbat eta aurrerago egon galdegaia, orduan eta errazago irakurtzen dela, batez ere galdegaia bada luzea edo

konplexua. Teorian esanikoa hobeto ulertzeko praktikan, perpaus multzo bi emango ditut (aditzak kortxete artean; galdegaiak beltzez):

(a) Atzo [harrapatu nuen] **lupina bat**
Atzo [harrapatu nuen] **7 kiloko lupina bat**
Atzo [harrapatu nuen] **7 kilokoa eta ia metro bat luzeko lupina bat**
Atzo [harrapatu nuen] **lupina bat, 7 kilokoa**
Atzo [harrapatu nuen] **lupina bat, 7 kilokoa eta ia metro bat luzekoa**

(b) Atzo **lupina bat** [harrapatu nuen] 7 kilokoa eta ia metro bat luzekoa
Atzo **7 kiloko lupina bat** [harrapatu nuen]
Atzo **7 kilokoa eta ia metro bat luzeko lupina bat** [harrapatu nuen]

Ikusten denez, lehenengo multzoan daude galdegaiak aditz ostean; bigarren multzoan, ostera, aditz aurrean, bere leku kanonikoan. Edozein perpausek, orokorrean, osagai mota bi ditu: aditza eta osagarriak (subjektua barne). Aditzak du perpausaren informazio nagusia (gunea), eta osagarriek dute, izenak berak dioenez, aditzaren informazio osagarria. Bestela esateko, osagarriek aditzari egiten diote erreferentzia, aditzetik daude dindilizka, beraren mendekoak dira-eta, beraren sateliteak.

Kontuan hartuta zer esan dudan aurreko paragrafoan eta ikusita goragoko adibideak, argi dago, nik uste, perpaus bateko informazio gunea aditza bada, berau zenbat eta aurrerago egon perpausean, orduan eta lehenago irakurriko dela mezu nagusia; eta, ondorioz, errazago perpaus osoa; eta, alderantziz, zenbat eta urrunago kokatu aditza, hainbat eta beranduago irakurriko da mezu nagusia; eta, ondorioz, nekezago perpaus osoa. Beraz, itzelezko garrantzia dauka, ondo eta erraz prozesatuko bada perpaus bat, aditza albait aurreren erabiltzeak. Horrexegatik beragatik goian (a) multzoko perpausak errazago irakurtzen dira, aiseago prozesatzen, (b)koak baino.

Eta hizkuntza batek, gure kasuan euskarak, aukera ematen badigu aditza aurreratzeko, galdegaia atzera botata, zergatik ez dugu aitzinatuko aditza? Edo masokistak gara, eta gustatzen zaigu nekez eta penaz irakurtzea? Gurago dugu aldats gora ibili aldats behera baino?

## *2. ADIBIDEAK AZTERTZEN*

Azter ditzagun banan-banan perpaus guzti-guztiak, liburuan agertzen diren ordena berean:

1. Hiru orriko lorea

   *[Demagun], kristaua,* ***zure baratza edo berjeran agertzen dela hiru orriko lore guztiz eder bat****. (19 or.)*

Hasiera perpausa aditzez hasten da, subjuntiboz (kortxete artean), eta galdegaia aditz ostean dago (beltzez). Galdegaia bera perpaus konpletiboa da (perpaus mota honi *osagarria* deitzen dio Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak). Altubek galdegaiaren legeaz gain, beste bat ere eman zuen, mendeko perpausei buruz eman ere: mendeko perpausak amaitu behar dira menderagailu bidez. Perpaus konpletiboan, gure kasuan behintzat, menderagailua -eLA da. Eta konturatzen bagara, perpaus konpletiboa ez da amaitzen menderagailuaren bitartez. Hasiera perpaus horretan, beraz, itxura batean Altuberen lege bi hausten dira, baina ez da hala, arrasatearrak salbuetsi egin zuen-eta galdegaiaren legea subjuntiboetan, eta horrela onetsi perpaus konpletiboa, galdegaia bada, ipin daitekeela aditzaren ostean, goiko testu aztergaian ageri den legez. Baina, zoritxarrez, gaur egun perpaus konpletiboa idazten da nagusiki menderagailua duela azkeneko lekuan. Hona hemen zelan:

> *[Demagun], kristaua,* ***zure baratza edo berjeran hiru orriko lore guztiz eder bat agertzen dela****.*

Perpaus hori baino askoz errazago irakurtzen da jatorrizkoa; izan ere, mendeko perpausean aurreratu egin dira menderagailua (iragarlea perpausa zer motatako informazioa den) eta mendeko aditza (perpaus konpletiboaren informazio gunea, ardatza). Badira galdegaiaren legea muturreraino eroaten dutenak, eta aditzaren aurrean, edozelakoa dela aditza, beti ipintzen dute sasigaldegairen bat (konparazio baterako, '*Itoiz* salba dezagun'), eta horiek honela emango liokete lehen hasiera perpaus osoari:

> *Kristaua,* ***zure baratza edo berjeran hiru orriko lore guztiz eder bat agertzen dela*** *[demagun]*

Horrela idazten dutenek ez dakite zertarako erabiltzen den hizkuntza, zer funtzio duen. Gaitasun linguistiko handia erakutsi gurakoak dira, baina gaitasun testuala ez daukate erdipurdikakoa ere.

2. Valentziako dama

   *Zeren nola otsoak ardia* ***lepoan*** *[estutzen duen] orroa egin ez dezan, hala Demonioak* ***eztarria*** *[estutzen die] bekatariei, aitortu ez ditzaten bekatuak, dio San Agustinek. (21 or.)*

Hasiera perpaus horretan aditz aurrean daude galdegaiak (beltzez), aditz nagusiarena zein mendekoarena. Baina erraz irakurtzen da, idazleak aditzak aurrera darabiltza-eta. Zoritxarrez, honetara idatziko litzateke gaur egun gehienbatean (aditzak atzerago eroanda):

> *Zeren nola otsoak ardiak orroa egin ez dezan* ***lepoan*** *[estutzen duen], hala Demonioak bekatariei* ***eztarria*** *[estutzen die], aitortu ez ditzaten bekatuak,*

Edo, okerrago (bigarren aditza are atzerago aldatuta):

*Zeren nola ardiak orroa egin ez dezan otsoak **lepoan** [estutzen duen], hala Demonioak bekatariei aitortu ez ditzaten bekatuak **eztarria** [estutzen die],*

Azken aldaera horretan askok *bekatuak* osagarria kokatuko lukete aditzaren aurrean (*aitortu ez ditzaten*).

3. Ipintzu, bada, eskribaua

*Kontatzen omen du Zesareok: Usurero bat gaixotu eta, hiltzeko zegoela, [deitu zioten] **eskribauari**. (32)*

Perpaus horretan, aurrekoan legez, puntu bien ondoko informazioa dago galdegai. Baina perpausa hasten da gaur egun egin ohi ez den legez: aditzetik. Gainera, gaur egun ia edonork paratuko luke honetara (ZERA galdegaiordearen bidez):

*Zesareok ZERA kontatzen omen du:*

Edo ZERAren ordez HAU erakuslea ipinita:

*Zesareok HAU kontatzen omen du:*

Nire ustez behintzat, argi daukat galdegaiorde elementua barik hobeto funtzionatzen duela, errazago irakurtzen dela. Gainera, idazle klasikoek, gehien-gehienek, J. B. Agirrek legez erabiltzen dute. Pasa gaitezen puntu bien osteko informaziora, eta berton ageri denez, galdegaia (beltzez) aditzaren (kortxete artean) atzetik dago, eta hori gehienek ez lukete onartuko. Galdegaizaleek honela emango lukete perpausa:

*Usurero bat gaixotu eta, hiltzeko zegoela, **eskribauari** [deitu zioten].*

Egia esateko, irakurtzerakoan ez dago alde handirik jatorrizko perpausetik aldaerara. Edozein modutan, errazago irakurtzen da jatorrizkoa.

4. Seme jokalaria

*Erreinu honetako herri batean [gertatu zen] **orain esatera noana**. (36)*

Agerian dagoenez, beltzezko informazioa (galdegaia) aditz ostean dago kokatuta, baina horrela errazago irakurtzen da perpausa galdegaia aditz aitzinean jarrita baino, alegia, honela baino:

*Erreinu honetako herri batean **orain esatera noana** [gertatu zen].*

5. Erromako emakumeak senaduan

*Erroman [izan zen], antzinako denboran, **bilkura edo batzarre bat Senadua izendatzen zena**. (41)*

Hasiera perpaus horretan ere galdegaia (beltzezkoa edo beronen zati bat) ez dago aditz aurrean, ezpabere, gibelean, baina ez aditzaren hurrengo lekuan, baizik eta hurrengoaren hurrengo. Gehienek honela emango lukete:

> *Erroman, antzinako denboran,* ***Senadua izendatzen zen bilkura edo batzarre bat*** *[izan zen].*

Galdegaia izango balitz ***bilkura edo batzarre bat***, orduan honela geldituko litzateke perpausa:

> *Erroman, antzinako denboran,* ***bilkura edo batzarre bat*** *[izan zen] Senadua izendatzen zena.*

Azken hori sano gogoko dut, baina nahien jatorrizkoa, idazleak emana.

6. Emakume bortxatua

   *Ipuinetako gobernari bati [joan zitzaion] behin* ***emakume bat*** *iskanbila handian, esaten ziola: (46)*

Hasiera perpausean zein da galdegaia? Belztua edo *iskanbila handian* osagarria? Niri bost!. Berdin dit zein den galdegaia. Idazleak taket (muzin) egin dio galdegaiari. Galdegaiaren legeari kasu eginez gero, nekagarriago egiten da perpausa

> *Ipuinetako gobernari bati behin* ***emakume bat*** *[joan zitzaion] iskanbila handian, esaten ziola:*

Pentsatzen badugu *iskanbila handian* dela galdegaia:

> *Ipuinetako gobernari bati behin emakume bat* ***iskanbila handian*** *[joan zitzaion], esaten ziola:*

Aukera biok nekezago irakurtzen dira jatorrizkoa baino, atzerago dute-eta aditza (informazio gunea). Badago beste aukera bat-edo, *behin* osagarria aditz aurrera eroanda:

> *Ipuinetako gobernari bati behin [joan zitzaion] emakume bat iskanbila handian, esaten ziola:*

Edo

> *Behin ipuinetako gobernari bati [joan zitzaion] emakume bat iskabila handian, esaten ziola:*

Konturatzen bazara, irakurlea, azkeneko aukeretan galdegaiak segitzen du egoten aditz atzean. Eta horiek lako adibideak parra-parra daude gure zaharren ipuin hasieretan.

7. Adarbakoitza

*Gure Jaun Jaungoikoak [egin zituen]* ***gauza guztiak****, gizona ez besteak, beren sortzetik hasi eta behin ere nekatu gabe ari dira bakoitza bere finari dagokion egitekoan. (49)*

Hasiera perpausean, ikusten denez, galdegaia aditz gibelean dago. Perpausa laburra da, eta erraz irakurtzen da, ia jatorrizkoa bestean:

*Gure Jaun Jaungoikoak* ***gauza guztiak*** *[egin zituen],*

Jatorrizko perpausean alde batera utzita *gizona ez besteak, beren sortzetik hasi*, hurrengo partea honela-edo emango lukete askok (azkeneko lekuan ipinita aditza):

*eta behin ere nekatu gabe bakoitza bere finari dagokion egitekoan ari dira.*

8. Agrigentoko marinelak

*Agrigento deritzan leku batean, [jarri ziren] egun batean* ***edaten*** *marinel batzuk. (64)*

Hasiera perpausean galdegaia ez dago aditz aitzinean, gibelean baino, gibelegi, askoren ustez. Hauek honela ipiniko lukete perpausa (galdegaia, jakina, aditz aurrean):

*Agrigento deritzan leku batean, marinel batzuk* ***edaten*** *[jarri ziren] egun batean.*

Ikusten denez, jatorrizkoaren aldean *marinel batzuk* osagarria ere aurrean ipini dut. Beste galdegaizale batzuek *egun batean* ere aurrera eroango lukete:

*Egun batean Agrigento deritzan leku batean, marinel batzuk* ***edaten*** *[jarri ziren].*

Horrelaxe idazten da gehienbatean gaur egun, eta horrelaxe dago jarrita okerren, perpausaren informazioa prozesatze aldera. Nik neuk, jatorrizkoaz gain, hona hemen zein aukera dudan guren, nahien:

*Egun batean Agrigento deritzan leku batean, [jarri ziren]* ***edaten*** *marinel batzuk.*

Edo, gura izanez gero, ipin daiteke *marinel batzuk* osagarria *edaten*en aurrean.

9. Karlosen bekatuak

*Karlos bosgarrena edo Carlos quinto, ehizara irten zen aldiren batean, [sartu zen]* ***eliza batean****. Prestatu zen konfesatzeko. (71)*

Hasiera perpaus horretan ere galdegaia aditz ostean dago, baina ikusten ari garenez, adibideak joan eta adibideak etorri, J. B. Agirre idazleak behin eta berriro erabiltzen du galdegaia aditz ostean, trankil-trankil erabili ere (baina baita aditz aurrean ere, baina aditza aurrean dela). Gure perpausean galdegaia aditzaren aurrera pasatuko bagenu honela geratuko litzateke:

> *Karlos bosgarrena edo Carlos quinto, ehizara irten zen aldiren batean,* ***eliza batean*** *[sartu zen].*

Ez dago alde handirik perpaus horretatik jatorrizkora, baino gurago dut idazlearena.

10. Suhiak egin zuen sorgin

> *Euskaldun herri batean, Frantziako mugan, atso bat [joan zen]* ***konfesatzera,*** *eta esan zion konfesoreari: (72)*

Hor, hasiera perpausean, ez da betetzen galdegaiaren legea. Galdegaizaleek honela idatziko lukete, galdegaia (beltzez) pasatuta aditz aurrera:

> *Euskaldun herri batean, Frantziako mugan, atso bat* ***konfesatzera*** *[joan zen]****,*** *eta esan zion konfesoreari:*

Orain arte esandako moduan, jatorrizkoa errazago irakurtzen da aldaera baino, eta zergatik ere badakigu: aditza aurrerago duelako.

11. Mitxirrikaren ipuina

> *[Joango naiz]* ***harako etxe hartara, halako lagun haietara****, baina ez dut ezergatik bekaturik egingo; lehenago lepoa eman (80)*

Oraingotan ere, aditz bidez hasten da perpausa. Gure zaharren kontakizunetan arrunta da aditzez hastea. Hona ipuintxo bat hasten dena aditzez, oraintsurengo jasoa Mendexan: *Joan ei zen sorra, haren atzetik gorra, eta ez dira ageri ez gorra ez sorra.* Goiko perpaus hori honetara emango litzateke gaur:

> ***Harako etxe hartara*** *[joango naiz], halako lagun haietara,*

Batzuen ustez, *halako lagun haietara* ere galdegaia izan daiteke, eta honetara idatz lezakete perpausa:

> ***Harako etxe hartara****,* ***halako lagun haietara*** *[joango naiz],*

Baina idatz daiteke jatorrizkoa baino errazagorik?

12. Esazu, Mizto madarikatua

> *[Erortzen dira] eskandaloa deritzan bekatuan* ***harako deabruaren korreo, etxeetako nahaspila, gorrotoa, auzia, hondamendia ekarri ohi duten mizto madarikatu haiek****. (85)*

Ez dakit igarri dudan zein den galdegaia. Perpausa bikain dago, niretzat. Batzuek gurago lukete honela:

> *Eskandaloa deritzan bekatuan* ***harako deabruaren korreo, etxeetako nahaspila, gorrotoa, auzia, hondamendia ekarri ohi duten mizto madarikatu haiek****.[erortzen dira]*

Ezin desegokiagoa da horrelako galdegai luzea jartzea aditzaren aitzinean. Erdibideko irtenbide bat dago galdegai soila gibelera eroanda:

> *Eskandaloa deritzan bekatuan [erortzen dira]* ***harako deabruaren korreo, etxeetako nahaspila, gorrotoa, auzia, hondamendia ekarri ohi duten mizto madarikatu haiek***

13. Kasano, Tartariako erregea

> *Antzinako denboran, festetan [irten ohi ziren] gudariak* ***elkarren kontra peleatzera****; [kentzen zituzten]* ***soineko guztiak****, izan ez zezan etsaiak nondik heldu, eta [gantzutzen ziren]* ***olioz*** *gorputz guztian, itsasteko denboran, irrista zekion etsaiari atzaparra. (...)(89 or.)*

Hasiera perpausa osatuta dago hiru perpaus juntatuz, eta hirurotan galdegaia ez dago aditz aurrean, atzean baino. Gaur egun gehienok honetara-edo idatziko genuke:

> *Antzinako denboran, festetan gudariak* ***elkarren kontra peleatzera*** *[irten ohi ziren];* ***soineko guztiak*** *[kentzen zituzten], izan ez zezan etsaiak nondik heldu, eta gorputz guztian* ***olioz*** *[gantzutzen ziren], itsasteko denboran, irrista zekion etsaiari atzaparra.*

Nire ustez, aiseago prozesatzen da informazioa jatorrizko perpausean aldaeran baino. Baina askok beste mugimendu batzuk egingo lituzkete mendeko perpaus bietan:

> *Antzinako denboran, festetan gudariak* ***elkarren kontra peleatzera*** *[irten ohi ziren];* ***soineko guztiak*** *[kentzen zituzten], etsaiak nondik heldu izan ez zezan, eta gorputz guztian* ***olioz*** *[gantzutzen ziren], itsasteko denboran, etsaiari atzaparra irrista zekion.*

Aukera hori aurrekoa baino okerrago dago, baina okerrago egongo litzateke jarriz gero mendeko perpausak nagusien aurretik:

> *Antzinako denboran, festetan gudariak* ***elkarren kontra peleatzera*** *[irten ohi ziren]; etsaiak nondik heldu izan ez zezan* ***soineko guztiak*** *[kentzen zituzten], eta], itsasteko denboran, etsaiari atzaparra irrista zekion gorputz guztian* ***olioz*** *[gantzutzen ziren].*

14. Aberats kutiziatsuaren eta Lazaro eskalearen ipuina

*Entzun ezazu, kristau, **zer dioen Jesu-Kristok gizon aberats jan-edanean**, eta hauek dakartzaten bekatuetan, bizi zen batez. (94 or.)*

Perpausa aditz bidez hasten da, inperatiboz. Beronen mendeko perpausa (zehar-galdera) interesgarria da. Argi dezadan zergatik. Badira jorratzen ari garen liburuan hasiera perpaus batzuk 32. perpausaren antzekoak, baina emanak daude zehar-galderaz barik erlatiboz (esaterako: 4. *Entzun ezazue andre setatsuaz Izpiritu Santuak dio**ena***:...). Goiko perpaus aztergaia emango bagenu erlatiboz honela geratuko litzateke:

*Entzun ezazu, kristau, <u>dioenA</u> Jesu-Kristok gizon aberats jan-edanean, eta hauek dakartzaten bekatuetan, bizi zen batez.*

Edo:

*Entzun ezazu, kristau, Jesu-Kristok gizon aberats jan-edanean, eta hauek dakartzaten bekatuetan, bizi zen batez <u>dioenA</u>.*

Jatorrizko perpaus aztergaia bikaina begitantzen zait. Erlatibo bidezko lehena gaztelaniaren imitazioan dago emana, baina erraz irakurtzen da; bigarren aukera (erlatiboa azken lekuan duela), ostera, ez da egokia komunikazioaren aldetik.

15. Jose eta etxekoandrea

*Jose [zen] **Jakoben seme txit maitea**. (108or.)*

Hasiera perpausak galdegaia dauka aditz gibelean, eta errazago irakurtzen da aitzinean edukita baino:

*Jose **Jakoben seme txit maitea** [zen]*

16. Loth Sodomakoa

[*Aditu behar duzue]* ***Eskritura Santuak Lothen gainean dakarren gauza harrigarri bat.*** *(116 or.)*

Hasiera perpaus horrek ere aditza du lehenengo lekuan, aurrerengo, buruan, eta atzean galdegaia. Honela ipiniko lukete askok:

*Eskritura Santuak **Lothen gainean dakarren gauza harrigarri bat*** [*aditu behar duzue]*

Oso perpaus lorrina da, nekagarria.

17. Adan eta Eba

*Aingeruen ondoren [egin nahi izan zuen] Jaunak **gizona**; eta ederki prestatu zituen honek beharko zituen gauza guztiak.(122or.)*

Perpaus horretan ere hautsi egiten da galdegaiaren legea. Galdegaia bere leku kanonikoan paratuz gero, perpausa, ohi denez, nekagarriago bihurtzen da irakurtze aldetik:

*Aingeruen ondoren Jaunak **gizona** [egin nahi izan zuen]*

Ikusten denez, aditz aurrera pasatu dut galdegaia ez eze, baita subjektua ere (*Jaunak*).

18. Infernua nola den

*Zer dela uste duzu infernua?Hura [da] demonioaren eta bere zerbitzarien **leize izugarri bat**, non betikotasun guztian egon beharrak diren oinazez lehertzen. (132or.)*

Gaur egun honela-edo emango litzateke:

*Hura demonioak eta bere zerbitzariak betikotasun guztian oinazez lehertzen egon beharrak diren leize izugarria bat da*

## *4. KONKLUSIOAK*

Heldu da balantzea egiteko ordua:

1. Oratuz gero soilik artikulu honetako xede nagusiari, *Arpoi baten eran* liburuan galdegaiaren legea zenbat hasiera perpausek hausten duten (artikulu honetan 18 soilik jorratu ditut, lekurik ez-eta), 41 perpausetan 32k egiten dute (eta 7k ez, eta bi ezezko perpausak dira), hau da, % 80an gutxi gorabehera hausten da legea. Hona hemen gomutagarri azterturiko adibide bi galdegaiaren legea betetzen ez dutenak:

– *Ipuinetako gobernari bati [joan zitzaion] behin **emakume bat** iskanbila handian,...*
– *Agrigento deritzan leku batean, [jarri ziren] egun batean **edaten** marinel batzuk.*

Perpausok errazago irakurtzen dira galdegaia aditz ostean dutela aditz aurrean baino, artikuluko 1. puntuan erakutsi uste dugunez, batez ere galdegaia konplexua edo luzea bada.

2. Lehenengo puntutik segitzen da Altuberen galdegaiaren legea birrindu egiten duela J. B. Agirrek narrazioetako hasiera perpausetan behintzat, baina bat dator Bittor Hidalgok emaniko datuekin Senez aldizkarian, 25. zenbakian, non aztertzen baitu galdegaiak zer kokaleku hartzen duen perpaus barruan bai tradiziozko euskaran bai gaur egunekoan. Hona hemen datuok:

GALDEGAIAREN KOKAGUNEA

| | Aditz ostean | Aditz aurrean | Bestela |
|---|---|---|---|
| Tradizioko euskaran | % 79,0 | % 10,8 | % 10,2 |
| Gaurko euskaran | % 20,1 | % 51,2 | % 28,7 |

3. Galdegaiaren luze-laburrak zerikusia du beraren kokapenarekin. Galdegaia luzea bada, aditz atzean ageri da:

– *[Erortzen dira] eskandaloa deritzan bekatuan* ***harako deabruaren korreo, etxeetako nahaspila, gorrotoa, auzia, hondamendia ekarri ohi duten mizto madarikatu haiek****.*
– [*Aditu behar duzue]* ***Eskritura Santuak Lothen gainean dakarren gauza harrigarri bat.***

Galdegaia laburra bada, ageri da aditz aitzinean zein gibelean. Konklusiotako 1. puntuan, adibide bi eman ditut galdegaia dutenak laburrak eta aditz ostean ipiniak; hemen, adibide bakarra emango dut galdegaia duena laburra eta aditz aurrean:

– *Lagun hurkoa zinez edo benaz amatzen duenak,* ***ahaleginean*** *[edertzen edo behintzat, estaltzen ditu] haren okerrak,...*

Eta hona hemen zeintzuk adibidek dituzten galdegairik luzeenak kokaleku kanonikoetan daudela:

– Sara **dama txit bertutsua, aberatsa eta ederra** [zen]
– Herri batean norbaiti **txarkeria eta bidegaberen batzuk** [egin bide zizkion] besteren batek,...

Ikusten denez, galdegaiok ez dira izan luzeak.

4. J. B. Agirrek, gaurko idazle askotxok ez legez, beti darabil aditza aurrera perpausean, galdegaia kokatuta dagoela aditz aurrean zein atzean. Eta horrela lortzen ditu narrazio irakurri erraz-errazak. Behin aditza aurrera dagoela, esango nuke idazleari berdin diola galdegaia (laburra bada) kokatzea aditz aitzinean nahiz gibelean.

5. Ez dut uste astakeria litzatekeenik esatea J. B. Agirrek zelan erabiltzen duen aditza (oso aurrera) narrazioen perpaus hasieretan, hala gertatuko dela narrazio osoko perpausetan ere.

6. Gogoeta bat: idazten dugunean, zergatik ez idatzi J. B. Agirrek (eta beste askok) bezala, aditza ahalik eta aurreren dagoela perpausean (eta galdegaia tentuz erabilita aditz aurrean edo atzean), horrela prozesatzen badugu errazen?

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

## *BIBLIOGRAFIA*

Agirre, J. B. (1996): *Arpoi Baten eran*, Alberdania.
Altube, S. (1975): *Erderismos*, Euskaltzaindia, Bermeo.
Hidalgo, V. (2002): "Hitzen ordena esaldian", *Senez*, **25**.
Mitxelena, K. (1981): *Galdegaia eta mintzagaia euskaraz. Euskal linguistika eta literatura*: *Bide berriak*, Univ. de Deusto.
Osa, E. (1990): *Euskararen hitzordena*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
Villasante, L. (1975): "Hitzaurre gisa", in S. Altube, *Erderismos*, Euskaltzaindia.
————, (1980): *Sintaxis de la oración simple*, EFA, Serie Eleizalde.

## GALDEGAI-LEKUA TESTU HASTAPENETAN (I)

### *SARRERA*

Denok-edo dakigunez, aztertu samar dago euskaraz zer den galdegaia eta zer kokaleku daukan perpausaren barruan: Astarloa hasi zen lurra gorritzen, Azkuek erein zuen eta Altubek jaso uzta, beronek formulatu zuen-eta galdegaiaren legea (ipini behar da aditzaren aurrean, berari inkatuta). Harrezkero lege dontsu horrek ezker-eskuma jaso ditu kritikak: lehenago Mitxelena, Villasante eta Mocoroarengandik; gaur Osa eta Hidalgorengandik, eta azkenok, gainera, dotore-tesia bana egin dute galdegaiaren gainean. Kritikak kritika, ostera, inoizkorik indarrenean dabil Altuberen lege hori.

Zer dauka, baina, makurra galdegaiaren legeak, badio galdegaia aditzaren ezkerraldean ipini behar dela, aditzari inkatu-inkatuta?

Perpaus bat, oro har, errazago irakurtzen da, aiseago prozesatzen da, galdegaia aditz ostean erabilita aditz aurrean erabilita baino; are gehiago, galdegaia bada osagai askokoa edota konplexua. Berbarako, errazago irakurtzen dira lehenengo multzoko perpausak bigarren multzokoak baino, aditza aurrerago baitute (eta galdegaia aditz ostean):

(1) Nik goizean [ezagutu dut] **Arranondoko neska bat**
Nik goizean [ezagutu dut] **Arranondoko 25 urteko neska ba**
Nik goizean [ezagutu dut] **euskaraz ez dakien Arranondoko 25 urteko neska bat**

(2) Nik goizean **Arranondoko neska bat** [ezagutu dut]
Nik goizean **Arranondoko 25 urteko neska bat** [ezagutu dut]
Nik goizean **euskaraz ez dakien Arranondoko 25 urteko neska bat** [ezagutu dut]

Perpausak, orokorrean esateko, osagai mota bi ditu: aditza eta osagarriak (Subjektua barne). Aditza da perpausaren informazio gunea (muina, nagusia), eta osagarriak dira, berbak berak esaten duenez, konplementoak, eta aditzaren informazioa osatzen dute. Bestela esateko, osagarriak aditzaren mendekoak, azpikoak dira, bertatik, aditzetik, daude eskegita, eta berari egiten diote erreferentzia. Osagarriak aditzaren sateliteak dira, haren inguruan dabiltza jirabiraka.

Hortaz, argi dago perpaus bateko informazio gunea aditza bada, berau zenbat eta aurrerago egon perpausean, orduan eta lehenago irakurriko dela mezu nagusia, eta ondorioz, errazago perpaus osoa; eta, alderantziz, zenbat eta urrunago kokatu aditza, hainbat eta beranduago irakurriko dela mezu nagusia, eta ondorioz, nekezago perpaus osoa. Beraz, itzelezko garrantzia dauka, ondo eta erraz prozesatuko bada perpaus bat, albait aurreren erabiltzea aditza. Horrexegatik beragatik (1)eko perpausak errazago irakurtzen dira, aiseago prozesatu (2)koak baino.

Eta hizkuntza batek, gure kasuan euskarak, aukera ematen badigu aditza aurreratzeko, galdegaia atzera botata, zergatik ez dugu aitzinatuko aditza? Edo masokistak gara, eta gustatzen zaigu nekez eta penaz irakurtzea? Gurago dugu aldats gora ibili aldats behera baino?

Artikulu sail honetan (hiruzpalau) erakutsi gura dut askotan (gehienetan?) euskarak aukera ematen digula aditza aurreratzeko eta galdegaia atzera botatzeko; bestela esateko, frogatu gura nuke Altuberen galdegairen legea ez dela zuzena. Baina testu osoak aztertu barik testuetako hasiera perpausak soilik izango ditut azterkizun; ikerketa muinarrituko dut kontakizunen hasiera perpausetara.

Artikuluotan helburu nagusitzat aztertu nahi dut zenbateraino betetzen den galdegaiaren legea, baina badut beste xede bat ere, itxura batean sekundarioa: batetik, aztertu eta komentatu gura dut zer alde dagoen perpaus aztergaietan galdegaia dagoela ipinita aditzaren aurrean eta atzean, aukera bietan zein irakurtzen den errazen, eta zergatik; bestetik, jorratu nahi dut perpaus aztergaietan beste hurrenkera batzuk, aditzaren eta galdegaiaren beste kokagune batzuk, eta alderatu jatorrizkoarekin.

Lehenengo behar honetan aztertuko ditut idazle biren hasiera perpausak: batetik, P. M. Urruzunorenak; bestetik, J. Duvoisinenak. Idazle baten azterketan zein bestearenean hona hemen zeintzuk urrats egingo ditudan artikuluan zehar, zelako ibilbidea:

**A.** Lehenengo, ekarriko dut idazle bakoitzak, batetik, zeintzuk liburu jorratu dituen; eta, bestetik, adituek zelako iritzia duten idazle bien euskarari buruz.

**B.** Bigarren, aurkeztuko dut hasiera perpausen zerrenda, multzo bitan egin ere: aditz kopulatibo bidez hasten direnak eta aditz predikatibo bidezkoak.

**C.** Hirugarren, hasiera perpausak banan-banan manipulatuko ditut: lehenengo, perpausean perpausean galdegaia lekuz aldatuko dut (leku kanonikoan badago, aditz ostean paratuta; eta iruntzitara); eta, jarraian, alderatu egingo dut jatorrizko hasiera eta aldaera: zein den egokiago komunikazioaren aldetik (erraz irakurtzearen aldetik), eta zergatik. Bigarren, beste manipulatu bat emango diet hasiera perpausei: perpausaren osagai batzuk tokiz aldatuko ditut, eta alderatu aldaerok aurreko aldaerarekin eta jatorrizko perpausarekin (zein edo zeintzuk irakurtzen diren errazen, eta zergatik).

**D.** Laugarren, eta azkenez, balantze bat egingo dut, batez ere, zenbatetan bete den Altuberen legea, eta honek dio, gomuta dezagun, galdegaia ipini behar dela aditzaren ezkerraldean berari inkatuta.

### *1. Pedro Miguel Urruzuno*

**A**. Urruzunoren produzioan aztertuko ditut hiru liburu: *Ipuinak*, *Ur-zale baten ipuiak* eta *Sasiletrau baten ziria*. Eurotan kontakizunen hasiera batzuk bazterrean

utziko ditut: batetik, elkarrizketa bidezkoak; bestetik, narrazioz hasten direnetan galdera bidezkoak eta ezezkakoak. Hortaz, hona, artikulu honetara, ekarriko ditut baiezkako perpaus hasierak soilik. Inork izan ez dezan dudarik Urruzunok darabilela euskara ona, bikaina, gain-gainekoa, hona hemen iritzi batzuk haren euskararen gainean:

L. Villasantek bere *Historia de la literatura vasca*n dio Urruzunok euskara darabilela herri-herrikoa eta erraza. Horretaz gain, aipaturiko liburuan Villasantek S. Altuberen iritzia ere jasotzen du zer mailako euskara darabilen Urruzunok, eta arrasatearrak dio herri hizkera islatzen duela, eta *Ipuiak* liburuak eredugarritzat jotzen du herri generoan:

> *(…)El euskera que emplea Urruzuno en este libro [Ipuiak] es la transcripción fiel del habla del pueblo (...)*
>
> *(…) Se trata, por ello, de un libro que debiera servir de modelo a la literatura vasca del genero popular. (330 or.)*

Alegia, nik neuk aurkezten dut Urruzunoren hizkera Altuberen ereduaren kontrakotzat, eta honek zer egingo, eta ez du, bada, goresten Urruzunoren euskara!

Antonio Zavalak *Sasiletrau baten ziria, ta abar* liburuaren sarreran gorantza handiak egiten ditu:

> *Eztu edozein euskal idazlek olako arrera onik [5 edizio] izaten. (10 or.)*

L. M. Larringanek *Ipuinak* liburuaren sarreran dio:

> *Sintaxiari buruz zera esan behar: Urruzunoren perpausa ez dela landua, ezta biribila ere, batez ere S. Altuberen legeak kontuan hartuz gero. Ahozko kodigoaren eragin nabarmena du Urruzunok, euskal idazleen artean ahozko hizkuntzaren lekuko ziurrenetariko izanik. (26 or.)*

Guztiz ere guztiz nator bat hor Larringanek esandakoarekin: ahozkoaren eredu bikaina darabil elgoibartar abadeak, imitagarria inolaz ere.

**B**. Has gaitezen aurkeztuz hasiera perpaus guztiak (ahaleginean euskara batuan ipini ditut, aditzak kortxete artean sartu, eta galdegaiak belztu):

***Aditz kopulatibo bidezkoak (izan)***

> (1.)*Ganbelu anaiak*
>
> *Ganbelu anaiak [ziren]* ***bi ikazgile oso beltz, itsusi, handi eta moldakaitzak****, eta Josepe Kaikuak esan ohi zuen, gizonaren antzik gehien zuen animalia, behar zuela izan ganbelua;(Ipuinak,39or.)*

(2.) *Sakristau eta zapataria*

*Apaizgairen hurrengoa jakindurian **Sakristaua** [zen] herrian; (Ipuinak,47or.)*

(3.) *Alkatea eta pregoneroa*

***Sonatua** [zen] inguru guztian Mendiondoko alkatearen ostatua: bera zen herrikoetxe edo konsejua, alondeia, ikastetxea, kuartela, ardantegia, bizartegia, gauza guztiak saltzen ziren denda,(Ipuinak,176or.)*

(4.) *Anton zurrut*

*Anton zurrut [zen] **gizon bat**, askok maite zuena, batez ere ardo saltzaileek; bada zen edale polit bat, eta gainerakoek ere egiten zuten barre haren lepotik.,(Ipuinak,187or.)*

(5.) *Alper handi eta Egoarri nagusi-morroiak*

*Alper handi, izenaren jabe zelarik, [zen] ere **taberna zaletxoa**, eta morroiek denbora gutxi egiten zuten bere etxean.(Ur-zale baten ipuiak,36or.)*

(6.) *Ijitoak*

***Haserretxo** [zen] Pello ijitoa, eta arrazoia ere bazuen.(Ipuinak,85or.)*

(7.) *Kandelario*

*1873'garren urteko otsailaren lehenengo egunak **gogoangarriak** [dira]; (Sasiletrau baten ziria, ta abar, 135or.)*

***Aditz predikatibo bidezkoak***

(8.) *Bi ahizpatxoak*

*Garizumako gau batean Irigaraiko sukaldean, Mari Errosa, hirurogeitamar urteko amona, [ari zen] **erakuspena erakusten**, bere bi ilobatxo Josepa eta Kataliñi.(Ipuinak,166or.)*

(9.) *Artobero eta porrot*

*[Jaio zen] Zoyetako baserrian **haur eder bat**, zeinari bataioan jarri zioten izena Arturo.(Ipuinak,181or.)*

(10.) *Ijito baten suertea*

*Aritxulegiko mendi gainean barruan [doaz] bi ijito **hizketan**:(Ur-zale baten ipuiak,83or.)*

(11.) *Gabon gaua*

*Aspalditxoan **ilun** [zihoazen] egunak Irunetako barrunbean. (Sasiletrau baten ziria, ta abar, 45or.)*

**C.** Jarraian, banan-banan jorratuko ditut eta iruzkindu perpaus aztergaiok.

(1.) *Ganbelu anaiak*

*Ganbelu anaiak [ziren]* ***bi ikazgile oso beltz, itsusi, handi eta moldakaitzak****, eta Josepe Kaikuak esan ohi zuen, gizonaren antzik gehien zuen animalia, behar zuela izan ganbelua;(Ipuinak,39or.)*

Agerian dagoenez, ez du betetzen galdegaiaren legea, aditzaren ostean dago-eta galdegaia. Para dezagun galdegaia leku kanonikoan:

*(1a) Ganbelu anaiak*

*Ganbelu anaiak* ***bi ikazgile oso beltz, itsusi, handi eta moldakaitzak*** *[ZIREN] eta Josepe Kaikuak esan ohi zuen, gizonaren antzik gehien zuen alimalia, behar zuela izan ganbelua;*

Nire ustez, jatorrizko perpausa askoz errazago irakurtzen da aldaera (1a.) baino, azken honetan aditza lar atzera dago-eta. Aditza badago ipintzerik beste kokagune batean ere:

(1b.) *Ganbelu anaiak*

*Ganbelu anaiak* ***bi ikazgile*** *[ZIREN]* ***oso beltz, itsusi, handi eta moldakaitzak*** *eta Josepe Kaikuak esan ohi zuen, gizonaren antzik gehien zuen alimalia, behar zuela izan ganbelua;*

Horrela, aditza aitzinago duela, (ia) jatorrizko perpausa bezain erraz prozesatzen da. Edozein modutan, jatorrizko perpausa hobeto dago kohesio aldetik azken aldaera baino (1b); izan ere, ***bi ikazkile*** eta ***oso beltz, itsusi, handi eta moldakaitzak*** sekuentziak elkarren hurrago daude; eta hori dela-eta, askoz errazago irakurtzen da (1a.)a baino. Perpaus aztergai horretan lau adjektibo barik balego bakarra, esaterako, <u>*moldakaitzak*</u>, hona hemen zeintzuk hiru aukera irtengo litzaizkigukeen:

Ganbelu anaiak ZIREN bi ikazkile <u>moldakaitzak</u> eta...
Ganbelu anaiak bi ikazkile ZIREN <u>moldakaitzak</u> eta...
Ganbelu anaiak bi ikazkile <u>moldakaitzak</u> ZIREN eta...

Bigarren aukera lehenago ere ontzat jo dut; hirugarrena ere balekotzat daukat, aditza oraingotan hasieratik hur-edo dago-eta. Nire belarrientzat oso normalak dira hiru kokalekuok, eta bigarren aukera dago zabalduen nire euskaran-edo (ETB1en, pilota emanaldietan, sarritan darabil Tolosa pilotari izandako esatariak). Beraz, galdegaiaren labur-luzeak zer ikusi handia dauka jakiteko bera non kokatu, aditz aurrean edo ostean.

Jorratzen dihardudan perpaus horretan (1.) perpaus hasieraz gainera, ondoko perpausa ere oso interesgarria da galdegai-lekuaren aldetik. Izan ere, batetik, perpaus nagusiak (*esan ohi zen*) beharko luke galdegaitzat perpaus konpletiboa;

bestetik, perpausa konpletiboan bertan ere aditzaren aurrean ez dago galdegai (*ganbelua*), ezpabere, aditzaren ostean. Hortaz, galdegaizale gogorrenek honetara ikusi gura lukete bigarren perpaus oso hori:

(1c.) *Ganbelu anaiak*

*Ganbelu anaiak bi ikazgile ziren oso beltz, itsusi, handi eta moldakaitzak eta Josepe Kaikuak* ***gizonaren antzik gehien zuen animalia ganbelua izan behar zuela*** *[ESAN OHI ZUEN] ;*

Perpaus hori (eta horrelakoxeak dabiltza gaur zabalen) ezin desegokiagoa da komunikagarritasunaren aldetik. Gainera, ez du betetzen oinarrizko lege bat ere perpausa komunikatiboa izateko: elkarren ondoan egotea subjektua (Josepe Kaikuak) eta aditza (esan ohi zuen). (1c.) perpausa hobe daiteke, galdegaiaren legea beteta ere. Honetara:

(1d.) *Ganbelu anaiak*

*Ganbelu anaiak bi ikazgile ziren oso beltz, itsusi, handi eta moldakaitzak eta Josepe Kaikuak* ***ganbelua izan behar zuela*** *[ESAN OHI ZUEN] gizonaren antzik gehien zuen animalia;*

Hala ere, nik neuk egilearen aukera dut nahien, *ganbelua* azkeneko lekuan esanda baitu grazia, gatza eta berakatza.

Pasa gaitezen bigarren perpaus aztergaira:

(2.) *Sakristau eta zapataria*

*Apaizgairen hurrengoa jakindurian* ***Sakristaua*** *[zen] herrian (Ipuinak,47or.)*

Altuberen legea betetzen du; baina, gura izanez gero, badago "galdegaia+aditza" blokea aurreratzerik

(2a.) *Sakristau eta zapataria*

*Herrian* ***Sakristaua*** *[zen] apaizgairen hurrengoa jakindurian*

edo:

(2b.) *Sakristau eta zapataria*

*Herrian jakindurian* ***Sakristaua*** *[zen] apaizgairen hurrengoa*

Pasa gaitezen hurrengo perpausera:

(3.) *Alkatea eta pregoneroa*

***Sonatua*** *[zen] inguru guztian Mendiondoko alkatearen ostatua: bera zen herrikoetxe edo konsejua, alondeia, ikastetxea, kuartela, ardantegia, bizartegia, gauza guztiak saltzen ziren denda,(Ipuinak,176or.)*

Horrek ere errespetatzen du Altuberen legea. Bikain dago, eta dagoenean lagako dut.

Azter dezagun laugarren perpausa:

(4.) *Anton zurrut*

*Anton zurrut [zen]* ***gizon bat****, askok maite zuena, batez ere ardo saltzaileek; bada zen edale polit bat, eta gainerakoek ere egiten zuten barre haren lepotik . (Ipuinak,187or.)*

Perpaus horretan ez da errespetatzen galdegaiaren legea. Honela beharko luke, errespetatuz gero:

*(4a) Anton zurrut*

*Anton zurrut* ***gizon bat*** *[ZEN], askok maite zuena, batez ere ardo saltzaileek; bada zen edale polit bat, eta gainerakoek ere egiten zuten barre asko haren lepotik*

Aldaera nekeztxoago irakurtzen da jatorrizko perpausa baino. Baina okerrago ere idatz daiteke, eta idazten da:

(4b.) *Anton zurrut*

*Anton zurrut askok maite zuen* ***gizon bat*** *[ZEN], batez ere ardo saltzaileak; bada zen edale polit bat, eta gainerakoek ere egiten zuten barre asko haren lepotik.*

Zertan esanik ez dago, horrela, perpausa nekagarriago egiten da irakurtzeko. Perpausak ez du itauntzen Anton zurrut "asko maite zuen *zenbat* gizon" zen. Perpaus hori ahoz beste askok honela-edo emango genuke:

(4c.) *Anton zurrut*

*Anton zurrut* ***gizona*** *zen, askok maite zutena, batez ere ardo saltzaileak; bada zen edale polit bat, eta gainerakoek ere egiten zuten barre asko haren lepotik.*

Perpaus hasiera horren jarraian beste perpaus bi datoz, zein baino zein harrigarriagoak galdegaiaren ikuspuntutik, batak zein besteak hautsi egiten baitute galdegairen legea. Galdegaizaleek honetara emango lituzteke perpausok:

*(4d) Anton zurrut zen gizon bat, askok maite zutena, batez ere ardo saltzaileak; bada* ***edale polit baT*** *[ZEN], eta gainerakoek ere* ***barre asko*** *[EGITEN ZUTEN] haren lepotik.*

Nik neuk ere ez dut batere trabarik horretara idazteko, galdegaia luzeraz txikia da-eta, baina galdegaia izanez gero luzeagoa, behingoan pasatuko nuke aditz ostera, perpaus jatorrizkoan legez.

Azter dezagun ondoko perpausa:

(5.) *Alper handi eta Egoarri nagusi-morroiak*
*Alper handi, izenaren jabe zelarik, [zen] ere* ***taberna zaletxoa****, eta morroiek denbora gutxi egiten zuten bere etxean.(Ur-zale baten ipuiak,36or.).*

Galdegaiaren legeak dioenaz bestera dago kokatuta galdegaia, aditz ostean. Baina galdegaia jarriz gero aditz aitzinean:

(5a.) *Alper handi eta Egoarri nagusi-morroiak*
*Alper handi, izenaren jabe zelarik,* ***taberna zaletxoa*** *[ZEN] ere, eta morroiek denbora gutxi egiten zuten bere etxean.*

Ez dakit zenbatek onartuko luketen perpaus hori, edo beste hau:

(5b) *Alper handi, izenaren jabe zelarik,* ***taberna zaletxoa*** *ere[baZEN], eta morroiek denbora gutxi egiten zuten bere etxean.*

Horrela, aditza urruntxo egiten da perpausaren hasieratik. Komeni da aitzinago ekartzea:

*Alper handi, izenaren jabe zelarik, [baZEN]* ***taberna zaletxoa*** *ere, eta morroiek denbora gutxi egiten zuten bere etxean.*

Jorra dezagun hurrengo perpausa:

(6.) *Ijitoak*
***Haserretxo*** *[zen] Pello ijitoa, eta arrazoia ere bazuen.(Ipuinak,85or.)*

Errespetatzen da galdegaiaren legea, eta aditz aurrera-aurrera dago. Bikain dago perpausa.

Jorra dezagun 7. adibidea:

(7.) *Kandelario*
*1873'garren urteko otsailaren lehenengo egunak* ***gogoangarriak*** *[dira]; (Sasiletrau baten ziria, ta abar, 135or.)*

Betetzen da Altuberen legea, baina aditza azkeneko lekuan dago, perpausa luzetxoa dela. Komeni zaigu "galdegaia+aditza" bikotea aurrerago erabiltzea:

(7a.) *Kandelario*
***Gogoangarriak*** *[dira] 1873'garren urteko otsailaren lehenengo egunak;*

edo:

(7b.) *Kandelario*

*1873'garren urteko otsaileAN* ***gogoangarriak*** *[dira] lehenengo egunak;*

edo:

(7c.) *Kandelario*

*1873'garren urteko otsaileAN lehenengo egunak* ***gogoangarriak*** *[dira];*

Uste dut hiru aukerok jatorrizkoak baino errazago irakurtzen direla, baita (7c.)a ere, non aditza ez baitut aurreratu eta aldaketa bat egin baitiot jatorrizko perpausari (-ko> -an). Esplika dezadan hobeto; eta, horretarako, aldera ditzagun ondoko perpaus biok:

– Urlia [Arranondoko Arranegi plazako 2 zenbakian] jaio zen
– Urlia [Arranondon][Arranegi plazako 2. zenbakian] jaio zen

Lehenengo perpausean NON sintagma osoa batera irakurri behar da eten barik; bigarrenean, ostera, sintagma bakarra barik bi daude, eta lehenengo sintagmaren eta bigarrenaren artean etentxo bat egiten da, arnasalditxo bat, atsedenalditxo bat. Eta horrek eragiten du bigarren perpausa errazago, nasaiago irakurtzea lehenengoa baino. Era berean, aztertzen ari garen perpausetan:

(7.): [*1873'garren urteko otsailaren lehenengo egunak]* ***gogoangarriak*** *[dira];*

(7c.)*: [1873'garren urteko otsaileAN][lehenengo egunak]* ***gogoangarriak*** *[dira];*

arrazoi berberengatik (7c.)a errazago irakurtzen da (7.)a baino.

Egin dezagun jauzi 8. perpausera:

(8.) *Bi ahizpatxoak*

*Garizumako gau batean Irigaraiko sukaldean, Mari Errosa, hirurogeitamar urteko amona, [ari zen]* ***erakuspena erakusten****, bere bi ilobatxo Josepa eta Kataliñi.(Ipuinak,166or.)*

Perpaus horretan ez da betetzen galdegaiaren legea. Galdegaia ipiniz gero bere leku kanonikoan honela geratuko litzateke perpausa:

*(8a) Bi ahizpatxoak*

*Garizumako gau batean Irigaraiko sukaldean, Mari Errosa, hirurogeitamar urteko amona,* ***erakuspena erakusten*** *[ari zen] bere bi ilobatxo Josepa eta Kataliñi.*

Jatorrizkoa baino nekezago irakurtzen da, baina nekezen ondoko aukera, nahiz eta bete galdegaiaren legea:

*(8b.) Bi ahizpatxoak*
*Garizumako gau batean Irigaraiko sukaldean, Mari Errosa, hirurogeitamar urteko amona bere bi ilobatxo Josepa eta Kataliñi* ***erakuspena erakusten*** *[ari zen].*

Aukera hori baino hobea hurrengoa da:

(*8c.) Bi ahizpatxoak*
*Garizumako gau batean Irigaraiko sukaldean, Mari Errosa, hirurogeitamar urteko amona bere bi ilobatxo Josepa eta Kataliñi [ari zen]* ***erakuspena erakusten***

Nik denetarik nahien dut jatorrizko perpausa.

Astin dezagun 9. perpausa

(9.) *Artobero eta porrot*
*[Jaio zen] Zoyetako baserrian* ***haur eder bat****, zeinari bataioan jarri zioten izena Arturo.(Ipuinak,181or.)*

Perpaus horretan galdegaia ez egoteaz gain aditzaren aurrean, ez dago ezta aditzaren hurrengo lekuan ere, ezpabere, aditzaren ondorengo bigarren lekuan. Ipin dezagun galdegaia aditz aurrean:

(9a.) *Artobero eta porrot*
*Zoyetako baserrian* ***haur eder bat*** *[JAIO ZEN] zeinari bataioan jarri zioten izena Arturo.*

Jatorrizko hasiera alderatuz gero (9a.) aldaerarekin, gurago dut lehenengoa, batetik, aditza aurrerago edukitzeak baitakarkio errazago prozesatzea; bestetik, kohesio hobea baitago jatorrizkoan ***haur eder bat*** sekuentzia eta *zeinari* elementuaren artean.

Edozein modutan ere, aditza jar liteke beste kokaleku batean ere:

(9b.) *Artobero eta porrot*
*Zoyetako baserrian [JAIO ZEN]* ***haur eder bat,*** *zeinari bataioan jarri zioten izena Arturo.*

Perpaus horretan ere ez da gordetzen Altuberen legea, baina errazago irakurtzen da (9a.)a baino, batetik, aditza aurrerago duelako eta, bestetik, kohesio hobea dagoelako lehenago aipaturiko osagaien artean. Badago beste era bat ere, galdegaia aurrerago eroanda:

(9c.) *Artobero eta porrot*

*[JAIO ZEN]* ***haur eder bat*** *Zoyetako baserrian, zeinari bataioan jarri zioten izena Arturo.*

Perpaus jorragai horretan ere (9.) bada, hasiera perpausaz gainera, beste bat, mendekoa: "*zein ...-(e)n*" formula erabiltzen du, eta ezin interesgarriago da. Izan ere, aditzak (*jarri zioten*) ez du galdegaia (*Arturo*) aurrean, atzean baino. Baina inork pentsa ez dezan hurrenkera hori, "aditza (*jarri zioten*)-galdegaia (*Arturo*)", bitxia dela idatzizko tradizioan, beste adibide bat ipiniko dut hemen *Asisco Lorea* izeneko liburutik hartua, Krispin Beovide azpeitiarrak idatzia 1.985ean (neuk ipini dut euskara batuan):

*Hona zergatik haur lehenen jaioari ipini zioten izena Klara. (73 or.)*

Itzulita Urruzunoren perpausera, normalean, elkarrekin trukatuz gero ere *Arturo* eta *izena* osagaiak, jatorrizkoa bezain txarto legoke askorentzat:

(9d.) *Artobero eta porrot*

*[Jaio zen] haur eder bat Zoyetako baserrian, zeinari bataioan jarri zioten* ***Arturo izena****.*

Baina ***izena Arturo*** sekuentzia ipiniz gero dagoen hurrenkeran aditzaren aurretxoan, berari inkatuta, denontzat-edo dago onargarri:

(9e.) *Artobero eta porrot*

*[Jaio zen] Zoyetako baserrian haur eder bat, zeinari bataioan* ***izena Arturo*** *[JARRI ZIOTEN].*

Eta denok onartuko genuke ***izena*** eta ***Arturo*** osagaiak elkar trukatuta lekuz:

(9f.) *Artobero eta porrot*

*[Jaio zen] Zoyetako baserrian haur eder bat, zeinari bataioan* ***Arturo izena*** *[JARRI ZIOTEN].*

Nik neuk ez daukat ezer aurkezturiko hiru aukeren kontra, ezta, jakina, jatorrizkoaren kontra ere. Nik jatorrizko perpausaren antzekoak behin baino gehiagotan entzun izan diet hiztunik jatorrenei, baita, jakina, beste hiru aukeren antzekoak ere. Hiru aukerok eta jatorrizkoa multzo bitan sailka daitezke esangura aldetik, esanahi berekoak multzo banatan jarrita:

*[jarri zioten]* ***Arturo izena***
***Arturo izena*** *[jarri zioten]*

*izena* ***Arturo*** *[jarri zioten].*
[jarri zioten] izena **Arturo**.

Astin dezagun 10. perpausa:

(10.) *Ijito baten suertea*
*Aritxulegiko mendi gainean barruan [doaz] bi ijito* ***hizketan****:(Ur-zale baten ipuiak,83or.)*

Hor ere ez da betetzen galdegaiaren legea. Gainera, ez dago aditzaren hurrengo lekuan, hurrengoaren hurrengo baizik. Hona hemen zelan geratuko litzatekeen perpausa galdegaia ipiniz gero aditz aurrean:

(10a.) *Ijito baten suertea*
*Aritxulegiko mendi gainean barruan bi ijito* ***hizketan*** *[DOAZ]*

Jatorrizko perpausa errazago prozesatzen da aldaera (10a.)a baino, aditza aitzinago dago-eta. Badago beste aukera bat ere, hirugarrena:

(10b.) *Ijito baten suertea*
*Aritxulegiko mendi gainean barruan bi ijito[DOAZ]* ***hizketan***

(10b.) hori errazago irakurtzen da (10a.)a baino (biotan azkenak betetzen du galdegaiaren legea).

Azter dezagun azkeneko perpausa:

(11.) *Gabon gaua*
*Aspalditxoan* ***ilun*** *[zihoazen] egunak Irunetako barrunbean. (Sasiletrau baten ziria, ta abar, 45or.)*

Perpaus hori dagoenean bikain dago denontzat.

**D.** Heldu da balantzea egiteko ordua. Labur zurrean, ondorio bi ateratzen ditut nagusiki: bata, eta helduta artikuluaren gai nagusiari, idazleak non kokatzen duen galdegaia, 11 perpausetatik 6tan ageri da galdegaia aditzaren ostean. Bestela esateko, %60an hausten du galdegaiaren legea. Beste ondorioa, galdegaia elementu bakarra eta txikerra izan arren, aditz ostean ateratzen zaio idazleari, eta zertan esanik ez, galdegaia luzea bada. Ikusiak ikusita, zerk du lehentasuna, galdegaiak ala aditzak? Ez da inportanteago aditza ahalik aurreren kokatzea, galdegaiaren legea betetzea baino?

### *2. Jean Duvoisin*

**A.** Duvoisinen produkziotik liburu bakarra aztertuko dut, Juan San Martinek prestatua: Baigorriko zazpi liliak. Berton jorratuko ditut perpaus hasiera guztiguztiak, denak daude-eta baiezka.

Argi gera dadin zelako euskara ona darabilen Duvoisinek, hona hemen zelako laudorioak egin zizkioten kritikari gain-gaineko bik haren euskarari:

Villasantek bere *Historia de la literatura vasca*n Hiriat-Urruty iparraldeko idazle handiaren aipamen bat jasotzen du zelako euskara baliatzen duen Duvoisinek:

> *Hiriart-Urruty, el célebre director del semanari Euskalduna, solía confesar que fue la lectura de este hermoso libro de Duvoisin [Laborantzako liburua] lo que le reveló las virtualidades prodigiosas de la lengua vasca. (190 or.)*

Mitxelenak bere *Historia de la literatura vasca*n bikaintzat jotzen du Duvoisinek Bibliaren itzulpena:

> *(...) hombre ilustrado y meticuloso, a quie se debe una excelente traducción labortian de la Biblia completa: Bible Saindua edo Testament Zahar eta Berria (Londres, 1859-1865). (130 or.)*

Inork gura badu liburuaren historitxoaren berri izan, hona hemen laburpen bat: behin batean arto-xuritzeak ziren Baigorriko jauregi zaharrean, eta bertara batu ziren, bertzeak bertze, zazpi neskatxa deitzen zietenak Herriko Zazpi-Liliak. Baigorriko herjaunak agindu zien aipatu neskatxei zeinek polikienik kontatzen zuen kondaira bat, hari dote on bat emango ziola. Eta horrela, zazpi neskatxek kontatu zuten kondaira bana, eta kondairok osatzen dituzte hain zuen ere liburutxo honen 7 parteak.

OHARRA: Liburuaren lehenengo partean sarreratxo bat ageri da, lehenengo neskatxaren kondairaz gainera. Hortaz, bertan testu hasiera bi daude: bata, sarrerarena; bestea, lehen kondairarena.

**B.** Lehenengo eta behin egin dezagun zerrenda bat zeintzuk hasiera perpaus ditudan aztergai (Eurok ahaleginean euskara batuan ipini ditut, aditzak kortxete artean, eta galdegaiak beltzean):

***Aditz kopulatibo bidezkoak***

> *(0.) Sarrera*
> *Behialako egunetan, behin batez, Baigorriko jauregi zaharrean [ziren]* ***arto-xuritzeak***.(17or.)

***Aditz predikatibo bidezkoak***

> *(I.) Azeria, belea eta mandozaina*
> *Egun batez, Borjatto azeria (azeri guztiek Borjatto dute izena) eguzkitara [zegoen]* ***berotzen*** *(18or.)*

> *(II.) Hartzak nola galdu zuen buztana*
> *Gana Leizarazukoa isildu zenean, herjaunak eta han ziren guztiek [laudatu zuten]* ***boz batez*** *(23or.)*

*(III.) Nola elkarrenganik berezi ziren lar-abereak eta etxe-abereak?*

***Bere aldian** [mintzatzera doa] Geraxane Iriberrikoa, neskatxa gazte pinpirrina(29or.)*

*(IV.) Tartaroa*

*Orain **Etxeberri Mokozaingoaren mintzaldia** [dugu](39or.) .*

*(V.) Bitartaroa*

*Orduan [xutitu zen] **Fermina Leizpaz-Jauregikoa**, eta guztiei agur eginik, mintzatu zen honelaxe:(45or.)*

*(VI.) Ithurralaba*

*Ferminaren ondotik, [etorri zen] **Martha Okhilenberrokoaren aldia**. (53or.)*

*(VII.) Athano*

*Azkenik [mintzatu zen] **Maria Etxauzekoa**, herriko zazpigarren Lilia.(61or.)*

*(VIII.) Herjaunaren hitzak*

*Herriko Zazpi Liliek [akabatu zutenean] **zeinek bere kondaira**, han ziren guztiek ez zuten aski aho haien laudoriaren egiteko(73or.) .*

Ikusten denez, 9 hasiera perpausetatik 7tan galdegaia ez dago aditzaren ezkerretara, Altuberen legeak agintzen duenez. Urruzunoren adibideetan ageri badira perpausak aditza dutenak lehenengo kokalekuan, Duvoisinen adibideetan ez dago perpausik hasten denik ez aditz sintetikoz ez aditz perifrastikoz. Baina bada adibide bat, komentagarria, (VI.)a, zeinetan aditza baitator koma ostean:

*(VI.) Ferminaren ondotik, [etorri zen] **Martha Okhilenberrokoaren aldia**.*

Zerrendako hasiera perpaus guztiak ezin errazago irakurtzen dira, salbuespen barik, bai galdegaiaren legea errespetatzen dutenak bai osterantzekoak ere.

**C.** Jorra ditzagun banan-banan perpaus. Hona hemen lehenengo perpaus aztergaia:

*(0) Sarrera*

*Behialako egunetan, behin batez, Baigorriko jauregi zaharrean [ziren] **arto-xuritzeak**. .*(17or.)

Ez du betetzen galdegaiaren legea. Delako legearen arabera ipiniz gero, honela geratuko litzateke perpausa:

*(0a.) Sarrera*

*Behialako egunetan, behin batez, Baigorriko jauregi zaharrean* ***arto-xuritzeak*** *[ZIREN]*

Aditza lar atzera geratu da, eta nekagarritxo irakurtzen da perpausa. Bada beste era bat errazagoa, errespetatuta galdegaiaren legea, baina aditza aurrerago ekarrita:

*(Ob.)*

*Behialako egunetan, behin batez,* ***arto-xuritzeak*** *[ZIREN] Baigorriko jauregi zaharrean.*

Hor, "Baigorriko jauregi zaharrean" sekuentzia aditz atzera pasa dut, eta galdegaia aditz aurrean ipini. Beste era honetara ere idatz zezakeen idazleak, aditz atzera aldatuta galdegaia:

*(Oc.)*

*Behialako egunetan, behin batez, [ZIREN]* ***arto-xuritzeak*** *Baigorriko jauregi zaharrean.*

Hor, askoren harrigarri aditz aitzinean dago koma, baina gero ikusiko dugunez, gauza bera jazotzen da (VI.) perpaus hasieran.

Pasa gaitezen bigarren perpausera:

*(I.) Azeria, belea eta mandozaina*

*Egun batez, Borjatto azeria (azeri guztiek Borjatto dute izena) eguzkitara [zegoen]* ***berotzen****(18or.)*

Ez du betetzen Altuberen legea. Honek, dakigunez, honela paratuko luke perpaus hori:

*(Ia.) Azeria, belea eta mandozaina*

*Egun batez, Borjatto azeria (azeri guztiek Borjatto dute izena) eguzkitara* ***berotzen*** *[zegoen]*

Aldaera hori alderatuz gero perpaus jatorrizkoarekin, nekeztxoago irakurtzen da, baina ez dago alde handiegirik bien artean.

Igaro gaitezen hirugarren perpausera:

*(II.) Hartzak nola galdu zuen buztana*

*Gana Leizarazukoa isildu zenean, herjaunak eta han ziren guztiek [laudatu zuten]* ***boz batez***

Hor ere galdegaia aditz ostean dago. Askok honetara emango lukete:

*(IIa.) Hartzak nola galdu zuen buztana*
*Gana Leizarazukoa isildu zenean, herjaunak eta han ziren guztiek* ***boz batez*** *[LAUDATU ZUTEN].*

Penazago irakurtzen da jatorrizkoa baino, bana alde handi barik. Badago, gura izanez gero, aldaera hobetzerik; ken dakioke karga, zama. Horretarako, gurataez aditza aurrerago eroan behar da; eta, ondorioz, beste osagai bat pasa aditz ostera:

*(IIc.) Hartzak nola galdu zuen buztana*
*Gana Leizarazukoa isildu zenean,* ***boz batez*** *[laudatu zuten] herjaunak eta han ziren guztiek*

Hor subjektua (*herjaunak eta han ziren guztiek*) aditz atzera dago aldatuta, lantzean behin gertatzen denez. Edozein modutan, subjektua aditz aurrean ipini ohi da.

Egin dezagun salto hurrengo perpausera:

*(III.) Nola elkarrenganik berezi ziren lar-abereak eta etxe-abereak?*
***Bere aldian*** *[mintzatzera doa] Geraxane Iriberrikoa, neskatxa gazte pinpirrina(23or.)*

Perpaus horretan errespetatzen da Altuberen legea. Bikain dago, aditza oso aurrera du-eta. Subjektua pasaz gero aditz aurrera, lehenengo lekura, lorrindu egingo nuke zer edo zertxo perpausa:

*(IIIa.) Nola elkarrenganik berezi ziren lar-abereak eta etxe-abereak? Geraxane Iriberrikoa* ***bere aldian*** *[mintzatzera doa], neskatxa gazte pinpirrina*

Neketxoago irakurtzen da aldaera hori jatorrizkoa baino, aditza atzeragotxo dago-eta. Beste aldaera bat ere aurkez daiteke:

*(IIIb.) Nola elkarrenganik berezi ziren lar-abereak eta etxe-abereak*
*Geraxane Iriberrikoa [MINTZATZERA DOA]* ***bere aldian****, neskatxa gazte pinpirrina*

Nire ustez jatorrizkoa bezain erraz irakurtzen da, baina ez dago askoren gustukotzat, galdegaia baitu aditz gibelean.

Egin dezagun jauzi ondoko perpaus aztergaira:

*((IV.) Tartaroa*
*Orain* ***Etxeberri Mokozaingoaren mintzaldia*** *[dugu](39or.).*

Betetzen du Altuberen legea, eta, nahiz eta aditza azkeneko kokalekuan eduki, bikain dago, perpausa laburra da-eta, motza. Baina galdegaia aditz ostean ipinita ere jatorrizko besteko bikain legoke:

*(IVa.) Tartaroa*
*Orain [DUGU]* ***Etxeberri Mokozaingoaren mintzaldia****.*

Jorra dezagun ondorengo perpausa:

*(V.) Bitartaroa*
*Orduan [xutitu zen]* ***Fermina Leizpaz-Jauregikoa****, eta guztiei agur eginik, mintzatu zen honelaxe:(45or.)*

Galdegaia aditz ostean dauka, errespetatzen ez duela galdegaiaren legea. Horren arabera honela beharko luke:

*(Va.) Bitartaroa*
*Orduan Fermina* ***Leizpaz-Jauregikoa*** *[XUTITU ZEN], eta guztiei agur eginik, mintzatu zen honelaxe:*

Ez badago ere alde handirik batetik bestera, jatorrizkoa erraztxoago irakurtzen da, aditza aurrerago dauka-eta.

Iker dezagun (VI.) perpausa:

*(VI.) Ithurralaba*
*Ferminaren ondotik, [etorri zen]* ***Martha Okhilenberrokoaren aldia****. (53or.)*

Hor ere galdegaia aditz gibelean dago. Ipiniz gero aditz aurrean:

*(VIa.) Ithurralaba*
*Ferminaren ondotik,* ***Martha Okhilenberrokoaren aldia*** *[ETORRI ZEN].*

Nik uste, aldaera hori nekagarritxoago irakurtzen da jatorrizkoa baino, aurreko perpausean esandako arrazoi berberarengatik: aditza gibelerago dago.

Astin dezagun (VII) perpausa:

*(VII.) Athano*
*Azkenik [mintzatu zen]* ***Maria Etxauzekoa****, herriko zazpigarren Lilia. (61or.)*

Agerian dagoenez, galdegaia aditz atzean dago. Berau paratuz gero aditz aurrean:

*(VIIa.) Athano*
*Azkenik* ***Maria Etxauzekoa*** *[MINTZATU ZEN], herriko zazpigarren Lilia.*

Hor galdegaia eta beraren aposizioa elkarrengandik urrunduta daude, euren artean lotura eskasagoa da, kohesio txarragoa. Hori saihesteko, batzuek honetara sekuentziatuko lukete perpausa:

*(VIIb.) Athano*

*Azkenik **Maria Etxauzekoa**, herriko zazpigarren Lilia, [MINTZATU ZEN].*

Aldaera hori ez da batzuon gogoko, aditza atzeregi dauka-eta (Beste batzuentzat ez da egokia aposizioa paratzea galdegai-lekuan). Nik nahien, jatorrizko perpausa dut.

Jorra dezagun azkeneko perpausa:

*(VIII.) Herjaunaren hitzak*

*Herriko Zazpi Liliek [akabatu zutenean] **zeinek bere kondaira**, han ziren guztiek ez zuten aski aho haien laudoriaren egiteko. (73or.).*

Hor ere ez da betetzen galdegaiaren legea, galdegaia aditz atzean dago-eta. Aurrean ipiniz gero penaztxo irakurriko litzateke:

*(VIIIa.) Herjaunaren hitzak*

*Herriko Zazpi Liliek **zeinek bere kondaira** [AKABATU ZUTENEAN], han ziren guztiek ez zuten aski aho haien laudoriaren egiteko.*

D. Egin dezagun balantzea. Lotuta soilik artikuluaren helburu nagusiari, zenbatetan hausten duen idazleak galdegaiaren legea hasiera perpausetan, 9 kasuetatik 7tan egiten du, alegia, %80an. Eta legea betetzen ez dituen kasuetan aditza hasieratik hur-hur darabil: bigarren eta hirugarren kokalekuan. Perpaus hasiera guztiak ezin errazago irakurtzen dira, galdegaiaren legea betetzen denean zein ez. Are gehiago, ikusita zelako kasuistika duten galdegaia errespetatzen duten perpausak, esango nuke esan, idazleak ez zukeela batere arazorik izango galdegaiaren legea errespetatzen duten perpausetan ere galdegaia aditz ostera aldatzeko. Ondorio nagusitzat esango nuke idazleak, orokorrean, ez zuela lehentasuntzat aditzaren aurrean ipintzea galdegaia, ezpabere, aditza albait aurreren kokatzea.

BALANTZE OROKORRA (idazle biena)

1. Hasiera perpaus gehienetan galdegaia ageri da aditz ostean, eta horrela, hautsi egiten dute galdegaiaren legea. Errazago irakurtzen dira galdegaia aditz aitzinean paratuta baino.
2. Osterantzeko perpausak ere, alegia, galdegaiaren legea betetzen duten hasiera-perpausek ere, erraz irakurtzen dira, aditza oso aurrera dute-eta.
3. Kontuan hartuta idazle biok, perpaus gehienetan galdegaia ipin daiteke aditz aitzinean zein gibelean, baina irakurle batek beti irakurriko du errazago aditza aurrean dutenak -artikulu hasieran eman dut arrazoia-, salbu ez badago ohituta irakurtzen artikulu-liburuak informazioa dutenak atzekoz aurrera.

4. Galdegaiaren luze-laburrak zelan eragiten duen galdegaia kokatzeko aditz aurrean edo atzean, horri dagokionez, galdegaia txikerra BADA aditzaren ezkerretara zein eskumatara erabiltzen dute idazleek; galdegaia luzea edo konplexua bada, beti aditz ostean.
5. Idazleotan, nire ustez, galdegaia aditzaren aurrean ipintzeak baino garrantzia handiago du aditza perpausean ahalik eta aitzinen erabiltzeak.

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

***BIBLIOGRAFIA***


Altube, S. (1975): *Erderismos*, Euskaltzaindia, Bermeo.

Azurmendi, J. (1997): "*Orixeren frasekera: ritmoa*", in *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin.

Beovide, K. (1992): *Asisko lorea*, EEE, Zarautz.

Duvoisin, J. (1987): *Baigorriko zazpi liliak*, Elkar, Donostia.

Euskaltzaindia (1987): "Hitz ordena", *Euskal Gramatika lehen urratsak-1,* (Eranskina).

Hidalgo, V. (1995): *Hitzen ordena euskaraz* tesi doktorala.

————, (1995): "Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, S. V. O.?", *Fontes*, **70**.

————, (1996): "Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari", *Fontes*, **71**.

————, (1994): "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats baten", *Zutabe*.

————, (1994): "Euskararen hitz ordena librea", *Zutabe*.

————, (1994): "Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran", *Zutabe*.

————, (2002): "Hitzen ordena esaldian", *Senez*.

Irigoyen, I. (1980): "Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak", *Euskera*, **XXV, 2**.

Mitxelena, K. (1988): *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia.

————,(1981): *Galdegaia eta mintzagaia euskaraz. Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*, Univ. de Deusto.

Osa, Eusebio, (1990): *Euskararen hitzordena*, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Urruzuno, P. M. (1965): *Ur-zale baten ipuiak*, Auspoa, Donostia.

————, (1973): *Sasiletrau baten ziria, eta abar*, Auspoa, Donostia.

————, (1988): *Ipuinak*, Klasikoak, Zarautz.

Villasante, L. (1979): *Historia de la literatura vasca*, Arantzazu.

————, (1975): "Hitzaurre gisa", in S. Altube, *Erderismos*, Euskaltzaindia.

————, (1980): *Sintaxis de la oración simple*, EFA, Serie Eleizalde.

Zabala I. (2.000): "Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan", *Ekaia*, **12**.

Zubimendi J.R. eta Esnal, P. (1993): *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritza.

## GALDEGAI-LEKUA TESTU HASTAPENETAN (eta II)

### *O. SARRERA*

Aurreko artikuluan aztertu nituen idazle bi: bata, P. Miguel Urruzuno, eta, bestea, Jean Duvoisin. Lehenengo idazlearekin azterketa bat egin nuen haren hiru liburuena (*Ipuinak*, *Ur-zale baten ipuiak* eta *Sasiletrau baten ziria*) eta bigarrenarekin batena (*Baigorriko zazpi liliak*). Idazle bataren zein bestearen liburuetan jorratu nituen narrazioetako lehenengo perpausak, hasierakoak, ea egileek zelan erabiltzen zituzten, non kokatzen zuten galdegaia, aditz aurrean edo atzean.

Oraingo artikulu honetan jorratuko ditut, aurrekoan ez legez, ahozko testuak iparraldeko hainbat hiztunenak, eta, horretarako, hartuko ditut ipuin batzuk Wendworth Websterenak, zeintzuek osatzen baitute egilearen ipuin bilduma batean lehenengo liburua (Ipuinak-I), eta hemen jorratuko ditut hasiera perpausak, aitzineko artikuluan moduan.

Artikulu honetan informazio bat eman gura dut, eman ez nuena lehenengo artikuluan, jakingarria baita irakurlearentzat (eta denontzat). Bittor Hidalgok artikulu bat argitaratu du oraintsu *Senez* aldizkarian (25. zenbakia) gaitzat hartuta zer kokaleku duen galdegaiak perpausean, eta, horretarako, aztertu ditu idazle klasikoak eta gaur eguneko euskara idatzia. Hona hemen haren emaitzak:

GALDEGAIAREN KOKAGUNEA

| | Aditz ostean | Aditz aurrean | Bestela |
|---|---|---|---|
| Tradizioko euskaran | % 79,0 | % 10,8 | % 10,2 |
| Gaurko euskaran | % 20,1 | % 51,2 | % 28,7 |

Datuok begi bistan, argi geratzen da zelako desegokia den Altuberen legea, galdegaiaren legea (galdegaia kokatu behar da perpaus barruan aditzaren aurrean, eskuman duela aditza, beroni inkatu-inkatuta). Hidalgok, erdibide bat-edo aurkitu guran, hona hemen zelako proposamena egin duen:

1. Aditz aurrean erabiltzea galdegaia, laburra bada batez ere.
2. Aditz atzean erabiltzea galdegaia, luzea bada batez ere.

Berriro helduta gaiari artikulu honetan, berton, aurrekoan legez, helburu bi ditut nagusi:

A. Erakutsi gura dut ez dela egokia Altuberen legea iparraldeko hiztunentzat, *Ipuinak-I*ekoentzat (bertoko ahozko testuak Wendworth Websterrek jaso zituen eta X. Arbelbidek atondu ditu).

B. Manipulatu gura ditut hasiera perpausok, beste kokaleku batzuk eman aditzari eta galdegaiari, eta aztertu, operaziook zelan eragiten dioten komunikagarritasunari perpausean: zein osagai hurrenkera irakurtzen den errazen eta nekezen, eta zergatik.

Helburuok betetzeko, urrats bi emango ditut artikuluon: lehenengo urratsean jorratuko ditut hiztunen adibideak, eta bigarrenean emango ditut konklusiogomendioak. Ipuinok, esan dut gorago, iparraldekoak dira, orain dela ehunen bat urte jasoak, eta zelan entzun hala daude jasota. Ni ahalegindu naiz ahalean batuan ipintzen, bertako formak errespetatuta (egin ez badut okerrik), baina aldi berean argi uzten hegoaldeko irakurleentzat ere (berba batzuen ondoan, parentesia barruan eman ditut hegoaldeko berbak). Bestalde, batzuetan ez dut jakin zelan eman batuan, eta daudenetan utzi ditut. Edozein modutan, nik uste, erraz ulertuko dute euskara irakasleek edo irakurle onek.

## *1. ADIBIDEAK AZTERTZEN*

Aurreragarri esan dezaket hasiera perpausetan galdegaia doala aditz atzean, adibide guzti-guztietan joan ere, eta hori dela-eta, galdegaiaren legea desegokia gertatzen dela ipuinotako mintzatzaileontzat. Hala jazotzen da *ba-* aurrizkia ageri delako hasiera perpaus guztietan, bitan izan ezik, eta berak eragiten du aditz atzean paratzea galdegaia. Gauzak horrela, alegia, ikusita dagoeneko eman ditudala emaitzak zelan erabiltzen duten galdegaia iparraldeko hiztun askok hasiera perpausetan, erabaki dut azterketa zabaltzea lehenengo perpausetara ez eze baita bigarrenetara eta hirugarrenetara ere, gutxienez.

Perpausetan seinalatu egingo dut zein den aditza eta zein galdegaia. Lehenengoa adieraziko dut kortxete bidez, eta, bigarrena, beltzez. Normalean seinalizaziook lehenengo perpausean soilik egin beharko nituzke, baina, gorago esan legez, hasiera perpausek ez dutenez ia jokorik ematen (denetan galdegaia aditz atzean), bigarren eta hirugarren perpausak ere, gutxienez, emango ditut. Hori dela-eta, galdegaia eta aditza askotan ez ditut seinalizatuko lehen perpausetan; baina bai, ostera, bigarrenetan. Zer egingo dudan, zelan jokatuko, unean-unean adieraziko dut.

Ipuin hasiera aztergai guztiak (45) ez ditut banan-banan aztertuko, multzoka baino. Horretarako, irizpide batzuk behar, eta nagusitzat erabiliko dut aditz mota, aditz kopulatiboa (izan) den edo predikatiboa (bestelakoak). Beste irizpide batzuk ere erabiliko ditut, hala nola, zelako formulaz hasten diren perpausak, eta abar. Hona hemen sailkapen nagusia:

A. Lehen perpausean aditz nagusia predikatiboa dago
B. Lehen perpausean aditz nagusia kopulatiboa dago

Lehenengo sailean ez dago azpisailkapenik, adibide bi baino besterik ez daude-eta; bigarrenean, ostera, gainerako adibideak daude, 43 hain zuzen ere. Hor beste sailkapen batzuk egin behar dira:

B.1. Erreparatuta zelan dauden osatuta hasiera perpausak.
- B.1.1. Hasten dira *Behin* formularen bidez
- B.1.2. Hasten dira *Asko (diren) bezala* formularen bidez
- B.1.3. Hasten dira *Ba-* aurrizkiaren bidez
- B.1.4. Hasten dira *Behin batez* formularen bidez

B.2. Erreparatuta zelan dauden osatuta bigarren perpausak.
- B.2.1. Mintzagaia + komentarioa eskema
- B.2.2. *Eta* juntagailua

B.3.- Erreparatuta zelan dauden osatuta hirugarren perpausak.
- B.3.1. Osatuta dago *ba-* aurrizkiaz
- B.3.2. Ezezka dago
- B.3.3. Galdegaia dauka aditz aurrean
- B.3.4. Galdegaia dauka aditz ostean
- B.3.5. Perpaus konpletiboa dauka

Egin dugularik sailkapen osoa, has gaitezen sailean-sailean adibideak jorratzen:

A. LEHENENGO PERPAUSEAN ADITZA PREDIKATIBOA DAGO

Adibide bi besterik ez dira ageri:

JESUKRISTO ETA SOLDADU ZAHARRA
Behin Jesu Kristo zihoalarik bere dizipuluekin Jerusalemeko alderat, [errekontratu zuen] **gizon zahar bat** eta galdatu zion **karitatea**. (87 or.)

BELTZUNTZE ETA HERENSUGEA
Denboraz Kanboko inguruetan [kausitzen zen] **jauregi bat Beltzuntz deitzen zena**. Jauregiko nagusiak bazuen seme bat bakarra. (155 or.)

Lehenengo perpausotan aditz ostean daude galdegaiak (beltzez), legeak aldarrikatu ez legez, bestera. Betez gero galdegaiaren legea, honela geratuko lirateke testuok:

JESUKRISTO ETA SOLDADU ZAHARRA
Behin Jesu Kristo zihoalarik bere dizipuluekin Jerusalemeko alderat, **gizon zahar bat** [errekontratu zuen] eta **karitatea** galdatu zion. (87 or.)

BELTZUNTZE ETA HERENSUGEA
Denboraz Kanboko inguruetan **jauregi bat Beltzuntz deitzen zena** [kausitzen zen]. Jauregiko nagusiak bazuen seme bat bakarra. (155 or.)

Azkeneko testuan askok honela emango lukete lehenengo perpausa:

BELTZUNTZE ETA HERENSUGEA
Denboraz Kanboko inguruetan **jauregi bat** [kausitzen zen] Beltzuntz deitzen zena. Jauregiko nagusiak bazuen seme bat bakarra. (155 or.)

Azkeneko aldaera hori, lehenengoa ez legez, jatorrizko perpausa besteko ondo dago emanda komunikagarritasunaren aldetik, hura bezain erraz irakurtzen da-eta. Azkeneko aldaeran, ikusten denez, galdegaitzat jo dugu **jauregi bat** soilik, eta gainerakoa (komentarioa) aditz ostean kokatu dugu (ikus honelako adibide (eta azalpen) gehiago B.2.1.ean). Jarraituta bigarren aldaeran, bigarren perpausean aditz ondoren dago galdegaia (*seme bat*).

B. LEHENENGO PERPAUSEAN ADITZA KOPULATIBOA DAGO

Mota honetan sartzen dira *izan* aditz kopulatiboa dutenak. Aditzari inkatuta ageri da *ba-* aurrizkia, eta galdegaia beti-beti ageri da aditz atzean. Hona hemen adibideak sailkatuta:

B.1. Erreparatuta zelan dauden osatuta hasiera perpausak

B.1.1. Lehen perpausa hasten da *behin* formularen bidez

TOM THUMBER
Behin omen [zen] **mutiko ttiki-ttiki bat**. Izena zuen **Ukhaitxo**. Egun batez amak bialdu zuen **behizain**. (85 or.)

ZILIZUGUAREN ISTORIGOA
Behin [baziren] asko munduan bezala jaun, **andre batzuk**.Ez [zuten] haurrik. Anitz nahi baitzuten bat izan, egiten dute **bellia**(botoa) joanen direla **Erromarat**. (109 or.)

ALARGUNA ETA BERE SEMEA
Behin [bazen] asko munduan bezala **alargun bat**. Bazuen seme bakar bat. Hain ona zen bere amarentzat non maite zuten elkar ezin erran bezala. (101 or.)

Lehenengo perpausotan aditz atzean daude galdegaiak (beltzez). Bigarren perpausei dagokienez, lehenengo testuan aditz ostean dago galdegaia (*Ukhaitxo*). Berau honela emango genuke gehienok gaur egun:

**Ukhaitxo** izena zuen

Bigarren testuan ezezka dagoenez bigarren perpausa, ez dugu aztertuko. Hirugarren testuan bigarren perpausak aditz atzean dauka galdegaia (seme bakar bat).

Hirugarren perpausei dagokienez, lehenengo testukoan aditz ondoren dago galdegaia (*behizain*). Aplikatuz gero galdegaiaren galdegaia honela geratuko litzateke hirugarren perpaus hori (galdegaia duela aditz aurrean):

(...)Egun batez amak **behizain** bialdu zuen.

Bigarren testuan hirugarren perpausak birritan hausten du galdegaiaren legea. Batetik, perpaus nagusiak aditz ostean dauka galdegaia (*bellia(botoa)*), eta, bestetik, mendeko perpausean ere, konpletiboa berau, aditz atzean doa galdegaia (*Erromarat*). Ipin ditzagun galdegai biok euren leku kanonikoetan, aditzen aurrean, gaur nagusiki egiten denez:

(...)Anitz nahi baitzuten bat izan, **bellia(botoa)** egiten dute **Erromarat** joanen direla.

Komunikagarritasunaren aldetik ez dago alde handirik jatorrizkotik aldaerara, baina ikusten dugunez, galdegaia, denik eta txikiena izanda ere, aditz ostean ere erabiltzen da, eta erabili ere perpaus nagusian zein menpean.

B.1.2. Lehen perpausa hasten da *asko munduan* formularen bidez

Adibide asko daudenez tituluko formula dutenak, azpisailkapen bat egin dut kontuan hartuta zelako aditz mota agertzen den bigarren perpausetan (perpaus horretantxe bakarrik seinalizatuko ditut galdegaia —beltzez— eta aditza —kortxetez—):

-EDUN/EDUKI adiztunak

APEZAK
Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuk. Apezek **afizio handia** [zuten] bisitan ibiltzen. (17 or.)

MAISTRUA
Asko munduan bezala bazen maistru bat. **Malur anitz** [izan du] bere bizian eta ez zen joaten gehiago biaietan. Eta egun guziez joaten zen kosta gainerat denbora pasa eta egun guztiez ikusten zuen suge handi bat. (117 or)

EROA
Asko munduan bezala bazen ama bat bere semearekin. Mutil hura **erotzat** [zeukaten] baina ez zen hala. (149 or.)

APEZ ATZIPAKORRA
Asko munduan diren bezala baziren jaun andreak. Jaunak [zuen] izena **Petarillo**. Ibiltzen zen ihizian. (35 or.)

Alde batera utzita lehenengo perpausak (denek dute galdegaia aditz ostean), ora diezaiegun bigarrenei. Lehenengo hiru testuetan galdegaia bere leku kanonikoan dago, aditz aurrean, aditzari pega eginda (**afizio handia**, **Malur anitz** eta **erotzat**). Bigarren testuan, alde batera utzita ezezkako perpausa, puntuaren ondoren perpaus juntatu bi datoz, eta batean zein bestean aditz atzean daude galdegaiak (*kosta gainerat eta suge handi bat*). Galdegaiok paratuz gero aditz aitzinean:

(...) Eta egun guziez **kosta gainerat** joaten zen denbora pasa eta egun **guztiez suge handi bat** ikusten zuen.

Zertan esanik ez dago aldaera nekeztxoago irakurtzen da jatorrizko perpausa baino.

Laugarren testuan bigarren perpausak galdegaia dauka aditz ostean, bigarren kokalekuan. Atzen perpausean ere aditz atzean dago galdegaia (ihizian). Galdegai biok ipiniz gero aditz aurrean:

(...) Jaunak **Petarillo** [zuen] izena. **Ihizian** ibiltzen zen.

-IZAN adiztunak

TARTARO ETA PETIT PERROQUET
Asko munduan bezala baziren ama-seme batzuk. **Arras miserableak** [ziren]. Semeak egun batez erran zion bere amari joan behar zuela ea zerbait irabaziko zuen. (123 or.)

AMA ETA BERE SEME ZOZUA
Asko munduan bezala bazen ama bat bere semearekin. Pobreak baitziren, mutiko hura handitu zenean nahi izan zuen **joan munduz mundu**. (165 or.)

Bazter utzita lehenengo perpausak (galdegaia dute aditz atzean), lehenengo testuan bigarren perpausak aditz aurrean dauka galdegaia. Hurrengo perpausean, hirugarrenean, aditzaren ondoren dago galdegaia, perpaus konpletiboa. Gainera, perpaus mendekoa ez dago aditzaren hurrengo lekuan, ezpabere bigarrenean. Gaur egun, perpaus osoa honela dabil nagusiki:

(...) Egun batez semeak bere amari joan behar zuela erran zion ea zerbait irabaziko zuen.

Alderatuz gero perpaus hori eta jatorrizkoa komunikagarritasunaren aldetik, ez dago dudarik zein irakurtzen den errazago: jatorrizkoa.

-BIZI IZAN adiztunak

ARRANTZALEA ETA BERE SEMEAK
Asko munduan bezala bazen arrantzale bat. [Bizi zen] **bere andrearekin**. Joan zen egun batez arrantzarat. (135 or.)

Bigarren perpausean galdegaia ez dago aditz aurrean, baizik eta ostean. Hirugarren perpausean ere aditz ostean dago galdegaia (*arrantzarat*). Galdegai bata nahiz bestea paratuz gero euren leku kanonikoetan, hona hemen zelako emaitza dugun:

ARRANTZALEA ETA BERE SEMEAK
Asko munduan bezala bazen arrantzale bat. **Bere andrearekin** [bizi zen]. **Arrantzarat** joan zen egun batez. (135 or.)

-JOAN adiztunak

MANDOA ETA BAKEZKO JUJA
Asko munduan bezala bazen tratulari bat. Egun batez [bazihoan] **merkaturat** bere mandoa arrautzez kargaturik. (189 or.)

TABAKIERA
Asko munduan bezala bazen mutiko bat. **Biaietan** [zihoan] eta bazihoalarik atzematen du tabakiera bat. (143 or.)

Testuotan alde batera utziko ditugu lehenengo perpausak (galdegaia daukate aditz atzean). Bigarren perpausetan lehenengo testuak aditz ostean dauka galdegaia (**merkaturat**); bigarrenak, ostera, aditz aurrean (**Biaietan**). Bigarren testuan hirugarren perpausak aditz atzean dauka galdegaia (*tabakiera bat*). Testu batean zein bestean ipiniz gero galdegai guztiak euren leku kanonikoetan, hona hemen emaitzak:

MANDOA ETA BAKEZKO JUJA
Asko munduan bezala bazen tratulari bat. Egun batez **merkaturat** [bazihoan] bere mandoa arrautzez kargaturik. (189 or.)

TABAKIERA
Asko munduan bezala bazen mutiko bat. **Biaietan** [zihoan] eta bazihoalarik **tabakiera bat** atzematen du. (143 or.)

-ERRAN adiztunak

HERENSUGEA
Asko munduan bezala bazen ama bat bere hiru semeekin. Zaharrenak [erran zion] **joan nahi zuela munduz mundu** sehi plaza bat atzeman arte eta emateko opil bat. (73 or.)

Bigarren perpausean aditz ostean dago galdegaia, perpaus konpletiboa. Berton perpausa ez da amaitzen aditz eta menderagailuaren bidez, gaur egun ohi denez. Galdegaiaren arabera honela beharko luke:

HERENSUGEA
Asko munduan bezala bazen ama bat bere hiru semeekin. Zaharrenak **munduz mundu joan nahi zuela** [erran zion] sehi plaza bat atzeman arte eta emateko opil bat. (73 or.)

Edo:

HERENSUGEA
Asko munduan bezala bazen ama bat bere hiru semeekin. Zaharrenak sehi plaza atzeman arte **munduz mundu joan nahi zuela** [erran zion] eta emateko opil bat. (73 or.)

Azkeneko aldaera okerraren okerra da komunikagarritasunaren aldetik. Beste gauza bat ere jakingarria dago aukeretan zein jatorrizkoan: beste perpaus konpletibo bat dago (*-t(z)eko* menderagailuduna), zeinetan galdegaia aditz ostean baitago; bestela, esateko, aditza (eman) eta semaforoa (*-t(z)eko*), *emateko*, ez daude azkeneko lekuan. Gaur eguneko ortodoxian honela beharko luke:

(...) eta **opil bat** emateko.

*-Ba-* aurrizkia daukatenak.

EROA
Asko munduan bezala, baziren jaun-andre batzuk. [Bazuten] **seme bat**. Baina arras gaixtoa eta eroa. Ez zuen gaixtakeriarik eta zaharkeriarik bertzerik egiten. Eta dezidatubatu (erabaki) zien igorri behar zutela. (79 or.)

ERREGE
Asko munduan bezala, baziren errege bat eta erregina bat. [Bazuten] **nexka bat**. Andre hura [eritzen da] eta arras txar zelarik erraten zien bere senarrari ez zedin ezkont haren iduriko norbaitekin bertzerik. (113or.)

HAMALAUR
Asko munduan bezala baziren ama-seme batzuk. Mutiko hark [bazuen] **hamalaur gizonek bezainbat indar**, baina jan behar zuen hamalaur gizonek bezainbat. (159 or.)

Testuotan aditz atzean dituzte galdegaiak lehenengo perpausek ez eze, baita bigarrenek ere. Lehenengo testuan laugarren perpausa ezezka dago. Bosgarrenean aditz ostean dago galdegaia, berau perpaus konpletiboa. Azken hau honela paratuko litzateke gaur egun:

Eta **igorri behar zutela** dezidatubatu (erabaki) zien

Bigarren testuari dagokionez, hirugarren perpausean ez dut uste galdegaia denik aditz aurrean dagoena, ezpabere, aditza bera da galdegaia. Gure erkidegoan honela esango genuke, nik uste: Andre hura eritu egiten da. Ondorengo perpausean aditz ostean dago galdegaia, perpaus konpletiboa. Galdegaiaren legearen arabera honela beharko luke:

(...) eta arras txar zelarik **bere senarrari ez zedin ezkont haren iduriko norbaitekin bertzerik** erraten zien.

Astakeriatxoa da. Hirugarren testuari dagokionez, bigarren perpausean aditz ostean dago galdegaia, perpaus konparatiboa. Gaur egun, ia ezelako salbuespen barik, honela erabiltzen da:

(...) baina hamalaur gizonek bezainbat jan behar zuen.

B.1.3. Lehenengo perpausa hasten da *ba-* aurrizkiaren bidez

EZKABI
Baziren, asko munduan bezala, ama bat eta seme bat. [Sortu zen] **ezkabiarekin** eta beti Ezkabi erraten zioten. (129 or.)

JOSE MARIA EROA
Baziren jaun-andreak eta haur ttiki bat. (97 or.)

Testu biotan lehenengo perpausek galdegaia daukate aditz ostean. Lehenengo testuan bigarren perpausak aditz ostean dauka galdegaia (**ezkabiarekin**), baina hirugarrenean aurrean (*Ezkabi*).

B.1.4. Lehenengo perpausa hasten da *behin batez* formularen bidez.

Multzo bi egingo ditugu hemen: batean erreparatuko diet soilik bigarren perpausei; bestean, hasiera perpausak perpaus juntatu (koordinatu) biz daudenez osatuta, bigarren perpaus juntatuei soilik erreparatuko diet.

B.1.4.1. Erreparatuta bigarren perpausei.

SORGINAK AKELARREAN
Behin batez bazen, munduan asko diren bezala, gizon gazte bat. Egun batez [joaten da] **kisulabe baterat** eta arratsean heldu dira sorginak. (63 or.)

GEZURRA ETA EGIA
Behin batez bazen emazte bat ezkondua, alargundua eta berriz ezkondua. Egun batez bere senarra lanean duelarik [heldu zaio] **gizon bat** eta erraten dio nondik heldu den. (95 or.)

ALARGUNTSA
Behin batez bazen jaun bat arras gaitza.**Hamabortz-hamasei aldiz [**alargundua zen]. (25 or.)

ANDRE BATEN HILTZEA
Behin batez, asko munduan diren bezala, bazen andre bat anitz aberatsa.Egun batez **eritasun handi batek** [hartu zuen] eta galdatu zuen hura hiltzen zenean, bere diru guztiak e(ra)mateko be(ra)rekin. (49 or.)

ARROSA
Behin batez bazen errege bat. [Bazituen] **bi alaba**; arras maite zituen eta alaba haiek beren aita maite zuten; eta errege hura egun batez deitua izan zen gerla handi batera; (5 or.)

ENUXENTA ETA ERGELA
Behin batez bazen emazteki bat. [Bazituen] **bi seme**, bat arras enuxenta eta bertzea arras ergela. Enuxent hura joan zen mutil. (65 or.)

DIRUA
Behin batez baziren bi jaun. Karrosan [bazituzten] **bi zaku dirurekin** eta oihanpe batean bazihoalarik errekontratzen dute gizon bat badoala idi larru bat burutik emana eta bi adarrak goiti. (61 or.)

Lehenengo testu bietan ez da betetzen galdegaiaren legea, aditz ostean daude- eta galdegaiak. Ipiniz gero galdegaiok euren leku kanonikoetan, hona hemen zelan geratuko liratekeen testuok:

SORGINAK AKELARREAN
Behin batez bazen, munduan asko diren bezala, gizon gazte bat. Egun batez **kisulabe baterat** [joaten da] eta arratsean heldu dira sorginak. (63 or.)

GEZURRA ETA EGIA
Behin batez bazen emazte bat ezkondua, alargundua eta berriz ezkondua. Egun batez bere senarra lanean duelarik **gizon bat** [heldu zaio] eta erraten dio nondik heldu den. (95 or.)

Heldurik lehenengo testuari, azken perpausean ere aditz atzean dago galdegaia (*sorginak*). Bigarren testuan azkeneko perpausean ere aditz gibelean dago galdegaia, mendeko perpausa, zehar-galdera (*nondik heldu den*).

Hirugarren eta laugarren testuetan betetzen da Altuberen legea, aditz aitzinean baitaude galdegaiak. Laugarren testuan hirugarren perpausean lehenengo lekuan dago aditza, eta gibelean galdegaia, perpaus konpletiboa (*bere diru guztiak e(ra)mateko be(ra)rekin*). Mendeko perpaus horretan, ondo erreparatuz gero, ez daude atzen kokalekuan aditza eta menderagailua (*e(ra)mateko*), gaur egun itsu-itsuan egin ohi denez.

Ondorengo hiru testuetan, multzoko azkenak (5., 6. eta 7.ak), aditz atzean daude galdegaiak (**bi alaba**, **bi seme** eta **bi zaku dirurekin**). Bosgarren testuan hirugarren perpausak errespetatzen du galdegaiaren legea, baita laugarren perpausean ere, baina ez bosgarrenean. Seigarren testuan hirugarren perpausean, aditzaren elipsia dela-eta, ez dago argi zer kokaleku duen galdegaiak, baina azkeneko perpausean aditz ostean dago galdegaia (*mutil*). Zazpigarren testuan bigarren perpausak aditz atzean dauka galdegaia (**bi zaku dirurekin**), baita hurrengoan ere, baina azken honek perpaus mendeko bi ditu, batean aditz aurrean dagoela galdegaia (*oihanpe batean*), eta bestean atzean (*idi larru bat burutik emana eta bi adarrak goiti*).

B.1.4.2. Erreparatuta bigarren perpaus juntatuei.

AXERIA
Behin batez bazen axeri bat eta egun batez [errekontratzen du] gizon bat **ur bazter batean** eta erraten dio ea posible duen pasatu ur hartan. (7 or.)

LAMINA
Behin batez baziren jaun-andre batzuk eta andrea [aritzen zen] arratsetan **iruten**. Eta [etortzen zitzaion] emazteki bat eta ez zitekeen inondik kasa (bota). (47 or.)

OHOREA
Behin batez, baziren neskatxa gazte eta mutil gazte bat eta **elkarrekin** [atxikitzen zuten]. Eta mutil gazte hark neskatxari ohore guztia barraitzen dio eta badoa kofesatzerat. (59 or.)

TARTARUA
Behin batez, bazen errege seme bat, punimendu (zigor) batez bezala munstro bat gelditua, eta ez zitekeen jende bilaka ezkondu arte. (3 or.)

Agerian dagoenez, lehenengo testu bietan juntagailuaren osteko perpausek aditz ostean dituzte galdegaiak (**bazter batean** eta **iruten**). Erreparatzen badiegu zein kokalekutan dauden, bata zein bestea ez daude aditzaren hurrengo kokalekuan, ezpabere, bigarrenean. Erabiliz gero galdegaiok aditz aurrean, berari inkatu-inkatuta, honela geratuko lirateke lehenengo testu biok:

AXERIA
Behin batez bazen axeri bat eta egun batez **ur bazter batean** [errekontratzen du] gizon bat eta erraten dio ea posible duen pasatu ur hartan. (7 or.)

LAMINA
Behin batez baziren jaun-andre batzuk eta andrea arratsean **iruten** [aritzen zen]. Eta emazteki bat etortzen zitzaion eta ez zitekeen inondik kasa (bota). (47 or.)

Aldaerok, daudenetan, galdegaiak aditz aurrean dituztela, nekagarriago irakurtzen dira jatorrizkoak baino. Segituta aldaerokin, beste perpausa bat dator bigarren *eta* juntagailuaren ostean, eta zehar-galdera bat du perpaus mendekotzat. Aditz nagusiak (*erraten dio*) ez du ezer aurrean, eta ostean dauka —galdegaiaren legeak dioenaz bestera— galdegaia, zehar-galdera. Gainera, perpaus horretan Altuberen beste lege bat ere hausten da, zeinak baitio mendeko perpausean azkeneko lekua hartu behar duela aditzak eta menderagailuak, eta erreparatzen badiogu zehar-galderari, ikusiko dugu beronen menderagailuaren ondoren osagai bat dagoela. Honela behar ei da:

(...) eta ea ur hartan posible duen pasatu erraten dio.

Aldaera, horrela dagoela, askoz nekagarriago irakurtzen da jatorrizkoa baino. Argi dago zehargalderak ere perpaus nagusiaren ostean erabiltzen direla. Nik esango nuke, eta hurrengo batean frogatuko dut, aditz ostean dutela ohiko lekua ahozkoan zein idazle klasikoetan, gaurko euskara idatzian ez legez, non itsu-itsu erabili ohi den aditz nagusiaren aitzinean.

Bigarren aldaeran errespetatzen da galdegaiaren legea, aditz aurrean dago-eta galdegaia (emazteki bat). Jarraian beste perpaus bat dator, baina ezezka dagoenez, ez dugu aztertuko.

Jorratu ditugula lehenengo perpaus biak goi eta behe, hel diezaiegun hurrengo biei. Hona hemen (berriro bistaratuko ditut, urrun-eta):

> OHOREA
> Behin batez, baziren neskatxa gazte eta mutil gazte bat eta **elkarrekin** [atxikitzen zuten]. Eta mutil gazte hark neskatxari ohore guztia barraitzen dio eta badoa kofesatzerat. (59 or.)
>
> TARTARUA
> Behin batez, bazen errege seme bat, punimendu (zigor) batez bezala munstro bat gelditua, eta ez zitekeen jende bilaka ezkondu arte. (3 or.)

Lehenengo testuan errespetatzen da galdegaiaren legea, aditz aurrean baitago galdegaia (*ohore guztia*). Bigarrenean perpausa ezezka dago.

B.2. Erreparatuta zelan dauden osatuta bigarren perpausak.

Multzo honetan sartu ditut *ba-* aurrizkiaren bidez hasten diren bigarren perpausak, eta berton beste azpisailkapen batzuk egin ditut.

B.2.1.”Mintzagaia + komentarioa” eskema dutenak.

Multzo honetan sartu ditudan perpausek tituluko eskema dute galdegaiaren lekuan. Azalduko dut eskema hori perpausak komentatu ahala.

> ALARGUNTSA
> Behin batez bazen errege bat. [Bazuen] andre bat **anitz ederra eta anitz maite zuena**. Andre gaixo hura egun batez gertatu izan zen iritzia, eta gaitzak hartu zuen arras lanjeroski. (51 or.)
>
> NESKATXA EDERRA ETA ALFERRA
> Behin batez bazen ama bat. [Bazuen] alaba bat **anitz ederra**. Ama hura ari zen beti lanean, baina neskatxak ez zuen ari nahi. Jotzen du hainbertzeraino non harri lauza baten gainean baitzegoen negarrez. (91 or.)
>
> GODEON
> Behin batez bazen errege bat. [Bazuen] alaba bat **anitz maite zuena** eta egun batez adiskidantzak egiten ditu gazte belar mahasti pikatzaile batekin, batere bere etxekoek jakin gabe eta bere hodi (bere baitarik). (15 or.)

Hiru testuotan zeintzuk dira galdegaiak ***andre bat***, ***alaba bat*** eta ***alaba bat*** hurrenez hurren? Edo horiekin batera ondoren datozen sekuentzia belztuak ere bai? Edo sekuentzia belztuok soilik? Ikertzaile batzuentzat ***andre bat***, ***alaba bat*** eta ***alaba bat*** mintzagaiak (tema) dira eta belztuak, komentarioak. Kontuok edozein

ikuspegitatik hartuta ere, galdegaiak beti ageri dira aditz atzean. Gaur eguneko euskaran honela emango lirateke nagusiki bigarren perpausok:

ALARGUNTSA
Behin batez bazen errege bat. [Bazuen] **anitz ederra eta anitz maite zuen** andre bat Andre gaixo hura egun batez gertatu izan zen iritzia, eta gaitzak hartu zuen arras lanjeroski. (51 or.)

NESKATXA EDERRA ETA ALFERRA
Behin batez bazen ama bat. [Bazuen]alaba **anitz ederra** bat. Ama hura ari zen beti lanean, baina neskatxak ez zuen ari nahi. Jotzen du hainbertzeraino non harri lauza baten gainean baitzegoen negarrez. (91 or.)

GODEON
Behin batez bazen errege bat. [Bazuen] **anitz maite zuen** alaba bat eta egun batez adiskidantzak egiten ditu gazte belar mahasti pikatzaile batekin, batere bere etxekoek jakin gabe eta bere hodi (bere baitarik). (15 or.)

Zertan esanik ez dago aukerok nekagarritxoagoak direla jatorrizkoak baino, batez ere lehenengo eta hirugarren testuetakoak. Are gehiago, ezberdinak ere badira izan, testuinguru ezberdinetan izan ere. Baina ez da artikulu honetako gaia.

Hirugarren perpausei dagokienez, lehenengo testuan aditz ostean dago galdegaia (iritzia), bigarrenean ere bai (beti), eta, hirugarrenean, ostera, aditz aurrean (adiskidantzak). Azken honetan zalantzak ditut. Laugarren perpausei dagokienez, lehenengo perpausean aditz atzean dago (arras lanjeroski), bigarrenean ezezka dago aditza, eta, hirugarrenean ezezka dago mendekoa. Bosgarren perpausa bigarrenak bakarrik dauka, eta perpaus nagusian aditz ondoren dago galdegaia (hainbertzeraino), eta mendekoan zein da galdegaia, *lauza baten gainean* ala *negarrez*?

B.2.2. *Eta* juntagailua dutenak.

AMA ETA BERE SEME ZOZUA
Asko munduan bezala bazen ama bat. Bazuen seme bat eta **arras poliki** [bizi ziren]. (173 or.)

ESKOLEA GAZTEA
Behin batez baziren jaun andre batzuk. Bazuten seme bat eta aita [zuen] **untzietako kapitaina** eta seme hura beti igortzen zuen bere amak eskola hartzerat. (69 or.)

LAMINAK
Behin batez bazen emazteki bat. Bazituen hiru alaba eta egun batez gazteena [abiatu zen] **joan behar zela sehi**. (39 or.)

Hiru testuotan *eta* juntagailuaren osteko perpausetan lehenengoak betetzen du Altuberen legea; beste biek, ostera, ez. Bigarren testuan, bigarren *eta* juntagailuaren ondoko perpausean aditz aitzinean dago galdegaia (beti). Hirugarren perpaus aztergaian perpaus konpletiboan, *sehi* predikatu osagarria aditz atzean dago (antzeko beste adibide bat ere ikusi dugu lehenago). Ez daukat gomutan horrelakorik inoiz irakurri dudanik euskara batuan, beti ikusi dut-eta osagarri mota hori aditz aurrean. Honela:

> Bazituen hiru alaba eta egun batez gazteena [abiatu zen] **SEHI joan behar zela**. (39 or.)

B.3. Erreparatuta zelan dauden osatuta hirugarren perpausak.

Multzo honetan bigarren perpausetan aditz ostean ageri dira galdegaiak

B.3.1. Osatuta dago *ba-* aurrizkiaz.

> BOZAK ENTZUTEN ZITUEN SEMEA
> Asko munduan bezala baziren jaun-andre batzuk.Bazituzten haur anitz. [Bazuten] **seme bat maite ez zutena** zeren erraten baitzuen aditzen zuela boza bat arras maiz. (185 or.)

Hirugarren perpausean aditz ostean dago galdegaia, halakotzat edozein osagarri jotzen dugula ere, nahiz **seme bat**, nahiz **maite ez zutena**, nahiz **seme bat maite ez zutena**. Ondoren mendeko aditza dator, perpaus kausala, zeinak barruan duen perpaus konpletibo bat. Perpaus kausalean aditz nagusiaren aurrean ez dago osagairik, eta aditz ostean dago galdegaia (perpaus konpletiboa). Mendeko perpaus horretan ez daude azken lekuan aditza eta menderagailua (*aditzen zuela*). Gaur egun honela emango lukete batzuek perpaus kausal hori:

> zeren boza bat arras maiz aditzen zuela erraten baitzuen.

Beste batzuek, ostera, honela paratuko lukete:

> zeren erraten baitzuen boza bat arras maiz aditzen zuela

Bada beste aukera bat ere, polita:

> zeren erraten baitzuen boza bat aditzen zuela arras maiz

B.3.2. Ezezka dago perpausa.

> TONTUA
> Asko munduan bezala baziren jaun-andre batzuk. Bazuten seme bat. Handitu zenean aitak ez zuen ernea atzematen, nahiz eta eskoletan atxiki zuen. (179 or.)

Hirugarren perpausa ezezka dago, eta, beraz, ez dago azterkizun galdegaiaren aldetik, baina badu beste alderdi bat oso interesgarria: artikulu eta guzti ageri da predikatu osagarria (*ernea*).

B.3.3. Aditz aurrean dauka galdegaia

SOLDADO POBRE BAT ETA JAUN ABERATSA
Asko munduan bezala baziren jaun andre batzuk. Bazuten seme bat. **Zerbitzurat joateko adina** [etorri] eta partitzen da pena handi batekin. (107 or.)

Hirugarren perpausa konplexua, elkartua, da, eta bertan lehenengo perpaus juntatuan (koordinatuan) galdegaia leku kanonikoan dago; bigarrenean, ostera, aditz atzean.

B.3.4. Aditz ostean dauka galdegaia.

MUNSTROA
Behin batez bazen errege bat. Bazituen hiru alaba. Gazteena [zuen] **arras andre gazte polita**, eta bi handienak ziren arras itsusiak eta beren buruaz arras hartuak. (55 or.)

SORGINAK ETA ERGELAK
Behin batez baziren bi anaia, bat ergela eta bertze bat enuzentina. Bazuten ama xahar-xahar bat. Eta goiztiri batez [abiatzen da] seme zaharrena **mendirat** artaldearekin (43 or.)

Hirugarren perpausotan galdegaia dago aditz aurrean. Hona hemen zelan geratuko liratekeen perpausok galdegaiak kokatuz gero aditz aurrean:

MUNSTROA
Behin batez bazen errege bat. Bazituen hiru alaba. Gazteena **arras andre gazte polita** [zuen], eta bi handienak ziren arras itsusiak eta beren buruaz arras hartuak. (55 or.)

SORGINAK ETA ERGELAK
Behin batez baziren bi anaia, bat ergela eta bertze bat enuzentina. Bazuten ama xahar-xahar bat. Eta goiztiri batez seme zaharrena **mendirat** [abiatzen da] artaldearekin (43 or.)

Testu biok nekezago irakurtzen dira jatorrizkoak baino, batez ere bigarrena. Lehenengo testuan hirugarren perpausaren ondoren, beste perpaus bat dator *eta* juntagailuaren ostean, eta bertan aditz ostean dago galdegai konplexua (arras itsusiak eta beren buruaz arras hartuak). Galdegai luze hori ipiniz gero aditz aurrean perpausa sano nekez irakurriko litzateke:

eta bi handienak **arras itsusiak eta beren buruaz arras hartuak** [ziren]. (55 or.)

Bigarren testu aztergaian azkeneko perpausa honela ere emango lukete askok:

Eta goiztiri batez seme zaharrena artaldearekin **mendirat** [abiatzen da] (43 or.)

Horrela, are nekagarriago egiten da irakurketa.

B.3.5.Perpaus konpletiboa dauka

BASAJAUNA
Behin batez baziren etxe batean etxeko andre eta bordaria. Bazituen bordari hark hiru seme. Egun batez [erraten diote] **bere amari emateko pilota bana eta soseko olata bana**, joan behar direla munduz mundu. (9 or.)

SUGEA ETA HIRU ALABAK
Asko munduan diren bezala, bazen gizon alargun bat. Bazituen hiru alaba. Egun batez [erran zion] **joan behar zuela bazterren ikusterat.** (19 or.)

ERREGE BATEN GAZTETZEA
Behin batez bazen errege bat, asko munduan diren bezala. Bazituen hiru seme. Egun batez xurnal baten irakurtzen ari zelarik, [atzematen du] **badela ur bat**, gaztetzeko dena. (29 or.)

Testuotan hirugarren perpausek perpaus konpletibo bana daukate gutxienez. Konpletibook galdegaiak direlarik, ez daude kokatuta gaurko euskaran nagusiki erabiltzen den kokalekuan, aditzaren aurrean. Gaur honetara erabiliko lirateke batez ere:

BASAJAUNA
Behin batez baziren etxe batean etxeko andre eta bordaria. Bazituen bordari hark hiru seme. Egun batez **bere amari pilota bana eta soseko olata bana emateko** [erraten diote], joan behar direla munduz mundu. (9 or.)

SUGEA ETA HIRU ALABAK
Asko munduan diren bezala, bazen gizon alargun bat. Bazituen hiru alaba. Egun batez **bazterren ikusterat joan behar zuela** [erran zion]**.** (19 or.)

ERREGE BATEN GAZTETZEA
Behin batez bazen errege bat, asko munduan diren bezala. Bazituen hiru seme. Egun batez xurnal baten irakurtzen ari zelarik, **badela ur bat** [atzematen du], gaztetzeko dena. (29 or.)

Hirurak dira nekagarriagoak jatorrizkoak baino. Penazago irakurtzen dira, aditza atzerago eroanda dago-eta. Lehenengoa eta hirugarrena okerrago ere emango lituzkete batzuek:

Egun batez **bere amari pilota bana eta soseko olata bana emateko,** munduz mundu joan behar direla [erraten diote]. (9 or.)

Egun batez xurnal baten irakurtzen ari zelarik, **badela** gaztetzeko den **ur bat** [atzematen du],. (29 or.)

Azken hiru perpaus aztergaiotan ikusi dugu perpaus konpletiboak galdegaiak direla, aditz gibelean doazela. Baina erreparatuz gero soilik perpaus konpletiboei, euron barne hurrenkerari, ikusten da atzen kokalekuan ez doala aditza eta menderagailua, gaur nagusiki erabiltzen denez.

## *2. KONKLUSIO-GOMENDIOAK*

1. Artikulu honetan oratuz bakarrik helburu nagusiari, hau da, zenbat hasiera perpausek betetzen duten S. Altuberen legea eta zenbatek ez *Ipuinak-I* liburuko narrazioetan, perpaus guztiek hausten dute galdegaiaren legea: 45etik 45ek.

2. Narrazioetako bigarren eta hirugarren perpausek, zenbatu ez baditut ere, erraz gainditzen dute %80aren muga, hau da, hamarretik zortzik gutxienez birrintzen dute galdegaiaren legea.

3. Galdegaiek, nahiz eta osagai bakarrez egon osatuta, gehienek hautsi egiten dute legea, ez daude aditz aurrean, ezpabere, atzean.

4. Ez da ageri galdegai luze bat bera ere aditz aurrean, galdegaiaren leku kanonikoan.

5. Galdegaiak aditz aurrean badaude, laburrak dira, motzak. Eta esan daiteke, egoera horretan, (ia) berdin dela galdegaia egotea aditz aitzinean edo gibelean.

6. Galdegaia atzean badoa, ez dauka zertan joanik aditzaren hurrengo, berari inkatuta, ezpabere, joan daiteke, eta joan doa adibide baten baino gehiagotan, aditzaren hurrengoaren hurrengo, aditzetik bigarren lekuan.

7. Azterturiko hiztunotan, nire ustez, garrantzia handiago du aditzaren kokalekuak perpausean galdegaiarenak baino. Eta aditza beti dago aurrean, oso aurrera.

8. Mesedez, faborez eta karitatez eskatuko nieke irakasle eta idazleei, errespetatu gura badute ahozko (eta idatzizko) tradizioa, ahalik eta aurreren erabiltzeko aditza, eta ez tematzeko zelan ipiniko galdegaia aditz aurrean (batez ere txikia ez bada). Hala eginez gero, ahozko eta idatzizko testuak arinagoak gertatuko dira irakurle eta entzuleentzat, eta mesedegarriagoak euskararentzat.

## *BIBLIOGRAFIA*

Hidalgo, V. (2002): “Hitzen ordena esaldian”, *Senez,* **25**.
Webster, W. (1993): *Ipuinak-I*, Euskal Editoreen Elkartea (X. Arbelbidek atondua).

### *12.2. ARIKETAK*

Hiru artikuluak irakurri ostean, zein lekutan erabiltzen duten idazle eta hiztun batzuek galdegaia hasiera-perpausetan, orain aurkeztuko dugu 20 hasiera-perpaus liburu batetik hartuak, *Ipui onak* izenekotik, berau Bizenta Antonia Mogelek idatzia gipuzkeraz. Hasiera-perpausok idatzi ditugu euskara batuan (ahaleginak egin ditugu, behintzat) eta galdegaia kokatu dugu adibide guztietan aditz aurretxoan, gaur egun egin ohi den legez.

Ariketatzat proposatzen dugu:

1. Asmatzea zer hurrenkeratan dauden idatzita jatorrizko perpausak (galdegaia non dagoen kokatuta).
2. Asmatzea ea beste hurrenkera egokirik duten perpaus adibideok.

12.2.1.

**Otsoa eta Bildotsa**

Otsoa eta Bildotsa ura edateko asmoz bakoitza bere aldetik ibai batera heldu ziren.

12.2.2.

**Zakurra eta Ardia**

Zakur batek asmo gaiztoz eta gezurrez ardi gaixo bati ogi zati bat eskatu zion, berak lehenago prestatu ziola esanez.

12.2.3.

**Txakurra eta haragi zatia**

Txakur batek beti ahoan haragi zati bat zeukala, ibaia batetik bestera igaro nahi izan zuen.

12.2.4.

**Lehoia, Behia, Ahuntza eta Ardia**

Handi eta txikien arteko partila ez da inoiz berdina. Hala da, eta hala izana, ipuin eder honek erakusten digun bezala.

Lehenengo perpausean ez dagoenez ezer berezirik, bigarrena soilik aztertuko dugu.

12.2.5.

**Otsoa eta Kurriloa**

Behin, sarri bezala Otsoa haragia jaten zegoen, eta hezurra eztarrian kateatu zitzaion.

12.2.6.

**Gizona eta Sugea**

Neguaren erraian hotz gogorren artean, bazterrak izozturik zeudela, gizon errukior eta bihotz biguneko batek etxean Sugea hartu zuen; ahaleginez palagatzen zuen; berotu zedin esnea eta sukaldeko zokondoa ematen zion.

12.2.7.

**Etxeko eta kanpoko Saguak**

Herri etxe batean bizi zen Saguak behin kanpora irten zen, zelai eta basoetan zer igarotzen zen jakin nahirik.

12.2.8.

**Arranoa eta Azeria**

Arranoak behin Azeriari lurzilo edo leiza batean zeuzkan umeak harrapatu zizkion.

12.2.9.

**Belea eta Azeria**

Hitz labanetan gelditzen direnak, lotsatuak irtengo dute (dira).

12.2.10.

**Lehoia, Basurdea, Zezena eta Atsoa**

Lehoi Jauna zaharraz gainetik gaixoa, argala eta aginte gabea aurkitzen zen.

12.2.11.

**Astoa eta Txakurtxoa**

Etxeko-jaun batek Astoa, eta Txakurtxoa zeuzkan.

12.2.12.

**Lehoia eta Sagua**

Leoia mendi baten erriberan lotan zegoela, Sagu asko hurreratu zitzaion, eta horien arteko ausartuena(k) bizkarrera igo zion/zitzaion.

12.2.13.

**Hontza eta bere Ama**

Hontza gaixorik zegoen batean, eta beretzat lurrean sendagarririk ez zegoela, bere osasunarengatik eskaintza edo promesak egiteko santuei bere Amari erregutu zion.

12.2.14.

**Enara eta beste txoriak**

Enara eta txoritegi mota askotako bat nekazari batzuei begira zeuden soroetan liho hazia ereiten zeudela.

12.2.15.

**Lapurra eta Etxe-txakurra**

Lapur bat gauez asko osten zebilen, eta aberats baten etxera heldu zen.

***Adibideok zein orritatik jasoak***

1-(35. or.) 2-(37. or.) 3-(41. or.) 4-(43. or.) 5-(45. or.) 6-(47. or.) 7-(49. or.) 8-(53. or.) 9-(55. or.) 10-(57. or.) 11-(59. or.) 12-(61. or.) 13-(63. or.) 14-(65. or.) 15-(69. or.)

# 13. unitatea

**(ARIKETAK NAHASIAN)**

**HELBURUA:** Astindu bat eman aurreko unitate guztietako problemei.

### *13.1. SARRERA*

Aurreko unitatean legez, honek ere atal bi izango ditu: SARRERA hau eta ARIKETAK. Orain arte, unitateko gai bat aztertu dugu: 12 unitatetan 12 gai bana. Oraingo unitate honetan, azkena, 13garrena, proposatzen dugu berrikustea emaniko guztia, baina gure aldetik laguntza gutxiago emanda ariketak konpontzeko. Beraz, ariketak ez dira aurkeztuko orain arte bezain bideratuta, ezpabere nahasian. Unitate honetan 60 ariketa egingo ditugu, baina denak multzo bakarrean egin barik, proposatzen dugu 4 test egitea: lehenengo bietan 12na ariketa daude eta besteetan 18na. Lehenengo bietan laguntza txikia ematen diogu irakurleari ariketetan: lehenengo testean esaten diogu zein unitate motatako aztergaia konpondu behar duen eta zer izen duen unitate horrek; bigarrenean, zein unitatetako aztergai mota ebatzi behar duen, besterik ez. Azkeneko test bietan ez dago ezelako laguntzarik; zerenetа irakurleak, hainbeste ariketa eginda, gai-edo izan beharko bailuke egoki erantzuteko ariketei.

### *13.2. ARIKETAK*

**LEHENENGO TESTA-13-A**

Lehenengo test honetan, zenbat unitate jorratu ditugun unitate honetaraino (12), hainbat ariketa daude, unitateko bat. Baina kontuan hartu behar da, batetik, egon daitekeela perpaus bat edo beste ondo, 6. unitateari dagokiona (*Erdarazko partikula kausal batzuk*) eta, bestetik, ariketa bat dagoela galdegaiaren gainean. Bestalde, ariketa bakoitzaren azpian argibidetzat eta lagungarri paratuko ditugu, batetik, zer unitateri dagokion ariketa, eta unitateak zer izen duen titulutzat.

13.2.1.

**Julia Madrazo:** «Kanpainak herritarrengandik hurbil egoteko aukera ematen du».

[1. UNITATEA: *-T(Z)EKO* osagarria izen atzera]

13.2.2.

**EAJk presoen hurbilketa azkartu behar zela uste du**

Ezker abertzalearen munduan «galdararen presioa gutxitu beharra» dagoela adierazi du Jon Imaz EBBko buruak.

[2. UNITATEA: P. konpletiboa aditz atzera]

13.2.3.

**Bat hobetzen, bestea larri**

Jaitsierako postuetatik irten da Reala Racingi irabazita, eta Alaves zuloan sartu da, Mallorcaren aurka berdindu ostean.

[3. UNITATEA: Erdarazko partikula kausal batzuk]

13.2.4.

Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela esanez.

[4. UNITATEA: Gerundio mota bat ]

13.2.5.

**'Emakumeok plazara' jardunaldiak Durangon**

*Emakumeok plazara* kultur jardunaldiak izango dira bihar Durangoko Landako Erakustazokan.

[5. UNITATEA: -*KO* atzizkia sintagma batzuetan]

13.2.6.

**JASONE OSORO idazlea**

**«Liburuak haurrak bezalakoak dira: beren bizitza dute»**

*Greta* liburuaren inguruko solasaldia egingo dute gaur, Bilbon, Txurdinagako AEKn.

[6. UNITATEA: -*KO* atzizkia postposizio batzuetan]

13.2.7.

**EAEko Lurzoruaren Lege egitasmoan, aldaketak**

EAEko Lurzoruaren Lege egitasmoa guztiz aldatuko duen proposamena egin du EAJk.

[7. UNITATEA: Erlatibo mota bat izen atzera]

13.2.8.

Erabateko kalitatea lortzeko, lehenengo eta behin, erabiltzaileen edo kontsu-mitzaileen beharrak aztertu behar dira.

[8. UNITATEA: Erlatiboak]

13.2.9.

**ROBIN HOOD, PRÍNCIPE DE LOS LADRONES** [Filma]

Robik Hood, lapurren printzearen abentura klasikoak hamaika bertsio ditu zinemaren barnean. Bazkalondoan eskainiko duten hau berrienetakoa da.

[9. UNITATEA: Erlatiboa erakusle atzera]

13.2.10.

**Olibondoetatik Apartheid hesira** [Liburua]

Arbizuko Udalak eta Askapenak plazaratu dute Juanma Sarasola Murgiak idatzi duen *Olibondoetatik Apartehid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa).*

[10. UNITATEA: Erlatiboa izen propio atzera]

13.2.11.

**RACHID RAHA Kazetaria eta antropologoa**

Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Le Monde Amazigh egunkariko kazetari eta antropologo Rachid Rahak hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

[11. UNITATEA: Aposizio mota bat atzera]

13.2.12.

**Ehiza-txakurra eta bere Jabea**

Ehiztari batek erbi-txakurra zeukan, bere ehizan gazte izan zen artean guztiz ondo lagundu ziona.

[12. UNITATEA: Galdegaia aditz ostera ere]

## BIGARREN TESTA-13-B

Bigarren test honetan, zenbat unitate jorratu ditugun unitate honetaraino (12), hainbat ariketa daude, unitateko bat. Baina kontuan hartu behar da, batetik, egon daitekeela perpaus bat ondo, 6. unitateari dagokiona (*Erdarazko partikula kausal batzuk*) eta, bestetik, ariketa bat dagoela galdegaiaren gainean. Bestalde, ariketa bakoitzaren azpian argibidetzat eta lagungarri paratuko dugu zer unitateri dagokion ariketa (ez dugu ipini unitatearen titulua, lehenengo testean egin dugun legez).

13.2.13.

**Nafarroako alderdien mahaia udazkenean sortu beharko litzatekeela dio Aralarrek**

Batasuna Nafarroaren etorkizuna «galbidera eramaten» ari dela salatu du Txentxo Jimenezek.

[2. UNITATEA]

13.2.14.

Herritarrengandik jasotako kritikak isilarazteko-edo, Udalak liburuxka infor-matibo bat kaleratu du, esanez kobazuloa zaindu eta bertako pintadak ezabatuko dituztela.

[4. UNITATEA]

13.2.15.

**'IBILARTE 2004' ERAKUSKETA.** Ibilialdia 2004 festaren aldeko erakusketa antolatu du Bizkaiko Ikastolen Elkarteak.

[6. UNITATEA]

13.2.16.

Erakundeak langile bakoitzak eskain dezakeen lana ezagutu behar du.

[8. UNITATEA]

13.2.17.

**ESKOLA TXIKIEN JAI...**

Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek urtero antolatzen duten Eskola Txikien Jaia atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.

[10. UNITATEA]

13.2.18.

**Erbiak eta Igelak**

Behin erbiek beren artean batzar edo bilkura egin zuten, eta hitz hauek igaro zituzten.

[12. UNITATEA]

13.2.19.

**Udaberriroko hitzordua**

Sukaldeko armairutik balantza ateratzeko sasoia da.

[1. UNITATEA]

13.2.20.

**Harrera beroa egin zieten atzo Otegiri, Petrikorenari eta Olanori**

Ostiral iluntzean, orotara 650.000 euroko fidantza ekonomikoa Auzitegi Nazional espainolean ordaindu ostean, Soto del Real espetxetik atera ziren Arnaldo Otegi, Juan Joxe Petrikorena eta Juan Mari Olano ezker abertzaleko kideak.

[3. UNITATEA]

13.2.21.

**Txintxirri ikastolak du lekukoa**

1968an sortu zen Elorrioko Txintxirri ikastola.

[5. UNITATEA]

13.2.22.

**‘Europe’s living a celebration’**

Hala zioen Espainiak Eurovisionera aurkeztutako abesti jasangaitz batek, eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

[7. UNITATEA]

13.2.23.

**MILLONARIO AL INSTANTE** [Filma]

Belushi eta Grodin komikoen lana erakustea bilatzen duen abentura umoretsu tuntun samar hau, aproposa da lo kuluxkaren orduan telebistaren aurrean ikusteko.

[9. UNITATEA]

13.2.24.

«Ikusgarri ezberdinak era berdinean ikusteko aukera ematen du».

Jaialdiko antolatzaile eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari Broucaret jaun karismatikoa antzerki munduan oso ezaguna da.

[11. UNITATEA]

## HIRUGARREN TESTA-13-C

Test honetan proposatzen dugu hamazortzi ariketa, unitate guztietakoak, eta ez dugu ezelako laguntzarik ematen jakin eragiteko zelako akats mota arteztu behar den ariketa bakoitzean.

13.2.25.

**Otsoa eta Irudia**

Otsoa basoan zebilela, Irudi itxura huts, edo imajina bat aurkitu zuen.

13.2.26.

**ANTE GOTOVINA**

Bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia da Jugoslavia Ohirako Auzitegiari lau urtez ihes egin dion Ante Gotovina jeneral ohia.

13.2.27.

Langile bakoitzak bere lanpostuaren helburuak jakin behar ditu.

13.2.28.

**Dirudun bihurtzeko saioa**

AEBetako NBC kateak reality-show berri baten aldeko apustua egin du denboraldi honetarako.

13.2.29.

Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, lokal batzuk behar zirela adieraziz.

13.2.30.

**Huelvan dauden euskal presoek funtzionarioen jarrera salatu dute**

Huelvako espetxean dauden euskal presoek azken bi hilabeteetan espetxeko baldintzak gogortu egin direla salatu dute.

13.2.31.

**Madrazoren ustez, EAJk «ez du zilegitasunik» aurrekontuak negoziatzeko**

EBko koordinatzaile eta Lakuako Gobernuko Etxebizitza sailburu Javier Madrazo argi mintzatu zen, atzo, 2006rako EAEko aurrekontuen gaineko negoziazioez.

13.2.32.

**ESTAMOS MUERTOS ¿O QUÉ?**

Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat egindako film umoretsu komertzial arrunt samar honek istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

13.2.33.

Atzo bost hanka zituen ahuntz bat jaio zen Frantzian.

13.2.34.

**Erlojupeko etapa Pontederatik**

Banakako erlojupeko proba izango dute gaur Giroko txirrindulariek.

13.2.35.

**Antartidan egindako zeharkaldiaren hasiera**

Sebastian Alvarok zuzentzen duen *Al filo de lo imposible* saioa itzuliko da gaur La2era.

13.2.36.

**Pedal kolpeak Gasteizko hesi berdean**

Gasteizko Eraztun Berdeak bizikleta gainean arratsalde atsegina igarotzeko aukera ematen du.

13.2.37.

**Adopzioen inguruko erreportaiak**

ETBko albistegiak adopzioen inguruko erreportaia sorta berezia ematen hasiko dira bihar.

13.2.38.

**Mendi astea, Zarautzen**

Pagoeta Mendizale elkarteak antolatu du aurtengo Mendi Astea.

Pagoeta Mendizale elkarteak antolatu du aurtenØ Mendi Astea

13.2.39.

**Espainiako Armada Orbaitzetan izanen da**

Herriko Udalak ukatu die militarrei herrian hilaren 8tik 12ra bitarte kanpaldia egiteko baimena, baina joanen direla uste dute.

13.2.40.

**EHNAren dinamika indartu eta sendotzeko borondatea agertu du Nazio Garapen Biltzarrak**

Naziotasun Aitormena Euskal Herria eraikitzeko tresna garrantzitsua dela esan du.

13.2.41.

Eta gutun bat idatzi nion Asuni, gaztelaniaz idatzi nahi nuela esanez.

13.2.42.

**Judaren sakrifizioa**

Fabore bat egin nizun ez azaltzean.

## LAUGARREN TESTA-13-D

Test honetan ere proposatzen dugu hamazortzi ariketa, unitate guztietakoak, eta ez dugu ezelako laguntzarik ematen jakin eragiteko zelako akats mota arteztu behar den ariketa bakoitzean.

13.2.43.

**Begoña Errazti: «Subirotasunak ongizatea areagotuko liguke».**

Eusko Alkartasunak giza eskubideen aldeko ekitaldia egin zuen Gernikan atzo, Picassoren *Guernica* margoaren aurrean.

13.2.44.

Herenegun euskaraz ondo egiten duen beltz bat ezagutu genuen Gasteizen.

13.2.45.

**Mallabiko Biharko Izarrak txapelketako finalak etzi dira**

Joan den ostegunean jokatu ziren, Mallabiko pilotalekuko harmailak gainezka zirela, *Biharko Izarrak* txapelketako finalerdiak.

13.2.46.

Errendimenduaren balorazioak langile bakoitzak eskaintzen duen balioa neurtzen du.

13.2.47.

**Tim Burtonen ohiz kanpoko maisulana**. Johnny Depp eta Winona Ryder aktore gazteek Tim Burtonen fantasiazko egitasmo bikain honetan rol nagusiak jokatzeko zortea izan zuten.

13.2.48.

**Eulia eta Mandoa**

Mando batek burdina zeramala Euli gogaikarria burtolean jarri zitzaion, eta diotsa

13.2.49.

**Kaltetu eta biktima guztiei dagokien ordaina**. Indarkeriaren biktima guztiei erantzuna eman behar zaiela iritzi diote.

13.2.50.

... salatu du Kanarietako Gobernuko Afrikarekiko harremanetarako buru Luis Guillermo Padillak.

13.2.51.

**Mendekuaren graziaz**

Lauriek, aspaldiko ohitura bat berreskuratuz, pott eman zion zintzilik zeraman gurutzetxoari dendara sartzean.

13.2.52.

Hezkuntza eta ikasketa sindikalez arduratzen den Ipar Hegoa Fundazioak iazko irailean Iruñeko Baluarte Kongresu-Jauregian antolatu zituen jardunaldien emaitza biltzen da argitalpen honetan.

13.2.53.

**SEGURTASUN PLANA.** Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen jarraituko duela esanez.

13.2.54.

**CORRIENDO LIBRE** [Filma]

**Haurra eta zaldia, bikote ezaguna.** Jean Jacques Annaudek —Enemy at the gates (2000), Le Nom de la rose (1986), L'Ours (1988)— idatzi eta ekoitzi zuen haurraren eta zaldiaren bikote ezagunean oinarritzen den film polit honek.

13.2.55.

**Eulia eta Txindurria**

Euliak eta Txindurriak auzi gogor bat zerabilten, nor ote zen ederrago.

13.2.56.

Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketing zuzendaria den Bernardo Hernandezek agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.

13.2.57.

**Matador** [Filma]

Soldatapeko hiltzaile batek arazo ekonomikoak dituen gizon arrunt bati lagunduko dio, patuaren ondorioz.

13.2.58.

Horretarako, euskarazko irakaskuntza zalantzan jartzeko arrazoiak eta euskarazko irakakuntza ezartzeko zailtasuna aztertzen ditu.

13.2.59.

**Gazteak esna**

Agurne Anasagastik, Iban Garatek, Mikel Losadak eta Nerea Garmendiak Patxi Zubizarretak idatzitako ‘Mundua lo dagoen bitartean’ obra estreinatuko dute Bilborocken maiatzaren 5ean.

13.2.60.

**Milagroko herritarren matxinada** [Filma]

Redfordek kameraren atzealdean egindako bigarren saiakera, AEBetako herrixka batean kokatua dagoen nekazari giroko film hunkigarri eta eztitsu samar hau da.

***Adibideon nongo-noizak***

LEHENENGO TESTA 13-A

1-(B, 2004-2-27, 1. or.) 2-(B, 2006-8-29, 1. or.) 3-(B, 2006-4-16, 1. or.) 4-(B, 2006-1-6, 11. or.) 5-(B, 2006-3-19, 35. or.) 6-(B, 2004-2-25, 43. or.) 7-(B, 2006-4-26, 4. or.) 8- 9-(Eg.-2002-3-16, 54. or.) 10-(B, 2006-7-23, 35. or.) 11-(B, 2005-11-10, 43. or.) 12-(71. or.)

BIGARREN TESTA-13-B

13-(B, 2006-8-10, 8. or.) 14-(B, 2006-8-24, 12. or.) 15-(B, 2004-3-13, 56. or.) 16- 17-(G-2005-6-13, 6. or.) 18-(73 or.) 19-(B, 2006-5-3, 17. or.) 20-(G-2006-4-10, 15. or.) 21-(A, 2006-5-21, 49. or.) 22-(B, 2006-4-14, 4. or.) 23-(Eg.-2002-3-16, 54. or.) 24-(G-2005-10-10, 27. or.)

HIRUGARREN TESTA-13-C

25-(75. or.) 26-(B, 2005-12-10, 18. or.) 27- 28-(B, 2004-1-15, 49. or.) 29-(A, 2006-12-12, 14. or.) 30-(B, 2006-7-7, 10. or.) 31-(B, 2005-10-17, 19. or.) 32-(*Egunkaria*, 2003-1-8, 46. or.) 33- 34-(B, 2006-5-18, 41. or.) 35-(B, 2007-1-7, 37. or.) 36-(B, 2006-6-3, 54. or.) 37-(B, 2004-2-15, 49. or.) 38-(G-2006-5-29, 33. or.) 39-(B, 2004-3-6, 20. or.) 40-(B, 2006-7-1, 11. or.) 41-(B, 2006-11-11, 44. or.) 42-(B, 2006-4-13, 5. or.)

LAUGARREN TESTA-13-D

43-(B, 2004-3-2, 13. or.) 44- 45-(B, 2006-5-24, 32. or.) 46- 47-(B, 2004-12-29) 48-(77. or.) 49-(B, 2006-8-10, 8. or.) 50-(B, 2006-8-5, 16. or.) 51-(*Berria,* 2004-5-23, 44. or.) 52-(A, 2006-4-30, 38. or.) 53-(B, 2006-8-5, 9. or.) 54-(B, 2005-5, 47. or.) 55-(79. or.) 56-(G-2006-7-23, 28. or.) 57-(B, 2006-4-18, 41. or.) 58- 59-(B, 2006-4-30, 42. or.) 60-(Eg.-2002-3-16, 54. or.)

# Soluzioak

# Sarrera

Ipin ditzagun agerian unitateak

1. -*T*(*z*)*eko* osagarria izen atzera
2. Perpaus konpletiboa aditz atzera
3. Erdarazko partikula kausal batzuk
4. Gerundio mota bat
5. -*Ko* atzizkia sintagma batzuetan
6. -*Ko* atzizkia postposizio batzuetan
7. Erlatibo mota bat izen atzera
8. Erlatiboa zehar-galdera bihurtu
9. Erlatiboa erakusle atzera
10. Erlatiboa izen propio atzera
11. Aposizio mota bat atzera
12. Galdegaia aditz ostera ere
13. Ariketak nahasian

Askotan ariketa batek konponbide bat baino gehiago dauzka, eta halaxe jazotzen zaigu gehienetan. Kontuan hartuta ebatzi beharreko adibideak *Berria*tik daudela hartuta, eta kazetari-estiloan, ustez, idatzita, soluzioak ere ahalegindu gara kazetari-estiloan ematen (ahal izanez gero) edo beste edozein estilotan, betiere errraz eta natural-natural irakurtzen badira. Bestalde, zalantza gogorrak izan ditugu hierakizatu edo ez soluzioak ariketetan (zein onena, zein bigarren ona, eta abar). Horietariko batzuk mailaka daitezke, baina beste batzuk lotuta daude estilo eta gustu kontuekin. Zirt edo zart egin behar, eta erabaki dugu oraingoz ez ematea iritzirik soluzioen gainean (bide batez esateko, soluzio guztiak daude hobeto, gure ustez, jatorrizko perpausak baino; irakurle askok, ostera, bestera uste izan dezakete).

# 1. unitatea

## (*-T(Z)EKO* OSAGARRIA IZEN ATZERA)

***SOLUZIOAK***

1.3.1.

**Animalia exotikoek jendearen jakin-mina piztu zuten**

Morgako azokan, llamak, kanguru zuriak edota mapatxeak ikusteko aukera egon zen.

Morgako azokan, [aukera] egon zen [-T(Z)EKO osagarria]

– Morgako azokan, [aukera] egon zen [llamak, kanguru zuriak edota mapatxeak ikusteko].

Mendeko perpausean luzea denez, atzera dezagun galdegaia (llamak, kanguru zuriak edota mapatxeak):

– Morgako azokan, aukera egon zen [*ikusteko* llamak, kanguru zuriak edota mapatxeak].

1.3.2.

**Informazioaren erabilera dela eta**

Egun hauetan zenbait argazki ikaragarri ikusteko aukera izan dugu.

Egun hauetan [aukera] izan dugu [-T(Z)EKO osagarria].

– Egun hauetan [aukera] izan dugu [zenbait argazki ikaragarri ikusteko].

Adibide honetan, aurrekoan legez, mendeko perpausean para daiteke galdegaia aditz jokatugabearen ostean.

1.3.3.

**Zenbakitan**

Lan kontuek eraginda edo, errealitatea zifretan ikusteko joera izaten dut batzuetan.

(…), batzuetan [aukera] izaten dut [-T(Z)EKO osagarria]

– Lan kontuek eraginda edo, batzuetan [aukera] izaten dut [errealitatea zifretan ikusteko].

Aurreko adibide bietan egina egin daiteke hemen ere; are gehiago aditza *ikusi* bada. Izan ere, arrunta da askorentzat esatea: *Ikusirik gertatutako*....

1.3.4.

**ROBERTO BAGGIO.** Futbol jokalari italiarrak zelaietara bueltatzeko eskaintza berezi bat jaso berri du.

Futbol jokalari italiarrak [eskaintza bereizi bat] jaso berri du [-T(Z)EKO osagarria]

– Futbol jokalari italiarrak [eskaintza bereizi bat] jaso berri du [zelaietara bueltatzeko].

Ez ote hobeto *bat* kendu eta artikulua (*-a*) ipinita?

1.3.5.

**Aurrezteko gaitasuna galdu dute euskal familiek**

INEren datuen arabera, 2003. urtean Hego Euskal Herriko sendiek galdu egin dute beren irabazien zati bat aurrezteko gaitasuna.

(…) Hego Euskal Herriko sendiek galdu egin dute [gaitasuna] [-T(Z)EKO osagarria]

– INEren datuen arabera, Hego Euskal Herriko sendiek galdu egin dute [gaitasuna] [beren irabazien zati bat aurrezteko].

Erraz daiteke *Hego Euskal Herriko* bihurtuta *Hego Euskal HerriaN* (ikus 5. unitatea). Bestalde, kortxete barruan *beren* ere ken daiteke, ez dago-eta ezeren oposizioan, hau da, ulertzen da irabaziak sendiak berak dituela *beren* erabili barik ere.

1.3.6.

**‘Obaba’ Oscarren bidean**

Montxo Armendarizen azken filma aukeratu du Espainiako akademiak Oscar sarietarako hautagai.

Espainiako akademiak Montxo Armendarizen azken filma aukeratu du [hautagai] [-T(Z)EKO osagarria]

– Espainiako akademiak Montxo Armendarizen azken filma aukeratu du [hautagai] [Oscar sarietarako].

1.3.7.

**2010. urtean zabaldu nahi dute Araban ziklo konbinatuko zentrala**

Araban ziklo konbinatuko zentral termikoa egiteko tramiteak oso aurreratuta daude.

Araban oso aurreratuta daude [tramiteak] [-T(Z)EKO osagarria]

– Araban oso aurreratuta daude [tramiteak] [ziklo konbinatuko zentral termikoa egiteko].

1.3.8.

**Irudia, historiaren lekuko**

Gizakiok betidanik izan dugu gure esperientziak eta baita gure bizitzaren pasadizoak ere ondorengoei transmititzeko edo igortzeko beharra eta joera.

Gizakiok betidanik izan dugu [beharra eta joera] [-T(Z)EKO osagarria]

– Gizakiok betidanik izan dugu [beharra eta joera] [gure esperientziak eta baita gure bizitzaren pasadizoak ere ondorengoei transmititzeko edo igortzeko].
– Gizakiok betidanik izan dugu [beharra eta joera] [ondorengoei transmititzeko edo igortzeko gure esperientziak eta baita gure bizitzaren pasadizoak ere].
– Gizakiok betidanik izan dugu [beharra eta joera] [ondorengoei transmititzeko edo igortzeko gure esperientziak, baita gure bizitzaren pasadizoak ere].

1.3.9.

**Zalantza ugari**

Oso zaila egiten zait lerro hauek idaztea, atzoko sarraskiaren irudiak irensteko astirik ez dudalako izan.

(…), [astirik] izan ez dudalako [-T(Z)EKO osagarria] "edo"

(…), ez dudalako [astirik] izan [-T(Z)EKO osagarria]

– Oso zaila egiten zait lerro hauek idaztea, [astirik] izan ez dudalako [atzoko sarraskiaren irudiak irensteko].
– Oso zaila egiten zait lerro hauek idaztea, ez dudalako [astirik] izan [atzoko sarraskiaren irudiak irensteko].

Aukeran bigarrena dugu nahien, guren.

1.3.10.

**Erretzeko eskubidea defendatzen da**

Enpresariek erretzaileei etenaldiak egiteko aukera utzi beharko diete eta portaera hori hartzen duten langileen kontra ezin izango dute buruzagiek neurririk hartu

Enpresariek [aukera] utzi beharko diete erretzaileei [-T(Z)EKO osagarria] eta (...)

– Enpresariek [aukera] utzi beharko diete erretzaileei [etenaldiak egiteko] eta portaera hori hartzen duten langileen kontra ezin izango dute buruzagiek neurririk hartu.
– Enpresariek [aukera] utzi beharko diete erretzaileei [etenaldiak egiteko] eta portaera hori hartzen duten langileen kontra ezin izango dute *neurririk hartu* buruzagiek.

1.3.11.

**Atxaga proposatu dute**

Hiru euskaltzainek Bernardo Atxaga proposatuko dute Juan Mari Lekuonak utzitako lekua hartzeko hautagai.

– Hiru euskaltzainek Bernardo Atxaga proposatuko dute [hautagai] [Juan Mari Lekuonak utzitako lekua hartzeko].

1.3.12.

**Garikoitz Altunak bederatzigarren partida irabaz dezake jarraian**

Garikoitz Altuna emaitza bolada gozoa igarotzen ari da, eta gaur bederatzigarren partida jarraian irabazteko aukera izango du Galarretan.

– Garikoitz Altuna emaitza bolada gozoa igarotzen ari da, eta gaur Galarretan [aukera] izango du [bederatzigarren partida jarraian irabazteko].

Errazago egin daiteke, kortxetean lehenengo paratuta *jarraian irabazteko* eta gero, *bederatzigarren partida*.

1.3.13.

**Oroimenaren tuneletik**

Baiona Tipira gerturatzen direnek bihotzean zimiko bizia sentitzeko parada izanen dute.

– Baiona Tipira gerturatzen direnek [parada] izanen dute [bihotzean zimiko bizia sentitzeko].

Kortxete barruan errazago-edo eman daiteke informazioa, *bihotzean* jarrita azkeneko lekuan.

1.3.14.

**EA, ERC eta CHA Europako koalizioa ixtekotan dira**

Eusko Alkartasuna (EA), Esquerra Republicana de Catalunya (ERC) eta Chunta Aragonesista (CHA) Europako hauteskundeetara elkarrekin joateko hitzarmena ixtekotan dira.

EA, ERC eta CHA [hitzarmena] ixtekotan dira [-T(Z)EKO osagarria]

– EA, ERC eta CHA [hitzarmena] ixtekotan dira [Europako hauteskundeetara elkarrekin joateko].
– EA, ERC eta CHA [hitzarmena] ixtekotan dira [*elkarrekin joateko* Europako hauteskundeetara].

1.3.15.

**Bilboren identitatea, lehen eta orain**

Roberto Zarrabeitia argazkilari-kazetariak Bilbon barrena osteratxo fotografiko bat egiteko aukera ematen digu, BBKren kultur gelan zabaldu duen *Bilbao* erakusketarekin.

– Roberto Zarrabeitia argazkilari-kazetariak [aukera] ematen digu [Bilbon barrena osteratxo fotografiko bat egiteko], BBKren kultur gelan zabaldu duen *Bilbao* erakusketarekin.
– Roberto Zarrabeitia argazkilari-kazetariak [aukera] ematen digu [*osteratxo fotografiko bat egiteko* Bilbon barrena], BBKren kultur gelan zabaldu duen *Bilbao* erakusketarekin.

Azken partea, komatik aurrerakoa, errazago eman daiteke:

– (...), *Bilbao* erakusketarekin, (berau) BBKren kultur gelan zabalduA.

# 2. unitatea

## (P. KONPLETIBOA ADITZ ATZERA)

### *2.1. SOLUZIOAK*

OHARRA

*Ezen…-(e)la* egitura bakarrik erabiliko dugu aukeran soluzio batzuetan, perpaus konpletibo luzeetan-edo.

2.3.1.

Zigortuz gero, misil gehiago jaurtiko dituela ohartarazi du Ipar Koreak

Zigortuz gero, Ipar Koreak ohartarazi du ZER

- Zigortuz gero, Ipar Koreak ohartarazi du [(EZEN) misil gehiago jaurtiko dituela].
- Ipar Koreak ohartarazi du, zigortuz gero, [(EZEN) misil gehiago jaurtiko dituela].
- Ipar Koreak ohartarazi du [(EZEN) misil gehiago jaurtiko dituela], zigortuz gero.

2.3.2.

Bilera baikortzat duen arren, fruitu zehatzak behar direla dio EBk.

(...), EBk dio ZER

- Bilera baikortzat duen arren, EBk dio [fruitu zehatzak behar direla].

2.3.3.

Garai batean sorginak izan zirela uste al duzu?

Uste al duzu ZER?

- Uste al duzu [garai batean sorginak izan zirela]?
- Uste al duzu [sorginak izan zirela garai batean]?

2.3.4.

Xabi Fernandezek, taldeko gitarra eta ahotsak, diskoan «pop freskoa eta rock gogorra» aurkituko dugula aurreratu zuen.

Xabi Fernandezek, taldeko gitarra eta ahotsak, aurreratu zuen ZER

– Xabi Fernandezek, taldeko gitarra eta ahotsak, aurreratu zuen [(EZEN) diskoan «pop freskoa eta rock gogorra» aurkituko dugula].
– Xabi Fernandezek, taldeko gitarra eta ahotsak, aurreratu zuen [(EZEN) «pop freskoa eta rock gogorra» aurkituko dugula diskoan].

2.3.5.

**Entzierroa!**

Ez dut San Ferminetako entzierroa ikusi, baina guk geuk ere entzierroa eduki dugula esan genezake: Tourreko entzierroa.

(...), baina guk geuk ere esan genezake ZER: Tourreko entzierroa

– Ez dut San Ferminetako entzierroa ikusi, baina guk geuk ere esan genezake [entzierroa eduki dugula]: Tourreko entzierroa.

2.3.6.

**La edad de hielo** [Filma]

Manfred mamutak, Sid nagiak, Diego tigreak eta Scrat katagorriak mundua urtzen ari dela ikusiko dute.

Manfred mamutak, Sid nagiak, Diego tigreak eta Scrat katagorriak ikusiko dute ZER

– Manfred mamutak, Sid nagiak, Diego tigreak eta Scrat katagorriak ikusiko dute [mundua urtzen ari dela].

2.3.7.

**Ezjakintasuna herritarren artean**

Indarrean dagoen araudia ez dutela ezagutzen esan dute animaliak dituzten zenbait herritarrek.

Animaliak dituzten zenbait herritarrek esan dute ZER

– Animaliak dituzten zenbait herritarrek esan dute [(EZEN) ez dutela ezagutzen indarrean dagoen araudia].

2.3.8.

**Batasunari erantzun «judiziala eta politikoa» emateko eskatu dio Raxoik PSOEko gobernuari**

Batasuneko mahaikideak kartzeleratuz gero prozesua «blokeatu» egin daitekeela ohartarazi du Permachek.

Permachek ohartarazi du ZER

– Permachek ohartarazi du [(EZEN)Batasuneko mahaikideak kartzelatuz gero prozesua «blokeatu» egin daitekeela].
– Permachek ohartarazi du [(EZEN) prozesua «blokeatu» egin daitekeela], Batasuneko mahaikideak kartzelatuz gero.

– Permachek ohartarazi du [(EZEN) «blokeatu» egin daitekeela prozesua], Batasuneko mahaikideak kartzelatuz gero.

2.3.9.

**Karibeko perla**

Latinoamerikako azken 514 urteko edozein herriren historiari begiratuz, oinaze, odoljario eta etengabeko sufrimenduan oinarrituta dagoela ikus dezakegu.

(…), ikus dezakegu ZER

– Latinoamerikako azken 514 urteko edozein herriren historiari begiratuz, ikus dezakegu [(EZEN) oinaze, odoljario eta etengabeko sufrimenduan oinarrituta dagoela].
– Latinoamerikako azken 514 urteko edozein herriren historiari begiratuz, ikus dezakegu [(EZEN) oinaze, odoljario eta etengabeko sufrimenduan dagoela oinarrituta].

Hainbat aldaketa egin daitezke perpausean, lehen partean, baina luze joko luke, eta hurrengo baterako lagako dugu.

2.3.10.

PATXI LOPEZ PSE-EEko idazkari nagusia:

«Konponbidearen zati izan daitezen nahi dugula esan diegu».

Esan diegu ZER

– «Esan diegu [konponbidearen zati izan daitezen nahi dugula]».
– «Esan diegu [nahi dugula konponbidearen zati(a) izan daitezen]».
– «Esan diegu [nahi dugula zati(a) izan daitezen konponbideaN]».

2.3.11.

**Afganistanen ustezko 40 ekintzaile hil dituzte aste honetan**

Ameriketako Estatu Batuetako Armadak aste honetan ustezko 40 ekintzaile baino gehiago hil dituztela jakinarazi zuen atzo.

– Ameriketako Estatu Batuetako Armadak atzo jakinarazi zuen [(EZEN) aste honetan ustezko 40 ekintzaile baino gehiago hil dituztela].
– Ameriketako Estatu Batuetako Armadak atzo jakinarazi zuen [(EZEN) ustezko 40 ekintzaile baino gehiago hil dituztela aste honetan].

2.3.12.

**Jaurlaritzak egonkortasun hitzarmena ezabatu nahi duela salatu dute sindikatuek**

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) egonkortasun hitzarmena arriskuan egon daitekeela ohartarazi dute ELA, LAB, EILAS eta UGT sindikatuek.

– ELA, LAB, EILAS eta UGT sindikatuek ohartarazi dute [(EZEN) Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) egonkortasun hitzarmena arriskuan egon daitekeela].
– ELA, LAB, EILAS eta UGT sindikatuek ohartarazi dute [(EZEN) arriskuan egon daitekeela Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) egonkortasun hitzarmena].
– ELA, LAB, EILAS eta UGT sindikatuek ohartarazi dute [(EZEN) arriskuan egon daitekeela egonkortasun hitzarmena Euskal Autonomia ErkidegoAN (EAE)].

2.3.13.

**CNNk datorren ekitaldirako irabaziak espero ditu Sestaoko Naval ontziolan**

Langileak «pixkanaka baina hainbat arinen» gutxituko dituztela esan du Jose Luis Alvarezek.

– Jose Luis Alvarezek esan du [(EZEN) langileak «pixkanaka baina hainbat arinen» gutxituko dituztela].
– Jose Luis Alvarezek esan du [(EZEN) «pixkanaka baina hainbat arinen» gutxituko dituztela langileak].

2.3.14.

**Garzonen autoa EAEko Auzitegira bidali dute, Ibarretxeren aurkako kereila indargabetu dezaten**

PSE-Batasuna bilera euskal gizartean «naturaltasunez» onartzen dela esan du EAEko lehendakariak.

– EAEko lehendakariak esan du [(EZEN) PSE-Batasuna bilera euskal gizartean «naturaltasunez» onartzen dela].
– EAEko lehendakariak esan du [(EZEN) euskal gizartean «naturaltasunez» onartzen dela PSE-Batasuna bilera].
– EAEko lehendakariak esan du [(EZEN) «naturaltasunez» onartzen dela PSE-Batasuna bilera euskal gizartean].

... «natural-natural»...

2.3.15.

**Mahai bat: Nafarroan.** Nafarren eskubidea jorratu beharko luketela diote.

– Diote [nafarren eskubidea jorratu beharko luketela].

# 3. unitatea

## (ERDARAZKO PARTIKULA KAUSAL BATZUK)

***SOLUZIOAK***

3.3.1.

**Auto eta txirrindulari baten arteko istripua**

65 urteko txirrindulari batek zauri larriak pairatu zituen atzo Galdakaon auto batek kolpatu ondoren.

Esangura kausala dauka: kolpatu zuelako pairatu zituen zauri larriak.

– 65 urteko txirrindulari batek zauri larriak pairatu zituen atzo Galdakaon auto batek kolpatu**TA**.

3.3.2.

**Gizonezko bat hil da Balmasedan, autoa errepidetik aterata**

Balmasedako 52 urteko E.B.P. gizonezkoa hil zen atzo Balmasedan bertan, gidatzen zuen autoak A-67 autobidetik atera ostean.

Esangura kausala dauka: hil zen autobidetik atera zelako.

– Balmasedako 52 urteko E.B.P. gizonezkoa hil zen atzo Balmasedan bertan, gidatzen zuen autoak A-67 autobidetik atera**TA**.

3.3.3.

**Beste tragedia bat eragin du Iranen istripu batek**

Gutxienez 182 pertsona hil ziren atzo Iranen, merkantzia tren bat lehertzean.

Esangura kausala du: hil ziren merkantzia trena lehertu zelako.

– Gutxienez 182 pertsona hil ziren atzo Iranen, merkantzia tren bat lehertu**TA**.

3.3.4.

MENTIRAS ARRIESGADAS

**Kaliforniako gobernadorea gezurretan**. Hamar urte lehenago *Terminator* film ezaguna elkarrekin egin ondoren, James Cameron (*Abyss, Titanic*) eta Arnold Schwarzenneger berriro elkartu ziren akzio film halamoduzko hau egiteko.

Denborazko esangura hutsa: lehen *Terminator* filma egin zutelako ez dira orain elkartu pelikula honetan.

Perpausa ondo dago dagoen modu-moduan.

3.3.5.

**Europako adituak datorren astean etorriko dira Euskal Herrira**

XABIER MENDIGUREN (Kontseiluko idazkari nagusia): «Espainiak itxurakeria hutsa egin zuen Euroituneko konpromisoak berrestean».

Denborazko esangura hutsa: konpromisoak ez ziren berretsi Espainiak itxurakeria egin zuelako.

Perpausa ondo dago dagoen bestean.

3.3.6.

**Garoña da martxan dagoen lehen belaunaldiko zentral bakarra**

Atzo gauerdian Zorita zentral nuklearra itxi ostean, Garoña da lehen belaunaldiko planta bakarra.

Esangura kausala dauka: Zorita itxi zelako Garona geratzen da bakarra, bi zeuden-eta.

– Atzo gauerdian Zorita zentral nuklearra itxi**TA**, Garoña da lehen belaunaldiko planta bakarra.

3.3.7.

**Bat hobetzen, bestea larri**

Jaitsierako postuetatik irten da Reala Racingi irabazita, eta Alaves zuloan sartu da, Mallorcaren aurka berdindu ostean.

Esangura kausala du: Alaves zuloan sartu da Mallorcaren aurka berdindu duelako.

– Jaitsierako postuetatik irten da Reala Racingi irabazita, eta Alaves zuloan sartu da, Mallorcaren aurka berdindu**TA**.

3.3.8.

**Lidergotik gertu segitzen du Tauk Etosari irabazi ondoren**

Tau Baskoniak ACB Ligako lidergotik gertu jarraitzen du, 32. jardunaldiko partidan Etosa Alacant mendean hartu ondoren.

Esangura kausala dauka: lidergotik hur segitzen du irabazi zuelako.

– Tau Baskoniak ACB Ligako lidergotik gertu jarraitzen du, 32. jardunaldiko partidan Etosa Alacant mendean hartu**TA**.

3.3.9.

**Trainerilen estropada**

ONDARROA. Batelen denboraldia amaitu ostean, trainerilen txanda dator.

Esangura kausala du: trainerilen denboraldia dator batelena amaitu delako, halaxe egiten da, bataren ostean bestea.

– ONDARROA. Batelen denboraldia amaitu**TA**, trainerilen txanda dator.

3.3.10.

**Perezek lau urte ditu UPV euskaldunagoa egiteko**

Joan Ignacio Perez Iglesias "Iñako" da UPVko errektore berria, buruz burukoan Iñaki Antiguedadi erraz nagusitu ostean.

Esangura kausala du: Perez da errektore berria irabazi diolako Antiguedadi.

– Joan Ignacio Perez Iglesias "Iñako" da UPVko errektore berria, buruz burukoan Iñaki Antiguedadi erraz nagusitu**TA**.
– JJoan Ignacio Perez Iglesias "Iñako" da UPVko errektore berria, erraz nagusitu**TA** Iñaki Antiguedadi buruz burukoan.

3.3.11.

**Patxi GARAT Kantaria**

Patxi Garat 25 urteko saratarra duela bi urte Ipar Euskal Herrian eta Estatu Frantsesean ezagun egin zen "Star Academy" emankizunean agertu ondoren.

Esangura kausala du: Garat ezaguna egin zen telebistan agertu zelako.

– Patxi Garat 25 urteko saratarra duela bi urte Ipar Euskal Herrian eta Estatu Frantsesean ezagun egin zen "Star Academy" emankizunean agertu**TA**.

3.3.12.

**Xabier Perez Susperregi, atxilotu ostean askatuta**

Semea goizean ikastolan utzi ostean atxilotu zuten Xabier Perez Susperregi, Baionan.

Denborazko esangura hutsa: ez zuten atxilotu semea ikastolan utzi zuelako.

Ondo dago dagoenean.

3.3.13.

**«Gure uste sendoei eutsi genien eta borrokan jarraitzen dugu»**

Felix Padin bizkaitarrak aski ongi ezagutu zituen Miranda-Ebroko kontzentrazio eremuan gertatu ziren miseria eta irainak, bertan hiru aldiz izan ondoren.

Esangura kausala dauka: irainak-eta ongi ezagutu zituen bertan hiru bider izan zelako.

– Felix Padin bizkaitarrak aski ongi ezagutu zituen Miranda-Ebroko kontzentrazio eremuan gertatu ziren miseria eta irainak, bertan hiru aldiz izan**DA**.

3.3.14.

**Beste langile bat hil da, Lasarten, aurtengo hirugarrena**

Eraikin bat margotzen zebilen, lokarri barik, eta bosgarren solairutik jausi zen, aldamioa mugitzean.

Esangura kausala dauka: jausi zen aldamioa mugitu zelako.

– Eraikin bat margotzen zebilen, lokarri barik, eta bosgarren solairutik jausi zen, aldamioa mugitu**TA**.

3.3.15.

**Urliari** [Datorren izena kendua]

Harri eta zur geratu nintzen joan den abenduaren 22an *Berri*an zure gutuna irakurtzean.

Esangura kausala du: harri eta zur geratu nintzen gutuna irakurri nuelako.

– Harri eta zur geratu nintzen joan den abenduaren 22an *Berri*an zure gutuna irakurri**TA**.

# 4. unitatea

## (GERUNDIO MOTA BAT)

***SOLUZIOAK***

Emango ditugun soluzioetan zalantzazkotzat joko ditugu (eta jarri interrogantea (?)) perpaus gerundialetan lehenengo lekuan badute aditza —jokatugabea zein jokatua—.

4.3.1.
Alkateak dekretu bat argitaratu du denden ordutegia emanez.

[denden ordutegia emanez]

**Aditza aurrerengo jarrita**
– Alkateak dekretu bat argitaratu du, *emanez* denden ordutegia. (?)
– Alkateak dekretu bat argitaratu du, *ematen duela(rik)* denden ordutegia. (?)

***Eta* juntagailua**
– Alkateak dekretu bat argitaratu du, ETA BERTAN/HAN ematen du denden ordutegia.

**Zeinismoa**
– Alkateak dekretu bat argitaratu du, ZEINETAN ematen dueN denden ordutegia.

**Nonismoa**
– Alkateak dekretu bat argitaratu du, NON ematen BAITu denden ordutegia.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Alkateak dekretu bat argitaratu du, ematen deNA denden ordutegia.

4.3.2.
**Haserre**
Idazleak idatzi bat bidali zuen behin egunkarira, gobernuaren politika auzitan jarriz.

[gobernuaren politika auzitan jarriz]

**Aditza aurrerengo jarrita**

– Idazleak idatzi bat bidali zuen behin egunkarira, auzitan *jarriz* gobernuaren politika. (?)
– Idazleak idatzi bat bidali zuen behin egunkarira, auzitan *jartzen zuela(rik)* gobernuaren politika. (?)

***Eta* juntagailua**

– Idazleak idatzi bat bidali zuen behin egunkarira, ETA BERTAN/HAN auzitan jartzen zuen gobernuaren politika.

**Zeinismoa**

– Idazleak idatzi bat bidali zuen behin egunkarira, ZEINETAN auzitan jartzen BAITzuen gobernuaren politika.

**Nonismoa**

– Idazleak idatzi bat bidali zuen behin egunkarira, NON auzitan jartzen zueN gobernuaren politika.

Azken aldaeran pentsa daiteke NONek erreferentzia egiten diola *egunkaria*ri (... egunkaria, NON...). Nahaste hori saihesteko, aldaketatxo bat egingo dugu, NON aurretik kenduta *egunkaria* eta *idatzi bat* jarrita. Horrela argi geratzen da lehenengotik NONek erreferentzia egin diola *idatzi bat*i.

– Idazleak behin egunkarira bidali zuen idatzi bat, NON auzitan jartzen zueN gobernuaren politika.

**Egitura erlatibo jokatua**

– Idazleak behin egunkarira bidali zuen idatzi bat, auzitan jartzen zeNA gobernuaren politika.

4.3.3.

Nafarroako EHk Oinarrizko Errenta LGSra egokitzeko proposamena egin du 84.000 pezetara igotzea eskatuz.

[84.000 pezetara igotzea eskatuz]

**Aditza aurrerengo jarrita**

– Nafarroako EHk Oinarrizko Errenta LGSra egokitzeko proposamena egin du, *eskatuz* 84.000 pezetara igotzeKO. (?)
– Nafarroako EHk Oinarrizko Errenta LGSra egokitzeko proposamena egin du, *eskatzen duela(rik)* 84.000 pezetara igotzeKO. (?)

***Eta* juntagailua**

– Nafarroako EHk Oinarrizko Errenta LGSra egokitzeko proposamena egin du, ETA BERTAN/HAN eskatzen du 84.000 pezetara igotzeko.

**Zeinismoa**
– Nafarroako EHk Oinarrizko Errenta LGSra egokitzeko proposamena egin du, ZEINETAN eskatzen BAITu 84.000 pezetara igotzeko.

**Nonismoa**
– Nafarroako EHk Oinarrizko Errenta LGSra egokitzeko proposamena egin du, NON eskatzen dueN 84.000 pezetara igotzeko.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Nafarroako EHk Oinarrizko Errenta LGSra egokitzeko proposamena egin du, eskatzen deNA 84.000 pezetara igotzeko.

4.3.4.
Tabernan topo egin, eta honelaxe esan ziguten: «Ezkontzera goaz». Segidan, kartazal bat luzatu ziguten, nire eta lagunaren izenarekin. Barruan, poesia eder bat, ezkontzarako gonbidapena luzatuz.

[ezkontzarako gonbidapena luzatuz]

**Aditza aurrerengo jarrita**
– Tabernan topo egin, eta honelaxe esan ziguten: «Ezkontzera goaz». Segidan, kartazal bat luzatu ziguten, nire eta lagunaren izenarekin. Barruan, poesia eder bat, *luzatuz* ezkontzarako gonbidapena. (?)
– Tabernan topo egin, eta honelaxe esan ziguten: «Ezkontzera goaz». Segidan, kartazal bat luzatu ziguten, nire eta lagunaren izenarekin. Barruan, poesia eder bat, *luzatzen zigutela(rik)* ezkontzarako gonbidapena. (?)

***Eta* juntagailua**
– Tabernan topo egin, eta honelaxe esan ziguten: «Ezkontzera goaz». Segidan, kartazal bat luzatu ziguten, nire eta lagunaren izenarekin. Barruan, poesia eder bat, ETA BERTAN/HAN luzatzen ziguten ezkontzarako gonbidapena.

**Zeinismoa**
– Tabernan topo egin, eta honelaxe esan ziguten: «Ezkontzera goaz». Segidan, kartazal bat luzatu ziguten, nire eta lagunaren izenarekin. Barruan, poesia eder bat, ZEINETAN luzatzen ziguteN ezkontzarako gonbidapena.

**Nonismoa**
– Tabernan topo egin, eta honelaxe esan ziguten: «Ezkontzera goaz». Segidan, kartazal bat luzatu ziguten, nire eta lagunaren izenarekin. Barruan, poesia eder bat, NON luzatzen BAITziguten ezkontzarako gonbidapena.

**Egitura erlatibo jokatua**

– Tabernan topo egin, eta honelaxe esan ziguten: «Ezkontzera goaz». Segidan, kartazal bat luzatu ziguten, nire eta lagunaren izenarekin. Barruan, poesia eder bat, luzatzen zitzaiguNA ezkontzarako gonbidapena.

Antza, *luzatu* aditza barik *egin* hobeto dago.

4.3.5.

**EUSKAL HERRIKO BASA NATURA** (Liburua)

Bitoriano Gandiagaren poema batek zabaltzen du argazki liburu dotore hau, naturari gorazarre eginez.

[naturari gorazarre eginez]

**Aditza aurrerengo jarrita**

– Argazki liburu dotore hau Bitoriano Gandiagaren poema batek zabaltzen du, gorazarre *eginez* naturari. (?)
– Argazki liburu dotore hau Bitoriano Gandiagaren poema batek zabaltzen du, gorazarre *egiten zaiola(rik)* naturari. (?)

***Eta* juntagailua**

– Argazki liburu dotore hau Bitoriano Gandiagaren poema batek zabaltzen du, ETA BERTAN/HAN gorazarre egiten zaio naturari.

**Zeinismoa**

– Argazki liburu dotore hau Bitoriano Gandiagaren poema batek zabaltzen du, ZEINETAN gorazarre egiten zaioN naturari.

**Nonismoa**

– Argazki liburu dotore hau Bitoriano Gandiagaren poema batek zabaltzen du, NON gorazarre egiten BAITzaio naturari.

**Egitura erlatibo jokatua**

– Argazki liburu dotore hau Bitoriano Gandiagaren poema batek zabaltzen du, gorazarre egiten zaioNA naturari.

4.3.6.

OAXACAKO EGUNEROKOA [Liburua]

XIX.mendeko zientzialarien egunerokoak oinarri harturik, Oliver Sack neurologia irakasleak kaiera hau aurkezten digu, Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura aztertuz.

[Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura aztertuz]

**Aditza aurrerengo jarrita**

– XIX. mendeko zientzialarien egunerokoak oinarri harturik, Oliver Sack neurologia irakasleak kaiera hau aurkezten digu, *aztertuz* Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura. (?)
– XIX.mendeko zientzialarien egunerokoak oinarri harturik, Oliver Sack neurologia irakasleak kaiera hau aurkezten digu, *aztertzen dituela(rik)* Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura. (?)

***Eta* juntagailua**

– XIX. mendeko zientzialarien egunerokoak oinarri harturik, Oliver Sack neurologia irakasleak kaiera hau aurkezten digu, ETA BERTAN/HAN aztertzen ditu Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura.

**Zeinismoa**

– XIX. mendeko zientzialarien egunerokoak oinarri harturik, Oliver Sack neurologia irakasleak kaiera hau aurkezten digu, ZEINETAN aztertzen BAITitu Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura.

**Nonismoa**

– XIX. mendeko zientzialarien egunerokoak oinarri harturik, Oliver Sack neurologia irakasleak kaiera hau aurkezten digu, NON aztertzen ditueN Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura.

**Egitura erlatibo jokatua**

– XIX. mendeko zientzialarien egunerokoak oinarri harturik, Oliver Sack neurologia irakasleak kaiera hau aurkezten digu, aztertzen ditueNA Oaxacako (Mexiko) landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura.

Azken partean badago orraztutxo bat egiterik (kontuan hartuta zer esan dugun 5. unitatean), eta irabazian ateratzen da perpausa:

– aztertzen ditu landaretza, gizartea, ohiturak, gastronomia eta kultura OaxacaN (Mexiko).

4.3.7.

Urliak proposamen bat egin du euskarari eman behar zaion tratamendua jasoz.

[euskarari eman behar zaion tratamendua jasoz]

**Aditza aurrerengo jarrita**
– Urliak proposamen bat egin du, *jasoz* euskarari eman behar zaion tratamendua. (?)
– Urliak proposamen bat egin du, *jasotzen duela(rik)* euskarari eman behar zaion tratamendua. (?)

***Eta* juntagailua**
– Urliak proposamen bat egin du, ETA BERTAN/HAN jasotzen du euskarari eman behar zaion tratamendua.

**Zeinismoa**
– Urliak proposamen bat egin du, ZEINETAN jasotzen dueN euskarari eman behar zaion tratamendua.

**Nonismoa**
– Urliak proposamen bat egin du, NON jasotzen BAITu euskarari eman behar zaion tratamendua.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Urliak proposamen bat egin du, jasotzen deNA euskarari eman behar zaion tratamendua.

4.3.8.
Urliak adierazpen batzuk egin ditu, esanez ETAk armak utzi behar dituela.
[esanez ETAk armak utzi behar dituela]

**Aditza aurrerengo jarrita**
– Urliak adierazpen batzuk egin ditu, *esaten duela(rik)* ETAk armak utzi behar dituela (?)

***Eta* juntagailua**
– Urliak adierazpen batzuk egin ditu, ETA EURETAN esaten du ETAk armak utzi behar dituela.

**Zeinismoa**
– Urliak adierazpen batzuk egin ditu, ZEINTZUETAN esaten dueN ETAk armak utzi behar dituela.
– Urliak adierazpen batzuk egin ditu, ZEINTZUETAN esaten BAITu ETAk armak utzi behar dituela.

**Nonismoa**
– Urliak adierazpen batzuk egin ditu, NON esaten dueN ETAk armak utzi behar dituela

4.3.9.
Gutun bat heldu zait trafikotik, 200 euro pagatu behar ditudala ohartaraziz.
[200 euro pagatu behar ditudala ohartaraziz]

**Aditza aurrerengo jarrita**
– Gutun bat heldu zait trafikotik, *ohartaraziz* 200 euro pagatu behar ditudala. (?)
– Gutun bat heldu zait trafikotik, *ohartarazten didatela(rik)* 200 euro pagatu behar ditudala. (?)

***Eta* juntagailua**
– Gutun bat heldu zait trafikotik, ETA BERTAN/HAN ohartarazten didate 200 euro pagatu behar ditudala.

**Zeinismoa**
– Gutun bat heldu zait trafikotik, ZEINETAN ohartarazten didateN 200 euro pagatu behar ditudala.

**Nonismoa**
– Gutun bat heldu zait trafikotik, NON ohartarazten BAITidate 200 euro pagatu behar ditudala.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Gutun bat heldu zait trafikotik, ohartarazten zaidaNA 200 euro pagatu behar ditudala.

***–T(z)eko* adizlaguna**
– Gutun bat heldu zait trafikotik, ohartarazTEKO 200 euro pagatu behar ditudala.

4.3.10.
Udaletxera erakunde publikoetatik gaztelania hutsezko gutunen bat heltzen denean, bueltan bidaliko dut, udalak euskaraz nahi duela eskatuz.
[udalak euskaraz nahi duela eskatuz]

**Aditza aurrerengo jarrita**
– Udaletxera erakunde publikoetatik gaztelania hutsezko gutunen bat heltzen denean, bueltan bidaliko dut, *eskatuz* udalak euskaraz nahi duela. (?)
– Udaletxera erakunde publikoetatik gaztelania hutsezko gutunen bat heltzen denean, bueltan bidaliko dut, *eskatuko dudala(rik)* udalak euskaraz nahi duela. (?)

***Eta* juntagailua**
– Udaletxera erakunde publikoetatik gaztelania hutsezko gutunen bat heltzen denean, bueltan bidaliko dut, ETA BERTAN/HAN eskatuko dut udalak euskaraz nahi duela.

**Zeinismoa**
– Udaletxera erakunde publikoetatik gaztelania hutsezko gutunen bat heltzen denean, bueltan bidaliko dut, ZEINETAN eskatuko BAITut udalak euskaraz nahi duela.

**Nonismoa**
– Udaletxera erakunde publikoetatik gaztelania hutsezko gutunen bat heltzen denean, bueltan bidaliko dut, NON eskatuko dudaN udalak euskaraz nahi duela.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Udaletxera erakunde publikoetatik gaztelania hutsezko gutunen bat heltzen denean, bueltan bidaliko dut, eskatuko deNA udalak euskaraz nahi duela. (?)

4.3.11.
Urliak hain egunkaritan gutun bat idatzi du kritikatuz Espainiako Gobernuaren jarrera.

[kritikatuz Espainiako Gobernuaren jarrera]

**Aditza aurrerengo jarrita**
– Urliak hain egunkaritan gutun bat idatzi du, *kritikatzen duela(rik)* Espainiako Gobernuaren jarrera. (?)

***Eta* juntagailua**
– Urliak hain egunkaritan gutun bat idatzi du, ETA BERTAN/HAN kritikatzen du Espainiako Gobernuaren jarrera.

**Zeinismoa**
– Urliak hain egunkaritan gutun bat idatzi du, ZEINETAN kritikatzen dueN Espainiako Gobernuaren jarrera.

**Nonismoa**
– Urliak hain egunkaritan gutun bat idatzi du, NON kritikatzen BAITu Espainiako Gobernuaren jarrera.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Urliak hain egunkaritan gutun bat idatzi du, kritikatzen deNA Espainiako Gobernuaren jarrera.

4.3.12.

Nire lanaren kopia bat bidaliko dizut iritzia eskatuz.

[iritzia eskatuz]

**Aditza aurrerengo jarrita**

– Nire lanaren kopia bat bidaliko dizut, *eskatuz* iritzia. (?)
– Nire lanaren kopia bat bidaliko dizut, *eskatuko dizudala(rik)* iritzia. (?)

***Eta* juntagailua**

– Nire lanaren kopia bat bidaliko dizut, ETA BERTAN/HAN eskatuko dizut iritzia.

**Zeinismoa**

– Nire lanaren kopia bat bidaliko dizut, ZEINETAN eskatuko BAITizut iritzia.

**Nonismoa**

– Nire lanaren kopia bat bidaliko dizut, NON eskatuko dizudaN iritzia.

***-T(z)eko* adizlaguna**

– Nire lanaren kopia bat bidaliko dizut, iritzia eskaTZEKO.

4.3.13.

Lekukotasuna ematen duenak, horko gorabeherak inork baino hobeto ezagututa, liburu bat idatzi du, talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak kontatuz.

[talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak kontatuz]

**Aditza aurrerengo jarrita**

– Lekukotasuna ematen duenak, horko gorabeherak inork baino hobeto ezagututa, liburu bat idatzi du, *kontatuz* talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak. (?)
– Lekukotasuna ematen duenak, horko gorabeherak inork baino hobeto ezagututa, liburu bat idatzi du, *kontatzen dituela(rik)* talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak. (?)

***Eta* juntagailua**

– Lekukotasuna ematen duenak, horko gorabeherak inork baino hobeto ezagututa, liburu bat idatzi du, ETA BERTAN/HAN kontatzen ditu talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak.

**Zeinismoa**
– Lekukotasuna ematen duenak, horko gorabeherak inork baino hobeto ezagututa, liburu bat idatzi du, ZEINETAN kontatzen BAITitu talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak.

**Nonismoa**
– Lekukotasuna ematen duenak, horko gorabeherak inork baino hobeto ezagututa, liburu bat idatzi du, NON kontatzen ditueN talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak.

***-T(z)eko* adizlaguna**
– Lekukotasuna ematen duenak, horko gorabeherak inork baino hobeto ezagututa, liburu bat idatzi du, kontaTZEKO talde horien antolamendu, txarkeria eta gehiegikerien gorabehera eta xehetasunak.

4.3.14.
**‘18/98 auziaren’ epaiketa bertan behera uzteko eskatu dute 500 lagun inguruk**
Oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko eskatuz, manifestazio egin zuten atzo iluntzean 500 bat lagunek Donostiako kaleetan.

[Oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko eskatuz]
Eskema:

Atzo iluntzean Donostiako kaleetan 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten, [gerundioaren ordaina euskaraz]

**Aditza aurrerengo jarrita**
– Atzo iluntzean Donostiako kaleetan 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten, *eskatuz* oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko. (?)
– Atzo iluntzean Donostiako kaleetan 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten, *eskatu zutela(rik)* oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko. (?)

***Eta* juntagailua**
– Atzo iluntzean Donostiako kaleetan 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten, ETA BERTAN eskatu zuten oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko.

**Zeinismoa**
– Atzo iluntzean Donostiako kaleetan 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten, ZEINETAN eskatu zuteN oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko.

**Nonismoa**

– Atzo iluntzean Donostiako kaleetan 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten, NON eskatu BAITzuten oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko.

***-T(z)eko* adizlaguna**

– Atzo iluntzean Donostiako kaleetan 500 bat lagunek manifestazioa egin zuten, eskaTZEKO oinarri politikoen gainean eraikitako epaiketak alboratzeko.

4.3.15.

Euskal nazioa onartzeko eskatuz eskutitza bidali diote Zapaterori

[Euskal nazioa onartzeko eskatuz]

Eskema:

Zapaterori eskutitza bidali diote [gerundioaren ordaina euskaraz]

**Aditza aurrerengo jarrita**

– Eskutitza bidali diote Zapaterori, *eskatuz* Euskal nazioa onartzeko. (?)
– Eskutitza bidali diote Zapaterori, *eskatzen diotela(rik)* Euskal nazioa onartzeko. (?)

***Eta* juntagailua**

– Eskutitza bidali diote Zapaterori, ETA BERTAN/HAN eskatu diote Euskal nazioa onartzeko.
– Eskutitza bidali diote Zapaterori, ETA BERTAN eskatzen diote Euskal nazioa onartzeko.

**Zeinismoa**

– Eskutitza bidali diote Zapaterori, ZEINETAN eskatzen BAITiote Euskal nazioa onartzeko.

**Nonismoa**

– Eskutitza bidali diote Zapaterori, NON eskatzen dioteN Euskal nazioa onartzeko.

Azkeneko aldaera biotan *eskutitza* hurrera dakieke ZEINETAN eta NONi:

– Zapaterori *eskutitza* bidali diote, ZEINETAN eskatzen dioteN Euskal nazioa onartzeko.
– Zapaterori bidali diote *eskutitza*, NON eskatzen dioteN Euskal nazioa onartzeko.

**Egitura erlatibo jokatua**

– Zapaterori bidali diote *eskutitza*, eskatzen zaioNA Euskal nazioa onartzeko

***-T(z)eko* adizlaguna**

– Zapaterori *eskutitza* bidali diote, eskaTZEKO Euskal nazioa onartzeko.

# 5. unitatea

## (*-KO* ATZIZKIA SINTAGMA BATZUETAN)

***SOLUZIOAK***

5.3.1.

**Belokik eta Ruizek finalerdietarako hirugarren txartela dute jokoan gaur, Iruñeko Labriten**

Buruz buruko bi txapeldun ohik elkarren aurka jokatuko dute gaur, Iruñeko Labrit pilotalekuan (22:00, ETB1)

[Iruñeko Labrit pilotalekuan]

– Buruz buruko bi txapeldun ohik elkarren aurka jokatuko dute gaur, IruñeaN, Labrit pilotalekuan.
– Buruz buruko bi txapeldun ohik elkarren aurka jokatuko dute gaur, Labrit pilotalekuaN, IruñeaN.

5.3.2.

**Bortuko lagunak**

Organbidexka eta Saiak elkarteek *Saiak Bortuko Lagunak* erakusketa antolatu dute Baionako Mattin megadendan.

[Baionako Mattin megadendan]

– Organbidexka eta Saiak elkarteek *Saiak Bortuko Lagunak* erakusketa antolatu dute BaionaN, Mattin megadendan.
– Organbidexka eta Saiak elkarteek *Saiak Bortuko Lagunak* erakusketa antolatu dute Mattin megadendaN, BaionaN.

5.3.3.

**Urteko 13. langilea hil da Urretxun**

Tomas Etxeberria Mendiguren zendu zen ostegunean Urretxuko Ofitas harrobian lanean ziharduela.

[Urretxuko Ofitas harrobian ]

– Tomas Etxeberria Mendiguren zendu zen ostegunean UrretxuN, Ofitas harrobian lanean ziharduela.
– Tomas Etxeberria Mendiguren zendu zen ostegunean Ofitas harrobiaN, UrretxuN, lanean ziharduela.

– Tomas Etxeberria Mendiguren zendu zen ostegunean [lanean ziharduela] UrretxuN, Ofitas harrobian.
– Tomas Etxeberria Mendiguren zendu zen ostegunean [lanean ziharduela] Ofitas harrobiaN, UrretxuN.

5.3.4.

**Bi etxe okupatu hustu dituzte, bat Donostian eta bestea Gasteizen**

Etxe okupatu bat hustu zuten atzo Donostiako Morlans auzoan ertzainek eta udaltzainek, eta eraitsi.

[Donostiako Morlans auzoan]

– Etxe okupatu bat hustu zuten atzo DonostiaN, Morlans auzoan(,) ertzainek eta udaltzainek, eta eraitsi.
– Etxe okupatu bat hustu zuten atzo ertzainek eta udaltzainek DonostiaN, Morlans auzoan, eta eraitsi.
– Etxe okupatu bat hustu zuten atzo ertzainek eta udaltzainek Morlans auzoan, DonostiaN, eta eraitsi
– Etxe okupatu bat hustu zuten atzo ertzainek eta udaltzainek DonostiaN, Morlans auzoan, BAITA eraitsi ERE.
– Etxe okupatu bat hustu zuten atzo ertzainek eta udaltzainek Morlans auzoan, DonostiaN, BAITA eraitsi ERE.

5.3.5.

**Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan ariko da bihar EOS**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan ariko da bihar Principal antzokian aritu beharrean.

[Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan]

– Euskadiko Orkestra Sinfonikoa bihar GasteizEN ariko da, Jesus Guridi kontserbatorioan, Principal antzokian aritu beharrean.
– Euskadiko Orkestra Sinfonikoa bihar GasteizEN ariko da, Jesus Guridi kontserbatorioan, aritu beharrean Principal antzokian.

5.3.6.

**Himalaya**

Napalgo herriska batean, buruzagia istripuz hil da.

[Napalgo herriska batean]

– NapaleN, herriska batean, buruzagia istripuz hil da.
– Herriska batean, NapaleN, buruzagia istripuz hil da.

5.3.7.

**Indarkeria ate joak Atencon**

Aihotzak dira San Salvador Atenco nekazari herriko biztanle gehienen lanabesa.

[San Salvador Atenco nekazari herriko biztanle...]

– Aihotzak dira San Salvador Atenco nekazari herriAN biztanle gehienen lanabesa.
– Aihotzak DITUZTE San Salvador Atenco nekazari herriAN biztanle gehienEK lanabes.
– Aihotzak DITUZTE lanabes biztanle gehienEK San Salvador Atenco nekazari herriAN.

5.3.8.

**Bi 'atsoak' ospitalera joango dira bisitan**

Wazemank saioko bi atsoak ospitalera joango dira lagun bat bisitatzera, eta langile guztiak aztoratuko dituzte.

[Wazemank saioko bi atsoak]

– Wazemank saioAN, bi atsoak ospitalera joango dira lagun bat bisitatzera, eta langile guztiak aztoratuko dituzte.

5.3.9.

**Euskal Herria ezkerretik eraikiz, Euskal Herri sozialista!**

Aurtengo maiatzaren lehena kontestu berezian kokatzen da zalantzarik gabe.

[Aurtengo maiatzararen lehena],

– AurtenØ maiatzaren lehena kontestu berezian kokatzen da zalantzarik gabe.

5.3.10.

**«Erabakia ezingo da Madrilen berriz negoziatu», esan du EAk**

«Berezia» izango da aurtengo Aberri Eguna Onintza Lasa EAren Komunikazio arduradunaren esanetan.

[aurtengo Aberri Eguna]

– «Berezia» izango da aurtenØ Aberri Eguna Onintza Lasa EAren Komunikazio arduradunaren esanetan.

Badirudi koma baten beharra dagoela *Aberri Egunar*en ostean.

5.3.11.

**Urte hasiera oparo eta sendoa**

«Ez nuen espero txapela janztea» adierazi zuen Donato Larretxeak, igandeko Urrezko Aizkora irabazita.

[igandeko Urrezko Aizkora]

– «Ez nuen espero txapela janztea» adierazi zuen Donato Larretxeak(,) igandeAN, Urrezko Aizkora irabazita.

5.3.12.
**EN LA CUMBRE**
Bost pertsonaren bizitza gurutzatu egingo da New Yorken, udazkeneko egun batean.

[udazkeneko egun batean]

– Bost pertsonaren bizitza gurutzatu egingo da New Yorken, udazkeneAN, egun batean.
– Bost pertsonaren bizitza gurutzatu egingo da New Yorken, egun batean, udazkeneAN.

Perpaus hasieran para daitezke NON (New Yorken) eta NOIZak (egun batean, udazkeneAN)

5.3.13.
**Bost lagun hil dira Kaxmirren,mezkita baten aurkako erasoan**
NWDELHI. Indiaren mendeko Kaxmirko Pulwana barrutiko meskita batera esku granada bat jaurti zuten atzo, eta erasoaren ondorioz bost lagun hil eta 50 zauritu ziren.

[Kaxmirko Pulwana barrutiko meskita batera]

– Indiaren mendeko Kaxmirko Pulwana barrutiAN, meskita batera esku granada bat jaurti zuten atzo, eta erasoaren ondorioz bost lagun hil eta 50 zauritu ziren.
– Indiaren mendeko Kaxmirko Pulwana barrutiAN, esku granada bat jaurti zuten atzo [meskita batera], eta erasoaren ondorioz bost lagun hil eta 50 zauritu ziren.
– Indiaren mendeko Kaxmirko Pulwana barrutiAN, [atzo] esku granada bat jaurti zuten meskita batera, eta erasoaren ondorioz bost lagun hil eta 50 zauritu ziren.
– Indiaren mendeko Kaxmirko Pulwana barrutiAN, atzo jaurti zuten esku [granada bat] meskita batera, eta erasoaren ondorioz bost lagun hil eta 50 zauritu ziren.

Perpaus hasieran marapilo ederra dago (Indiaren mendeko Kaxmirko...). Txarto informatuta ez bagaude Kaxmir, osorik, Indiaren mendean dago. Horren arabera, beste irtenbide batzuk otutzen zaizkigu jatorrizkoa baino hobeak:

– Indiaren mendeko KaxmirreN, Pulwana barrutiAN...
– KaxmirreN, (BERAU)Indiaren mendeaN, Pulwana barrutiAN...
– KaxmirreN, ZEINA Indiaren mendean BAITAGO, BERTAKO/HANGO Pulwana barrutiAN...

Edo:

– IndiaN, KaxmirreN, Pulwana barrutiAN...

5.3.14.

**TANKE ERDI HUTSEKO GREBA**

Halamoduzko emaitzak eman ditu Araban eta Nafarroan deitutako gasolina zerbitzuetako grebak.

[gasolina zerbitzuetako grebak]

– Halamoduzko emaitzak eman ditu Araban eta Nafarroan deitutako gasolina zerbitzuetaN grebak (pauso hau bitartekotzat eman dugu hurrengoa hobeto ulertzeko).
– Halamoduzko emaitzak eman ditu Araban eta Nafarroan deitutako grebak gasolina zerbitzuetaN.

5.3.15.

**Bilboko kaleak egokitu egingo dituzte zirkulazioa hobeto antolatzeko**

Bilboko kaleak egokituko dituzte hirigune barruko trafikoa hobeto antolatzeko.

[hirigune barruko trafikoa]

– Bilboko kaleak egokituko dituzte hirigune barruAN, trafikoa hobeto antolatzeko.
– Bilboko kaleak egokituko dituzte hirigune barruAN, hobeto antolatzeko trafikoa.
– BilboN kaleak egokituko dituzte hirigune barruAN…
– Kaleak egokituko dituzte BilboN, hirigune barruAN, hobeto antolatzeko trafikoa.

# 6. unitatea

## (*-KO* ATZIZKIA POSTPOSIZIO BATZUETAN)

***SOLUZIOAK***

6.3.1.

**YO, PUTA** [Filma]

Kazetari bat prostituzioari buruzko ikerketa bat egiten ari da.

[prostituzioari buruzko ikerketa bat ]

– Kazetari bat prostituzioari buruzØ ikerketa bat egiten ari da.
– Kazetari bat [ikerketa bat] [prostituzioari buruz] egiten ari da.
– Kazetari bat [ikerketa bat] egiten ari da [prostituzioari buruz].

Galdegaia (*ikerketa bat*) ipin daiteke aditz ostean:

– Kazetari bat egiten ari da [ikerketa bat] [prostituzioari buruz].
– Kazetari bat ari da egiten [ikerketa bat] [prostituzioari buruz].

6.3.2.

**ETB1-'Sautrela'**

**EBko herrialde berrietako literatura**

Europako Batasuneko herri berrietako literaturari buruzko erreportaia bat emango dute.

[Europako Batasuneko herri berrietako literaturari buruzko erreportaia bat ]

– Europako Batasuneko herri berrietako literaturari buruzØ erreportaia bat emango dute.
– [Erreportaia bat] emango dute [Europako Batasuneko herri berrietako literaturari buruz].

Galdegaia (*erreportaia*) ipin daiteke aditz ostean:

– (GAUR)Emango dute [erreportaia bat] [Europako Batasuneko herri berrietako literaturari buruz].

Beste bide bat: azken kortxetean informazioa zehar-galdera bidez emanda:

– [Erreportaia bat] emango dute [ZELAKO literatura dagoeN Europako Batasuneko herri berrietaN].
– [Erreportaia bat] emango dute [ZELAKO literatura egiten deN Europako Batasuneko herri berrietaN].

6.3.3.

**Instituzioari buruzko testua hitzartu dute Iparraldeko abertzaleek**

Abertzaleen Batasunak, Batasunak eta Eusko Alkartasunak Ipar Euskal Herrirako instituzio aldarrikapenari buruzko testu bat hitzartu dute.

[Ipar Euskal Herrirako instituzio aldarrikapenari buruzko testu bat]

– Abertzaleen Batasunak, Batasunak eta Eusko Alkartasunak Ipar Euskal Herrirako instituzio aldarrikapenari buruzØ testu bat hitzartu dute.
– Abertzaleen Batasunak, Batasunak eta Eusko Alkartasunak [testu bat] hitzartu dute [Ipar Euskal Herrirako instituzio aldarrikapenari buruz].

Galdegaia (*testu bat*) aditz atzera:

– Abertzaleen Batasunak, Batasunak eta Eusko Alkartasunak hitzartu dute [testu bat][Ipar Euskal Herrirako instituzio aldarrikapenari buruz].
– Abertzaleen Batasunak, Batasunak eta Eusko Alkartasunak hitzartu dute [testu bat][ instituzio aldarrikapenari buruz Ipar Euskal Herrirako].

6.3.4.

**AHT Euskal Herrian, zertarako?**

Eusko Jaurlaritzak eta Madrileko agintariek *Euskal Y*-ari buruzko itun bat izenpetuz gero, protesta asko pizten ari dira Euskal Herrian.

[*Euskal Y*-ari buruzko itun bat]

– Eusko Jaurlaritzak eta Madrileko agintariek *Euskal Y*-ari buruzØ itun bat izenpetuz gero, protesta asko pizten ari dira Euskal Herrian.
– Eusko Jaurlaritzak eta Madrileko agintariek [itun bat] izenpetuz gero [*Euskal Y*-ari buruz], protesta asko pizten ari dira Euskal Herrian.
– Eusko Jaurlaritzak eta Madrileko agintariek [itun bat] izenpetuz gero [*Euskal Y*-ari buruz], protesta asko pizten ari dira Euskal Herrian.

6.3.5.

**Cava ezagutzeko eta dastatzeko abagunea**

Cavari buruzko hitzaldia emango du Jesus Oleaga sukaldariak gaur Eibarren, Arrate kultur elkarteak gonbidatuta.

[Cavari buruzko hitzaldia]

– Cavari buruzØ hitzaldia emango du Jesus Oleaga sukaldariak gaur Eibarren, Arrate kultur elkarteak gonbidatuta.

– Jesus Oleaga sukaldariak [hitzaldia] emango du [Cavari buruz] gaur Eibarren, Arrate kultur elkarteak gonbidatuta.
– Jesus Oleaga sukaldariak emango du [hitzaldia] [Cavari buruz] gaur Eibarren, Arrate kultur elkarteak gonbidatuta.

Hor *hitzaldia eman* baino ez ote hobeto *hitzaldia egin*?

6.3.6.

**Urliari** [Kendu egin dugu agertzen den pertsona-izena]
Lehengoan nire zutabe bati buruzko gogoeta irakurri nizun eta erantzun gura nizuke txarto ulertua egon delakoan.

[nire zutabe bati buruzko gogoeta]

– Lehengoan nire zutabe bati buruzØ gogoeta irakurri nizun eta erantzun gura nizuke txarto ulertua egon delakoan.
– Lehengoan [gogoeta] irakurri nizun [nire zutabe bati buruz] eta erantzun gura nizuke txarto ulertua egon delakoan.
– Lehengoan irakurri nizun [gogoeta][nire zutabe bati buruz] eta erantzun gura nizuke txarto ulertua egon delakoan.

6.3.7.

**Nortasun mugagabea eta kultur aniztasuna artean**
Latinoamerikako arteari buruzko erakusketa jarri dute Iruñeko Ziudadelan

[Latinoamerikako arteari buruzko erakusketa]

– Latinoamerikako arteari buruzØ erakusketa jarri dute Iruñeko Ziudadelan.
– [Erakusketa] jarri dute [Latinoamerikako arteari buruz] Iruñeko Ziudadelan.
– [Erakusketa] jarri dute [Latinoamerikako arteari buruz] IruñeaN, Ziudadelan.

6.3.8.

**Herriaren begitik**
Bertsozale Elkartea, azkeneko Txapelketa Nagusiaren karietan, bertsozaletasunaren gaineko ikerlana burutzen ari da.

[bertsozaletasunaren gaineko ikerlana]

– Bertsozale Elkartea, azkeneko Txapelketa Nagusiaren karietan, bertsozaletasunaren gaine**AN** ikerlana burutzen ari da.
– Bertsozale Elkartea, azkeneko Txapelketa Nagusiaren karietan, [ikerlana] burutzen ari da [bertsozaletasunaren gaineAN].
– Bertsozale Elkartea, azkeneko Txapelketa Nagusiaren karietan, burutzen ari da [ikerlana][bertsozaletasunaren gaineAN].

6.3.9.

**Liburutegi digitalei buruzko hitzaldia Eibarren**

Joxe Mari Egaña Mondragon Unibertsitateko liburuzainak liburutegi digitalen gaineko hitzaldia emango du gaur 16:00etan Eibarko UEUren ikastetxe nagusian.

[liburutegi digitalen gaineko hitzaldia]

– Joxe Mari Egaña Mondragon Unibertsitateko liburuzainak liburutegi digitalen gaine**AN** hitzaldia emango du gaur 16:00etan Eibarko UEUren ikastetxe nagusian.
– Joxe Mari Egaña Mondragon Unibertsitateko liburuzainak [hitzaldia] emango du [liburutegi digitalen gaineAN] gaur, 16:00etan, EibarreN, UEUren ikastetxe nagusian.
– Joxe Mari Egaña Mondragon Unibertsitateko liburuzainak emango du [hitzaldia][liburutegi digitalen gaineAN] gaur, 16:00etan, EibarreN, UEUren ikastetxe nagusian.

*Hitzaldia eman* baino jatorragoa da *hitzaldia egin* (pilotaldia egin, narrutaldia egin, igerialdia egin...)

6.3.10.

**'Iraintzea hitzez jotzea da' erakusketa**

*Iraintzea hitzez jotzea da* lelopean berben biolentziaren gaineko erakusketa egongo da bihartik hasi eta hurrengo domeka arte Herri Bibliotekan.

[berben biolentziaren gaineko erakusketa]

– *Iraintzea hitzez jotzea da* lelopean berben biolentziaren gaine**AN** erakusketa egongo da bihartik hasi eta hurrengo domeka arte Herri Bibliotekan.
– *Iraintzea hitzez jotzea da* lelopean [erakusketa] [berben biolentziaren gaine**AN**] egongo da bihartik hasi eta hurrengo domeka arte Herri Bibliotekan.
– [Erakusketa] egongo da *Iraintzea hitzez jotzea da* lelopean [berben biolentziaren gaineAN] bihartik hasi eta hurrengo domeka arte Herri Bibliotekan.

Guri *biharTIK* barik *bihar* ateratzen zaigu, baita *egingo* ere *egongo*ren ordez.

6.3.11.

**ETB2-'Vaya semanita'**

**EAJren Aberri Eguna**

EAJk Bilbon ospatu zuen Aberri Egunaren inguruko erreportaia egingo du Iñigo Agirrek.

[EAJk Bilbon ospatu zuen Aberri Egunaren inguruko erreportaia]

– EAJk Bilbon ospatu zuen Aberri Egunaren inguru**AN** erreportaia egingo du Iñigo Agirrek.
– Iñigo Agirrek [erreportaia] egingo du [EAJk Bilbon ospatu zuen Aberri Egunaren inguru**AN**].
– Iñigo Agirrek [erreportaia] egingo du [Aberri Egunaren inguruAN], EAJk Bilbon ospatu zuenA.
– Iñigo Agirrek [erreportaia] egingo du [Aberri Egunaren inguruAN], EAJk Bilbon ospatuA.
– Iñigo Agirrek [erreportaia] egingo du [Aberri Egunaren inguruAN], ZEINA ospatu zueN EAJk Bilbon.

6.3.12.

**Cinco condiciones** [Filma]

1967an Jorgen Leth idazle eta irakasleak pertsonen jokabideari buruzko film labur bat egin zuen.

[pertsonen jokabideari buruzko film labur bat]

– 1967an Jorgen Leth idazle eta irakasleak pertsonen jokabideari buruzØ film labur bat egin zuen.
– 1967an Jorgen Leth idazle eta irakasleak [film labur bat] egin zuen [pertsonen jokabideari buruz].
– 1967an Jorgen Leth idazle eta irakasleak egin zuen [film labur bat][pertsonen jokabideari buruz].

6.3.13.

**Euskara azterketa "makroetan" eta egitasmo berrietan**

Azkeneko "Bat" soziolinguistika aldizkarian, besteak beste, makroikerketa soziolinguistikoei buruzko irakurketa kritikoa egiten da.

[makroikerketa soziolinguistikoei buruzko irakurketa kritikoa]

– Azkeneko "Bat" soziolinguistika aldizkarian, besteak beste, makroikerketa soziolinguistikoei buruzØ irakurketa kritikoa egiten da.
– Azkeneko "Bat" soziolinguistika aldizkarian, besteak beste, [irakurketa kritikoa] egiten da [makroikerketa soziolinguistikoei buruz].

Galdegaia (*irakurketa kritikoa*) aditz ostean ere erabil daiteke.

6.3.14.

**Manuel Altolaguirre idazlea hizpide La2n**

XX. mendeko sortzaileen inguruko dokumental saio berri bat estreinatuko dute gaur La2 katean, *Manuel Altolaguirre: la impresión del 27* lanarekin.

[XX. mendeko sortzaileen inguruko dokumental saio berri bat]

– XX. mendeko sortzaileen inguru**AN** dokumental saio berri bat estreinatuko dute gaur La2 katean, *Manuel Altolaguirre: la impresión del 27* lanarekin.
– [Dokumental saio berri bat] estreinatuko dute [XX. mendeko sortzaileen inguruAN] gaur La2 katean, *Manuel Altolaguirre: la impresión del 27* lanarekin.

Ez ote hobeto NOIZ (gaur) eta NON (La2 katean) aurreratuta?

– Gaur La2 katean [dokumental saio berri bat] estreinatuko dute [XX. mendeko sortzaileen inguruAN], *Manuel Altolaguirre: la impresión del 27* lanarekin.

Galdegaia aditz atzera eroan daiteke.

6.3.15.

**Zuzendu asmoz**

Aurreko igandean, 2004ko otsailaren 29an, *Pareak Bai* ataleko elkarrizketan, Barañaini buruzko datu okerra azaldu zen.

[Barañaini buruzko datu okerra]

– Aurreko igandean, 2004ko otsailaren 29an, *Pareak Bai* ataleko elkarrizketan, Barañaini buruzØ datu okerra azaldu zen.
– Aurreko igandean, 2004ko otsailaren 29an, *Pareak Bai* ataleko elkarrizketan, [datu okerra] azaldu zen [Barañaini buruz].

# 7. unitatea

## (ERLATIBO MOTA BAT IZEN ATZERA)

***SOLUZIOAK***

7.3.1.

**Espainiak 36ko gerrako paperak itzultzeko negoziatzea onetsi du**

Joan den asteartean Espainiako Kongresuak lege ez den ekimen bat onartu zuen, aldeko 183 boto, kontrako 135 eta bederatzi abstentziorekin.

[erlatiboa][izena]
[lege ez den][ ekimen bat]

**Egitura erlatibo jokatua**

– Joan den asteartean Espainiako Kongresuak ekimen bat onartu zuen, [lege(A) ez denA], aldeko 183 boto, kontrako 135 eta bederatzi abstentziorekin.

**Zeinismoa**

– Joan den asteartean Espainiako Kongresuak ekimen bat onartu zuen, [ZEINA ez deN lege(A)], aldeko 183 boto, kontrako 135 eta bederatzi abstentziorekin.

Azken horri orraztu batzuk egingo dizkiogu azken partean:

– Joan den asteartean Espainiako Kongresuak ekimen bat onartu zuen, [zeina ez den lege(a)], aldeko 183 botoREKIN, kontrako 135 eta bederatzi abstentzio_.
– Joan den asteartean Espainiako Kongresuak ekimen bat onartu zuen, [zeina ez den lege(a)], aldeko IZAN ZITUELA 183 boto, kontrako 135 eta bederatzi abstentzio_.

***Eta* juntagailua**

– Joan den asteartean Espainiako Kongresuak ekimen bat onartu zuen, [ETA BERA ez da lege(a)], aldeko 183 boto, kontrako 135 eta bederatzi abstentziorekin.
– Joan den asteartean Espainiako Kongresuak ekimen bat onartu zuen, [zeina ez baita lege(a)], ETA alde 183 boto IZAN ZITUEN, kontra 135 eta bederatzi abstentzio_.

– Joan den asteartean Espainiako Kongresuak ekimen bat onartu zuen, [zeina ez baita lege(a)], ETA alde IZAN ZITUEN 183 boto, kontra 135 eta bederatzi abstentzio_.

7.3.2.

**Gauzarik gogokoena**

Bazen behin baserri batean bizi zen neskato bat.

[baserri batean bizi zen][ neskato bat]

**Egitura erlatibo jokatua**

– Bazen behin neskato bat, [baserri batean bizi zenA].

Erabil daitezke zeinismoa eta *eta* juntagailua ere, baina marapilatsuago egingo lukete perpausa.

7.3.3.

**Itzuli, joan**

Europa eta *ongizarteko* jende guztia aztoratzen duen mamu edo iratxo bat dabil.

[ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**

– Mamu edo iratxo bat dabil, [Europa eta *ongizarteko* jende guztia aztoratzen duenA].

**Zeinismoa**

– Mamu edo iratxo bat dabil, [ZEINAK Europa eta *ongizarteko* jende guztia aztoratzen BAITu].
– Mamu edo iratxo bat dabil, [ZEINAK aztoratzen BAITu Europa eta *ongizarteko* jende guztia].

***Eta* juntagailua**

– Mamu edo iratxo bat dabil, [ETA aztoratzen du Europa eta *ongizarteko* jende guztia].

7.3.4.

**Alvaro Amannen transitorea**

Alvaro Amannen kontuetan, olatuen indarra energia bihurtuko duen planta bat eraikiko dute Mutrikun.

[ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**

– Alvaro Amannen kontuetan, Motrikun planta bat eraikiko dute olatuen indarra energia bihurtuko duenA.

**Zeinismoa**
– Alvaro Amannen kontuetan, Motrikun planta bat eraikiko dute(,) ZEINAK olatuen indarra energia bihurtuko dueN.
– Alvaro Amannen kontuetan, Motrikun planta bat eraikiko dute(,) ZEINAK energia bihurtuko dueN olatuen indarra.

7.3.5.
**400**
AEBetako biztanle askoren ametsa egia bihur daiteke: euren berdina den panpina bat ozan dezakete.

[ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**
– AEBetako biztanle askoren ametsa egia bihur daiteke: panpina bat ozan dezakete, [euren berdina denA].

Erabil daiteke zeinismoa ere.

7.3.6.
**Larresoro**
Bazen behin *Zeruko Argia*-n Larresoro izenpean idazten zuen idazle bat.

[ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Bazen behin idazle bat(,) *Zeruko Argia*-n Larresoro izenpean idazten zuenA.
– Bazen behin idazle bat(,) Larresoro izenpean idazten zuenA *Zeruko Argia*-n.

Erabili daitezke zeinismoa eta *eta* juntagailua ere.

7.3.7.
**GLORIA TOTORICAGUENA**
**Renoko unibertsitateko irakaslea**
«Euskal Herria lurralde mugarik ez duen nortasun bat da».

[ ][

**Egitura erlatibo jokatua**
– «Euskal Herria nortasun bat da, lurralde mugarik ez duenA».
– «Euskal Herria nortasun bat da, ez duenA lurralde mugarik».

Erabil daitezke zeinismoa eta *eta* juntagailua ere, gura izanez gero.

7.3.8.
**‘Unoa ta dosa’**
Suposizioen inguruan berbetan, batek pasa den egunean supozisiotik harantzago doan baieztapena bota zuen.

[ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Suposizioen inguruan berbetan, batek pasa den egunean baieztapena bota zuen, [suposiziotik harantzago doanA].
– Suposizioen inguruan berbetan, batek baieztapena bota zuen pasa den egunean, [suposiziotik harantzago doanA].
– Suposizioen inguruan berbetan, batek pasa den egunean bota zuen baieztapena, [suposiziotik harantzago doanA].

Jakina, balia daitezke *eta* juntagailu eta zeinismoa ere.

7.3.9.
**Medellingo gizonaren ibilera**
Izenak dioen legez, literatura eta jazza uztartzen dituen ekitaldia dugu Literatur Jazza.

Ordena aldatu:
Izenak dioen legez, Literatur Jazza ZER da
[ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Izenak dioen legez, Literatur Jazza ekitaldia dugu, [literatura eta jazza uztartzen dituenA].

**Zeinismoa**
– Izenak dioen legez, Literatur Jazza ekitaldia dugu, [ZEINAK literatura eta jazza uztartzen ditueN].
– Izenak dioen legez, Literatur Jazza ekitaldia dugu, [ZEINAK uztartzen BAITitu literatura eta jazza].

***Eta* juntagailua**
– Izenak dioen legez, Literatur Jazza ekitaldia dugu, [ETA uztartzen ditu literatura eta jazza].

7.3.10.
**Sorgintxulo**
Lehen ipuinak dio bazela Gorritin lizar baten gainean bizi zen sorgin bat.

[ ] [ ]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Lehen ipuinak dio bazela sorgin bat, Gorritin lizar baten gainean bizi zenA.
– Lehen ipuinak dio bazela sorgin bat, Gorritin bizi zenA lizar baten gainean.

Balia daitezke, gura izanez gero, zeinismoa eta *eta* juntagailua ere.

7.3.11.

**Aro berri baten hasiera dela uste du Jaurlaritzak**

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak atzo Radio Euskadin adierazi zuenez, «elkarrizketa eta errespetua nagusituko diren aro berri bat» izatea espero du PSOEren legegintzaldiarekin datorrena.

Hemen ere, aurrekoan legez, zuhur ibili behar da azkeneko informazioarekin (*PSOEren legegintzaldiarekin datorrena*), jakin egin behar da leku egokian kokatzen.

[erlatiboa][izena]

**Egitura erlatibo jokatua**

– Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak atzo Radio Euskadin adierazi zuenez, «aro berri bat, [elkarrizketa eta errespetua nagusituko direnA]» izatea espero du PSOEren legegintzaldiarekin datorrena.

Ez dugu uste egoki-egoki dagoenik. Eroan ditzagun aurrera aditz nagusia eta azkeneko informazioa:

– Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak atzo Radio Euskadin adierazi zuenez, espero du PSOEren legegintzaldiarekin datorrena «aro berri bat, [elkarrizketa eta errespetua nagusituko direnA] » izatea.

Hori ere gehiago arteztu behar da: eroan dezagun aurrera mendeko aditza (*izatea*):

– Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak atzo Radio Euskadin adierazi zuenez, espero du PSOEren legegintzaldiarekin datorrena aro berri bat IZATEA, «[elkarrizketa eta errespetua nagusituko direnA]».
– Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak atzo Radio Euskadin adierazi zuenez, espero du PSOEren legegintzaldiarekin aro berri bat ETORTZEA, «[elkarrizketa eta errespetua nagusituko direnA]».

Komatxoetan gorabeheratxo bat gertatu da. Bestalde, kortxete arteko informazioan erabil daitezke beste baliabide batzuk ere (*zeinismoa* eta *eta* juntagailua)

7.3.12.

**CORAJE** [Filma]

**Maria Elena Moyanoren bizitza**. Peruko buruzagi ohi Maria Elena Moyanoren bizitza islatzen duen filma apala da *Coraje*.

Ordena aldatuko dugu, egokiago delakoan:

*Coraje* filma apala da [erlatiboa][izena]

**Egitura erlatibo jokatua**

– *Coraje* filma apala da, [Peruko buruzagi ohi Maria Elena Moyanoren bizitza islatzen duenA].

**Zeinismoa**
– *Coraje* filma apala da, [ZEINAK Peruko buruzagi ohi Maria Elena Moyanoren bizitza islatzen BAITu].
– *Coraje* filma apala da, [ZEINAK islatzen BAITu Peruko buruzagi ohi Maria Elena Moyanoren bizitza].
– *Coraje* filma apala da, [ZEINAK islatzen BAITu Maria Elena Moyanoren bizitza], [Peruko buruzagi ohiA].
– *Coraje* filma apala da, [ZEINAK islatzen BAITu ZELAKO bizitza izan zueN Maria Elena MoyanoK], [Peruko buruzagi ohiA].

Balia daiteke, nahi izanez gero, *eta* juntagailua ere.

7.3.13.

**Sergei Abramov jarri du Moskuk behin-behineko presidente**

Akhmad Kadirov hilda, Moskuk zaila dauka haren hutsunea beteko duten aliatu sendo berriak bilatzea.

[ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Akhmad Kadirov hilda, Moskuk zaila dauka aliatu sendo berriak bilatzea [haren hutsunea beteko dutenAK].

**Helburuzkoa**
– Akhmad Kadirov hilda, Moskuk zaila dauka aliatu sendo berriak bilatzea [haren hutsunea beteTZEKO].

7.3.14.

**Esnea**

Irribarrea eta harridura sortu didan kontu bat irakurri dut egunotan egunkarietan.

Komeni da informazio-ordena aldatzea:

Egunotan egunkarietan [ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Egunotan egunkarietan kontu bat irakurri dut, irribarrea eta harridura sortu didanA.

Balia daitezke, nahi izanez gero, zeinismoa eta *eta* juntagailua ere.

7.3.15.

**Abonu denboraldi «bereziarekin» ospatuko du EOSek 25. urteurrena**

Hogeita bat estreinaldi jasotzen dituen egitarau zabala aurkeztu du Iñigo Alberdi zuzendari nagusiak.

Zuhur ibili non kokatu aditz osteko informazioa
[ ][ ]

**Egitura erlatibo jokatua**

– Egitarau zabala, [hogeita bat estreinaldi jasotzen dituenA] aurkeztu du Iñigo Alberdi zuzendari nagusiak.
– Iñigo Alberdi zuzendari nagusiak egitarau zabala aurkeztu du, [hogeita bat estreinaldi jasotzen dituenA].

***Eta* juntagailua**

– Iñigo Alberdi zuzendari nagusiak egitarau zabala aurkeztu du, [ETA BERTAN/HAN hogeita bat estreinaldi jasotzen DIRA].

Gura izatekotan, erabil daitezke zeinismoa ere.

# 8. unitatea

## (ERLATIBOA ZEHAR-GALDERA BIHURTU)

***SOLUZIOAK***

Ondoko ariketetan galdekari bat edo gehiago ipini ditugu ebatzi beharrezko ariketa bakoitzaren azpian, euskalkietan ez direlako galdekari berberak erabiltzen, eta ez dituztelako ezta erabilera berak ere.

8.3.1.

**Maileguak**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak atzo aurkeztu zuen ikasliburuak doan ezartzeko erabiliko duen formula.

ZER ZELAKO

| |
|---|
| – Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak atzo aurkeztu zuen ZER formula erabiliko dueN ikasliburuak doan ezartzeko. |

8.3.2.

**Itzuli-mitzuli: zer eta norentzat itzuli?**

Joxemari Iturralde idazlearen hitzek ondo laburbiltzen dute euskal munduan zabalduta dagoen iritzia.

ZER ZELAKO

| |
|---|
| – Joxemari Iturralde idazlearen hitzek ondo laburbiltzen dute ZER iritzi dagoeN euskal munduan zabalduta. |

8.3.3.

**Zaldiak burua altxatu nahi du**

Datorren sasoian 1Formula Txapelketan erabiliko duen autoa aurkeztu du Ferrarik: ‘248 F1’.

ZER ZELAKO

| |
|---|
| – Ferrarik aurkeztu du ZER auto erabiliko dueN 1Formula Txapelketan datorren sasoian: ‘248 F1’. |
| – Ferrarik aurkeztu du ZELAKO autoA erabiliko dueN 1Formula Txapelketan datorren sasoian: ‘248 F1’. |

8.3.4.
Kataluinako presidenteak PPren aurkako fronterik ez duela osatuko ziurtatu du. Espainiako Gobernu berriaren jarreraren zain dagoela adierazi du, inolako mugimendurik egiten hasi aurretik.

(Bigarren perpausa aztergai)
ZER ZELAKO

– Kataluinako presidenteak PPren aurkako fronterik ez duela osatuko ziurtatu du. Adierazi du zain dagoela ZER jarrera hartuko dueN Espainiako Gobernu berriaK, inolako mugimendurik egiten hasi aurretik.
– Kataluinako presidenteak PPren aurkako fronterik ez duela osatuko ziurtatu du. Adierazi du zain dagoela ZELAKO jarrera hartuko dueN Espainiako Gobernu berriaK, inolako mugimendurik egiten hasi aurretik.

8.3.5.
Ikasturte honetan hiru hizkuntzari buruz duzuen iritzia aztertuko duzue.

ZER ZELAKO

– Ikasturte honetan aztertuko duzue ZER iritzi duzueN hiru hizkuntzari buruz.

8.3.6.
**Zarauzko haur danborrada**
Ilaski Serranok eta Amaia Jacksonek Zarauzko haur danborradaren 25. urteurreneko ekitaldiak aurkeztuko dituzte gaur arratsaldean.

ZEIN(TZUK)[Hiztun batzuek ez darabilte *zeintzuk*], ZERTZUK ZELAKO

– Gaur arratsaldean Ilaski Serranok eta Amaia Jacksonek aurkeztuko dituzte ZEIN(TZUK) ekitaldi izango direN Zarauzko haur danborradaren 25. urteurrenean.
– Gaur arratsaldean Ilaski Serranok eta Amaia Jacksonek aurkeztuko dituzte ZELAKO ekitaldiAK izango direN Zarauzko haur danborradaren 25. urteurrenean.

8.3.7.
**Aitor Aranaren ‘Editorea’ eta Xabier Etxanizen ‘Marrazkia’ eman dituzte argitara**
Kutxa Fundazioak Donostia Hiria antzerki eta ipuin sariketaren aurtengo ekitaldiko lan irabazleak eman berri ditu argitara.

NORTZU(E)K, ZEINTZU(E)K [Hiztun askok ez darabilte ez *nor* ez *mortzu(e)k*]

– Kutxa Fundazioak argitara eman berri ditu NORTZUK izan direN irabazleak Donostia Hiria antzerki eta ipuin sariketaren aurtengo ekitaldiaN.

– Kutxa Fundazioak argitara eman berri ditu ZEIN(TZUK) izan direN irabazleak Donostia Hiria antzerki eta ipuin sariketaren aurtengo ekitaldiaN.
– Kutxa Fundazioak argitara eman berri ditu NORTZUEK irabazi duteN Donostia Hiria antzerki eta ipuin sariketaren aurtengo ekitaldiaN.
– Kutxa Fundazioak argitara eman berri ditu NORTZUK ATERA/GERTATU direN irabazle Donostia Hiria antzerki eta ipuin sariketaren aurtengo ekitaldiaN.

Beste orraztutxo batzuk ere egin daitezke:
– … Donostia Hiria antzerki eta ipuin sariketaN, aurtengo ekitaldiaN
– … aurten Donostia Hiria antzerki eta ipuin sariketaN Ø

8.3.8.

**Sakanako Formakuntza Batzordea Parlamentuan agertuko da gaur**

Lanbide Heziketa euskaraz emateko dauden oztopoak azalduko ditu.

ZEIN(TZUK), ZERTZUK ZELAKO

– Azalduko ditu ZEIN(TZUK) oztopo daudeN Lanbide Heziketa euskaraz emateko.
– Azalduko ditu ZELAKO oztopoAK daudeN Lanbide Heziketa euskaraz emateko

8.3.9.

Oraindik ondorio zehatzak ateratzeko goiz bada ere, antolatzaileak —Ibaizabal kooperatiba— bigarren urtean egin ditzaketen hobekuntzetan pentsatzen hasiak dira.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

– Oraindik ondorio zehatzak ateratzeko goiz bada ere, antolatzaileak —Ibaizabal kooperatiba— pentsatzen hasiak dira ZEINTZUK hobekuntza egin ditzaketen bigarren urtean.

8.3.10.

**Gasteizko Udalak euskalduntzeaz dituen premiak gogoratu ditu EHk**

GASTEIZKO Udalak euskalduntzeari buruz dituen premiazko egitekoak gogora ekarri dizkio EHk.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

– EHk gogora ekarri dizkio ZEINTZUK premiazko egiteko ditueN Gasteizko Udalak euskaldutzeari buruz.

8.3.11.
Erostera bultzatzen gaituzten ‘amarruak’ saltoki handietan.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

– ZEINTZUK ‘amarruk’bultzatzen gaituzten erostera saltoki handietan.

8.3.12.
(...) Pozik dago Luis Fernandezek egindako lanarekin eta kontratua beste urte eta erdirako duela gogoratu nahi du. Behin mendeurreneko ospakizunak amaituta Arratek urte berrirako dituen itxaropenak azaldu dizkigu.

(Bigarren perpausa dugu aztergai)
ZEIN(TZUK) ZELAKO

– Behin mendeaurreneko ospakizunak amaituta Arratek azaldu digu ZEINTZUK itxaropen ditueN urte berrirako.

8.3.13.
Erretiro aurreratua hartuz gero, langileek izango lituzkeen baldintza ekonomikoak.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

– Erretiro aurreratua hartuz gero, ZEINTZUK baldintza ekonomiko izango lituzkeeN langileek.

8.3.14.
Hizkuntza eredu egokia definitzen duten ezaugarriak.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

– ZEINTZUK ezaugarrik definitzen duteN hizkuntza eredu egokia.

8.3.15.
**EL ARCA RUSA**
Hermitage jauregian lau mendeetan izandako gertaera historikoak kontatzen dira, Coustine markesaren begietan.

ZEIN(TZUK) ZELAKO

– Kontatzen da ZEINTZUK gertaera historiko izan zireN Hermitage jauregian lau mendeetan, Coustine markesaren begietan.

# 9. unitatea

## (ERLATIBOA ERAKUSLE ATZERA)

***SOLUZIOAK***

9.3.1.

**LOS RÍOS DE COLOR PÚRPURA**

**Hiletak eta profanazioak.** Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria askoz ere kaskarragoa den film hau egiteko.

ESKEMA

[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]

– Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

– Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [askoz ere kaskarragoa denA].
– Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [askoz ere kaskarragoa Ø] (erlatiboa, *izan* aditza eta artikulua, hirurak batera (*dena*), ezabatuta daude, adibide honetan (eta beste askotan) ez dira behar-eta).

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [ZEINA askoz ere kaskarragoa BAITa].
– Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [ZEINA askoz ere kaskarragoa deN].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [BERAU askoz ere kaskarragoa].
– Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [askoz ere kaskarragoa BERA(U)].

Beronismoa darabilgu kendu dugulako aditza (*da*).

**D. *Eta* juntagailua**

**E. Besterik (parentesia...)**

– Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko, [BAINA (hau) askoz ere kaskarragoa da].

Adbertsatibo esangura du-eta erlatiboaren informazioak.

– Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko Jean-Jacques Annauden *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen, [baina (EMAITZA) askoz ere kaskarragoa da].
– Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen, Jean-Jacques Annauden-ena, baina (emaitza) askoz ere kaskarragoa da.

Nobelaren egiletasuna adieraz daiteke beste modu batera, guk uste, jatorragoa:

– Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko *Le nom de la rose* film arrakastatsuan oinarritu zen, Jean-Jacques Annauden-ek IDATZIA, baina (emaitza) askoz ere kaskarragoa da.
– Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria film hau egiteko oinarritu zen *Le nom de la rose* film arrakastatsuan, Jean-Jacques Annauden-ek IDATZIA, baina (emaitza) askoz ere kaskarragoa da.
– Film hau egiteko Mathieu Kassovitz aktore eta zuzendaria oinarritu zen *Le nom de la rose* film arrakastatsuan, Jean-Jacques Annauden-ek IDATZIA, baina (emaitza) askoz ere kaskarragoa da.

9.3.2.

**Mundua menderatzeko tresna**. *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da Egipton girotutako abenturazko film hau.

ESKEMA

[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]

– *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da film hau, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da abenturazko film hau, [Egipton girotutakoA].

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
–*The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da abenturazko film hau, [Egipton girotuA].

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da abenturazko film hau, [ZEINA Egipton girotu(T)A dagoeN].
– *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da abenturazko film hau, [ZEINA Egipton girotu(T)A BAITago].
– *The mummy* filmak arrakasta lortu zuen, ZEINAREN ondorioZ etorri deN abenturazko film hau, [Egipton girotuA].

Zeinismoa aplikatu ahal da aditz jokatugabea bilakatu delako aditz jokatu (*girotu(t)a dago*).

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da abenturazko film hau, [BERAU Egipton girotuA].
– *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da abenturazko film hau, [Egipton girotuA BERA(U)].

**D. *Eta* juntagailua**
– *The mummy* filmak arrakasta lortu zuen, ETA beraren /beronen /haren ondorioZ dator abenturazko film hau, Egipton girotuA.

**E. Besterik (parentesia...)**
– *A*benturazko film hau, Egipton girotu(tako)A, *The mummy* filmak lortutako arrakastaren ondorioa da.

9.3.3.
*Literatura Unibertsala* bildumako beste bi liburu plazaratu dira: Jules Renarden *Axenario* eta Leonid Nikolaievitx Andeiev-en *Zazpi urkatuak*. Honenbestez, 119. alera iritsi da EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako sorta hau.

ESKEMA
[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
– ... Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– … Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, [EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutakoA].

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– … Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, [EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatuA].

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– … Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, [ZEINA EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu(T)A dagoeN].
– … Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, [ZEINA EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu(T)A BAITago].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– … Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, [BERAU EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatuA].
– … Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, [EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatuA BERA(U)].

**D. *Eta* juntagailua**
– … Honenbestez, 119. alera iritsi da liburu sorta hau, ETA (berau) EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu(T)A dago.

**E. Besterik (parentesia...)**
– … Honenbestez, liburu sorta hau 119. alera iritsi da, eta (berau) EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu(T)A dago.

9.3.4.

**Teilatuko lizarra** [Liburua]

Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu Susa argitaletxeak karrikaratu berri duen liburu honek.

ESKEMA
[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [Susa argitaletxeak karrikaratu berri duenA].

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa*…]**
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [Susa argitaletxeak karrikaratu berriA].

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [ZEINAK Susa argitaletxeak karrikaratu berri BAITu].
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [ZEINAK Susa argitaletxeak karrikaratu berri dueN].

**C Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [BERAU Susa argitaletxeak karrikaratu berriA].
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [Susa argitaletxeak karrikaratu berriA BERA(U)].

**D. *Eta* juntagailua**
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, ETA Susa argitaletxeak dago karrikaratu berri.

**E. Besterik (parentesia...)**
– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu berri honek, Susa argitaletxeak karrikaratuA.
– Liburu berri honek, Susa argitaletxeak karrikaratuA, Koldo IzagirreREN kantu hitz guztiak biltzen ditu, 1974tik aitzinera idatzi(tako)AK.

9.3.5.

**GR-121, Gipuzkoako Itzulia** [Liburua]

*GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu duen gida honek.

ESKEMA
[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
– .*GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua du gida honek, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu duenA].

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]**

– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu(A) eta Txertoa argitaletxeak kaleratuA].

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [ZEINA Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu BAITu].
– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [ZEINA Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu BAITu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu Ø].
– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [ZEINA Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu dueN eta Txertoa argitaletxeak kaleratu Ø].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [BERAU Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu(A) eta Txertoa argitaletxeak kaleratuA].

**D. *Eta* juntagailua**

– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, ETA Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu du.
– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, ETA Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu DU eta Txertoa argitaletxeak kaleratu Ø.
– Gida honek jatorrizko izenburua du *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie*, ETA Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu du eta Txertoa argitaletxeak kaleratu.

Agerian dagoenez, azken horretan eskema aldatu dugu.

**E. Besterik (parentesia...)**

– Gida honek, Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu du(A) eta Txertoa argitaletxeak kaleratuA, jatorrizko izenburua du *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie*.

9.3.6.
PLANTEAMENDU LEXIKALA: ELT-REN EGOERA ETA...[Liburua]
**Michael Lewisen etorkizunerako proposamena**
Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da HABEk plazaratzen duen liburu hau.

ESKEMA
[aditza] + [erakuslea] + [**erlatiboa**]
– Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, [HABEk plazaratzen duenA].

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, [HABEk plazaratuA].

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, [ZEINA HABEk plazaratu dueN].
– Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, [ZEINA HABEk plazaratu BAITu].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, [BERAU HABEk plazaratuA].
– Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, [HABEk plazaratuA BERA(U)].

**D. *Eta* juntagailua**
– Ana Isabel Moralesek euskaratua izan da liburu hau, ETA HABEk plazaratzen du.
– Ana Isabel Moralesek euskaraTU du liburu hau, ETA HABEk plazaraTU.

**E. Besterik (parentesia...)**
– Liburu hau Ana Isabel Moralesek euskaraTU eta HABEk plazaraTU.

9.3.7.
**Ibilbideak Estellerrian** [Liburua]
Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratutako liburuxka honek 20 ibilbide erakusten ditu.

ESKEMA
[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Liburu honek, [**erlatiboa**], 20 ibilbide erakusten ditu

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Liburuxka honek, [Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratutakoA], 20 ibilbide erakusten ditu.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Liburuxka honek, [Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratuA], 20 ibilbide erakusten ditu.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Liburuxka honek, [ZEINA Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratu(T)A BAITago], 20 ibilbide erakusten ditu.
– Liburuxka honek, [ZEINA Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratu(T)A dagoeN], 20 ibilbide erakusten ditu.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Liburuxka honek, [BERAU Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratuA], 20 ibilbide erakusten ditu.
– Liburuxka honek, [eta BERAU dago Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratu(T)A], 20 ibilbide erakusten ditu.

**D. *Eta* juntagailua**
– Liburuxka HAU Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratuta dago, ETA 20 ibilbide erakusten ditu.

**E. Besterik (parentesia...)**

9.3.8.
**La mentira del silencio** [Filma]
**Ingurukoen kontuen entzulea.** Telebistarako ekoitzitako film honek ez du aparteko interesik.

ESKEMA
[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Film honek, [**erlatiboa**], ez du aparteko interesik

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Film honek, [telebistarako ekoitzitakoA], ez du aparteko interesik.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Film honek, [telebistarako ekoitziA], ez du aparteko interesik.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Film honek, [ZEINA telebistarako dagoeN ekoitziTA], ez du aparteko interesik.
– Film honek, [ZEINA telebistarako BAITago ekoitziTA], ez du aparteko interesik.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Film honek, [BERAU telebistarako ekoitziA], ez du aparteko interesik.
– Film honek, [telebistarako ekoitziA BERA(U)], ez du aparteko interesik.
– Film honek, [eta BERAU telebistarako dago ekoitzi(T)A], ez du aparteko interesik.

**D. *Eta* juntagailua**
– Film HAU telebistarako dago ekoitzita, ETA ez du aparteko interesik.

**E. Besterik (parentesia...)**

9.3.9.
1978ko *Gure Almanaka*tik hartutako txiste hau bertan agertu bezala eskainiko dizuet.

ESKEMA
[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Txiste hau, [**erlatiboa**], bertan agertu bezala eskainiko dizuet

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Txiste hau, [1978ko *Gure Almanaka*tik hartutakoA], bertan agertu bezala eskainiko dizuet.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Txiste hau, [1978ko *Gure Almanaka*tik hartuA], bertan agertu bezala eskainiko dizuet.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Txiste hau, [ZEINA 1978ko *Gure Almanaka*tik hartuta BAITago], bertan agertu bezala eskainiko dizuet.
–Txiste hau, [ZEINA 1978ko *Gure Almanaka*tik hartuta dagoeN], bertan agertu bezala eskainiko dizuet.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Txiste hau, [BERAU 1978ko *Gure Almanaka*tik hartuA], bertan agertu bezala eskainiko dizuet.
– Txiste hau, [1978ko *Gure Almanaka*tik hartuA BERA(U)], bertan agertu bezala eskainiko dizuet.

– Txiste hau, [eta BERAU 1978ko *Gure Almanaka*tik hartu(T)A dago], bertan agertu bezala eskainiko dizuet.

**D. *Eta* juntagailua**

– Txiste hau 1978ko *Gure Almanaka*tik hartuta dago, ETA bertan agertu bezala eskainiko dizuet.

**E. Besterik (parentesia...)**

9.3.10.

**EL PADRE DE LA NOVIA** [Filma]

Steve Martin arrakastatsuak protagonizatutako komedia hau Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, jatorrizko bertsioa bezain ona izan gabe.

ESKEMA

[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]

– Komedia hau, [**erlatiboa**], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, jatorrizko bertsioa bezain ona izan gabe.

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

– Komedia hau, [Steve Martin arrakastatsuak protagonizatutakoA], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, jatorrizko bertsioa bezain ona izan gabe.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

– Komedia hau, [Steve Martin arrakastatsuak protagonizatuA], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, jatorrizko bertsioa bezain ona izan gabe.
– Komedia hau, [Steve Martin arrakastatsuak protagonizatuA], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, IZAN GABE jatorrizko bertsioa bezain ona.
– Komedia hau, [Steve Martin arrakastatsuak protagonizatuA], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, EZ DELA(RIK) jatorrizko bertsioa bezain ona.
– Komedia hau, [Steve Martin arrakastatsuak protagonizatuA], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, ETA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.
– Komedia hau, [Steve Martin arrakastatsuak protagonizatuA], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, BAINA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Komedia hau, [ZEINA Steve Martin arrakastatsuak protagonizatu(T)A BAITago], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, BAINA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.
– Komedia hau, [ZEINA Steve Martin arrakastatsuak protagonizatu(T)A dagoeN], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, BAINA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Komedia hau, [BERAU Steve Martin arrakastatsuak protagonizatuA], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, BAINA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.
– Komedia hau, [Steve Martin arrakastatsuak protagonizatuA BERA(U)], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, BAINA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.

**D. *Eta* juntagailua**
– Komedia hau, [ETA berau Steve Martin arrakastatsuak protagonizatu(T)A dago], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, BAINA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.
– Komedia hau, [ETA berau dago Steve Martin arrakastatsuak protagonizatu(T)A], Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, BAINA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.
– Komedia hau Steve Martin arrakastatsuak protagonizatu(T)A dago, ETA Minnelliren izenburu bereko harribitxiaren *remake* zuzen eta dibertigarria da, BAINA ez da jatorrizko bertsioa bezain ona.

**E. Besterik (parentesia...)**

9.3.11.

**JUKIA TIMOSHENKO**

Izatez ekonomista den 44 urteko emakume hau Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

ESKEMA
[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– 44 urteko emakume hau, [**erlatiboa**], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

Lehenengo bideari oratuta:

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– 44 urteko emakume hau, [izatez ekonomista (denA)], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + -*koa*…]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + -*koa*…]**

**B. Zeinismoa (*zein*…*bait-/-(e)n*)**
– 44 urteko emakume hau, [ZEINA izatez ekonomista BAITa], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.
– 44 urteko emakume hau, [ZEINA izatez ekonomista deN], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau*…)**
– 44 urteko emakume hau, [BERAU izatez ekonomista Ø], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

**D. *Eta* juntagailua**
– 44 urteko emakume hau izatez ekonomista da, ETA Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

**E. Besterik (parentesia...)**
– 44 urteko emakume hau, (izatez ekonomista Ø), Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

Bigarren ildoari heldurik:

– Emakume hau, [**erlatiboa**], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.
– Emakume hau, [44 urtekoA ETA izatez ekonomista Ø], Dnipropetrovsk hirian jaio zen, Ukraniaren ekialdean —errusiera hiztunak dira nagusi han—.

Bigarren ildo honetan erabil daitezke beste baliabide batzuk, baina, guk uste, ez dira azken perpaus hori besteko funtzional-eraginkorrak.

Azken partea, marra artean, gurago dugu, komunikagarritasunaren aldetik, osterantzeko ordenan erabili:

… —HAN NAGUSI DIRA errusiera hiztunak—.

9.3.12.

**Rock&Roll indartsuaren eta melodiaren artean**

Orain dela hiru urte Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek sonoritate indartsua daukan talde hau jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin.

ESKEMA
[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Orain dela hiru urte Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek talde hau, [**erlatiboa**], jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Orain dela hiru urte Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek talde hau, [sonoritate indartsua daukanA], jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Orain dela hiru urte, Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek talde hau, [ZEINAK sonoritate indartsua BAITauka], jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin.
– Orain dela hiru urte, Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek talde hau, [ZEINAK sonoritate indartsua daukaN], jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**
– Orain dela hiru urte Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek talde hau, ETA beronek sonoritate indartsua dauka, jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin.

**E. Besterik (parentesia...)**
– Orain dela hiru urte, Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek talde hau, [sonoritate indartsuKOa], jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin.

Erlatiboa eta aditza, biak (*daukana*) bihurtu dugu *-KOa*.

Egia esateko, bada beste aukera mordo bat, aurrera eroanez gero azken aldiko informazioa (*jarri zuten martxan Ibanen laguntzarekin*):

– Orain dela hiru urte Latzeneko Joxe Mari eta Ikerrek, Ibanen laguntzarekin, martxan jarri zuten talde hau, [sonoritate indartsuKOa].

9.3.13.
**EL CAZADOR DE FORTUNAS** [Filma]
Ande de Tothek Mendebalde Urrunera egindako bisita hau ez da oso nabarmengarria.

ESKEMA
[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Bisita hau, [**erlatiboa**], ez da oso nabarmengarria

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**
– Bisita hau, [Ande de Tothek Mendebalde Urrunera egindakoA], ez da oso nabarmengarria.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]**
– Bisita hau, [Ande de Tothek Mendebalde Urrunera eginA], ez da oso nabarmengarria.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Bisita hau, [ZEINA Ande de Tothek Mendebalde Urrunera eginDA dagoeN], ez da oso nabarmengarria.
– Bisita hau, [ZEINA Ande de Tothek Mendebalde Urrunera eginDA BAITago], ez da oso nabarmengarria.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Bisita hau, [BERAU Ande de Tothek Mendebalde Urrunera eginA], ez da oso nabarmengarria.

**D. *Eta* juntagailua**
– Bisita hau Ande de Tothek Mendebalde Urrunera egin(D)A dago, ETA ez da oso nabarmengarria.
– Bisita hau Ande de Tothek egin(D)A dago Mendebalde Urrunera, ETA ez da oso nabarmengarria.

**E. Besterik (parentesia...)**

9.3.14.
1987an giroturiko film honek komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

ESKEMA
[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Film honek, [**erlatiboa**], komunitate itxi baten historia kontatzen digu

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**
– Film honek, 1987an giroturikoA, komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]**
– Film honek, 1987an girotuA, komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Film honek, ZEINA 1987an BAITago giroturik, komunitate itxi baten historia kontatzen digu.
– Film honek, ZEINA 1987an dagoeN giroturik, komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Film honek, BERAU 1987an girotuA, komunitate itxi baten historia kontatzen digu.
– Film honek, 1987an girotuA BERA(U), komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

**D. *Eta* juntagailua**
– Film HAU 1987an dago giroturik, ETA komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

**E. Besterik (parentesia...)**

9.3.15.
Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarritutako film honek ez du askorik balio.

ESKEMA
[erakuslea] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Film honek, [**erlatiboa**], ez du askorik balio

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Film honek, [Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarritutakoA], ez du askorik balio.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Film honek, [Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarrituA], ez du askorik balio.
– Film honek, [zientzia fikziozko ipuin batean oinarrituA ETA Isaac AsimoveK IDATZIA], ez du askorik balio.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Film honek, [ZEINA Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarrituTA BAITAGO], ez du askorik balio.
– Film honek, [ZEINA oinarrituTA dagoeN Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean], ez du askorik balio.
– Film honek, [ZEINA oinarrituTA dagoeN zientzia fikziozko ipuin batean, Isaac AsimoveK IDATZIA], ez du askorik balio.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Film honek, [BERAU Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarrituA], ez du askorik balio.

**D. *Eta* juntagailua**

– Film HAU Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean dago oinarritu(T)A, ETA ez du askorik balio.
– Film honek, [ETA berau oinarritu(T)A dago Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean], ez du askorik balio.
– Film honek, [ETA berau oinarritu(T)A dago zientzia fikziozko ipuin batean Isaac AsimoveK IDATZIA], ez du askorik balio.

**E. Besterik (parentesia...)**

# 10. unitatea

## (ERLATIBOA IZEN PROPIO ATZERA)

***SOLUZIOAK***

10.3.1.

**Jesus eta Maria Madalena bertsotan**

Ander Lizarraldek eraman zuen herenegun Zarautzen jokatu zen Lizardi sariko txapela, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

ESKEMA

[aditza ] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]

– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, [**erlatiboa**], eta bigarren Agin Rezola geratu zen

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, herenegun Zarautzen jokatu zenA, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, herenegun Zarautzen jokatuTAKOA, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, herenegun Zarautzen jokatuA, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, ZEINA herenegun Zarautzen jokatu BAITzen, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.
– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, ZEINA Zarautzen jokatu zeN herenegun, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

Azken aldaeran, *herenegun* lekuz aldatu dugu eta aditzaren eta semaforoaren ostean kokatu. Leku-aldaketa hori erabil daiteke edozein aldaeratan. Bestalde, iparraldeko tradizio nagusiaren arabera, *Zarautzen* osagaia bera ere eroan daiteke aditz ostera.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, BERAU herenegun Zarautzen jokatuA, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.
– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela, herenegun Zarautzen jokatuA BERA(U), eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

**D. *Eta* juntagailua**
– Herenegun Zarautzen jokatu zen Lizardi sariko txapela, ETA Ander Lizarraldek eraman zuen, eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

**E. Besterik (parentesia...)**
– Ander Lizarraldek eraman zuen Lizardi sariko txapela —herenegun Zarautzen jokatuA— eta bigarren Agin Rezola geratu zen.

Amaitzeko, jatorra ote *eraman zuen*? Ez ote hobeto *irabazi zuen* edo besteren bat?

10.3.2.

**Hizkuntza berdintasuna aldarrikatuko dute Atenasen Behatokiak eta EHEk**

Europako Ituna izango da ardatz nagusia Grezian egingo den Europako Foro Sozialean.

ESKEMA
[aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
– Europako Ituna izango da ardatz nagusia Europako Foro Sozialean, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Europako Ituna izango da ardatz nagusia Europako Foro Sozialean, Grezian egingo denA.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Europako Ituna izango da ardatz nagusia Europako Foro Sozialean, ZEINA Grezian egingo deN.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**
– Europako Ituna izango da ardatz nagusia Europako Foro Sozialean, ETA (berau) Grezian egingo da.

**E. Besterik (parentesia...)**
– Europako Ituna izango da ardatz nagusia Grezian, Europako Foro Sozialean.
– Grezian, Europako Foro Sozialean, Europako Ituna izango da ardatz nagusia.
– Grezian, Europako Foro Sozialean, ardatz nagusia izango da Europako Ituna.

10.3.3.

**Errenteria dantzan hasiko da maiatzarekin**

Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago Errenteriako kaleetan jardungo dira maiatzaren batean ospatuko den Dantzari Txiki Egunean.

ESKEMA
[aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]

– Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago Errenteriako kaleetan jardungo dira Dantzari Txiki Egunean, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago Errenteriako kaleetan jardungo dira Dantzari Txiki Egunean, maiatzaren batean ospatuko denA.
– Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago jardungo dira Errenteriako kaleetan Dantzari Txiki Egunean, maiatzaren batean ospatuko denA.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago Errenteriako kaleetan jardungo dira Dantzari Txiki Egunean, ZEINA maiatzaren batean ospatuko BAITa.
– Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago Errenteriako kaleetan jardungo dira Dantzari Txiki Egunean, ZEINA maiatzaren batean ospatuko deN.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**
– Euskal Herri osoko 600 haur dantzari baino gehiago Errenteriako kaleetan jardungo dira Dantzari Txiki Egunean, ETA (berau) maiatzaren batean ospatuko da.

**E. Besterik (parentesia...)**
– 600 haur dantzari baino gehiago, Euskal Herri osokoAK, jardungo dira Errenteriako kaleetan(,) Dantzari Txiki Egunean, maiatzaren batean.

10.3.4.

**Kresala taldearen ikuskizuna**

Musika tradizionala, txotxongiloak, antzerkia eta dantza nahasten dituen *Marixe* ikuskizuna emango dute.

ESKEMA
[i. propioa] + [aditza] + [**erlatiboa**]
– *Marixe* ikuskizuna emango dute, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– *Marixe* ikuskizuna emango dute musika tradizionala, txotxongiloak, antzerkia eta dantza nahasten dituenA

Lar atzera dago egitura erlatibo jokatua (*-(e)na...*); edo bestela esateko, galdegaia lar luzea da, eta eroan dezagun aurrerago egitura erlatibo jokatua:

– *Marixe* ikuskizuna emango dute, nahasten dituenA musika tradizionala, txotxongiloak, antzerkia eta dantza.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– *Marixe* ikuskizuna emango dute, ZEINAK nahasten ditueN musika tradizionala, txotxongiloak, antzerkia eta dantza.
– *Marixe* ikuskizuna emango dute, ZEINETAN nahasten DIREN musika tradizionala, txotxongiloak, antzerkia eta dantza.
– *Marixe* ikuskizuna emango dute, NON nahasten BAITIRA musika tradizionala, txotxongiloak, antzerkia eta dantza.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**
– *Marixe* ikuskizuna emango dute, ETA beronek/honek nahasten ditu musika tradizionala, txotxongiloak, antzerkia eta dantza.
– *Marixe* ikuskizuna emango dute, ETA bertan/han nahasten dira musika tradizionala, txotxongiloak, antzerkia eta dantza.

**E. Besterik (parentesia...)**

10.3.5.
Katarina Jukaszova kazetariak Eslovakian hungarieraz argitaratzen den Uj Szo egunkarian egiten du lan.

ESKEMA
[i. propioa] + [aditza] + [**erlatiboa**]
– Katarina Jukaszova kazetariak *Uj Szo* egunkarian egiten du lan, [**erlatiboa**]

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Katarina Jukaszova kazetariak *Uj Szo* egunkarian egiten du lan, Eslovakian hungarieraz argitaratzen denA.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Katarina Jukaszova kazetariak *Uj Szo* egunkarian egiten du lan, ZEINA Eslovakian hungarieraz argitaratzen BAITa.
– Katarina Jukaszova kazetariak *Uj Szo* egunkarian egiten du lan, ZEINA Eslovakian argitaratzen BAITa hungarieraz.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**
– Katarina Jukaszova kazetariak *Uj Szo* egunkarian egiten du lan, ETA berau/hau Eslovakian argitaratzen da hungarieraz.

**E. Besterik (parentesia...)**

10.3.6.
**Gazte Topagunea arrakastatsua izan da**
Joan den ostiraletik atzo bitartean Etxarri Aranatzen egin den Gazte Topagunea arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez.

ESKEMA
[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Gazte Topagunea, [**erlatiboa**], arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Gazte Topagunea, joan den ostiraletik atzo bitartean Etxarri Aranatzen egin denA, arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez.

– Joan den ostiraletik atzo bitartean Etxarri Aranatzen egin da Gazte Topagunea, arrakastatsua izan denA, antolatzaileek esan dutenez.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]**

**B. Zeinismoa (*zein*…*bait-/-(e)n*)**
– Gazte Topagunea, ZEINA joan den ostiraletik atzo bitartean Etxarri Aranatzen egin deN, arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez.
– Gazte Topagunea, ZEINA Etxarri Aranatzen egin deN *joan den ostiraletik atzo bitartean*, arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez.
– Joan den ostiraletik atzo bitartean Etxarri Aranatzen egin da Gazte Topagunea, ZEINA arrakastatsua izan BAITa, antolatzaileek esan dutenez.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau*…)**

**D. *Eta* juntagailua**
– Gazte Topagunea, ETA berau Etxarri Aranatzen egin da *joan den ostiraletik atzo bitartean*, arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez.
– Joan den ostiraletik atzo bitartean Etxarri Aranatzen egin da Gazte Topagunea, ETA arrakastatsua izan da, antolatzaileek esan dutenez.

**E. Besterik (parentesia...)**

10.3.7.
Egunotan Bilbon egiten ari den BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian hitzaldi sorta bat eman dute.

ESKEMA
[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian, [**erlatiboa** , hitzaldi sorta bat eman dute

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na*…)**
– BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian, egunotan Bilbon egiten ari denA, hitzaldi sorta bat eman dute.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa*…]**

**B. Zeinismoa (*zein*…*bait-/-(e)n*)**
– BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian, ZEINA egunotan Bilbon egiten ari BAITa, hitzaldi sorta bat eman dute.

– BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian, ZEINA egunotan ari BAITa Bilbon egiten, hitzaldi sorta bat eman dute.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**
– BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian, ETA BERAU Bilbon ari da egiten egunotan, hitzaldi sorta bat eman dute.

**E. Besterik (parentesia...)**
– BAD —Bilbao Antzerkia Dantza— jaialdian (Bilbon ari da egiten egunotan), hitzaldi sorta bat eman dute.

10.3.8.
Pasa den zenbakian aurreratzen genizuen legez, amaitu berri den Blokeko Munduko Kopan Leire Agirre seigarren geratu da.

ESKEMA
[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– ... Blokeko Munduko Kopan, [**erlatiboa**], Leire Agirre seigarren geratu da

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– ... Blokeko Munduko Kopan, amaitu berri denA, Leire Agirre seigarren geratu da.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– ... Blokeko Munduko Kopan, amaitu berriA, Leire Agirre seigarren geratu da.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
Erabil daiteke zeinismoa, baina ez du merezi.

**C. Beronismoa (*bera, berau…*)**
Beronismoa ere erabil daiteke, baina horretarako, aditza (*da*) jan behar, A3n egindako moduan.

**D. *Eta* juntagailua**

**E. Besterik (parentesia...)**
– ... [Blokeko Munduko Kopa amaitu berriaN], Leire Agirre seigarren geratu da.

Azken puntuan izen propioari erantsi diogu eskumako aposizio koma bakoa, zeina hurrengo unitatean aztertuko dugun beren-beregi.

10.3.9.

**Irria begian zuen gizon ttipia**

Duela 20 urte zendu den Mattin bertsolaria omenduko dute Ahetzen, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.

ESKEMA

[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

– Mattin bertsolaria, [**erlatiboa**], omenduko dute Ahetzen...

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

– Mattin bertsolaria, duela 20 urte zendu denA, omenduko dute Ahetzen, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

– Mattin bertsolaria, duela 20 urte zenduA, omenduko dute Ahetzen, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.
– Mattin bertsolaria, duela 20 urte zenduA, Ahetzen omenduko dute, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.
– Mattin bertsolaria, orain (dela) 20 urte zenduA, Ahetzen omenduko dute, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.

Egitura hau erabiltzeko, aditza eta menderagailua (*den*) kendu behar izan dugu.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

Erabil daiteke, baina ez du merezi.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Mattin bertsolaria, BERAU duela 20 urte zenduA, omenduko dute Ahetzen, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.

**D. *Eta* juntagailua**

– Mattin bertsolaria duela 20 urte zendu zen, ETA omenduko dute Ahetzen, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.

**E. Besterik (parentesia...)**

– Mattin bertsolaria —duela 20 urte zenduA— omenduko dute Ahetzen, bertsolariaren sorterrian, bihar arratsaldean.

10.3.10.

**Katalin udan** [Liburua]

Orrialde garbigarriak eta ertz biribilduak dituen *Katalin udan* liburuxka etxeko gazteenei zuzendua dago, beraiek irakurtzeko, edo narratzaileen papera helduren batek egin dezan.

ESKEMA

[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

– *Katalin udan* liburuxka, [**erlatiboa**], etxeko gazteenei zuzendua dago…

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

– *Katalin udan* liburuxka, orrialde garbigarriak eta ertz biribilduak dituenA, etxeko gazteenei zuzendua dago, beraiek irakurtzeko, edo narratzaileen papera helduren batek egin dezan.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– *Katalin udan* liburuxka, ZEINAK orrialde garbigarriak eta ertz biribilduak ditueN, etxeko gazteenei zuzendua dago, beraiek irakurtzeko, edo narratzaileen papera helduren batek egin dezan.

– *Katalin udan* liburuxka, ZEINAK orrialde garbigarriak eta ertz biribilduak BAITitu, etxeko gazteenei zuzendua dago, beraiek irakurtzeko, edo narratzaileen papera helduren batek egin dezan.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**

– *Katalin udan* liburuxka, ETA beronek/honek orrialde garbigarriak eta ertz biribilduak ditu, etxeko gazteenei zuzendua dago, beraiek irakurtzeko, edo narratzaileen papera helduren batek egin dezan.

**E. Besterik (parentesia...)**

– *Katalin udan* liburuxka —orrialde garbigarriak eta ertz biribilduak ditu— etxeko gazteenei zuzendua dago, beraiek irakurtzeko, edo narratzaileen papera helduren batek egin dezan.

10.3.11.

**Hogei urte ‘Documentos TV’-rekin**

Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztutako *Documentos TV* saio prestigiodunak 20 urte beteko ditu gaur.

ESKEMA

[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

– *Documentos TV* saio prestigiodunak, [**erlatiboa**], 20 urte beteko ditu gaur

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– *Documentos TV* saio prestigiodunak, Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztutakoA, 20 urte beteko ditu gaur.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– *Documentos TV* saio prestigiodunak, Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztuA, 20 urte beteko ditu gaur.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– *Documentos TV* saio prestigiodunak, ZEINA Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztu dueN, 20 urte beteko ditu gaur.

Tranpa txikitxo bat egin dugu aditz jokatugabea (*aurkeztutako*) bihurtuta aditz jokatua (*aurkeztu du*). Egin daiteke beste era batera ere (… ZEINA (…) eta zuenduTA dagoeN…)

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– *Documentos TV* saio prestigiodunak, BERAU Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztuA, 20 urte beteko ditu gaur.

**E. *Eta* juntagailua**
– *Documentos TV* saio prestigiodunak, ETA berau Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztu(T)A DAGO, 20 urte beteko ditu gaur.
– *Documentos TV* saio prestigioduna Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu(T)A eta aurkeztu(T)A dago, ETA 20 urte beteko ditu gaur.

Hemen ere aditz jokatuak sartu ditugu, beste aukera batzuk emateko.

**D. Besterik (parentesia...)**
– *Documentos TV* saio prestigiodunak —Pedro Erkiziak (Donostia, 1943) zuzendu eta aurkeztuA— 20 urte beteko ditu gaur.

10.3.12.

**Jon Arretxek parte hartu du Wikinobela ekimenean**

Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarritako Wikinobela ekimenean Jon Arretxek parte hartu du.

ESKEMA
[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]
– Wikinobela ekimenean, [**erlatiboa**], Jon Arretxek parte hartu du

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**
– Wikinobela ekimenean, Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarritakoA, Jon Arretxek parte hartu du.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Wikinobela ekimenean, Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarriA, Jon Arretxek parte hartu du.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Wikinobela ekimenean, ZEINA Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarriTA BAITAGO, Jon Arretxek parte hartu du.
– Wikinobela ekimenean, ZEINA abian jarriTA dagoeN Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez, Jon Arretxek parte hartu du.
– Jon Arretxek parte hartu du Wikinobela ekimenean, ZEINA abian jarriTA BAITago Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez (eskema aldatuta dago).

Zeinismoa erabili ahal izan dugu *jarritako* bihurtu dugulako *jarrita dago*.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Wikinobela ekimenean, BERAU Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarriA, Jon Arretxek parte hartu du.
– Jon Arretxek parte hartu du Wikinobela ekimenean, BERAU abian jarriA Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez (eskema aldatuta dago).

**D. *Eta* juntagailua**
– Wikinobela ekimenean, ETA berau Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarri(T)A DAGO, Jon Arretxek parte hartu du.

**E. Besterik (parentesia...)**
– Wikinobela ekimenean —Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatearen ekimenez abian jarria— Jon Arretxek parte hartu du.

10.3.13.
Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei mendia, kultura eta natura ardatz dituen *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.

ESKEMAK
1-[aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
2-[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

1. Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, [**erlatiboa**], azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala
2. *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, [**erlatiboa**], berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala

Lehenengo bideari oratuta:

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, kultura eta natura ardatz dituenA, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, ZEINAK kultura eta natura ardatz ditueN, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.
– Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, ZEINETAN kultura eta natura DIREN ardatz, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**

**E. Besterik (parentesia...)**
– Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei *El mundo de los Pirineos* aldizkariak (kultura eta natura DITU ardatz) azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.
– Berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei *El mundo de los Pirineos* aldizkariak —kultura eta natura DITU ardatz— azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.

Bigarren bideari helduta:

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, ZEINAK kultura eta natura ardatz ditueN, berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.
– *El mundo de los Pirineos* aldizkariak, NON kultura eta natura ardatz direN, berrikuntza ugari eskaini nahi izan dizkie bere irakurleei, azken zenbakian ikus ahal izango duten bezala.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

**D. *Eta* juntagailua**

Ez ote zuzenago *ikus* barik *ikusi*?

10.3.14.
Lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen duen *Boletin* aldizkariak, eta oraingoan ere berdin egin du.

ESKEMAK
1-[aditza] + [i. propioa] + [**erlatiboa**]
2-[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

1. Lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du *Boletin* aldizkariak, [**erlatiboa**], eta oraingoan ere berdin egin du
2. *Boletin* aldizkariak, [**erlatiboa**], lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du, eta oraingoan ere berdin egin du

Lehenengo bideari helduta:

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du *Boletin* aldizkariak, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen duenA, eta oraingoan ere berdin egin du.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du *Boletin* aldizkariak, ZEINA Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen dueN, eta oraingoan ere berdin egin du.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du *Boletin* aldizkariak, BERAU Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratuA, eta oraingoan ere berdin egin du.

Beronismoa erabili ahal da aditz jokatua bihurtu delako aditz jokatugabe (*plazaratuA*).

**D. *Eta* juntagailua**

**E. Besterik (parentesia...)**

Bigarren bideari oratuta:

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– *Boletin* aldizkariak, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen dueNA, lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du, eta oraingoan ere berdin egin du.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– *Boletin* aldizkariak, ZEINA Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen dueN, lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du, eta oraingoan ere berdin egin du.
– *Boletin* aldizkariak, ZEINA Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratzen BAITu, lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du, eta oraingoan ere berdin egin du.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– *Boletin* aldizkariak, BERAU Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak plazaratuA, lan ugari eta mamitsu argitaratu ohi du, eta oraingoan ere berdin egin du

Beronismoa erabili ahal da aditz jokatua bihurtu delako aditz jokatugabe (*plazaratuA*).

**D. *Eta* juntagailua**

**E. Besterik (parentesia...)**

10.3.15.
Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztu duen Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, zazpi urteko neska batek barraskiloak inork jan ez zitzan zer egin zuen kontatzen du.

ESKEMA

2-[i. propioa] + [**erlatiboa**] + [aditza]

1. Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, [ **erlatiboa** ], zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du
2. *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, [Pere Martí i Bertranen][ **erlatiboa** ], zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

Lehenengo bideari helduta:

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztu dueNA, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa…*]**

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partiz. + Ø + *-koa…*]**
– Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztuA, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, ZEINA Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztu dueN, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.
– Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, ZEINA Antton Olanok euskaratu BAITu eta Eva Zabalak marraztu, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

**C. Beronismoa (*bera, berau…*)**
– Pere Martí i Bertranen *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, BERAU Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztuA, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

**D. *Eta* juntagailua**

**E. Besterik (parentesia...)**

Ora diezaiogun bigarren bideari:

**A1. Egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*)**
– *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, Pere Martí i BertranenA ETA Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztu duenA, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

**A2. Egitura erlatibo jokatugabea-I/II [partiz. + -TA/-(R)IK + *-koa*…]**

– *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, Pere Martí i BertraneK idatziA, Antton Olanok euskaratu eta Eva Zabalak marraztuTAKOA, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

**A3. Egitura erlatibo jokatugabea-III [partizipioa + Ø + *-koa*…]**

– *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, Pere Martí i BertraneK idatzia, Antton Olanok euskaratuA eta Eva Zabalak marraztuA, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, ZEINA Pere Martí i Bertranek BAITAGO idatzi(t)a, Antton Olanok euskaratuA eta Eva Zabalak marraztuA, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.
– *Barraskiloak margotu zituen neska* istorioan, ZEINA BAITAGO Pere Martí i Bertranek idatzia, Antton Olanok euskaratuA eta Eva Zabalak marraztuA, zazpi urteko neska batek (...) kontatzen du.

**C. Beronismoa (*bera, berau…*)**

– (…), [BERAU Pere Martí i Bertranek idatzia, Antton Olanok euskaratua eta Eva Zabalak marraztua], (…)

**D. *Eta* juntagailua**

Artez daiteke azken partea ere:

… zazpi urteko neska batek kontatzen du zer egin zuen barraskiloak inork jan ez zitzan.

# 11. unitatea

## (APOSIZIO MOTA BAT ATZERA)

***SOLUZIOAK***

11.3.1.

**Elkarrizketa MCCko Jesus Cataniari**

MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari Jesus Cataniari elkarrizketa egingo diote.

ESKEMAK

a-[Jesus Catania **aposizioa**] + [aditza]
b-[Jesus Cataniari], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– [Jesus Catania MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakariARI] elkarrizketa egingo diote.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Jesus Cataniari, [MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari(A)], elkarrizketa egingo diote.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Jesus Cataniari, [BERAU MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari(a)], elkarrizketa egingo diote.
– Jesus Cataniari, [MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari(a) BERA(U)], elkarrizketa egingo diote.

**E. Besterik (parentesia...)**

Errazago eman daiteke aposizioa:

– Jesus Cataniari, [lehendakari(a) MCCko Kontseilu OrokorreAN], elkarrizketa egingo diote.

Aldaketa hori erabil daiteke beronismoan, goian:

– Jesus Cataniari, [BERAU lehendakaria MCCko Kontseilu Orokorrean], elkarrizketa egingo diote.

– Jesus Cataniari, [lehendakaria BERAU MCCko Kontseilu Orokorrean], elkarrizketa egingo diote.

11.3.2.

**Patxi Lopezi elkarrizketa**

PSE-EE alderdiko idazkari nagusi Patxi Lopezek sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

ESKEMAK

a-[Patxi Lopez **aposizioa**] + [aditza]
b-[Patxi Lopezek], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– [Patxi Lopez PSE-EE alderdiko idazkari nagusiaK] sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Patxi Lopezek, [PSE-EE alderdiko idazkari nagusi(A)], sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Patxi Lopezek, [BERAU PSE-EE alderdiko idazkari nagusi(a)], sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.
– Patxi Lopezek, [PSE-EE alderdiko idazkari nagusi(a) BERA(U)], sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

**E. Besterik (parentesia...)**

Errazago eman daiteke aposizioa, gura izanez gero:

– Patxi Lopezek, [idazkari nagusi(A) PSE-EE alderdiAN], sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

Konturatzen bagara, aditza atzen lekuan dago. Eroan dezagun aurrera lehenengo eskeman:

– [Patxi Lopez PSE-EE alderdiko idazkari nagusiaK] hitz egingo du sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz.

Bestalde, azken partean, informazio bi daude, ZERTAZ (*aurkeztu duten programaz*) eta ZERTARAKO (*Estatutuaren erreformarako*). Zergatik ez jarri bata bestearen lekuan?

– [Patxi Lopez PSE-EE alderdiko idazkari nagusiaK] hitz egingo du sozialistek aurkeztu duten programaz Estatutuaren erreformarako.

Amaitzeko, *hitz egin* aditzak, kasu honetan, eskatzen du zehar-galdera (inork erabili gura badu):

– [Patxi Lopez PSE-EE alderdiko idazkari nagusiaK] hitz egingo du ZELAKO programa aurkeztu duteN sozialistek Estatutuaren erreformarako.

11.3.3.

**RADIO EUSKADI**

Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide Joseba Alvarez elkarrizketatuko du gaur goizean Xabier Lapitzek, *Boulevar Abierto* saioan.

ESKEMAK

a-[Joseba Alvarez **aposizioa**] + [aditza]
b-[Joseba Alvarez], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– [Joseba Alvarez Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkideA] elkarrizketatuko du gaur goizean Xabier Lapitzek, *Boulevar Abierto* saioan.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Joseba Alvarez, [Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide(A)], elkarrizketatuko du gaur goizean Xabier Lapitzek, *Boulevar Abierto* saioan.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Joseba Alvarez, [BERAU Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide(a)], elkarrizketatuko du gaur goizean Xabier Lapitzek, *Boulevar Abierto* saioan.
– Joseba Alvarez, [Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide(a) BERA(U)], elkarrizketatuko du gaur goizean Xabier Lapitzek, *Boulevar Abierto* saioan.

Bada beste eskema orokor bat, informazio bat (gaur goizean Xabier Lapitzek, *Boulevar Abierto* saioan) aurrerengo paratuta perpausean:

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– Gaur goizean *Boulevar Abierto* saioan Xabier Lapitzek [Joseba Alvarez Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide(a)] elkarrizketatuko du.
– Gaur goizean *Boulevar Abierto* saioan Xabier Lapitzek elkarrizketatuko du [Joseba Alvarez Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide(a)].

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– *Boulevar Abierto* saioan, gaur goizean Xabier Lapitzek elkarrizketatuko du Joseba Alvarez**,** [Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide(a)].
– *Boulevar Abierto* saioan, gaur goizean Xabier Lapitzek elkarrizketatuko du Joseba Alvarez**,** [legebiltzarkide(a) Sozialista Abertzaleak alderdiAN].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– *Boulevar Abierto* saioan, gaur goizean Xabier Lapitzek elkarrizketatuko du Joseba Alvarez**,** BERAU Sozialista Abertzaleak alderdiko legebiltzarkide(a)
– *Boulevar Abierto* saioan, gaur goizean Xabier Lapitzek elkarrizketatuko du Joseba Alvarez**,** BERAU legebiltzarkide(a) Sozialista Abertzaleak alderdiAN.

11.3.4.

**EAJko Iñaki Gerenbarrena**

EAJko Araba Buru Batzarreko presidente Iñaki Gerenabarrenak egungo egoera politikoa aztertuko du.

ESKEMAK
a-[Iñaki Gerenabarrena **aposizioa**] + [aditza]
b-[Iñaki Gerenabarrenak], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**
– [Iñaki Gerenabarrena EAJko Araba Buru Batzarreko presidenteAK] egungo egoera politikoa aztertuko du.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Iñaki GerenabarrenaK**,** [EAJko Araba Buru Batzarreko presidente(A)]**,** egungo egoera politikoa aztertuko du.
– Iñaki GerenabarrenaK**,** [presidente(A) EAJko Araba Buru BatzarreAN]**,** egungo egoera politikoa aztertuko du.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Iñaki GerenabarrenaK**,** [BERAU EAJko Araba Buru Batzarreko presidente(a)]**,** egungo egoera politikoa aztertuko du.
– Iñaki GerenabarrenaK**,** [EAJko Araba Buru Batzarreko presidente(a) BERA(U)]**,** egungo egoera politikoa aztertuko du.

11.3.5.

**Pedro Azpiazurekin hizketan**

Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai Pedro Azpiazu elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.

ESKEMAK

a-[Pedro Azpiazu **aposizioa**] + [aditza]
b-[Pedro Azpiazu], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– Pedro Azpiazu Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagaiA elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Pedro Azpiazu**,** [Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai(A)]**,** elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.
– Pedro Azpiazu**,** [Bizkaiko EAJren hautagai(A) Espainiako Legebiltzarrerako]**,** elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.
– Pedro Azpiazu**,** [EAJren hautagai(A) Bizkaitik Espainiako Legebiltzarrerako]**,** elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Pedro Azpiazu**,** [BERAU Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai(a)]**,** elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.
– Pedro Azpiazu**,** [BERAU Bizkaiko EAJren hautagai(a) Espainiako Legebiltzarrerako]**,** elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.
– Pedro Azpiazu**,** [BERAU EAJren hautagai(a) Bizkaitik Espainiako Legebiltzarrerako]**,** elkarrizketatuko dute gaur *El Punto* saioan.

Bada beste eskema orokor bat, informazio bat (gaur *El Punto* saioan) aurrerengo paratuta perpausean:

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– Gaur *El Punto* saioan [Pedro Azpiazu Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai(a)] elkarrizketatuko dute.
– Gaur *El Punto* saioan elkarrizketatuko dute [Pedro Azpiazu Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai(a)].

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Gaur *El Punto* saioan elkarrizketatuko dute [Pedro Aspiazu], [Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai(a)].
– Gaur *El Punto* saioan [Pedro Aspiazu] elkarrizketatuko dute [Bizkaiko EAJren hautagai(a) Espainiako Legebiltzarrerako].
– Gaur *El Punto* saioan [Pedro Aspiazu] elkarrizketatuko dute [EAJren hautagai(a) Bizkaitik Espainiako Legebiltzarrerako].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Gaur *El Punto* saioan Pedro Azpiazu elkarrizketatuko dute, [BERAU Espainiako Legebiltzarrerako Bizkaiko EAJren hautagai(a)].
– Gaur *El Punto* saioan Pedro Azpiazu elkarrizketatuko dute, [BERAU Bizkaiko EAJren hautagai(a) Espainiako Legebiltzarrerako].
– Gaur *El Punto* saioan Pedro Azpiazu elkarrizketatuko dute, [BERAU EAJren hautagai(a) Bizkaitik Espainiako Legebiltzarrerako].

11.3.6.

**Ertzaintzaren protokoloarekin, «zorrotz»**

Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalari Theo Van Bovenek inkomunikazioa «laidogarria» dela eta torturatzeko bidea ematen duela jasotzen duen txostena «kezkatzekoa» dela esan zuen atzo Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek.

ESKEMAK
a-[Theo Van Boven(e) **aposizioa**] + [aditza]
b-[ Theo Van Bovenek], [**aposizioa**], + [aditza]

Ez dakigunez izen propioa amaitzen den bokalez edo kontsonantez, parentesia ipini dugu (Theo Van Boven(e)).

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**
– [Theo Van Boven(e) Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalariAK] inkomunikazioa «laidogarria» dela eta torturatzeko bidea ematen duela jasotzen duen txostena «kezkatzekoa» dela esan zuen atzo Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Theo Van Bovenek**,** [Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalari(A)]**,** inkomunikazioa «laidogarria» dela eta torturatzeko bidea ematen duela jasotzen duen txostena «kezkatzekoa» dela esan zuen atzo Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Theo Van Bovenek**,** [BERAU Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalari(a)]**,** inkomunikazioa «laidogarria» dela eta torturatzeko bidea ematen duela jasotzen duen txostena «kezkatzekoa» dela esan zuen atzo Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek.

OHARRA: Perpausak beste zer zuzendu batzuk ere behar ditu, baina leku handiegia hartuko lukeenez, alde batera lagako dugu.

11.3.7.
Sabin Arana fundazioko buru eta Eusko Legebiltzarreko buru ohi Juan Mari Atutxa, berriz, «penatuta» azaldu zen Ibarretxek deklaratzera joan behar duelako.

ESKEMAK
a-[Juan Mari Atutxa **aposizioa**] + [aditza]
b-[Juan Mari Atutxa], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**
– [Juan Mari Atutxa Sabin Arana fundazioko buru eta Eusko Legebiltzarreko buru ohiA], berriz, «penatuta» azaldu zen Ibarretxek deklaratzera joan behar duelako.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Juan Mari Atutxa, [Sabin Arana fundazioko buru eta Eusko Legebiltzarreko buru ohi(A)], berriz, «penatuta» azaldu zen Ibarretxek deklaratzera joan behar duelako.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Juan Mari Atutxa, [BERAU Sabin Arana fundazioko buru eta Eusko Legebiltzarreko buru ohi(a)], berriz, «penatuta» azaldu zen Ibarretxek deklaratzera joan behar duelako.

**E. Besterik (parentesia...)**
Aposizioan bertan orraztu batzuk egin daitezke, batetik, *burua* eta *buru ohia* aurrera eroanda eta, bestetik, *Sabin Arana fundazioko* eta *Eusko Legebiltzarreko* bihurtuta *Sabin Arana fundazioAN* eta *Eusko LegebiltzarreAN*:

– Juan Mari Atutxa, [buru(a) Sabin Arana fundazioAN eta buru ohia Eusko LegebiltzarreAN], berriz, «penatuta» azaldu zen Ibarretxek deklaratzera joan behar duelako.

Aldaketa hori erabil daiteke beronismoan, goian:

– [Juan Mari Atutxa], [BERAU buru(a) Sabin Arana fundazioAN eta buru ohia Eusko LegebiltzarreAN], berriz, «penatuta» azaldu zen Ibarretxek deklaratzera joan behar duelako.

11.3.8.

**Samiei petrolio eremuetatik dagozkien irabaziak ukatu nahi dizkie Norvegiak**

Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro Dag Terje Andersenek aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.

ESKEMAK

a-[Dag Terje Andersen **aposizioa**] + [aditza]
b-[Dag Terje Andersenek], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– [Dag Terje Andersen Norvegiako Merkataritza eta Industria ministroAK] aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– [Dag Terje Andersenek], [Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro(A)], aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– [Dag Terje Andersenek], [BERAU Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro(a)], aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.
– [Dag Terje Andersenek], [Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro(a) BERA(U)], aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.
– [Dag Terje Andersenek], [BERAU Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro(a)], aste honetan esan du sami-herriak ez duela eskubide berezirik Barents itsasoko petrolioaren gaineAN.

11.3.9.

**NBEk Ekuadorko indigenen eskubideen urratzea salatu du**

Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari berezi Rodolfo Stavenhagenek salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

ESKEMAK

a-[Rodolfo Stavenhagene(e) **aposizioa**] + [aditza]
b-[Rodolfo Stavenhagenek], [**aposizioa**], + [aditza]

Ez dakigunez izen propioa amaitzen den bokalez edo kontsonantez, parentesia ipini dugu (Rodolfo Stavenhagen(e)).

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– [Rodolfo Stavenhagen(e) Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari bereziAK] salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Rodolfo Stavenhagenek, [Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari berezi(A)], salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Rodolfo Stavenhagenek, [BERAU Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari berezi(a)], salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

**E. Besterik (parentesia...)**

Aposizioan bertan egin daiteke orraztu bat, informazio bat, *ordezkari berezi(a)*, aurrera eroanda eta beste informazio bat, *Nazio Batuen Erakundeko* bihurtuta *Nazio Batuen ErakundeaN*:

– Rodolfo Stavenhagenek, [ordezkari berezi(a) Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen ErakundeaN], salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

Aldaketa hori erabil daiteke beronismoan, goian:

– Rodolfo Stavenhagenek, [BERAU ordezkari berezi(a) Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundean], salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.
– Rodolfo Stavenhagenek, [ordezkari berezi(a) BERA(U) Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundean], salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

11.3.10.
Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo EUDELeko presidente eta Leioako alkate Karmelo Sainz de la Mazak.

ESKEMAK
c-[aditza] + [Karmelo Sainz de la Maza **aposizioa**]
d-[aditza] + [Karmelo Sainz de la Mazak], [**aposizioa**]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**
– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo [Karmelo Sainz de la Maza EUDELeko presidente eta Leioako alkateAK].

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo Karmelo Sainz de la Mazak, [EUDELeko presidente eta Leioako alkate(A)].

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo Karmelo Sainz de la Mazak, [BERAU EUDELeko presidente eta Leioako alkate(a)].
– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo Karmelo Sainz de la Mazak, [EUDELeko presidente eta Leioako alkate(a) BERA(U)].

**E. Besterik (parentesia...)**
Orraztu batzuk egin daitezke aposizioan bertan:

– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo Karmelo Sainz de la Mazak, [presidente(a) EUDELeN eta alkate(a) LeioaN].

Aldaketa hori erabil daiteke beronismoan, goian:

– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo Karmelo Sainz de la Mazak, [BERAU presidente(a) EUDELeN eta alkate(a) LeioaN].
– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo Karmelo Sainz de la Mazak, [presidente(a) BERA(U) EUDELeN eta alkate(a) LeioaN].

11.3.11.

**Hizkuntza politikako arduradun izandakoak, Euskalerria Irratiarekin**

Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi izandako Fernando Perez de Viñaspre, Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.

ESKEMAK

a-[Fernando Perez de Viñaspre **aposizioa**] + [aditza]
b-[Fernando Perez de Viñaspre], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– [Fernando Perez de Viñaspre Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi(A) izandakoA], Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Fernando Perez de Viñaspre, [Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi(A) izandakoA]**;** Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**

– Fernando Perez de Viñaspre, [BERAU Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi(a) izandakoA]**;** Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.

**E. Besterik (parentesia...)**

– Fernando Perez de Viñaspre —Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi(a) izandakoA—; Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.

Marrak barik erabil daitezke parentesiak. Orraztu bat egin daiteke aposizioan bertan, aurrerago eroanda *zuzendari nagusi(a) izandakoA* eta beste informazio bat, *Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako,* bihurtuta *Nafarroako Gobernuko Hizkuntza PolitikaN*:

– Fernando Perez de Viñaspre —zuzendari nagusi(a) izandakoA Nafarroako Gobernuko Hizkuntza PolitikaN—, Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.

Aldaketok erabil daitezke beronismoan, goian:

– Fernando Perez de Viñaspre —[BERAU zuzendari nagusi(a) izandakoA Nafarroako Gobernuko Hizkuntza PolitikaN]—, Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.
– Fernando Perez de Viñaspre —[zuzendari nagusi(a) izandakoA BERA(U) Nafarroako Gobernuko Hizkuntza PolitikaN]—, Estebe Petrizan eta Jose Maria Rodriguez Otsoak Euskalerria Irratiarekin bat egin dute.

c-[aditza] + [Fernando Perez de Viñaspre **aposizioa**]
d-[aditza] + [Fernando Perez de Viñaspre], [**aposizioa**]

**c-Eskumako aposizio koma bakoa**
– Euskalerria Irratiarekin bat egin dute [Fernando Perez de Viñaspre Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako zuzendari nagusi(a) izandakoa**K**], Estebe Petrizan-e**K** eta Jose Maria Rodriguez Otsoak.

**d-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Euskalerria Irratiarekin bat egin dute Fernando Perez de Viñaspre**K** [-zuzendari nagusi(a) izandakoa Nafarroako Gobernuko Hizkuntza PolitikaN-], Estebe Petrizan-e**K** eta Jose Maria Rodriguez Otsoak.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Euskalerria Irratiarekin bat egin dute [Fernando Perez de Viñaspre**K**, [BERAU zuzendari nagusi(a) izandakoa Nafarroako Gobernuko Hizkuntza PolitikaN]**;** Estebe Petrizan-e**K** eta Jose Maria Rodriguez Otsoak
– Euskalerria Irratiarekin bat egin dute [Fernando Perez de Viñaspre**K**, [zuzendari nagusi(a) izandakoa BERA(U) Nafarroako Gobernuko Hizkuntza PolitikaN]**;**Estebe Petrizan-e**K** eta Jose Maria Rodriguez Otsoak.

11.3.12.
Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile Diego Lopez Garridok baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

ESKEMAK
a-[Diego Lopez Garrido **aposizioa**] + [aditza]
b-[Diego Lopez Garridok], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**
– [Diego Lopez Garrido Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaileAK] baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Diego Lopez Garridok, [Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile(A)], baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– [Diego Lopez Garridok], [BERAU Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile(a)], baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

– [Diego Lopez Garridok], [Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile(a) BERA(U)], baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

**E. Besterik (parentesia...)**
Aldatutxo bat egin daiteke aposizioan bertan:

– PSOEren bozeramailea Espainiako KongresuAN

Orraztutxo hori erabilita eskeman:

– [Diego Lopez Garridok], [PSOEren bozeramaile(a) Espainiako KongresuAN], baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

Orraztutxo hori erabilita beronismoan ere:

– [Diego Lopez Garridok], [BERAU PSOEren bozeramaile(a) Espainiako KongresuAN], baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.
– [Diego Lopez Garridok], [PSOEren bozeramaile(a) BERA(U) Espainiako KongresuAN], baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

11.3.13.
Zentzu horretan, PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru eta diputatu Ualid Jumblattek armadari ordena zaintzeko eskatu zion.

ESKEMAK
a-[Ualid Jumblatt(e) **aposizioa**] + [aditza]
b-[Ualid Jumblattek], [**aposizioa**], + [aditza]

Ez dakigunez izen propioa amaitzen den bokalez edo kontsonantez, parentesia ipini dugu (Ualid Jumblatt(e)).

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**
– Zentzu horretan, [Ualid Jumblatt(e) PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru eta diputatuAK] armadari ordena zaintzeko eskatu zion

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Zentzu horretan, [Ualid Jumblattek], [PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru(A) eta diputatu(A)], armadari ordena zaintzeko eskatu zion.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Zentzu horretan, [Ualid Jumblattek], [BERAU PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru(a) eta diputatu(a)], armadari ordena zaintzeko eskatu zion

**E. Besterik (parentesia...)**
Badago orraztu bat egiterik aposizioan bertan:

– buru(a) eta diputatu(a) PSP Alderdi Sozialista AurrerakoiAN

Aldatu hori aplikatuz gero eskeman:

– Zentzu horretan, [Ualid Jumblattek], [buru(a) eta diputatu(a) PSP Alderdi Sozialista AurrerakoiAN], armadari ordena zaintzeko eskatu zion.

Eta beronismoan aplikatuz gero:

– Zentzu horretan, [Ualid Jumblattek], [(BERAU) buru(a) eta diputatu(a) PSP Alderdi Sozialista AurrerakoiAN], armadari ordena zaintzeko eskatu zion.
– Zentzu horretan, [Ualid Jumblattek], [(buru(a) eta diputatu(a) BERA(U) PSP Alderdi Sozialista AurrerakoiAN], armadari ordena zaintzeko eskatu zion.

11.3.14.

**Keinuetatik eta itxuretatik harago**

Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri den Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak.

ESKEMAK

c-[aditza] + [Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildar **aposizioa**]
d-[aditza] + [Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak], [**aposizioa**]

**c-Eskumako aposizio koma bakoa**

– Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du [Fernando Ruiz de Piñeiro Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko epaile buru madrildar izendatu berriAK].

**d-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, [Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(A) denA].

**B**. **Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, ZEINA Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(a) deN.
– Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, ZEINA Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(a) BAITen.

**D. *Eta* juntagailua**

– Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, ETA berau/hau Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(a) da.

Aurrekaria eta aposizioa kokatuz gero lehenengo lekuan, beste aukera batzuk daude interesgarriak:

a-[Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildar **aposizioa**] + [aditza]
b-[Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**

– [Fernando Ruiz de Piñeiro Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko epaile buru madrildar izendatu berriAK] adierazi berri du Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela.

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, [Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(A) denA], adierazi berri du Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela.

**B**. **Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**

– Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, ZEINA Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(a) BAITa, adierazi berri du Euskal Herrian epailea izateko ez dagoela euskara jakin beharrik; baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela.
– Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, ZEINA Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(a) deN, adierazi berri du Euskal Herrian epailea izateko ez dagoela euskara jakin beharrik; baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela.

**C. Beronismoa (*bera(u), hau…*)**
– Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, [BERAU Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(a)], adierazi berri du Euskal Herrian epailea izateko ez dagoela euskara jakin beharrik; baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela.

Ikusten dugunez, beronismoa erabiltzeko, aditz jokatua (*da*) kendu dugu.

**E. Besterik (parentesia...)**
Aldaketa bat egingo genuke aposizioan bertan:

– buru izendatu berri(a) Euskal Herriko Epaitegi NagusiAN

Eta beste bat perpaus konpletiboan:

– Euskal Herrian epailea izateko ez dagoela euskara jakin beharrik

edo

– ez dagoela euskara jakin beharrik epailea izateko Euskal Herrian

Orraztuok aplikatuz gero goiko aldaeretan, perpausak errazago irakurriko lirateke.

11.3.15.
**Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005** [Liburua]
Soziologian doktore eta UPV/EHUko irakasle den Jose Inazio Imaz Bengoetxeak lan denboraren gaia aztertzen du...

ESKEMAK
a-[Jose Inazio Imaz Bengoetxea **aposizioa**] + [aditza]
b-[Jose Inazio Imaz Bengoetxeak], [**aposizioa**], + [aditza]

**a-Eskumako aposizio koma bakoa**
– [Jose Inazio Imaz Bengoetxea Soziologian doktore(A) eta UPV/EHUko irakasle(A) denAK] lan denboraren gaia aztertzen du...

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Jose Inazio Imaz Bengoetxeak, [Soziologian doktore(A) eta UPV/EHUko irakasle(A) denA], lan denboraren gaia aztertzen du...

**B. Zeinismoa (*zein…bait-/-(e)n*)**
– Jose Inazio Imaz BengoetxeaK**,** ZEINA Soziologian doktore(a) eta UPV/EHUko irakasle(a) deN**,** lan denboraren gaia aztertzen du...
– Jose Inazio Imaz BengoetxeaK**,** ZEINA doktore(a) Soziologian eta irakasle(a) UPV/EHU-AN BAITa**,** lan denboraren gaia aztertzen du...

**D. *Eta* juntagailua**

– Jose Inazio Imaz BengoetxeaK**,** ETA berau/hau Soziologian doktore(a) eta UPV/EHUko irakasle(a) da**,** lan denboraren gaia aztertzen du...

**E. Besterik (parentesia...)**

Aposizioan bertan informazio-aldaketa batzuk egin daitezke, aditza (da) aurreratuta:

– Soziologian doktore(a) DA eta UPV/EHUko irakasle(a) Ø

Orrazketa hori erabiliz gero zeinismoan:

– Jose Inazio Imaz BengoetxeaK**,** ZEINA Soziologian doktore(a) deN eta UPV/EHU-AN irakasle(a)**,** lan denboraren gaia aztertzen du...
– Jose Inazio Imaz BengoetxeaK**,** ZEINA doktore(a) BAITa Soziologian eta irakasle(a) UPV/EHU-AN**,** lan denboraren gaia aztertzen du...

Orrazketa hori erabiliz gero ETA juntagiluarekin:

– Jose Inazio Imaz BengoetxeaK**,** ETA berau/hau doktore(a) DA Soziologian eta irakasle(a) UPV/EHU-AN**,** lan denboraren gaia aztertzen du...

Guk aldaera guztietan aditza aurreratuko genuke azken partean:

– "… aztertzen du lan denboraren gaia"

# 12. unitatea

## (GALDEGAIA ADITZ OSTERA ERE)

***SOLUZIOAK***

***OHARRAK***

Perpaus bakoitzari erantzun mota bi emango dizkiogu: batetik, jatorrizko ordena, eta berau liburuan agertzen da; bestetik, beste bat edo batzuk, gure ustez, onargarriak, betiere kontuan hartuta zelako adibideak ikusi ditugun unitate honetan, hiru artikuluetan, idazleen lumetan eta hiztunen ahotan. Bestalde, soluzioetan kortxete barruan sartuko ditugu aditzak.

12.2.1.
**Otsoa eta Bildotsa**
Otsoa eta Bildotsa ura edateko asmoz bakoitza bere aldetik ibai batera heldu ziren.

*Jatorrizko ordena*
– Otsoa eta Bildotsa [heldu ziren] bakoitza bere aldetik ibai batera ura edateko asmoz.

*Ordena onargarria(k)*
– Otsoa eta Bildotsa ibai batera [heldu ziren] bakoitza bere aldetik ura edateko asmoz.

12.2.2.
**Zakurra eta Ardia**
Zakur batek asmo gaiztoz eta gezurrez ardi gaixo bati ogi zati bat eskatu zion, berak lehenago prestatu ziola esanez.

*Jatorrizko ordena*
– Zakur batek [eskatu zion] asmo gaiztoz eta gezurrez ardi gaixo bati ogi zati bat, esanez berak lehenago prestatu ziola.

*Ordena onargarria(k)*
– Zakur batek ogi zati bat [eskatu zion] asmo gaiztoz eta gezurrez ardi gaixo bati, esanez berak lehenago prestatu ziola.

12.2.3.

**Txakurra eta haragi zatia**

Txakur batek beti ahoan haragi zati bat zeukala, ibaia batetik bestera igaro nahi izan zuen.

*Jatorrizko ordena*

– Txakur batek beti ahoan haragi zati bat zeukala, [igaro nahi izan zuen] ibaia batetik bestera.

*Ordena onargarria(k)*

– Txakur batek beti zeukala ahoan haragi zati bat, ibaia [igaro nahi izan zuen] batetik bestera.
– Txakur batek beti zeukala haragi bat ahoan, batetik bestera [igaro nahi izan zuen] ibaia.

12.2.4.

**Lehoia, Behia, Ahuntza eta Ardia**

Handi eta txikien arteko partila ez da inoiz berdina. Hala da, eta hala izana, ipuin eder honek erakusten digun bezala.

Lehenengo perpausean ez dagoenez ezer berezirik, bigarrena soilik aztertuko dugu.

*Jatorrizko ordena*

– Handi eta txikien arteko partila ez da inoiz berdina. Hala da, eta hala izana, erakusten digun bezala ipuin eder honek.

*Ordena onargarria(k)*

Ez dugu beste ordenarik ikusten

12.2.5.

**Otsoa eta Kurriloa**

Behin, sarri bezala Otsoa haragia jaten zegoen, eta hezurra eztarrian kateatu zitzaion.

*Jatorrizko ordena*

– [Zegoen] behin, sarri bezala Otsoa haragia jaten zegoen, eta [kateatu zitzaion] hezurra eztarrian.

*Ordena onargarria(k)*

– [BAzegoen] behin, sarri bezala Otsoa haragia jaten zegoen, eta eztarrian [kateatu zitzaion] hezurra.

12.2.6.

**Gizona eta Sugea**

Neguaren erraian hotz gogorren artean, bazterrak izozturik zeudela, gizon errukior eta bihotz biguneko batek etxean Sugea hartu zuen; ahaleginez palagatzen zuen; berotu zedin esnea eta sukaldeko zokondoa ematen zion.

*Jatorrizko ordena*

– Neguaren erraian hotz gogorren artean, izozturik [zeudela] bazterrak, gizon errukior eta bihotz biguneko batek [hartu zuen] etxean Sugea; [palagatzen zuen] ahaleginez; [ematen zion] esnea eta sukaldeko zokondoa berotu zedin.

*Ordena onargarria(k)*

– Neguaren erraian hotz gogorren artean, bazterrak izozturik [zeudela], gizon errukior eta bihotz biguneko batek Sugea [hartu zuen] etxean; ahaleginez [palagatzen zuen]; esnea eta sukaldeko zokondoa [ematen zion] berotu zedin.

12.2.7.

**Etxeko eta kanpoko Saguak**

Herri etxe batean bizi zen Saguak behin kanpora irten zen, zelai eta basoetan zer igarotzen zen jakin nahirik.

*Jatorrizko ordena*

– Herri etxe batean bizi zen Saguak [irten zen] behin kanpora, [jakin nahirik] zer igarotzen zen zelai eta basoetan.

*Ordena onargarria(k)*

– Herri etxe batean bizi zen Saguak kanpora [irten zen] behin, [jakin nahirik] zer igarotzen zen zelai eta basoetan

12.2.8.

**Arranoa eta Azeria**

Arranoak behin Azeriari lurzilo edo leiza baten zeuzkan umeak harrapatu zizkion.

*Jatorrizko ordena*

– Arranoak [harrapatu zizkion] behin Azeriari lurzilo edo leiza baten zeuzkan umeak.

*Ordena onargarria(k)*

– Behin Arranoak [harrapatu zizkion] Azeriari lurzilo edo leiza baten zeuzkan umeak.
– Behin Arranoak Azeriari [harrapatu zizkion] lurzilo edo leiza baten zeuzkan umeak.

12.2.9.

**Belea eta Azeria**

Hitz labanetan gelditzen direnak, lotsatuak irtengo dira.

*Jatorrizko ordena*

– Goikoa bera.

*Ordena onargarria(k)*

Ez dugu beste ordenarik ikusten.

12.2.10.

**Lehoia, Basurdea, Zezena eta Atsoa**

Lehoi Jauna zaharraz gainetik gaixoa, argala eta aginte gabea aurkitzen zen.

*Jatorrizko ordena*

– [Aurkitzen zen] Lehoi Jauna zaharraz gainetik gaixoa, argala eta aginte gabea.

*Ordena onargarria(k)*

– Lehoi Jauna zaharraz gainetik [aurkitzen zen] gaixoa, argala eta aginte gabea.
– Lehoi Jauna [aurkitzen zen] zaharraz gainetik gaixoa, argala eta aginte gabea.

12.2.11.

**Astoa eta Txakurtxoa**

Etxeko jaun batek Astoa, eta Txakurtxoa zeuzkan.

*Jatorrizko ordena*

– Etxeko jaun batek [zeuzkan] Astoa, eta Txakurtxoa.

*Ordena onargarria(k)*

– Etxeko jaun batek [BAzeuzkan] Astoa, eta Txakurtxoa.
– [BAzeuzkan] Etxeko jaun batek Astoa, eta Txakurtxoa.

12.2.12.

**Lehoia eta Sagua**

Lehoia mendi baten erriberan lotan zegoela, Sagu asko hurreratu zitzaion, eta horien arteko ausartuena(k) bizkarrera igo zion/zitzaion.

*Jatorrizko ordena*

– Lehoia lotan zegoela mendi baten erriberan, [hurreratu zitzaion] Sagu asko, eta horien arteko ausartuena bizkarrera igo zitzaion.

*Ordena onargarria(k)*

– Lehoia lotan zegoela mendi baten erriberan, Sagu asko [hurreratu zitzaion], eta horien arteko ausartuena bizkarrera igo zitzaion.

12.2.13.

**Hontza eta bere Ama**

Hontza gaixorik zegoen batean, eta beretzat lurrean sendagarririk ez zegoela, bere osasunarengatik eskaintza edo promesak egiteko santuei bere Amari erregutu zion.

*Jatorrizko ordena*

– Gaixorik zegoen batean Hontza, eta sendagarririk [ez zegoela] beretzat lurrean, [erregutu zion] bere Amari [egiteko] santuei bere osasunarengatik eskaintza edo promesak.

*Ordena onargarria(k)*

– Hontza gaixorik zegoen batean, eta sendagarririk [ez zegoela] beretzat lurrean, (bere) Amari [erregutu zion] santuei [egiteko] eskaintza edo promesak bere osasunarengatik.

12.2.14.

**Enara eta beste txoriak**

Enara eta txoritegi mota askotako bat nekazari batzuei begira zeuden soroetan lino hazia ereiten zeudela.

*Jatorrizko ordena*

– Enara eta txoritegi mota askotako bat [zeuden] [begira] nekazari batzuei lino hazia ereiten [zeudela] soroetan.

*Ordena onargarria(k)*

– Enara eta txoritegi mota askotako bat [begira] [zeuden] nekazari batzuei lino hazia ereiten [zeudela] soroetan.

12.2.15.

**Lapurra eta Etxe-txakurra**

Lapur bat gauez gauza asko osten zebilen, eta aberats baten etxera heldu zen.

*Jatorrizko ordena*

– Lapur bat [zebilen] gauaz gauza asko osten, eta [heldu zen] aberats baten etxera.

*Ordena onargarria(k)*

– Lapur bat gauza asko osten [zebilen] gauaz, eta aberats baten etxera [heldu zen].

# 13. unitatea

## (ARIKETAK NAHASIAN)

***LEHENENGO TESTA 13-A***

13.2.1.

**Julia Madrazo:** «Kanpainak herritarrengandik hurbil egoteko aukera ematen du».

[1. UNITATEA: *-T(Z)EKO* osagarria izen atzera]

- **Julia Madrazo:** «Kanpainak aukera ematen du herritarrengandik hurbil egoteko».
- **Julia Madrazo:** «Kanpainak aukera ematen du hurbil egoteko herritarrengandik».

13.2.2.

**EAJk presoen hurbilketa azkartu behar zela uste du**

Ezker abertzalearen munduan «galdararen presioa gutxitu beharra» dagoela adierazi du Jon Imaz EBBko buruak.

[2. UNITATEA: P. konpletiboa aditz atzera]

- Jon Imaz EBBko buruak adierazi du ezker abertzalearen munduan «galdararen presioa gutxitu beharra» dagoela.
- Jon Imaz EBBko buruak adierazi du ezker abertzalearen munduan «gutxitu beharra» dagoela galdararen presioa.
- Jon Imaz EBBko buruak adierazi du galdararen presioa «gutxitu beharra» dagoela ezker abertzalearen munduan.
- Jon Imaz EBBko buruak adierazi du «gutxitu beharra» dagoela galdararen presioa ezker abertzalearen munduan.

13.2.3.

**Bat hobetzen, bestea larri**

Jaitsierako postuetatik irten da Reala Racingi irabazita, eta Alaves zuloan sartu da, Mallorcaren aurka berdindu ostean.

[3. UNITATEA: Erdarazko partikula kausal batzuk]

- Jaitsierako postuetatik irten da Reala Racingi irabazita, eta Alaves zuloan sartu da, Mallorcaren aurka berdindu**TA**.

13.2.4.

Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela esanez.

[4. UNITATEA: Gerundio mota bat]

**Aditza aurrerengo**

– Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, ESANEZ leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela. (?)

***Eta* juntagailua**

– Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, ETA BERTAN/HAN esaten ZEN leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela.

**Zeinismoa**

– Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, ZEINETAN esaten zeN leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela.
– Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, ZEINETAN esaten BAITzen leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela.

**Nonismoa**

– Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, NON esaten BAITzen leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela.
– Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, NON esaten zeN leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela.

**Egitura erlatibo jokatua**

– Paueko kartzelan preso sartzera zihoazela, Espainiako justiziatik bidalitako faxa iritsi zen, esaten zenA leporatzen zioten delituak preskribitu egin zuela.

13.2.5.

**‘Emakumeok plazara’ jardunaldiak Durangon**

*Emakumeok plazara* kultur jardunaldiak izango dira bihar Durangoko Landako Erakustazokan.

[5. UNITATEA: *-KO* atzizkia sintagma batzuetan]

– *Emakumeok plazara* kultur jardunaldiak izango dira bihar DurangoN, Landako Erakustazokan.
– *Emakumeok plazara* kultur jardunaldiak izango dira bihar Landako Erakustazokan, DurangoN.

Argi dago osterantzeko ordenan ere ipin daitekeela perpausa, gura izanez gero:

– Bihar, Durangon, Landako Erakustazokan, *Emakumeok plazara* kultur jardunaldiak izango dira.

Azken aukera horretan lar atzera egiten da aditza. Ipin daiteke "Erakustazokan" berbaren ostean. Euskararen ikuspegitik hobeto dago "egin" aditza erabilita "izan" barik:

– Bihar, Durangon, Landako Erakustazokan, *Emakumeok plazara* kultur jardunaldiak EGINGO dira/DITUZTE.

13.2.6.

**JASONE OSORO idazlea**

**«Liburuak haurrak bezalakoak dira: beren bizitza dute»**

*Greta* liburuaren inguruko solasaldia egingo dute gaur, Bilbon, Txurdinagako AEKn.

[6. UNITATEA: *-KO* atzizkia postposizio batzuetan]

– *Greta* liburuaren inguruAN solasaldia egingo dute gaur, Bilbon, Txurdinagako AEKn.
– Gaur, Bilbon, Txurdinagako AEKn solasaldia egingo dute *Greta* liburuaren inguruAN.

Nahiz izanez gero: ... TxurdinagaN, AEKn...

13.2.7.

**EAEko Lurzoruaren Lege egitasmoan, aldaketak**

EAEko Lurzoruaren Lege egitasmoa guztiz aldatuko duen proposamena egin du EAJk.

[7. UNITATEA: Erlatibo mota bat izen ostera]

**Egitura erlatibo jokatua**

– EAJk proposamena egin du EAEko Lurzoruaren Lege egitasmoa guztiz aldatuko duenA.

**Zeinismoa**

– EAJk proposamena egin du, ZEINAK EAEko Lurzoruaren Lege egitasmoa guztiz aldatuko BAITu.
– EAJk proposamena egin du, ZEINAK guztiz aldatuko dueN EAEko Lurzoruaren Lege egitasmoa.

***Eta* juntagailua**
– EAJk proposamena egin du, ETA (berak/honek) guztiz aldatuko du EAEko Lurzoruaren Lege egitasmoa.

13.2.8.
Erabateko kalitatea lortzeko, lehenengo eta behin, erabiltzaileen edo kontsumitzaileen beharrak aztertu behar dira.

[8. UNITATEA: Erlatiboa zehar-galdera bihurtu]

Erabateko kalitatea lortzeko, lehenengo eta behin, aztertu behar dira

ZEINTZUK behar dituzteN erabiltzaile(ek) edo kontsumitzaileek.

13.2.9.
**ROBIN HOOD, PRÍNCIPE DE LOS LADRONES** [Filma]
Robik Hood, lapurren printzearen abentura klasikoak hamaika bertsio ditu zinemaren barnean. Bazkalondoan eskainiko duten hau berrienetakoa da.

[9. UNITATEA: Erlatiboa erakusle atzera]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Robik Hood, lapurren printzearen abentura klasikoak hamaika bertsio ditu zinemaren barnean. HAU, bazkalondoan eskainiko dutenA, berrienetakoa da.

**Zeinismoa**
– Robik Hood, lapurren printzearen abentura klasikoak hamaika bertsio ditu zinemaren barnean. HAU, ZEINA bazkalondoan eskainiko duteN, berrienetakoa da.
– Robik Hood, lapurren printzearen abentura klasikoak hamaika bertsio ditu zinemaren barnean. HAU, ZEINA bazkalondoan eskainiko BAITute, berrienetakoa da.

***Eta* juntagailua**
– Robik Hood, lapurren printzearen abentura klasikoak hamaika bertsio ditu zinemaren barnean. HAU bazkalondoan eskainiko dute, ETA berrienetakoa da.
– Robik Hood, lapurren printzearen abentura klasikoak hamaika bertsio ditu zinemaren barnean. HAU berrienetakoa da ETA bazkalondoan eskainiko dute.

**Besterik**
– Robik Hood, lapurren printzearen abentura klasikoak hamaika bertsio ditu zinemaren barnean. HAU —bazkalondoan eskainiko dute— berrienetakoa da.

13.2.10.

**Olibondoetatik Apartheid hesira** [Liburua]

Arbizuko Udalak eta Askapenak plazaratu dute Juanma Sarasola Murgiak idatzi duen *Olibondoetatik Apartehid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa)*.

[10. UNITATEA: Erlatiboa izen propio atzera]

**Egitura erlatibo jokatua**

– Arbizuko Udalak eta Askapenak plazaratu dute *Olibondoetatik Apartehid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa)*, Juanma Sarasola Murgiak idatzi duenA.

**Egitra erlatibo jokatugabea-III**

– Arbizuko Udalak eta Askapenak plazaratu dute *Olibondoetatik Apartehid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa)*, Juanma Sarasola Murgiak idatziA.

**Zeinismoa**

– Arbizuko Udalak eta Askapenak plazaratu dute *Olibondoetatik Apartehid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa)*, ZEINA Juanma Sarasola Murgiak idatzi dueN.
– Arbizuko Udalak eta Askapenak plazaratu dute *Olibondoetatik Apartehid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa)*, ZEINA Juanma Sarasola Murgiak idatzi BAITu.

**Beronismoa**

– Arbizuko Udalak eta Askapenak plazaratu dute *Olibondoetatik Apartehid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa)*, BERAU Juanma Sarasola Murgiak idatziA.

***Eta* juntagailua**

– Arbizuko Udalak eta Askapenak plazaratu dute *Olibondoetatik Apartehid hesira (Palestinako gatazka, okupazioa eta garbiketa etnikoa)*, ETA HAU Juanma Sarasola Murgiak idatzi(T)A DAGO.

13.2.11.

**RACHID RAHA Kazetaria eta antropologoa**

Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Le Monde Amazigh egunkariko kazetari eta antropologo Rachid Rahak hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

[11. UNITATEA: Aposizio mota bat atzera]

– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, [Rachid Raha Le Monde Amazigh egunkariko kazetari(A) eta antropologoAK] hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Rachid Rahak, [Le Monde Amazigh egunkariko kazetari(A) eta antropologoA], hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

**Beronismoa**
– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Rachid Rahak, BERAU Le Monde Amazigh egunkariko kazetari(A) eta antropologo(A), hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

**Zeinismoa**
– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Rachid Rahak, ZEINA Le Monde Amazigh egunkariko kazetari(A) eta antropologo(A) BAITa, hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.
– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Rachid Rahak, ZEINA Le Monde Amazigh egunkariko kazetari(A) eta antropologo(A) deN, hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

***Eta* juntagailua**
– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Rachid Rahak, ETA BERAU/HAU Le Monde Amazigh egunkariko kazetari(A) eta antropologo(A) DA, hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

**Besterik**
– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Rachid Rahak —Le Monde Amazigh egunkariko kazetari eta antropologo(A)— hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon

13.2.12.

**Ehiza-txakurra eta bere Jabea**

Ehiztari batek erbi-txakurra zeukan, bere ehizan gazte izan zen artean guztiz ondo lagundu ziona.

[12. UNITATEA: Galdegaia aditz ostera ere]

*Jatorrizko ordena*
– Ehiztari batek zeukan erbi-txakurra, gazte izan zen artean lagundu ziona guztiz ondo bere ehizan.

*Ordena onargarria(k)*
– Ehiztari batek zeukan erbi-txakurra, guztiz ondo lagundu ziona (bere) ehizan gazte izan zen artean.

***BIGARREN TESTA 13-B***

13.2.13.

**Nafarroako alderdien mahaia udazkenean lortu beharko litzatekeela dio Aralarrek**

Batasuna Nafarroaren etorkizuna «galbidera eramaten» ari dela salatu du Txentxo Jimenezek.

[2. UNITATEA]

– Txentxo Jimenezek salatu du Batasuna Nafarroaren etorkizuna «galbidera eramaten» ari dela.
– Txentxo Jimenezek salatu du Batasuna «galbidera eramaten» ari dela Nafarroaren etorkizuna.

13.2.14.

Herritarrengandik jasotako kritikak isilarazteko-edo, Udalak liburuxka informatibo bat kaleratu du, esanez kobazuloa zaindu eta bertako pintadak ezabatuko dituztela.

[4. UNITATEA]

***Eta* juntagailua**

– Herritarrengandik jasotako kritikak isilarazteko-edo, Udalak liburuxka informatibo bat kaleratu du, ETA BERTAN esaten DA kobazuloa zaindu eta bertako pintadak ezabatuko dituztela.

**Zeinismoa**

– Herritarrengandik jasotako kritikak isilarazteko-edo, Udalak liburuxka informatibo bat kaleratu du, ZEINETAN esaten BAITa kobazuloa zaindu eta bertako pintadak ezabatuko dituztela.
– Herritarrengandik jasotako kritikak isilarazteko-edo, Udalak liburuxka informatibo bat kaleratu du, ZEINETAN esaten deN kobazuloa zaindu eta bertako pintadak ezabatuko dituztela.

**Nonismoa**

– Herritarrengandik jasotako kritikak isilarazteko-edo, Udalak liburuxka informatibo bat kaleratu du, NON esaten deN kobazuloa zaindu eta bertako pintadak ezabatuko dituztela.
– Herritarrengandik jasotako kritikak isilarazteko-edo, Udalak liburuxka informatibo bat kaleratu du, NON esaten BAITa kobazuloa zaindu eta bertako pintadak ezabatuko dituztela.

**Egitura erlatibo jokatua**

– Herritarrengandik jasotako kritikak isilarazteko-edo, Udalak liburuxka informatibo bat kaleratu du, esaten deNA kobazuloa zaindu eta bertako pintadak ezabatuko dituztela.

Beharbada, egokiago da *esaten DA* barik *esaten DU*. Aldaera guztietan, honela deritzogu egokiago dagoela azken partea:

– ... esaten DU kobazuloa zainduKO DUTELA eta bertako pintadak ezabatu_.

13.2.15.
**'IBILARTE 2004' ERAKUSKETA.** Ibilialdia 2004 festaren aldeko erakusketa antolatu du Bizkaiko Ikastolen Elkarteak.

[6. UNITATEA]

– **'IBILARTE 2004' ERAKUSKETA.** Ibilialdia 2004 festaren alde_ erakusketa antolatu du Bizkaiko Ikastolen Elkarteak.

– **'IBILARTE 2004' ERAKUSKETA.** Bizkaiko Ikastolen Elkarteak erakusketa antolatu du Ibilialdia 2004 festaren alde_.

13.2.16.
Erakundeak langile bakoitzak eskain dezakeen lana ezagutu behar du.

[8. UNITATEA]

– Erakundeak ezagutu behar du ZER lan eskain dezakeeN langile bakoitzak.

Gure ustez, erdarakada sartu berria da *ezagutu* aditza testuinguru horretan. Egokiago dago, tradizioz, *jakin*:

– Erakundeak JAKIN behar du ZER lan eskain dezakeeN langile bakoitzak.

13.2.17.
**ESKOLA TXIKIEN JAI...**
Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek urtero antolatzen duten Eskola Txikien Jaia atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.

[10. UNITATEA]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Eskola Txikien Jaia, Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek urtero antolatzen dutenA, atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.

**Zeinismoa**
– Eskola Txikien Jaia, ZEINA Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek urtero antolatzen BAITute, atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.
– Eskola Txikien Jaia, ZEINA urtero antolatzen duteN Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek, atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.

***Eta* juntagailua**

– Eskola Txikien Jaia, ETA BERAU/HAU Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek urtero antolatzen dute, atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.
– Eskola Txikien Jaia, ETA BERAU/HAU urtero antolatzen dute Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek, atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.
– Eskola Txikien Jaia Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek urtero antolatzen dute, ETA atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.
– Eskola Txikien Jaia urtero antolatzen dute Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek, ETA atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.

**Besterik**

– Eskola Txikien Jaia —urtero antolatzen dute Gipuzkoako auzo eta herri txikietako eskola publikoek— atzo ospatu zuten Elgetan giro ezin hobean.

13.2.18.

**Erbiak eta Igelak**

Behin Erbiek beren artean batzar edo bilkura egin zuten, eta hitz hauek igaro zituzten.

[12. UNITATEA]

*Jatorrizko ordena*

– Egin zuten behin Erbiek beren artean batzar edo bilkura, eta igaro zituzten hitz hauek.

*Ordena onargarria(k)*

– Behin egin zuten Erbiek beren artean batzar edo bilkura, eta hitz hauek igaro zituzten.

13.2.19.

**Udaberriroko hitzordua**

Sukaldeko armairutik balantza ateratzeko sasoia da.

[1. UNITATEA]

– Sasoia da sukaldeko armairutik balantza ateratzeko.
– Sasoia da balantza ateratzeko sukaldeko armairutik.

13.2.20.

**Harrera beroa egin zieten atzo Otegiri, Petrikorenari eta Olanori**

Ostiral iluntzean, orotara 650.000 euroko fidantza ekonomikoa Auzitegi Nazional espainolean ordaindu ostean, Soto del Real espetxetik atera ziren Arnaldo Otegi, Juan Joxe Petrikorena eta Juan Mari Olano ezker abertzaleko kideak.

[3. UNITATEA]

– Ostiral iluntzean, orotara 650.000 euroko fidantza ekonomikoa Auzitegi Nazional espainolean ordaindu**TA**, Soto del Real espetxetik atera ziren Arnaldo Otegi, Juan Joxe Petrikorena eta Juan Mari Olano ezker abertzaleko kideak.
– Ostiral iluntzean, orotara 650.000 euroko fidantza ekonomikoa Auzitegi Nazional espainolean ordaindu **ETA** Soto del Real espetxetik atera ziren Arnaldo Otegi, Juan Joxe Petrikorena eta Juan Mari Olano ezker abertzaleko kideak.

*Eta* juntagailua erabilita ere, argi eta garbi dago esangura kausala. Bigarren aditza (atera ziren) trankil-trankil eroan daiteke aurrera:

– Ostiral iluntzean, orotara 650.000 euroko fidantza ekonomikoa Auzitegi Nazional espainolean ordaindu **ETA** atera ziren Soto del Real espetxetik Arnaldo Otegi, Juan Joxe Petrikorena eta Juan Mari Olano ezker abertzaleko kideak.
– Ostiral iluntzean, Soto del Real espetxetik atera ziren Arnaldo Otegi, Juan Joxe Petrikorena eta Juan Mari Olano ezker abertzaleko kideak**,** orotara 650.000 euroko fidantza ekonomikoa Auzitegi Nazional espainolean ordaindu**TA**.
– Ostiral iluntzean, Soto del Real espetxetik atera ziren Arnaldo Otegi, Juan Joxe Petrikorena eta Juan Mari Olano ezker abertzaleko kideak**,** orotara 650.000 euroko fidantza ekonomikoa ordaindu**TA** Auzitegi Nazional espainolean.

13.2.21.

**Txintxirri ikastolak du lekukoa**

1968an sortu zen Elorrioko Txintxirri ikastola.

[5. UNITATEA]

– 1968an sortu zen ElorrioN, Txintxirri ikastola.

– 1968an sortu zen Txintxirri ikastola, ElorrioN.

13.2.22.

**‘Europe’s living a celebration’**

Hala zioen Espainiak Eurovisionera aurkeztutako abesti jasangaitz batek, eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

[7. UNITATEA]

**Egitura erlatibo jokatugabea-I**
– Hala zioen abesti jasangaitz batek, Espainiak Eurovisionera aurkeztutakoA, eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

**Egitura erlatibo jokatugabea-III**
– Hala zioen abesti jasangaitz batek, Espainiak Eurovisionera aurkeztuA, eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

**Beronismoa**
– Hala zioen abesti jasangaitz batek, BERAU Espainiak Eurovisionera aurkeztuA, eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

**Besterik**
– Hala zioen abesti jasangaitz batek —Espainiak Eurovisionera aurkeztuA—, eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

Azken partea honela sekuentziatuko genuke:

... eta primeran datorkit gaur abiatzeko.

13.2.23.
**MILLONARIO AL INSTANTE** [Filma]
Belushi eta Grodin komikoen lana erakustea bilatzen duen abentura umoretsu tuntun samar hau, aproposa da lo kuluxkaren orduan telebistaren aurrean ikusteko.

[9. UNITATEA]

**Egitura erlatibo jokatua**
– Abentura umoretsu tuntun samar hau, Belushi eta Grodin komikoen lana erakustea bilatzen duenA, aproposa da lo kuluxkaren orduan telebistaren aurrean ikusteko.

**Zeinismoa**
– Abentura umoretsu tuntun samar hau, ZEINAK Belushi eta Grodin komikoen lana erakustea bilatzen dueN, aproposa da lo kuluxkaren orduan telebistaren aurrean ikusteko.
– Abentura umoretsu tuntun samar hau, ZEINAK bilatzen BAITu Belushi eta Grodin komikoen lana erakustea, aproposa da lo kuluxkaren orduan telebistaren aurrean ikusteko.

***Eta* juntagailua**
– Abentura umoretsu tuntun samar hau, ETA BERONEK/HONEK bilatzen du Belushi eta Grodin komikoen lana erakustea, aproposa da lo kuluxkaren orduan telebistaren aurrean ikusteko.
– Abentura umoretsu tuntun samar HONEK bilatzen du Belushi eta Grodin komikoen lana erakustea, ETA aproposa da lo kuluxkaren orduan telebistaren aurrean ikusteko.

13.2.24.
«Ikusgarri ezberdinak era berdinean ikusteko aukera ematen du».
Jaialdiko antolatzaile eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari Broucaret jaun karismatikoa antzerki munduan oso ezaguna da.

[11. UNITATEA]

– [Broucaret jaialdiko antolatzaile(A) eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari jaun karismatikoa] antzerki munduan oso ezaguna da.
– Broucaret jaun karismatikoa, [jaialdiko antolatzaile(A) eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari(A)], antzerki munduan oso ezaguna da.

**Beronismoa**
– Broucaret jaun karismatikoa, BERAU jaialdiko antolatzaile(A) eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari(A), antzerki munduan oso ezaguna da.

***Eta* juntagailua**
– Broucaret jaun karismatikoa, ETA BERAU/HAU jaialdiko antolatzaile(a) eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari(a) DA, antzerki munduan oso ezaguna da.
– Broucaret jaun karismatikoa Jaialdiko antolatzaile(a) eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari(a) DA, ETA antzerki munduan oso ezaguna da.
– Broucaret jaun karismatikoa DA jaialdiko antolatzaile(a) eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari(a), ETA antzerki munduan oso ezaguna da.

**Besterik**
– Broucaret jaun karismatikoa —jaialdiko antolatzaile(A) eta Chimeres antzerki taldeko zuzendari(A)— antzerki munduan oso ezaguna da.

Aldaera guztietan, eta baita jatorrizkoan ere, orraztutxo bat egin daiteke:

… eta oso ezaguna da antzerki munduan.

## *HIRUGARREN TESTA 13-C*

13.2.25.
**Otsoa eta Irudia**
Otsoa basoan zebilela, Irudi itxura huts, edo imajina bat aurkitu zuen.

*Jatorrizko ordena*
– Zebilela Otsoa basoan, aurkitu zuen Irudi itxura huts, edo imajina bat.

13.2.26.
**ANTE GOTOVINA**
Bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia da Jugoslavia Ohirako Auzitegiari lau urtez ihes egin dion Ante Gotovina jeneral ohia.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia da Ante Gotovina jeneral ohia, Jugoslavia Ohirako Auzitegiari lau urtez ihes egin dionA.

**Zeinismoa**
– Bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia da Ante Gotovina jeneral ohia, ZEINAK Jugoslavia Ohirako Auzitegiari lau urtez ihes egin dioN.
– Bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia da Ante Gotovina jeneral ohia, ZEINAK lau urtez ihes egin BAITio Jugoslavia Ohirako Auzitegiari.

**Beronismoa**
– Bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia da Ante Gotovina jeneral ohia, BERAU lau urtez ihes eginA Jugoslavia Ohirako Auzitegiari.

***Eta* juntagailua**
– Ante Gotovina jeneral ohia bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia da, ETA lau urtez ihes egin dio Jugoslavia Ohirako Auzitegiari.

***Beste ikuspegi batetik***

– Ante Gotovina jeneral ohiaK, bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia, lau urtez ihes egin dio Jugoslavia Ohirako Auzitegiari.
– Ante Gotovina jeneral ohiaK, BERAU bi aurpegi erabat kontrajarritako pertsonaia, lau urtez ihes egin dio Jugoslavia Ohirako Auzitegiari.
– Ante Gotovina jeneral ohiaK, ETA pertsonaia HONEK bi aurpegi erabat kontrajarriAK DITU, lau urtez ihes egin dio Jugoslavia Ohirako Auzitegiari.
– Ante Gotovina jeneral ohiaK —(pertsonai honek) bi aurpegi erabat kontrajarriAK DITU— lau urtez ihes egin dio Jugoslavia Ohirako Auzitegiari.

13.2.27.
Langile bakoitzak bere lanpostuaren helburuak jakin behar ditu.

– Langile bakoitzak jakin behar du ZEINTZUK helburu dituen bere lanpostuaK.

13.2.28.
**Dirudun bihurtzeko saioa**
AEBetako NBC kateak reality-show berri baten aldeko apustua egin du denboraldi honetarako.

– AEBetako NBC kateak reality-show berri baten alde_ apustua egin du denboraldi honetarako.
– AEBetako NBC kateak [apustua] egin du denboraldi honetarako [reality-show berri baten alde_].
– AEBetako NBC kateak denboraldi honetarako [apustua] egin du [reality-show berri baten alde_].
– AEBetako NBC kateak denboraldi honetarako egin du [apustua] [reality-show berri baten alde_].
– AEBetako NBC kateak [apustua] egin du [reality-show berri baten alde_] denboraldi honetarako.

13.2.29.
Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, lokal batzuk behar zirela adieraziz.

**Aditza aurrerengo**
– Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, ADIERAZIZ lokal batzuk behar zirela. (?)

***Eta* juntagailua**
– Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, ETA BERTAN/HAN adierazten zen lokal batzuk behar zirela.

**Zeinismoa**
– Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, ZEINETAN adierazten zeN lokal batzuk behar zirela.
– Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, ZEINETAN adierazten BAITzen lokal batzuk behar zirela.

**Nonismoa**
– Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, NON adierazten BAITzen lokal batzuk behar zirela.
– Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, NON adierazten zeN lokal batzuk behar zirela.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, adierazten zeNA lokal batzuk behar zirela.

***-T(z)eko* adizlaguna**
– Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, adierazTEKO lokal batzuk behar zirela.

13.2.30.

**Huelvan dauden euskal presoek funtzionarioen jarrera salatu dute**

Huelvako espetxean dauden euskal presoek azken bi hilabeteetan espetxeko baldintzak gogortu egin direla salatu dute.

– Huelvako espetxean dauden euskal presoek salatu dute azken bi hilabeteetan espetxeko baldintzak gogortu egin direla.
– Huelvako espetxean dauden euskal presoek salatu dute espetxeko baldintzak gogortu egin direla azken bi hilabeteetan.
– Huelvako espetxean dauden euskal presoek salatu dute gogortu egin direla espetxeko baldintzak azken bi hilabeteetan.

13.2.31.

**Madrazoren ustez, EAJk «ez du zilegitasunik» aurrekontuak negoziatzeko**

EBko koordinatzaile eta Lakuako Gobernuko Etxebizitza sailburu Javier Madrazo argi mintzatu zen, atzo, 2006rako EAEko aurrekontuen gaineko negoziazioez.

– [Javier Madrazo EBko koordinatzaile(A) eta Lakuako Gobernuko Etxebizitza sailburuA] argi mintzatu zen, atzo, 2006rako EAEko aurrekontuen gaineko negoziazioez.
– Javier Madrazo, [EBko koordinatzaile(A) eta Lakuako Gobernuko Etxebizitza sailburuA], argi mintzatu zen, atzo, 2006rako EAEko aurrekontuen gaineko negoziazioez.

**Beronismoa**
– Javier Madrazo, BERAU EBko koordinatzaile(A) eta Lakuako Gobernuko Etxebizitza sailburuA, argi mintzatu zen, atzo, 2006rako EAEko aurrekontuen gaineko negoziazioez.

**Besterik**
– Javier Madrazo —EBko koordinatzaile(A) eta Lakuako Gobernuko Etxebizitza sailburuA— argi mintzatu zen, atzo, 2006rako EAEko aurrekontuen gaineko negoziazioez.

13.2.32.

**ESTAMOS MUERTOS ¿O QUÉ?**

Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat egindako film umoretsu komertzial arrunt samar honek istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

**Egitura erlatibo jokatugabea-I**
– Film umoretsu komertzial arrunt samar honek, Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat egindakoA, istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

**Egitura erlatibo jokatugabea-III**
– Film umoretsu komertzial arrunt samar honek, Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat eginA, istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

**Beronismoa**
– Film umoretsu komertzial arrunt samar honek, BERAU Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat eginA_, istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

Hobe da, guk uste, aditz nagusia koma ostera eroatea, aurrerengo lekura:

– Film umoretsu komertzial arrunt samar honek, (berau) Goldblattek egina batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat, HARTZEN DU abiapuntutzat istorio fantastiko bat.

***Eta* juntagailua**
– Film umoretsu komertzial arrunt samar HAU Goldblattek eginDA DAGO batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat, ETA istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

13.2.33.
Atzo bost hanka zituen ahuntz bat jaio zen Frantzian.

**Egitura erlatibo jokatua**
– Atzo Frantzian ahuntz bat jaio zen(,) bost hanka zituenA.
– Atzo Frantzian ahuntz bat jaio zen(,) bost hankaKOA.

***Eta* juntagailua**
– Atzo Frantzian ahuntz bat jaio zen(,) ETA bost hanka zituen

Erabili daitezke zeinismoa eta beronismoa ere.

13.2.34.
**Erlojupeko etapa Pontederatik**
Banakako erlojupeko proba izango dute gaur Giroko txirrindulariek.

– Banakako erlojupeko proba izango dute gaur GiroAN txirrindulariek;
– Banakako erlojupeko proba izango dute gaur txirrindulariek GiroAN.

Ez ote dago hobeto erabilita “izan” aditza barik “egin” edo “jokatu”?

13.2.35.

**Antartidan egindako zeharkaldiaren hasiera**

Sebastian Alvarok zuzentzen duen *Al filo de lo imposible* saioa itzuliko da gaur La2era.

**Egitura erlatibo jokatua**

– *Al filo de lo imposible* saioa, Sebastian Alvarok zuzentzen duenA, itzuliko da gaur La2era.

**Zeinismoa**

– *Al filo de lo imposible* saioa, ZEINA Sebastian Alvarok zuzentzen dueN, itzuliko da gaur La2era.
– *Al filo de lo imposible* saioa, ZEINA Sebastian Alvarok zuzentzen BAITu, itzuliko da gaur La2era.

***Eta* juntagailua**

– *Al filo de lo imposible* saioa, ETA BERAU Sebastian Alvarok zuzentzen du, itzuliko da gaur La2era.

**Besterik**

– *Al filo de lo imposible* saioa —Sebastian Alvarok zuzentzen du— itzuliko da gaur La2era.

13.2.36.

**Pedal kolpeak Gasteizko hesi berdean**

Gasteizko Eraztun Berdeak bizikleta gainean arratsalde atsegina igarotzeko aukera ematen du.

– Gasteizko Eraztun Berdeak aukera ematen du bizikleta gainean arratsalde atsegina igarotzeko
– Gasteizko Eraztun Berdeak aukera ematen du arratsalde atsegina igarotzeko bizikleta gainean

13.2.37.

**Adopzioen inguruko erreportaiak**

ETBko albistegiak adopzioen inguruko erreportaia sorta berezia ematen hasiko dira bihar.

– ETBko albistegiak adopzioen inguruAN erreportaia sorta berezia ematen hasiko dira bihar.
– ETBko albistegiak [erreportaia sorta berezia] ematen hasiko dira bihar [adopzioen inguruAN].
– ETBko albistegiak bihar [erreportaia sorta berezia] ematen hasiko dira [adopzioen inguruAN].
– ETBko albistegiak bihar hasiko dira ematen [erreportaia sorta berezia] [adopzioen inguruAN].

13.2.38.

**Mendi astea, Zarautzen**

Pagoeta Mendizale elkarteak antolatu du aurtengo Mendi Astea.

– Pagoeta Mendizale elkarteak antolatu du aurtenØ Mendi Astea.

13.2.39.

**Espainiako Armada Orbaitzetan izanen da**

Herriko Udalak ukatu die militarrei herrian hilaren 8tik 12ra bitarte kanpaldia egiteko baimena, baina joanen direla uste dute.

– Herriko Udalak ukatu (egin) die militarrei BAIMENA herrian hilaren 8tik 12ra bitarte kanpaldia egiteko, baina joanen direla uste dute.
– Herriko Udalak ukatu (egin) die militarrei BAIMENA [kanpaldia egiteko] herrian hilaren 8tik 12ra bitarte, baina joanen direla uste dute.

13.2.40.

**EHNAren dinamika indartu eta sendotzeko borondatea agertu du Nazio Garapen Biltzarrak**

Naziotasun Aitormena Euskal Herria eraikitzeko tresna garrantzitsua dela esan du.

– Esan du Naziotasun Aitormena Euskal Herria eraikitzeko tresna garrantzitsua dela.
– Esan du Naziotasun Aitormena tresna garrantzitsua dela Euskal Herria eraikitzeko.

13.2.41.

Eta gutun bat idatzi nion Asuni, gaztelaniaz idatzi nahi nuela esanez.

**Aditza aurrerengo**

– Eta gutun bat idatzi nion Asuni, ESANEZ gaztelaniaz idatzi nahi nuela. (?)

***Eta* juntagailua**

– Eta gutun bat idatzi nion Asuni, ETA BERTAN/HAN esaten nion gaztelaniaz idatzi nahi nuela.

**Zeinismoa**

– Eta gutun bat idatzi nion Asuni, ZEINETAN esaten nioN gaztelaniaz idatzi nahi nuela.
– Eta gutun bat idatzi nion Asuni, ZEINETAN esaten BAInion gaztelaniaz idatzi nahi nuela.

**Nonismoa**

– Eta gutun bat idatzi nion Asuni, NON esaten BAITnion gaztelaniaz idatzi nahi nuela.
– Eta gutun bat idatzi nion Asuni, NON esaten nioN gaztelaniaz idatzi nahi nuela

**-*T(z)eko* adizlaguna**
– Eta gutun bat idatzi nion Asuni, ESATEKO gaztelaniaz idatzi nahi nuela.

13.2.42.
**Judaren sakrifizioa**
Fabore bat egin nizun ez azaltzean.

– Fabore bat egin nizun ez azaldu**TA**

## *LAUGARREN TESTA 13-D*

13.2.43.

**Begoña Errazti: «Subirotasunak ongizatea areagotuko liguke».**

Eusko Alkartasunak giza eskubideen aldeko ekitaldia egin zuen Gernikan atzo, Picassoren *Guernica* margoaren aurrean.

- Eusko Alkartasunak giza eskubideen alde_ ekitaldia egin zuen Gernikan atzo, Picassoren *Guernica* margoaren aurrean.
- Eusko Alkartasunak ekitaldia egin zuen Gernikan atzo [giza eskubideen alde_], Picassoren *Guernica* margoaren aurrean.
- Eusko Alkartasunak atzo Gernikan ekitaldia egin zuen [giza eskubideen alde_], Picassoren *Guernica* margoaren aurrean.
- Eusko Alkartasunak atzo Gernikan egin zuen [ekitaldia][giza eskubideen alde_], Picassoren *Guernica* margoaren aurrean.
- Eusko Alkartasunak atzo egin zuen [ekitaldia] [giza eskubideen alde_], Gernikan, Picassoren *Guernica* margoaren aurrean.
- Eusko Alkartasunak atzo [ekitaldia] egin zuen [giza eskubideen alde_], Gernikan, Picassoren *Guernica* margoaren aurrean.
- Eusko Alkartasunak atzo [ekitaldia] egin zuen [giza eskubideen alde_], Gernikan, *Guernica* margoaren aurrean, (BERAU) PicassorenA.
- Eusko Alkartasunak atzo [ekitaldia] egin zuen [giza eskubideen alde_], Gernikan, *Guernica* margoaren aurrean, BERAU Picassok PINTATUA.

13.2.44.

Herenegun euskaraz ondo egiten duen beltz bat ezagutu genuen Gasteizen.

**Egitura erlatibo jokatua**

- Herenegun Gasteizen beltz bat ezagutu genuen(,) euskaraz ondo egiten duenA.

***Eta* juntagailua**

- Herenegun Gasteizen beltz bat ezagutu genuen(,) ETA ondo egiten du euskaraz.

Erabili daitezke zeinismoa eta beronismoa ere.

13.2.45.

**Mallabiko Biharko Izarrak txapelketako finalak etzi dira**

Joan den ostegunean jokatu ziren, Mallabiko pilotalekuko harmailak gainezka zirela, *Biharko Izarrak* txapelketako finalerdiak.

- Joan den ostegunean jokatu ziren, Mallabiko pilotalekuko harmailak gainezka zirela, *Biharko Izarrak* txapelketaN, finalerdiak.
- Joan den ostegunean jokatu ziren, Mallabiko pilotalekuko harmailak gainezka zirela, finalerdiak *Biharko Izarrak* txapelketaN.

– Joan den ostegunean jokatu ziren MallabiAN, pilotalekuko harmailak gainezka zirela, finalerdiak *Biharko Izarrak* txapelketaN.
– Joan den ostegunean jokatu ziren MallabiAN, pilotalekuAN, harmailak gainezka zirela, finalerdiak *Biharko Izarrak* txapelketaN.
– Joan den ostegunean finalerdiak jokatu ziren *Biharko Izarrak* txapelketaN, Mallabiko pilotalekuko harmailak gainezka zirela.
– Joan den ostegunean finalerdiak jokatu ziren *Biharko Izarrak* txapelketaN, Mallabiko pilotalekuAN, harmailak gainezka zirela.
– Joan den ostegunean MallabiN finalerdiak jokatu ziren *Biharko Izarrak* txapelketaN, pilotalekuko harmailak gainezka zirela.
– Joan den ostegunean MallabiN finalerdiak jokatu ziren *Biharko Izarrak* txapelketaN, pilotalekuko harmailak gainezka ZEUDELA.
– Joan den ostegunean MallabiN finalerdiak jokatu ziren *Biharko Izarrak* txapelketaN, harmailak gainezka ZEUDELA pilotalekuAN.

13.2.46.
Errendimenduaren balorazioak langile bakoitzak eskaintzen duen balioa neurtzen du.

– Errendimenduaren balorazioak neurtzen du ZER balio eskaintzen duen langile bakoitzak.

13.2.47.
**Tim Burtonen ohiz kanpoko maisulana**. Johnny Depp eta Winona Ryder aktore gazteek Tim Burtonen fantasiazko egitasmo bikain honetan rol nagusiak jokatzeko zortea izan zuten.

– Tim Burtonen fantasiazko egitasmo bikain honetan Johnny Depp eta Winona Ryder aktore gazteek zortea izan zuten rol nagusiak jokatzeko.

13.2.48.
**Eulia eta Mandoa**
Mando batek burdina zeramala Euli gogaikarria burtolean jarri zitzaion, eta diotsa

*Jatorrizko ordena*
– Mando batek zeramala burdina jarri zitzaion burtolean Euli gogaikarria, eta diotsa…

*Ordena onargarria(k)*
– Mando batek burdina zeramala burtolean jarri zitzaion Euli gogaikarria, eta diotsa…

13.2.49.
**Kaltetu eta biktima guztiei dagokien ordaina**. Indarkeriaren biktima guztiei erantzuna eman behar zaiela iritzi diote.

– Iritzi diote indarkeriaren biktima guztiei erantzuna eman behar zaiela.
– Iritzi diote erantzuna eman behar zaiela indarkeriaren biktima guztiei.

13.2.50.
… salatu du Kanarietako Gobernuko Afrikarekiko harremanetarako buru Luis Guillermo Padillak.

– … salatu du [Luis Guillermo Padilla Kanarietako Gobernuko Afrikarekiko harremanetarako buruAK].
– … salatu du Luis Guillermo Padillak, [Kanarietako Gobernuko Afrikarekiko harremanetarako buruAK].

**Beronismoa**
– … salatu du Luis Guillermo Padillak, BERAU Kanarietako Gobernuko Afrikarekiko harremanetarako buruA_.

**Besterik**
– … salatu du Luis Guillermo Padillak —Kanarietako Gobernuko Afrikarekiko harremanetarako buruA—.

13.2.51.
**Mendekuaren graziaz**
Lauriek, aspaldiko ohitura bat berreskuratuz, pott eman zion zintzilik zeraman gurutzetxoari dendara sartzean.

– Ondo erabilita dago “sartZEAN”, ez du-eta kausa adierazten, ezpabere, denbora hutsa.

13.2.52.
Hezkuntza eta ikasketa sindikalez arduratzen den Ipar Hegoa Fundazioak iazko irailean Iruñeko Baluarte Kongresu-Jauregian antolatu zituen jardunaldien emaitza biltzen da argitalpen honetan.

**Erlatibo jokatua**
– Ipar Hegoa Fundazioak, Hezkuntza eta ikasketa sindikalez arduratzen denA, iazko irailean Iruñeko Baluarte Kongresu-Jauregian antolatu zituen jardunaldien emaitza biltzen da argitalpen honetan.

**Zeinismoa**
– Ipar Hegoa Fundazioak, ZEINA Hezkuntza eta ikasketa sindikalez arduratzen deN, iazko irailean Iruñeko Baluarte Kongresu-Jauregian antolatu zituen jardunaldien emaitza biltzen da argitalpen honetan.

– Ipar Hegoa Fundazioak, ZEINA Hezkuntza eta ikasketa sindikalez arduratzen BAITa, iazko irailean Iruñeko Baluarte Kongresu-Jauregian antolatu zituen jardunaldien emaitza biltzen da argitalpen honetan.

***Eta* juntagailua**

– Ipar Hegoa Fundazioak, ETA BERAU/HAU Hezkuntza eta ikasketa sindikalez arduratzen da, iazko irailean Iruñeko Baluarte Kongresu-Jauregian antolatu zituen jardunaldien emaitza biltzen da argitalpen honetan.

***BESTE IKUSPEGI BATETIK***

– Argitalpen honetan biltzen da jardunaldi batzuetako emaitzak, iaz(ko) irailean eginak Iruñeko Baluarte Kongresu-Jauregian, eta Ipar Hegoa Fundazioak antolatuak, zeina Hezkuntza eta ikasketa sindikalez arduratzen den.

…iaz, irailean, Iruñean, Baluarte Kongresu-Jauregian

13.2.53.

**SEGURTASUN PLANA.** Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen jarraituko duela esanez.

**Aditza aurrerengo**

– Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, ESANEZ bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen jarraituko duela. (?)
– Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, ESANEZ jarraituko duela bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen. (?)

**Erlatibo jokatua**

– Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, esaten deNA jarraituko duela bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen.

**Zeinismoa**

– Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, ZEINETAN esaten deN jarraituko duela bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen.
– Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, ZEINETAN esaten BAITa jarraituko duela bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen.

**Nonismoa**

– Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, NON esaten BAITa jarraituko duela bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen.

***Eta* juntagailua**

– Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, ETA BERTAN/HAN esaten da jarraituko duela bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen.

***-T(z)eko* adizlaguna**
– Metro Bilbao enpresak agiria kaleratu du bere aldetik, ESATEKO jarraituko duela bezeroen eta langileen segurtasuna zaintzen.

13.2.54.
**CORRIENDO LIBRE** [Filma]
**Haurra eta zaldia, bikote ezaguna.** Jean Jacques Annaudek —Enemy at the gates (2000), Le Nom de la rose (1986), L'Ours (1988)— idatzi eta ekoitzi zuen haurraren eta zaldiaren bikote ezagunean oinarritzen den film polit hau.

**Erlatibo jokatua**
– Jean Jacques Annaudek —Enemy at the gates (2000), Le Nom de la rose (1986), L'Ours (1988)— idatzi eta ekoitzi zuen film polit hau, haurraren eta zaldiaren bikote ezagunean oinarritzen denA.

**Erlatibo jokatugabea-II**
– Jean Jacques Annaudek —Enemy at the gates (2000), Le Nom de la rose (1986), L'Ours (1988)— idatzi eta ekoitzi zuen film polit hau, haurraren eta zaldiaren bikote ezagunean oinarrituA.

**Zeinismoa**
– Jean Jacques Annaudek —Enemy at the gates (2000), Le Nom de la rose (1986), L'Ours (1988)— idatzi eta ekoitzi zuen film polit hau, ZEINA haurraren eta zaldiaren bikote ezagunean oinarritzen BAITa.
– Jean Jacques Annaudek —Enemy at the gates (2000), Le Nom de la rose (1986), L'Ours (1988)— idatzi eta ekoitzi zuen film polit hau, ZEINA oinarritu(t)a dagoeN haurraren eta zaldiaren bikote ezagunean.

**Beronismoa**
– Jean Jacques Annaudek —Enemy at the gates (2000), Le Nom de la rose (1986), L'Ours (1988)— idatzi eta ekoitzi zuen film polit hau, BERAU haurraren eta zaldiaren bikote ezagunean oinarrituA.

***Eta* juntagailua**
– Jean Jacques Annaudek —Enemy at the gates (2000), Le Nom de la rose (1986), L'Ours (1988)— idatzi eta ekoitzi zuen film polit hau, ETA haurraren eta zaldiaren bikote ezagunean oinarritutzen da.

Ustea daukagu, aditz-aspektoa dela-eta, hobeto dagoela *oinarrituta dago* ezen ez *oinarritzen da*.

13.2.55.
**Eulia eta Txindurria**
Euliak eta Txindurriak auzi gogor bat zerabilten, nor ote zen ederrago.

*Jatorrizko ordena*
– Euliak eta Txindurriak zerabilten auzi gogor bat, nor ote zen ederrago.

13.2.56.
Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria den Bernardo Hernandezek agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.

– [Bernardo Hernandez Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria denAK] agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.
– Bernardo Hernandezek, [Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria denA], BERAK agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.

**Zeinismoa**
– Bernardo Hernandezek, ZEINA Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria deN, BERAK agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.
– Bernardo Hernandezek, ZEINA Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria BAITa, BERAK agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.

***Eta* juntagailua**
– Bernardo Hernandez Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria da, ETA BERAK agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.

**Beste proposamen batzuk:**

– Agertu DUENEZ Bernardo Hernandez Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria denAK, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.
– Agertu DUENEZ Bernardo HernandezeK, BERAU Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.
– Bernardo HernandezeK agertu DUENEZ, BERAU Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.
– Bernardo Hernandez Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria DA, ETA BERAK agertu DUENEZ, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.

13.2.57.
**Matador** [Filma]
Soldatapeko hiltzaile batek arazo ekonomikoak dituen gizon arrunt bati lagunduko dio, patuaren ondorioz.

**Erlatibo jokatua**
– Soldatapeko hiltzaile batek gizon arrunt bati lagunduko dio, arazo ekonomikoak dituenA patuaren ondorioz.
– Soldatapeko hiltzaile batek lagunduko dio gizon arrunt bati, arazo ekonomikoak dituenA patuaren ondorioz.

**Zeinismoa**
– Soldatapeko hiltzaile batek gizon arrunt bati lagunduko dio, ZEINAK arazo ekonomikoak ditueN patuaren ondorioz.
– Soldatapeko hiltzaile batek lagunduko dio gizon arrunt bati, ZEINAK arazo ekonomikoak BAITitu patuaren ondorioz.

13.2.58.
Horretarako, euskarazko irakaskuntza zalantzan jartzeko arrazoiak eta euskarazko irakakuntza ezartzeko zailtasuna aztertzen ditu.

– Horretarako, aztertzen ditu ZEINTZUK arrazaoi daudeN zalantzan jartzeko euskarazko irakaskuntza zalantzan eta ZER zailtasun euskarazko irakaskuntza ezartzeko.

13.2.59.
**Gazteak esna**
Agurne Anasagastik, Iban Garatek, Mikel Losadak eta Nerea Garmendiak Patxi Zubizarretak idatzitako ‘Mundua lo dagoen bitartean’ obra estreinatuko dute Bilborocken maiatzaren 5ean.

**Erlatibo jokatugabe-I**
– Agurne Anasagastik, Iban Garatek, Mikel Losadak eta Nerea Garmendiak ‘Mundua lo dagoen bitartean’ obra, Patxi Zubizarretak idatzitakoA, estreinatuko dute Bilborocken maiatzaren 5ean.

**Erlatibo jokatugabea-II**
– Agurne Anasagastik, Iban Garatek, Mikel Losadak eta Nerea Garmendiak ‘Mundua lo dagoen bitartean’ obra, Patxi Zubizarretak idatziA, estreinatuko dute Bilborocken maiatzaren 5ean.

**Beste hurrenketa batean**:
– ‘Mundua lo dagoen bitartean’ obra, Patxi Zubizarretak idatziA, Agurne Anasagastik, Iban Garatek, Mikel Losadak eta Nerea Garmendiak estreinatuko dute Bilborocken maiatzaren 5ean.

– ‘Mundua lo dagoen bitartean’ obra, Patxi Zubizarretak idatziA, estreinatuko dute Agurne Anasagastik, Iban Garatek, Mikel Losadak eta Nerea Garmendiak Bilborocken, maiatzaren 5ean.

13.2.60.

**Milagroko herritarren matxinada** [Filma]

Redfordek kameraren atzealdean egindako bigarren saiakera, AEBetako herrixka batean kokatua dagoen nekazari giroko film hunkigarri eta eztitsu samar hau da.

– Redfordek kameraren atzealdean egindako bigarren saiakera(,) film hunkigarri eta eztitsu samar hau da, AEBetako herrixka batean kokatua dagoen nekazari girokoA.
– Redfordek kameraren atzealdean egindako bigarren saiakera(,) film hunkigarri eta eztitsu samar hau da, nekazari girokoA DA ETA AEBetako herrixka batean kokatua dago.
– Redfordek kameraren atzealdean egindako bigarren saiakera(,) film hunkigarri eta eztitsu samar hau da, (BERAU) nekazari girokoA ETA AEBetako herrixka batean kokatua.

Zeinismoa ere erabil daiteke, baina korapilatsuago gertatuko litzateke perpausa. Beste ordena batean:

– Film hunkigarri eta eztitsu samar hau, Redfordek kameraren atzealdean egindako bigarren saiakera, nekazari girokoA DA ETA AEBetako herrixka batean kokatua.
– Film hunkigarri eta eztitsu samar hau, Redfordek egindako bigarren saiakera kameraren atzealdean, nekazari girokoA DA ETA AEBetako herrixka batean kokatua.
– Film hunkigarri eta eztitsu samar hau, RedfordEN bigarren saiakera kameraren atzealdean, nekazari girokoA DA ETA AEBetako herrixka batean kokatua.

… AEBetaN kokatua, herrixka batean.

# 1. eranskina

Eranskin honetan aposizioa jorratuko dugu, helburu bi ditugula:

1. Erakutsi ez dela egokia Euskaltzaindiak emaniko araua aposizioaren gainean.
2. Hartu SOLUZIOAK apartaduko hainbat adibide, eta erakutsi ebazten direla Euskaltzaindiak proposatu ez legez, iruntzitara.

Euskaltzaindiak arau bat dauka aposizioaren gainean (109. araua). Hona hemen labur emanda:

**ARAUA**

(...)
Izen-sintagma osoak aposatzen direnean, berriz, komunztadura egitea da ohikoena, hondarkia sintagma aposatuetan ere ipiniz:

– Nire lagun Ferminek, piano jotzaile trebeak, kontzertu asko eman ditu aurten.
– Fermin Garro irakasleari, lizentziadun berri denari, eman diote lanpostu hori.
– Zure lagunarekin, Unibertsitateko irakaslearekin, mintzatu naiz gaur.

Komunztadura gabeko aposizioak lekukotasun urriagoa du tradizioan, batez ere perpaus barruan kokatua dagoenak, eta, hortaz, ez da gomendatzekoa.

– ?? Nire lagun Ferminek, piano jotzaile trebea_, kontzertu asko eman ditu aurten.
– ?? Fermin Garro irakasleari, lizentziadun berri dena_, eman diote lanpostu hori.
– ?? Zure lagunarekin, Unibertsitateko irakaslea_, mintzatu naiz gaur.

(...)

Arautik segitzen dugu aposizio mota bi daudela behinik behin:

- Aposizio komunztaduradunak.
- Aposizio komunztadura bakoak (baztertzekoak, Euskaltzaindiaren ustez).

Euskaltzaindiak aukera egin du aposizio komunztaduradunaren alde, eta horren argigarri hiru adibide eredugarri eman ditu

– (1) Nire lagun Ferminek, piano jotzaile trebeak, kontzertu asko eman ditu aurten
– (2) Fermin Garro irakasleari, lizentziadun berri denari, eman diote lanpostu hori
– (3) Zure lagunarekin, Unibertsitateko irakaslearekin, mintzatu naiz gaur

zeintzuk multzo bitan aztertuko ditugun:

A. Izen propioa dute aurreko atalean, aurrekarian:
– (1) Nire lagun Ferminek (...)
– (2) Fermin Garro irakasleari (...)

B. Izen komuna du aurrekarian, lagun duela determinatzaile mugatua (*-a*):
– (3) Zure lagunarekin (...)

Banan-banan jorratuko ditugu multzook. Has gaitezen lehenengo multzotik, non adibide bietan izen propioa ageri den aurrekarian. Normalean arau bat ematen denean, horren frogagarri adibide batzuk (edo asko) ematen dira. Eta halaxe egin du Euskaltzaindiak arau askotan; oraingo honetan, ostera, hiru besterik ez ditu eman:

> Horrela, esate baterako, komunztadura egiten da eskuarki lehen sintagmaren buruan *bat* mugagabea dutenetan edota sintagma aposatuan erlatibo arrunta dutenetan:
>
> (9) a. Orduan esan zezan haren diszipuluetarik bat*ek*, Iudas Iscariot Simonen seme*ak*, hura trahiturren zuenak (Lç 187).
> b. Zuhaitz ttipi*ak*, oraiño errorik eztuen*ak*, ezin athera ditzakezu (Ax 57).
> c. Hetarik bat*ek*, Cleofas deitzen zen*ak*, ihardetsi zion (Lg II 288).

Hiru adibide frogagarriotan zeinek edo zeintzuek frogatzen dute erabili behar dela aposizio komunztaduraduna?

– (1) Nire lagun Ferminek, [piano jotzaile trebe**ak**], kontzertu asko eman ditu aurten
– (2) Fermin Garro irakasleari, [lizentziadun berri den**ari**], eman diote lanpostu hori

Eta ez aposizio komunztadura bakoa?

– Nire lagun Ferminek, [piano jotzaile trebea_], kontzertu asko eman ditu aurten
– Fermin Garro irakasleari, [lizentziadun berri dena_], eman diote lanpostu hori

Oker-oker ez bagaude, hiru adibide frogagarrietan (*a*, *b* eta *c*-n) ez dago garaurik frogatzen duenik erabili behar dela aposizio komunztaduraduna. Izan ere, perpaus frogagarrietako perpausetan, aurrekariek (ardatzak *izen komunak* edo *erakuslea* dira)

– haren diszipuluetarik bat*ek,*
– Zuhaitz ttipi*ak,*
– Hetarik bat*ek,*

ez daukate zerikusirik perpaus eredugarrietakoekin (ardatzak *izen propioak* dira)

– (1) Nire lagun Ferminek,
– (2) Fermin Garro irakasleari,

Pasatzen bagara bigarren multzoa jorratzera, berton adibide bakarra dago:

– (3) Zure lagunarekin, [Unibertsitateko irakasle**arekin**], mintzatu naiz gaur

Eta perpaus horixe hobesten da (aposizio komunztaduraduna), eta alboratu beste hau (aposizio komunztadura bakoa):

– Zure lagunarekin, [Unibertsitateko irakaslea_], mintzatu naiz gaur

Egiaztatzeko aposizio komunztaduraduna dagoela ondo eta ez komunztadura bakoa, balioko ote digute Euskaltzaindiak emaniko hiru perpausek, edo eurotarikoren batek?

Perpaus bik (*a* eta *c*-k) ez digute balio, aurrekarian *bat* determinatzailea daukate-eta, eta egiaztaztu beharrezko perpausean *lagun* izen komunak lagun du *-a* artikulu mugatua. Geratzen zaigu hirugarren perpausa:

b. Zuhaitz ttipi*ak*, oraiño errorik eztuen*ak*, ezin athera ditzakezu (Ax 57).

Ikusita perpaus horrek ez duela ezelako aurre-testuingururik, uste dugu, penaz segitzen dela adibide huts horretatik ondo dagoela hurrengo perpaus hau:

– (3) Zure lagunarekin, [Unibertsitateko irakasle**arekin**], mintzatu naiz gaur

Eta txarto beste hau:

– Zure lagunarekin, [Unibertsitateko irakaslea_], mintzatu naiz gaur

Osterantzean esateko, goiko perpaus aurre-testuinguru bakotik (b) esan al daiteke ondo dagoela perpaus aposizio komunztaduraduna (3), berau ere aurre-testuinguru bakoa?

Orain arte ikusi dugu lausoak direla Euskaltzaindiak emaniko adibide frogagarriak aposizio komunztaduradunen alde. Bestalde, aposizio komunztadura bakoak ez gomendatzeko, Euskaltzaindiak tradizioko adibide bat ematen du:

– (10) Gure Jainko*ak*, beti xuxen dabilan*a*, ongi gidatzen baitu (M. Ariztia, *Amattoren uzta*, 16).

Gure ustez, ezin hobeto dago perpaus aposizio komunztadura bako hori; gainera, ondo dagoela frogatzeko ez du behar ezta testuingururik ere. Are gehiago, aposizio komunztaduraduna erabiliz gero, lorrindu egingo luke perpausa, alperrikaldu:

– (10) Gure Jainko*ak*, beti xuxen dabilan*a**K***, ongi gidatzen baitu (M. Ariztia, *Amattoren uzta*, 16).

Balantze bat eginez gero, esango genuke Euskaltzaindiak hiru adibide desegoki ematen dituela erakusteko aposizio komunztaduraduna soilik baliatu behar dela; bestalde, tradizioko adibide bat ere ematen du (aposizio komunztadura bakoa), zokoragarria bere iritziz, baina arteza, gure iritzian. Uste dugu gai honek jorra handiago behar duela, eta kontuan eduki behar dela aurre-testuingurua, jakiteko zer aposizio mota dagoen ondo (edo tartekia erabili behar den). Bego hurrengorako.

Liburu honetan, SOLUZIOAK apartaduko hainbat unitatetan, adibide katramilatsuak konpontzeko, erabaki beharra izan dugu zein aposizio mota hartu: komunztaduraduna edo komunztadura bakoa. Etsenplu guztiak konpondu ditugu aposizio komunztadura bakoa erabilita, eta begitantzen zaigu, ebatziz gero aposizio komunztaduradun bidez egitea, txarto daudela.

Irakurlea, eman dugula iritzia, zeuk erabaki beharko duzu zer aukera egin ondorengo adibideetan: aposizio komunztadura bakoaren alde edo aposizio komunztaduradunaren alde.

Adibideak konpontzen hasi orduko, irakurleak informazio gehiago gura badu auzi honen gainean, jo beza, batetik, Euskaltzaindiaren araura (*Komunztadura aposizioetan*, 109. araua), *Euskal estilo libururantz* (217.-222. or.) liburura eta *Berria* berri-paperaren estilo-liburura (32.-33. or.); bestetik, *Hizpide* aldizkarira, 59. zenbakira, “Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi” izeneko artikulu jakingarrira (15.-17. or.), Bittor Hidalgok idatzia.

Hona hemen zeintzuk adibide ebatzi behar diren, unitateka emanda. Kontuan hartu, irakurlea, zelako ingurunean dauden erabilita ondorengo adibideak: aurkezpen-testuinguruan.

## *7. UNITATEA*

**Ebazteko ariketa**
7.2.5.
**Eric Cantonaren itxuraldaketa**
Manschester Unitedeko eta Frantziako selekzioko jokalari ohiak, Hong Kongen antolatu den umeentzako futbol mintegi batean irakasle dihardu egunotan.

7. unitatean, besteak beste, ondoko proposamena egin dugu:

– Jokalari ohiak, [Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoA], irakasle dihardu egunotan umeentzako futbol mintegi batean, Hong Kongen antolatua.

Aposizioa *nor* kasuan dago (*Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoA*), nahiz eta aurrekaria *nork* kasuan egon (*Jokalari ohiak*). Beraz, ez dago komunztadurarik atal bien artean. Komunztadura balego, biak *nork* kasuan, txartxat joko genuke:

– Jokalari ohiak, [Manschester Unitedeko eta Frantziako selekziokoA**K***], irakasle dihardu egunotan umeentzako futbol mintegi batean, Hong Kongen antolatua.

## *9. SOLUZIOAK*

**Ebazteko ariketa**
9.3.5.
**GR-121, Gipuzkoako Itzulia** [Liburua]
*GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu duen gida honek.

Liburu osoan azaldu dugunez, erlatiboa eroan behar da erakusle atzera, eta horretarako, proposamen bi ditugu, besteak beste, egitura erlatibo jokatua (*-(e)na…*) eta egitura erlatibo jokatugabea-III (partizipioa + Ø + *-koa…*). Hona hemen soluzioak:

– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu duen**A**].
– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu**A**].

Aposiziook, kortxete artean, ez dute komunztadura egiten subjektuarekin (*GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek). Ebatziz gero komunztadura egitea (*Nork* kasuan deklinatuta), txartzat ematen ditugu:

– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratu duenA**K***].
– *GR 121 La Vuelta a Gipuzkoa a pie* du jatorrizko izenburua gida honek, [Gipuzkoako Mendizale Federazioak osatu eta Txertoa argitaletxeak kaleratuA**K***].

**Ebazteko ariketa**
9.3.8.
**La mentira del silencio** [Filma]
**Ingurukoen kontuen entzulea**. Telebistarako ekoitzitako film honek ez du aparteko interesik. (B, 2006-4-29, 47. or.)

Besteak beste, konpon daitezke erabilita egitura erlatibo jokatugabea-I (partizipioa + -TA/-(R)IK + *-koa…*) eta egitura erlatibo jokatugabea-II (partizipioa + Ø + *-koa…*):

– Film honek, [telebistarako ekoitzitako**A**], ez du aparteko interesik.
– Film honek, [telebistarako ekoitzi**A**], ez du aparteko interesik.

Beraz, soluziootan aposiziook (kortxete artean) ez dute komunztadura egiten subjektuarekin. Aposizioak eginez gero komunztadura bidez (*Nork* kasuan deklinatuta), okertzat jotzen ditugu:

– Film honek, [telebistarako ekoitzitakoA**K***], ez du aparteko interesik.
– Film honek, [telebistarako ekoitziA**K***], ez du aparteko interesik.

**Ebazteko ariketa**
9.3.4.
**Teilatuko lizarra** [Liburua]
Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu Susa argitaletxeak karrikaratu berri duen liburu honek.

Honela konpondu dugu problema, besteak beste:

– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [Susa argitaletxeak karrikaratu berri duenA].

Ikusten dugunez, subjektua eta aposizioa ez daude komunztaduran: lehenengoa *nork* kasuan dago deklinatuta; bigarrena *nor*en. Eta aposizioa ezin daiteke eman *nork* kasuan deklinatuta:

– Koldo Izagirrek 1974tik aitzinera idatzitako kantu hitz guztiak biltzen ditu liburu honek, [Susa argitaletxeak karrikaratu berri duenA**K***].

**Ebazteko ariketa**
9.3.7.
**Ibilbideak Estellerrian** [Liburua]
Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratutako liburuxka honek 20 ibilbide erakusten ditu. (Eg.-munduMira... 2001-12-7, 3. or.)

Hona hemen zelan ebazten ditugun, besteak beste:

– Liburuxka honek, [Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratutako**A**], 20 ibilbide erakusten ditu.
– Liburuxka honek, [Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratu**A**], 20 ibilbide erakusten ditu.

Aposiziook, kortxete artean, ez dute komunztadura egiten subjektuarekin. Aposiziook eginez gero komunztadura bidez (*Nork* kasuan), okertzat ditugu:

– Liburuxka honek, [Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratutakoA**K***], 20 ibilbide erakusten ditu.
– Liburuxka honek, [Lizarrako Turismo Partzuergoak argitaratuA**K***], 20 ibilbide erakusten ditu.

**Ebazteko ariketa**
9.3.14.
1987an giroturiko film honek komunitate itxi baten historia kontatzen digu. (Z, 247. zk., 28. or.)

Ohiko bidez ebazten dugu problema:

– Film honek, [1987an giroturiko**A**], komunitate itxi baten historia kontatzen digu.
– Film honek, [1987an girotu**A**], komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

Baina erabiltzen baditugu komunztaduradun aposizioak (*Nork* kasuan), txartzat jotzen ditugu:

– Film honek, [1987an giroturikoA**K***], komunitate itxi baten historia kontatzen digu.
– Film honek, [1987an girotuA**K***], komunitate itxi baten historia kontatzen digu.

**Ebazteko ariketa**
9.3.15.
Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarritutako film honek ez du askorik balio, (B, 2004-9-25, 55. or.)

Badakigu zeintzuk baliabide erabili behar diren (komunztadura bako aposizioak):

– Film honek, [Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarritutakoA], ez du askorik balio,
– Film honek, [Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarrituA], ez du askorik balio,

Halaber, badakigu zeintzuk baliabide ez diren erabili behar (komunztaduradun aposizioak):

– Film honek, [Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarritutakoa**K***], ez du askorik balio,
– Film honek, [Isaac Asimoven zientzia fikziozko ipuin batean oinarrituA**K***], ez du askorik balio,

Behin eta berriro esan dugu goiko adibide guztietan aposizioek *nor* kasuan egon behar dutela deklinatuta, eta ez *nork* kasuan.

Pasa gaitezen beste unitate edo soluzioetako etsenpluak jorratzera (ez dugu komentariorik egingo, goiko adibideetan legez). Hurrengo adibideetan, lehenengo, erakutsiko dugu zer etsenplu arteztu behar den; bigarren, zer soluzio dagoen egoki erabilita; eta, hirugarren, zer soluzio oker.

### *10. UNITATEA*

**Ebazteko ariketak (10.1. Teoria atalean)**

– [Atzo ikusitaKO] Lorea Lakarrari loteria tokatu zaio
– [Atzo ikusitaKO eta alkate-andrea izaniKO] Lorea Lakarrari loteria tokatu zaio

**Soluzio egokiak**

– Lorea Lakarrari, [atzo ikusitaKOA], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusi eta alkate-andrea izaniKOA], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusiA], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusi eta alkate-andrea izanA], loteria tokatu zaio

**Soluzio okerrak**

– Lorea Lakarrari, [atzo ikusitaKO**ARI***], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusi eta alkate-andrea izaniKO**ARI***], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusi**ARI***], loteria tokatu zaio
– Lorea Lakarrari, [atzo ikusi eta alkate-andrea izan**ARI***], loteria tokatu zaio

**Ebazteko ariketa (10.3. Ariketak)**
Albert Boadellak zuzentzen duen Els Joglars antzerki taldeak *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko du maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**Soluzio egokia**
– Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzentzen dueNA], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko dute maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**Soluzio okerra**
– Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzentzen dueNA**K***], *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko dute maiatzaren 14a arte, Bilbon.

**Ebazteko ariketa (Goiko bera)**
**Soluzio egokia**
– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko dute Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzentzen duen**A**].

**Soluzio okerra**
– Bilbon, maiatzaren 14a arte, *En un lugar de Manhattan* obra antzeztuko dute Els Joglars antzerki taldeak, [Albert Boadellak zuzentzen duen**AK***].

## *11. UNITATEA*

**Ebazteko ariketa (11.3. Ariketak atalaren hasieran)**
– Ibarretxek [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia *den* Maria Angeles Gonzalez Garciarekin] bazkaldu du (3.)

**Soluzio egokia**
– Ibarretxek Maria Angeles Gonzalez Garciarekin**,** [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia dena]**,** bazkaldu du
– Ibarretxek bazkaldu du Maria Angeles Gonzalez Garciarekin**,** [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia dena]

**Soluzio okerra**
– Ibarretxek Maria Angeles Gonzalez Garciarekin**,** [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia den**AREKIN***]**,** bazkaldu du
– Ibarretxek bazkaldu du Maria Angeles Gonzalez Garciarekin**,** [Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko idazkari nagusia den**AREKIN***]

*11. UNITATEA (Soluzioak)*

**Ebazteko ariketa**
11.3.1.
**Elkarrizketa MCCko Jesus Cataniari**
MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari Jesus Cataniari elkarrizketa egingo diote.

**Soluzio egokia**
**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Jesus Cataniari, [MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakariA], elkarrizketa egingo diote.

**Soluzio okerra**
– Jesus Cataniari, [MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari**ARI***], elkarrizketa egingo diote.

**Ebazteko ariketa**
11.3.2.
**Patxi Lopezi elkarrizketa**
PSE-EE alderdiko idazkari nagusi Patxi Lopezek sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

**Soluzio egokia**
**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Patxi Lopezek, [PSE-EE alderdiko idazkari nagusiA], sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

**Soluzio okerra**
– Patxi Lopezek, [PSE-EE alderdiko idazkari nagusi**AK***], sozialistek Estatutuaren erreformarako aurkeztu duten programaz hitz egingo du.

**Ebazteko ariketa**
11.3.4.
**EAJko Iñaki Gerenabarrena**
EAJko Araba Buru Batzarreko presidente Iñaki Gerenabarrenak egungo egoera politikoa aztertuko du.

**Soluzio egokia**
**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Iñaki Gerenabarrenak, [EAJko Araba Buru Batzarreko presidenteA]**,** egungo egoera politikoa aztertuko du.

**Soluzio okerra**
– Iñaki Gerenabarrenak, [EAJko Araba Buru Batzarreko presidente**AK***]**,** egungo egoera politikoa aztertuko du.

**Ebazteko ariketa**
11.3.6.
**Ertzaintzaren protokoloarekin, «zorrotz»**
Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalari Theo Van Bovenek inkomunikazioa «laidogarria» dela eta torturatzeko bidea ematen duela jasotzen duen txostena «kezkatzekoa» dela esan zuen atzo Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek:

**Soluzio egokia**
**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– Theo Van Bovenek**,** [Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalariA]**,** inkomunikazioa «laidogarria» dela eta torturatzeko bidea ematen duela jasotzen duen txostena «kezkatzekoa» dela esan zuen atzo Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek.

**Soluzio okerra**
– Theo Van Bovenek**,** [Nazio Batuen Erakundeko torturari buruzko kontalari**AK***]**,** inkomunikazioa «laidogarria» dela eta torturatzeko bidea ematen duela jasotzen duen txostena «kezkatzekoa» dela esan zuen atzo Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek.

**Ebazteko ariketa**
11.3.8.
**Samiei petrolio eremuetatik dagozkien irabaziak ukatu nahi dizkie Norvegiak**
Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro Dag Terje Andersenek aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.

**Soluzio egokia**
**b-Eskumako aposizio koma artekoa**
– [Dag Terje Andersenek], [Norvegiako Merkataritza eta Industria ministroA], aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.

**Soluzio okerra**
– [Dag Terje Andersenek], [Norvegiako Merkataritza eta Industria ministro**AK***], aste honetan esan du sami-herriak ez duela Barents itsasoko petrolioaren gaineko eskubide berezirik.

**Ebazteko ariketa**
11.3.9.
**NBEk Ekuadorko indigenen eskubideen urratzea salatu du**
Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari berezi Rodolfo Stavenhagenek salatu du

Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela. (B-2006-5-25-23or.)

**Soluzio egokia**

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Rodolfo Stavenhagenek, [Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari bereziA], salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

**Soluzio okerra**

– Rodolfo Stavenhagenek, [Herri Indigenen Giza Eskubideetarako eta Funtsezko Eskubideetarako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari berezi**AK***], salatu du Ekuadorko segurtasun indarrek indigenen kontra egin eta haien eskubideak urratzen dituela.

**Ebazteko ariketa**

11.3.10.

Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo EUDELeko presidente eta Leioako alkate Karmelo Sainz de la Mazak.

**Soluzio egokia**

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo Karmelo Sainz de la Mazak, [EUDELeko presidente eta Leioako alkateA].

**Soluzio okerra**

– Ekimen horrekin «bakerako bidean herritarren parte hartzea bideratu, indartu eta erraztu» egin nahi dela esan zuen atzo Karmelo Sainz de la Mazak, [EUDELeko presidente eta Leioako alkate**AK***].

**Ebazteko ariketa**

11.3.12.

Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile Diego Lopez Garridok baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

**Soluzio egokia**

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Diego Lopez Garridok, [Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile(A)], baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

**Soluzio okerra**

– Diego Lopez Garridok, [Espainiako Kongresuko PSOEren bozeramaile**AK***], baieztatu zuen atzo, PP-PSOE ituneko bileraren aurretik egingo zela bigarren erronda hori.

**Ebazteko ariketa**

11.3.13.

Zentzu horretan, PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru eta diputatu Ualid Jumblattek armadari ordena zaintzeko eskatu zion.

**Soluzio egokia**

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Zentzu horretan, Ualid Jumblattek, [PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru eta diputatu(A)], armadari ordena zaintzeko eskatu zion.

**Soluzio okerra**

– Zentzu horretan, Ualid Jumblattek, [PSP Alderdi Sozialista Aurrerakoiko buru eta diputatu**AK***], armadari ordena zaintzeko eskatu zion.

**Ebazteko ariketa**

11.3.14.

**Keinuetatik eta itxuretatik harago**

Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri den Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak.

**Soluzio egokia**

**d-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, [Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(A) denA].

**Soluzio okerra**

– Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela adierazi berri du Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, [Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(A) denA**K***].

**Ebazteko ariketa** (Aurreko ariketa bera (14), baina beste eskema bat erabilita)

**Soluzio egokia**

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, [Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(A) denA], adierazi berri du Euskal

Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela. (11.soluzioan, 14. ariketa)

**Soluzio okerra**

– Fernando Ruiz de Piñeiro epaile madrildarrak, [Euskal Herriko Epaitegi Nagusiko buru izendatu berri(A) denA**K***], adierazi berri du Euskal Herrian epailea izateko euskara jakin beharrik ez dagoela, baina, zuzenbidea, ostera, jakitea behar-beharrezkoa dela.

**Ebazteko ariketa**

11.3.15.

**Lanaldi murrizketari buruzko eztabaida, 1995-2005** [Liburua]

Soziologian doktore eta UPV/EHUko irakasle den Jose Inazio Imaz Bengoetxeak lan denboraren gaia aztertzen du…

**Soluzio egokia**

**b-Eskumako aposizio koma artekoa**

– Jose Inazio Imaz Bengoetxeak, [Soziologian doktore(A) eta UPV/EHUko irakasle denA], lan denboraren gaia aztertzen du...

**Soluzio okerra**

– Jose Inazio Imaz Bengoetxeak, [Soziologian doktore(A) eta UPV/EHUko irakasle denA**K***], lan denboraren gaia aztertzen du...

***13. UNITATEA (Soluzioak)***

**Ebazteko ariketa**

(A testean, 11. adibidea)

**RACHID RAHA Kazetaria eta antropologoa**

Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Le Monde Amazigh egunkariko kazetari eta antropologo Rachid Rahak hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

**Soluzio egokia**

– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Rachid Rahak, [Le Monde Amazigh egunkariko kazetari(A) eta antropologoA], hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

**Soluzio okerra**

– Sabino Arana fundazioak gonbidatuta, Rachid Rahak, [Le Monde Amazigh egunkariko kazetari(A) eta antropologoA**K***], hitzaldia emango du, gaur iluntzean Bilbon.

**Ebazteko ariketa**
(B testean, 10. adibidea)
**'Europe's living a celebration'**
Hala zioen Espainiak Eurovisionera aurkeztutako abesti jasangaitz batek, eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

**Soluzio egokia**
– Hala zioen abesti jasangaitz batek, [Espainiak Eurovisionera aurkeztuA], eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

**Soluzio okerra**
– Hala zioen abesti jasangaitz batek, [Espainiak Eurovisionera aurkeztuA**K***], eta gaur abiatzeko primeran datorkit.

**Ebazteko ariketa**
(C testean, 8. adibidea)
**ESTAMOS MUERTOS ¿O QUÉ?**
Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat egindako film umoretsu komertzial arrunt samar honek istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

**Soluzio egokiak**
– Film umoretsu komertzial arrunt samar honek, [Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat egindakoA], istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.
– Film umoretsu komertzial arrunt samar honek, [Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat eginA], istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

**Soluzio okerrak**
– Film umoretsu komertzial arrunt samar honek, [Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat egindakoA**K***], istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.
– Film umoretsu komertzial arrunt samar honek, [Goldblattek batik bat ikus-entzule estatubatuarrentzat eginA**K***], istorio fantastiko bat hartzen du abiapuntutzat.

**Ebazteko ariketa**
(D testean, 14. adibidea)

Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria den Bernardo Hernandezek agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete euren bideoklipak plataforman.

**Soluzio egokia**

– Bernardo Hernandezek, [Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria denA], BERAK agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete (euren) bideoklipak plataforman.

Ikusten denez, BERA erakuslea sartu dugu (NORK kasuan deklinatuta). Konponketa hau askok ez dute gogoko izango, eta beste proposamen batzuk ditugu SOLUZIOAKen, dagokion unitate eta zenbakian.

**Soluzio okerra**

– Bernardo Hernandezek, [Googleko Estatu espainoleko eta Portugaleko marketin zuzendaria denA**K***], BERAK agertutakoaren arabera, erabiltzaileek doan eskegi ditzakete (euren) bideoklipak plataforman.

OHARRA

Marapilo gogorra dago askatzeko: adibideotan (beste batzuetan ikusi egin behar testuingurua) erabili dugu aposizio komunztadura bakoa, eta baztertu egin dugu aposizio komunztaduraduna. Aposizioen gainean oraindino asko dago zer sakondu-argitu. Ea hurrengo liburuan gehitxoago sakontzen dugun. Edozein modutan ere, irakurleak sakondu gura badu auzi honetan, badauka artikulu bat guztiz argigarri-jakingarria, gorago ere esana, Bittor Hidalgok idatzia *Hizpide* aldizkarian, 59. zenbakian: “Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi” (15.-16. or.).

# 2. eranskina

***BERONISMOA***

Beronismoa esaten diogu erakusle batzuk modu berezian erabiltzeari, tartekietan erabili ere. Erakusleok horrela erabiltzen ikasi dugu ahoz (batez ere) zein idatziz. Esaterako:

– Urliak esan dit, Arranondoko alkatea BERA
– Urliari, Arranondoko alkatea BERA, loteria tokatu zaio

Ahozko erabilerari buruz, esan genezake, handi-handika esan ere, ez dukegula erabiltzen euskaldun guztiok, azken 25 urteotan-edo: uste dugu ez dela baliatzen iparraldean (beharbada, ezta hegoaldeko Nafarroan ere); giputz euskaran bai, hiztun nagusi eta onek bai behintzat, batez ere BERA erakuslea; eta gehien bizkai euskaran erabiltzen dugu (eta asko dago behera eginda, batez ere gazteetan), eta hemen bizirik dago hiztun zahar onetan behinik behin BERA, BERAU, BERORI eta pluralean EUROK eta EUREK. Idatzizko erabilerari dagokionez, tradizio handiago dute, Axularrek berak ere erabiltzen ditu-eta

Gure ustez, BERA erabiltzen da gehien, azkeneko lekuan erabili ere, baina betiere tartekiaren luze-laburra txikia bada. Goiko adibide biak dira erakusgarri onak. Tarteki txikietan BERAU ere erabiltzen da atzen lekuan, baina batez ere tarteki luzeetan, aurrerengo lekuan kokatuta:

– Urliak esan dit, BERAU Arranondoko alkatea eta alderdi ekologikoko idazkaria.
– Urliari, BERAU Arranondoko alkatea eta alderdi ekologikoko idazkaria, loteria tokatu zaio

BERORI ere hor dago, baina erabilera mota honetan bakarretan erabiltzen da (eta kokatuta tartekiaren hasieran). Halaber, baditugu beste erakusle batzuk: HORI, HAU… Hona hemen zelan irakurri edo entzun ditudan erabiltzen:

– Urliak esan dit, (eta) HAU Arranondoko alkatea eta alderdi ekologikoko idazkaria (da).

Erakusle pluralak ere, jakina, erabiltzen ditugu:

– Urliari eta sandiari, EUROK/EUREK Arranondoko alkatea eta idazkaria hurrenez hurren, loteria tokatu zaie

Tartekia luzea ez bada, EUROK/EUREK erabil daiteke azken lekuan. Erakusle horien ordez, beste euskaldun batzuek, ustez, erabiliko dituzte BERAIEK, HAIEK…

Ikusten dugunez, zer sakondu handia dago erakusle arlo honetan. Guk zer dakigun, hura erakutsi dugu tentuz, eta uste dugu baliabide ona dela ahozkorako zein idatzizkorako. Guk, behinik behin, sustraitu-sustraituta daukagu erabilera hori, ezin alboratzeko moduan.

### *ZEINISMOA*

Zeinismoa esaten diogu erlatibo mota bati, idazle klasikoek erabilia (ahoz ez da erabiltzen, salbu apurra iparraldean). Baliabide bat gehiago da, inork erabili gura badu. Hona hemen adibide batzuk:

– Jon, ZEIN(A) BAITa Arranondoko alkatea, Lehendakaritarako aukeratu dute
– Arranondo, ZEINE(T)AN zoriontsu bizi izan gineN, kostaldean dago

Zeinismoa *zein* galdekarian dago oinarrituta, eta modu bitara erabil daiteke, ikusi dugunez: BAIT- edo -(e)N menderagailua duela lagun. Adibideotan zein galdekaria NOR eta NON kasuetan deklinatu dugu, bitara deklinatu ere, mugagabean edo mugatu singularrean. (Ikus Alberdi, X. eta Sarasola, I. (2001): *Euskal estilo libururantz*, EHU, Bilbo, 208-209).

# Bibliografia


Agirre, J. M. (1991): *Euskal gramatika deskriptiboa*, Labayru, Bilbo.

————, (1994): "Desoreka sintaktikoak"*, Administrazioa Euskaraz*, **6**.

Alarcos, E. (1994): *Gramática de la Lengua Española*, Espasa-Calpe, Madril.

Alberdi, X. eta Sarasola, I. (2001): *Euskal estilo libururantz*, EHU, Bilbo.

Alberdi, X. eta Garcia, J. (1996): "Zein (…) bait-/-n egitura", in I. Zabala (koor.), *Testu-loturarako Baliabideak*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 131-167.

Aletá, E. (1990): *Estudios sobre las oraciones de relativo*, Univ. de Zaragoza, Zaragoza.

Altube, S. (1975): *Erderismos*, Euskaltzaindia, Bermeo.

Altuna, P. (1971): *Euskal aditza: Batua?Baturakoa?*, Mensajero, Bilbo.

Alzo, J. (1961): *Estudio sobre el euskera hablado*, Izarra, Donostia.

Arejita, A. (1983): *Euskal Joskera*, Labayru Ikastegia, Bilbo.

Arejita, A; Etxebarria, J. M.; Irazola, J. M. eta Uriarte, J. (1989): *Bizkaierazko Joskera*, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Administrazioa. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Gasteiz.

Azkarate, M.( 1990): *Hitz elkartuak euskaraz*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.

Azkue, R. (1923-1925): *Morfologia vasca I-III*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

Aznar, E.; Cros, A. eta Quintana, L.(1991): *Coherencia textual y lectura*, ICE/HORSORI, Bartzelona.

Beaugrande, R.eta Wolfgang, D. (1997): *Introducción a la linguistica del texto*, Ariel, Bartzelona.

Berria (2.006): *Estilo Liburua***,** *Berria*, Donostia.

Biguri, K. (1994): "Erdarazko erlatiboen itzulpenaz", *Senez*, **10**, 37-71.

Bosque, I. (1989): *Las categorías gramaticales*, Síntesis, Madril.

Bosque, I. eta Demonte, V. (1999): *Gramática descriptiva de la Lengua Española.* Real Academia Española, Madril.

Bustos, E. (1986): *Pragmática del español. Negación, cuantificación y modo*, UNED, Madril.

Brown, G. eta Yule, G. (1993): *Analisis del discurso*, Visor Libros, Madril.

Calsamiglia, H. eta Tusón, A. (1999): *Las cosas del decir*, Ariel, Bartzelona.

Casado, M. (1993): *Introducción a la gramática del texto del español*, Arcos/Libros, Madril.

Demonte, V. (1991): *Detrás de la palabra. Estudios de gramática del español*, Alianza Universidad, Madril.
Di Tullio, A. (1997): *Manual de gramática del español*, Edicial, Buenos Aires.
*Egunkaria. (2.001): Estilo liburua, Egunkaria, Donostia.*
Escandell, M. (1996): *Introducción a la pragmática*, Ariel, Bartzelona.
Euskaltzaindia (1985): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*, Euskaltzaindia, Iruñea.
————, (1993): *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
————, (1999): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V* (Mendeko Perpausak-I), Euskaltzaindia, Bilbo.
————, (2005):*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V* (Mendeko Perpausak-II), Euskaltzaindia, Bilbo.
Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea ( 2005): "Gramatika Batzordearen irizpena 'galdegaia eta definizio-atribuzioak' kontsultari buruz", *Euskera*.
Fuentes, C. (1996): *Aproximación a la estructura del texto*, Editorial Librería Ágora, Málaga.
Garate, G. (1988): *Erderakadak*, Gero-Mensajero, Bilbo.
Garcia, J. (1996): "Erlatibizazioa testu teknikoetan", *Ekaia*, **5**, 177-193.
————, (1997): *Joskera lantegi*, IVAP-HAEE, Donostia.
Garcia, F. (1998): *Las presuposiciones linguísticas*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
Goenaga, P. (1980): *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
Gutierrez, S. (1989): *Variaciones sobre la atribución*, Colección Contextos, Leon.
————, (1997): *Temas, remas, focos, tópicos y comentarios,* Madril, Arco/ Libros.
Hernanz, M. eta Brucart J. (1987): *La sintaxis*, Editorial Critica, Bartzelona.
Hidalgo, B. (1995): *Hitzen ordena euskaraz*, doktore-tesia.
————, (2002): "Hitzen ordena esaldian", *Senez*, **25**.
————, (2006): "Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi", *Hizpide*, 59.
Irigoyen, A. (1987): *De ere philologica linguae vasconicae*, Bilbo.
————, (1990): *De ere philologica linguae vasconicae*, Bilbo.
Itzultzaile Elkartea. (2004): SENEZ itzulpen aldizkaria, 27. zk.
IVAP (1997): *Argiro: idazteko proposamenak eta ariketak*, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Gasteiz.
————, (2003): *Galdezka. Euskarazko zalantzei erantzunez*, HAEE (Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea), Gasteiz.
––––––––––, (2005): *Estilo Liburua*, HAEE (Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea), Gasteiz.
Jiménez, T. (1986): *Aproximación al estudio de las funciones informativas*, Ágora, Málaga.
Kaltzakorta, M. (1997): "Norbaiten edo zerbaiten berri ematen", *Administrazioa Euskaraz*, **15**, 16-17.

————, (1997): "Erdarazko relatibo esplikatibo mota bat euskaratzen", *Uztaro*.
Makazaga, J. (1999): "-ekiko atzizki konposatuaz", in Odriozola (koord.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan,* EHUko Argitalpen Zerbitzua, Zarautz, 15-53.
Marcos, F.; Satorre, F. eta Viejo, M. (1998): *Gramática española*, Edit. Sintesis. Madril.
Mendizabal, F. (1969): *Euskaldunentzat gramatika euskeraz*, Oñati.
Mitxelena, K. (1981): "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz", *Euskal linguistika eta literatura*: *Bide berriak*, Univ. de Deusto.
Mokoroa, J. (1990): *Ortik eta Emendik*, Labayru Ikastegia, Eusko Jaurlaritza, ETOR, Bilbo.
Moreno, J. (1991): *Curso universitario de linguistica general (I)*, Edit. Sintesis, Madril.
————, (2002): *Curso universitario de linguistica general (II)*, Edit. Sintesis, Madril.
Moeschler, J. eta Reboul, A. (1999): *Diccionario enciclopédico de pragmática*, Arrecife Producciones, Madril.
Nuñez, L. (1993): *Teoría y práctica de la construcción del texto*, Ariel Comunicación, Bartzelona.
Labayru (2001): *Bizkaia euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuak*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
————, (2005): *Bizkaia euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuak*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
Larringan, L. (1998): "Testuaren analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean", in I. Idiazabal eta L. Larringan, *Koherentzia, kohesioa eta konexioa*: *testuratze baliabideak***.** *Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, EHU-Arabako Foru Aldundia, Gasteiz-Vitoria.
————, (2000): "Hizkuntzaren kalitatea", *Ikastaria*, **11**, 65-75.
Larringan, L.; Idiazabal, I. (2005): "Euskararen kalitatea aztertzeko marko teorikoa eta metodologikoa", *Ikastaria*, **14**, 9-29.
Leoneti, M. (1990): *El artículo y la referencia*, Taurus Universitaria, Madril.
López, A. (1994): *Gramática del español (I),* Arcos Libros.
————, (1996): *Gramática del español (I),* Arcos Libros.
Osa, E. (1990): *Euskararen hitzordena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Erandio.
Omaechevarria, I. (1959): *Euskera. Uno poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, Ed. Icharopena, Zarautz.
Peña, X. (1963): *Euskal-irakasbide laburra*, Estudios Grafor, Bilbo.
Portolés, J. (2004): *Pragmática para hispanistas*, Edit. Sintesis, Madril.
Reyes, G. (1990): *La pragmática linguistica. El estudio del uso del lenguaje*, Bartzelona, Montesinos.
Rubio, J. (2002): *Euskararen garabideak*, Alberdania, Donostia.

Rodríguez, T. (2005): *Manual de Sintaxis del Español*, Castalia Universidad, Madril.
Sainz, M. (2001): *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika*, Erein, Donostia.
Sarasola, I. (1997): *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, Donostia.
Simone, R. (1993): *Fundamentos de Linguística*, Ariel Linguística, Bartzelona.
Txillardegi (1978): *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas, Bilbo.
————, (1977): *Oinarri bila*, Donostia, Alvarez-Lorea, Donostia.
Umandi ( 1955): *Gramática vasca*.
Van Dijk, T. (1980): *Estructuras y funciones del discurso*, 7a. Edición. Siglo XXI editores, Mexico.
Villasante, L.(1975): *Hitzaurre gisa*, In S. Altube, *Erderismos*, Euskaltzaindia, Bermeo.
————, (1980): *Sintaxis de la Oración Simple*, EFA. Serie Eleizalde, Oñati.
————, (1976): *Sintaxis de la Oración Compuesta*, Edit. Franciscana, Arantzazu, Oñati.
————, (1978): *Estudios de Sintaxis Vasca*, Edit. Franciscana, Arantzazu, Oñati.
Zabala, I. (2.000): *Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan*, *Ekaia*, **12**.
Zamarripa, P. (1950): *Gramática vasca*, Verdes, Bilbo.
Zuazo, K. (2000): *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania, Donostia.
Zubimendi, J. eta Esnal, P. (1993): *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.
Zubiri, I. eta Zubiri, E. (1995): *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, Bilbo.

***Adibideetarako idazleak***

Axular, P. (1976): *Gero*, Jakin, Oñati.
Alzola, N. (1994): *Irunen Barrena*, Luma liburuak, Zarautz.
Alkain, I. (1982): *Gerrako ibilerak (I)(II)(III)*, Auspoa, Oiartzun.
Bilbao, J. (1997): *Hau mundu arrano hau*, Susa, Donostia.
Erauskin, J. (1975): *Aien garaia*, Auspoa, Oiartzun.
Etxaniz, N. (2000): *Lan Hautatuak*, Hiria, Donostia.
Gorostiza, J. eta Arejita, A. (1981): *Idazketa ariketak*, Labayru, Bilbo.
Mogel, J. (1981): *Peru Abarka*, Edit. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
Mogel, B. (1991): *Ipuin onak*, Euskal Idazleen Elkartea, Donostia.
Zubikarai, A. (1992): *Sits eta bits*, Bilbo.

## Hizkuntzalaritza Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

*Zenbait apunte Laudioko euskaraz*
Natxo Urkijo
1994an argitaratua
ISBN: 84-86967-59-7

*Eskaldunak (1. zatia)*
Patxi Altuna, Gurutze Aldabaldetreku eta Amaia Boneta
1994an argitaratua
ISBN: 84-86967-61-9

*Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*
Eneko Barrutia Etxebarria
1996an argitaratua
ISBN: 84-86967-76-7

*Nafarroako hizkerak*
Iñaki Camino (arg.)
1998an argitaratua
ISBN: 84-86967-92-9

*Txillardegi lagun-giroan*
Txipi Ormaetxea (arg.)
2000an argitaratua
ISBN: 84-8438-007-6

*Morfologia konputazionala*
Iñaki Alegria, Miriam Urkia
2002an argitaratua
ISBN: 84-8438-034-3

*Euskal deiturategia: Patronimia*
Patxi Salaberri Zaratiegi
2003an argitaratua
ISBN: 84-8438-039-4

*Hizkuntzalaritza konputazionala*
Izaskun Aldezabal eta beste
2005ean argitaratua
ISBN: 84-8438-065-3

*Ikus-entzunezko itzulpena*

Josu Barambones Zubiria eta Beatriz Zabalondo Loidi
2006an argitaratua
ISBN: 84-8438-084-X

*Hizkuntzari itzulia 80 hizkuntzatan*

Beatriz Fernández, Jon Ortiz de Urbina
2007an argitaratua
ISBN: 978-84-8438-094-8

# Hizkuntzalaritza Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Artikulua eta bokal paragogikoa Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketatik abiatuta
Allika Azpeitia, Irune, *Uztaro* **56**, 53-84.

Euskara batuaren geroa
Alvarez, Jose Luis "Txillardegi", *Uztaro* **11**, 47-54.

Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan
Artiagoitia, Xabier, *Uztaro* **27**, 33-61.

Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa
Aurrekoetxea, Gotzon, *Uztaro* **5**, 59-109.

Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak
Aurrekoetxea, Gotzon, *Uztaro* **23**, 87-94.

Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)
Aurrekoetxea, Gotzon, *Uztaro* **50**, 45-57.

Latinetik hizkuntza erromanikoetara: euskararen hurbileko erromantzeak
Barquín, Amelia, *Uztaro* **35**, 33-70.

Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan
Barreña, Andoni, *Uztaro* **12**, 67-88.

Jabekuntza elebiduna eta kode-bereizketa: subjektu eta objektu markak
Barreña, Andoni; Almgren, Margareta, *Uztaro* **29**, 61-94.

Haurrak, egitura txertatuen jabekuntza eta mintzaide helduen eragina
Barreña, Andoni, *Uztaro* **32**, 17-33.

Euskararen garapena lehen hizkuntza legez eta morfologiaren agerrera mailakatuaren inguruan
Barreña, A.; Garcia, I.; Arratibel, N.; Eizabarrena, M.J.; Almgren, M.; Petuya, A. eta Volina, A., *Uztaro* **60**, 67-87.

Inarra txarragaz, baztarrak lohi: internazionaizatu gabeko produktu informatikoak lokalizatzearen arazoak
Bernaola, Itziar; Moales, Ana Isabel; Payros, Irune, *Uztaro* **51**, 45-62.

Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala disziplinarteko alorra?
Cabré, M. Teresa, (itzul. Axun Aierbe), *Uztaro* **40**, 63-74.

Ezezko nominalizazioak bizkaieraz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **0**, 85-97.

Tonuarekin lotutako ulermen mailako testa
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **3**, 97-108.

Bizkaiko azentu-motei buruz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **7**, 111-140.

Bermeoko azentu-ereduaz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **8**, 105-117.

Gatika eta Urdulizko azentu-ereduaz (I)
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **11**, 55-88.

Gatika eta Urdulizko azentu-ereduaz (II)
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **12**, 89-110.

Zubereraren azentuaz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **13**, 107-128.

Esteribarko euskararen azentuaz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **16**, 109-123.

Zumaiako azentuaz eta intonazioaz
Gaminde, Iñaki; Hazas, Almike, *Uztaro* **24**, 59-76.

Etxeko azentua eta eskolako azentua: azentuera biren azterketa
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **28**, 89-98.

Muskildiko galderen intonazioaz
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **35**, 71-87

EIntonazioaren ezaugarriak emozioen pertzepzioan lau hizkuntzatan
Gaminde, Iñaki, *Uztaro* **61**, 63-84.

Ezpeleta, Lekorne eta Makeako azentu-ereduez
Gaminde, Iñaki; Salaberria, Jasone, *Uztaro* **20**, 93-103.

"Galdegai" bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez
Hidalgo Eizagirre, VIctor, *Uztaro* **33**, 43-85.

Informazio unitate baten tamainako esaldi laburraren ordenamendu eta informazio--egituraren aukerak eta eraginak
Hidalgo Eizagirre, VIctor, *Uztaro* **34**, 39-85.

-(en)... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)
Hidalgo Eizagirre, VIctor, *Uztaro* **42**, 17-83.

Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriz
Hualde, Jose Ignacio, *Uztaro* **18**, 49-60.

Alfabeto latinoz idazten ez diren hizkuntzen transkripzioa eta transliterazioa
Irazabalbeitia, Iñaki, *Uztaro* **14**, 61-88.

Telesforo Monzon-en olerkia
Jaio, Enrike, *Uztaro* **4**, 103-114.

Erdarazko relatibo esplikatibo mota bat euskaratzen
Kaltzakortza Mentxaka , Mitxel, *Uztaro* **22**, 59-67.

"Topiko(a) bihurtu" dela-eta
Kaltzakortza Mentxaka , Mitxel, *Uztaro* **25**, 111-124.

*Bila*-ren erabil-eremua
Kaltzakortza Mentxaka , Mitxel, *Uztaro* **29**, 51-59.

Galdegai-lekua testu-hastapenetan (I) (*Horrela bizi bagina beti* liburuan)
Kaltzakortza Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **45**, 71-89.

Galdegai-lekua testu-hastapenetan (eta II) (*Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira* liburuan)
Kaltzakortza Mentxaka, Mitxel, *Uztaro* **46**, 41-59.

Ná-De-Ná
Lakarra, Joseba, *Uztaro* **31**, 15-84.

Arrasateko toponimia (edo izen-izanaren sintonia)
Ormaetxea, Jose Luis, *Uztaro* **8**, 93-103.

Bokal-elkarketak beratarren hizkeran
Perez Landa, Edurne, *Uztaro* , 49-64.

Terminologia eta itzulpengintza
Sager, Juan Carlos, (itzul. Axun Aierbe), *Uztaro* **43**, 53-66.

Munduko hizkuntzen izenak euskaraz
Uranga, Belen; Juaristi, Patxi; Idiazabal, Itziar; Barreña, Andoni; Amorrortu, Estibalitz, *Uztaro* **54**, 29-59.

Hizkuntza orokorra-xede berezietarako hizkerak *Hiztegi Batua*ren zeregina
Urrutia, Ander, *Uztaro* **55**, 49-60.

Euskara Araban
Zuazo, Koldo, *Uztaro* **21**, 79-95.